



| NAFARROAKO EKONOMIA |

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa

ISBN: 978-84-125750-0-2

1. LABURPEN EXEKUTIBOA	15
2. ESPARRU OROKORRA	15
1. COVID-19AREN ERAGINA.....	16
2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)	26
2.1. NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	26
2.2. ESPAINIAKO EKONOMIA	35
3. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA	45
4. IKUSPEGI OROKORRA	51
4.1. PRODUKZIOA.....	53
4.2. ESKARIA	55
4.3. PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	58
4.4. LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA	60
4.5. FINANTZA-SEKTOREA.....	65
5. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA	84
5.1. JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK	84
5.2. INBERTSIOA-FINANTZAKETA.....	85
5.3. ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK.....	87
5.4. ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA	88
5.5. NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA.....	89
5.6. ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK.....	90
3. INDUSTRIA	92
1. IKUSPEGI OROKORRA	93
1.1. JARDUERAREN BILAKAERA	93
1.2. ENPRESAK ETA ENPLEGUA.....	95
2. INDUSTRIA EGITURA.....	96
2.1. JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIAK IDENTIFIKATZEA.....	96
2.2. ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA	100
2.3. ENPRESA NAGUSIAK.....	102
3. SIDERURGIA.....	104
3.1. IKUSPEGI OROKORRA.....	104
3.2. ESPAINIAKO ETA NAFARROAKO SIDERURGIA	107
4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA.....	112
4.1. NAZIOARTEKO EGOERA.....	112
4.2. SEKTOREA ESPAINIAN	113
4.3. SEKTOREA NAFARROAN	115
5. AUTOMOBILGINTZA.....	120
5.1. NAZIOARTEKO EGOERA.....	121
5.2. SEKTOREA ESPAINIAN	124
5.3. SEKTOREA NAFARROAN	132
6. PAPERA	136
6.1. NAZIOARTEKO EGOERA.....	136
6.2. SEKTOREA ESPAINIAN	138
6.3. SEKTOREA NAFARROAN	141
7. ERAIKUNTZA	143

8. NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA.....	149
8.1. SARRERA.....	149
8.2. BILAKAERA OROKORRA.....	149
8.3. SEKTORE EKONOMIKOAK.....	152
8.4. SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK.....	154
4. LEHEN SEKTOREA.....	156
1. IKUSPEGI OROKORRA	157
1.1. BILAKAERA ESTATU MAILAN	157
2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA	164
2.1. EKOIZPENAK ETA AZALERAK	165
2.2. NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA.....	173
2.3. NEKAZARITZA-MAKINETAKO INBERTSIOA.....	175
3. ABELTZAINZA-AZPISEKTOREA.....	176
3.1. ABELTZAINZA-ERROLDA.....	177
3.2. ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK.....	179
3.3. ABERE-PRODUKTUEN PREZIOAK.....	185
5. ZERBITZUAK.....	187
1. IKUSPEGI OROKORRA	188
2. HEZKUNTZA	189
2.1. UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA.....	189
2.2. UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA	193
3. GARRAIOA.....	196
3.1. ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA	196
3.2. AIRE BIDEZKO GARRAIOA	200
4. TURISMOA.....	202
4.1. NAZIOARTEKO EGOERA.....	203
4.2. TURISMOA ESPAINIAN	204
4.3. TURISMOA NAFARROAN.....	211

Koadroen aurkibidea

1. koadroa	BPGaren eta enpleguaren bilakaera.....	16
2. koadroa	Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta erregistratutako kontratazioaren bilakaera.....	16
3. koadroa	Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregimenaren arabera.....	18
4. koadroa	Afiliazioaren banaketa, jarduera arloen arabera. Nafarroa.....	20
5. koadroa	Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera.....	21
6. koadroa	Egindako ekonomia-aurreikuspenak. 2022ko urtarrila-otsaila.....	25
7. koadroa	Barne Produktu Gordinaren bilakaera.....	26
8. koadroa	Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera.....	27
9. koadroa	Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak.....	28
10. koadroa	Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera.....	29
11. koadroa	Langabezia-tasa.....	29
12. koadroa	Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera).....	30
13. koadroa	Adierazle nagusiak (EB).....	31
14. koadroa	Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna).....	32
15. koadroa	Europar Batasuneko <i>per capita</i> BPGa (PPS) 2021.....	33
16. koadroa	Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak).....	34
17. koadroa	Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza).....	37
18. koadroa	Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta).....	37
19. koadroa	Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI).....	39
20. koadroa	Errenten eta soldata-kostuen adierazleak.....	40
21. koadroa	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak.....	41
22. koadroa	Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera Urteko batezbestekoak.....	42
23. koadroa	Defizit publikoa.....	43
24. koadroa	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2022).....	44
25. koadroa	ekoizpen-egitura (BEGaren sektore-osaera), 1960-2021.....	45
26. koadroa	Okupazio-egitura (enpleguaren sektore-osaera), 1960-2021.....	45
27. koadroa	Nafarroaren parte-hartzea Espainia osoan, 2021.....	46
28. koadroa	Balio erantsi gordina Nafarroako biztanle bakoitzeko.....	47
29. koadroa	Bilakaera orokorra.....	51
30. koadroa	Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera.....	53
31. koadroa	Industria Sektoreko Adierazleak.....	54
32. koadroa	Eraikuntza Sektoreko Adierazleak.....	54
33. koadroa	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak.....	55
34. koadroa	Barne eskaerako adierazleak.....	55
35. koadroa	Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak.....	56
36. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan.....	56
37. koadroa	Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera.....	57
38. koadroa	Prezioen bilakaera Nafarroan.....	58
39. koadroa	Soldata-adierazleak.....	59
40. koadroa	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia.....	61
41. koadroa	Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak.....	62
42. koadroa	Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak.....	62
43. koadroa	SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak.....	63
44. koadroa	Hitzarmen kolektiboak eta grebak.....	63
45. koadroa	Biztanleriaren mugimendu naturala.....	64
46. koadroa	Nafarroako migrazio-saldoak, adinaren arabera (autonomia artekoak).....	65
47. koadroa	Burtsa-indize nagusien bilakaera.....	67
48. koadroa	Kreditu-erakundeak eta EFC.....	67
49. koadroa	Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua.....	68
50. koadroa	Afiliazioa finantza-jardueretan.....	68

51. koadroa	Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera.....	69
52. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera.....	70
53. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	71
54. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	71
55. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera.....	73
56. koadroa	Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa.....	74
57. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak.....	75
58. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	76
59. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	77
60. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	78
61. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera.....	79
62. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	80
63. koadroa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailuak.....	80
64. koadroa	Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia.....	81
65. koadroa	Kreditu-erakundeak. Familietarako ⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR) ⁽¹⁾	83
66. koadroa	Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia.....	84
67. koadroa	Nafarroako enpresen balantze erantsia.....	87
68. koadroa	Nafarroako enpresen errentagarritasuna.....	87
69. koadroa	Enpleguaren produktibitatea.....	88
70. koadroa	Emaitzen kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko).....	90
71. koadroa	Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera.....	93
72. koadroa	Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera.....	94
73. koadroa	Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera.....	94
74. koadroa	Industria-sektorean langile eta enpresa kopuruak izandako bilakaera.....	95
75. koadroa	Nafarroako industria-sektoreak sortutako enplegua eta diru-sarrerak, jarduera-azpisektoreen arabera, 2020.....	97
76. koadroa	Jarduera-adar desberdinek industriako enpleguaren eta diru-sareren guztizkoan duten partaidetza, 2020.....	98
77. koadroa	Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera, 2021.....	101
78. koadroa	Nafarroako industria-enpresa nagusiak, 2021.....	103
79. koadroa	Altzairu gordinaren ekoizpena.....	105
80. koadroa	Siderurgia-produktuen kontsumoa.....	107
81. koadroa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*.....	107
82. koadroa	Inportatutako lehengaiak.....	109
83. koadroa	Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera.....	112
84. koadroa	Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	113
85. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria, 2021.....	115
86. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak, 2021.....	116
87. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera.....	116
88. koadroa	Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	117
89. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan.....	117
90. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 5 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua.....	118

91. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako laginaren errentagarritasuna	119
92. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena Herrialde nagusiak	122
93. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak	124
94. koadroa	Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza.....	126
95. koadroa	Turismoen matrikulazioa marken arabera	127
96. koadroa	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak.....	128
97. koadroa	Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak).....	129
98. koadroa	Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak.....	130
99. koadroa	Nafarroako enpresa aktiboak, jarduera nagusia automobilgintza dutenak, 2021	132
100. koadroa	Nafarroako enpresa aktiboak, 2021ean jarduera nagusia automobilgintza dutenak, enplegu-estratuaren arabera.	132
101. koadroa	Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2021.....	133
102. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Automobilak, piezak eta osagarriak*.....	134
103. koadroa	Volkswagen Navarra SA enpresaren jarduera-magnitude nagusiak.....	134
104. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak).....	136
105. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka.....	137
106. koadroa	Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera.....	138
107. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.....	139
108. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera.....	140
109. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera	140
110. koadroa	Paperaren eta orearen ekoizpena Nafarroan (*).....	141
111. koadroa	Paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan	142
112. koadroa	Nafarroako paperaren sektoreko enpresa nagusiak.....	142
113. koadroa	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera.....	144
114. koadroa	Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa.....	145
115. koadroa	Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2021).....	146
116. koadroa	Hasitako eta amaitutako etxebizitzak.....	147
117. koadroa	Eraikuntzan lanean ari den biztanleria.....	148
118. koadroa	Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2015-2021 konparazioa.....	153
119. koadroa	Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2015-2021 konparazioa	155
120. koadroa	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak	159
121. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa.....	162
122. koadroa	Enplegua lehen sektorean*	163
123. koadroa	Lur landuen erabilera.....	165
124. koadroa	Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak	168
125. koadroa	Zereal-aleen azalera eta ekoizpena.....	168
126. koadroa	Lekaleen azalera eta ekoizpena.....	169
127. koadroa	Tuberkuluen azalera eta ekoizpena	169
128. koadroa	Industria-laboreen azalera eta ekoizpena	170
129. koadroa	Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena.....	170
130. koadroa	Barazkien azalera eta ekoizpena.....	171
131. koadroa	Labore zurkaren azalera eta ekoizpena.....	173
132. koadroa	Nekazaritzako produktu nagusien prezio eta balio guztizkoak	174
133. koadroa	Nafarroan erregistratutako nekazaritzako makineriaren balorazioa.....	175
134. koadroa	Abeltzaintza-errola (urte bakoitzeko azaroan)	178
135. koadroa	Esne-ekoizpena	179
136. koadroa	Esnetarako behien eta ardien ustiatzearen batezbesteko emaitza ekonomikoak	180
137. koadroa	Haragitarako behien eta ardien ustiatzearen batezbesteko emaitza ekonomikoak	182
138. koadroa	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiatzearen emaitzak.....	183

139. koadroa	Nafarroan hildako azientaren kanaleko pisua	184
140. koadroa	Animalia-produktuen prezioak Urteko batezbestekoak.....	186
141. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.....	189
142. koadroa	Euskalduntze maila Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.....	190
143. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Heziketa-zikloak eta Batxilergoa.....	191
144. koadroa	Euskalduntze maila Heziketa-zikloak eta Batxilergoa	191
145. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean.....	193
146. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA).....	194
147. koadroa	Nafarroako ibilgailuen parkea	196
148. koadroa	Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia (*).....	197
149. koadroa	Motorizazio-indizeak.....	197
150. koadroa	Autobideko ibilgailuen trafikoa Nafarroan*	198
151. koadroa	Garraiatutako merkantziak. Jatorri eta/edo helmugako eskualde barruko garraioa eta eskualde kanpoko garraioa*	198
152. koadroa	Iruñeko aireportuko aire bidezko trafikoa.....	200
153. koadroa	Iruñeko aireportuko aire bidezko trafikoa jatorriaren arabera	201
154. koadroa	Nazioarteko turistak	203
155. koadroa	Espainiara datozen bidaiariak, jatorriaren arabera.....	205
156. koadroa	Eskari turistikoaren bilakaera Espainian.....	207
157. koadroa	Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)	209
158. koadroa	Eskaintza turistikoaren bilakaera Espainian	209
159. koadroa	Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa)	210
160. koadroa	Eskari turistikoaren bilakaera Nafarroan.....	213
161. koadroa	Hotel-establezimenduak. Jasotako bidaiariak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia (Nafarroa 2021). Jatorriaren arabera	214
162. koadroa	Eskaintza turistikoa Establezimendu kopurua, plazak, okupazio maila eta langile kopurua. 2019-2021	216
163. koadroa	Eguneko batez besteko tarifa (ADR) eta Logelako diru-sarrerak (RevPAR). Hotelen sektorea Euroak	218

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa	Afiliazioa (Gizarte Segurantza) eta erregistratutako kontratuak. Hileko bilakaera.....	17
2. grafikoa	Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. Nafarroa.....	21
3. grafikoa	Enpresa-konfiantzaren indizea. Nafarroa.....	22
4. grafikoa	Kontsumitzaileen konfiantza-indizea. Nafarroa.....	23
5. grafikoa	BPGaren bilakaera. Nafarroa.....	24
6. grafikoa	BPGaren bilakaera eta aurreikuspenak. Nafarroa.....	24
7. grafikoa	Interes-tasen aldakuntza.....	30
8. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	43
9. grafikoa	BPGaren bilakaera.....	52
10. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*.....	66
11. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	72
12. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera.....	73
13. grafikoa	Euriborraren bilakaera (urtebetera).....	82
14. grafikoa	Nafarroako enpresen errentagarritasuna.....	88
15. grafikoa	Jarduera-azpisektore desberdinek Nafarroako industriako enpleguaren eta diru-sarreraren gutzitza duten partaidetza, 2020.....	99
16. grafikoa	Altzairuaren mundu mailako ekoizpena.....	106
17. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	108
18. grafikoa	Metalurgiaren eta produktu metalikoen industria-ekoizpenaren indizea.....	111
19. grafikoa	Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian.....	139
20. grafikoa	Eraikuntza-enpresen konfiantza-indize harmonizatua.....	145
21. grafikoa	Enpresa kopuruaren bilakaera.....	150
22. grafikoa	Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza.....	151
23. grafikoa	Pisuaren bilakaera Estatuko gutzitzaerakiko (Estatua=100).....	151
24. grafikoa	Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2015=100).....	152
25. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2015=100).....	154
26. grafikoa	Nekazaritzako ekoizleek jasotako prezioen indizeak.....	160
27. grafikoa	Ehuneko araberako banaketa nekazaritzako ekoizpen nagusietan, 2021.....	166
28. grafikoa	Nafarroako abere-azienden ehuneko bilakaera.....	178
29. grafikoa	Nafarroako abere-ekoizpena (kanaleko pisua).....	185
30. grafikoa	Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Nafarroan.....	192
31. grafikoa	Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2019-2021) Hotel-establezimenduak.....	206
32. grafikoa	Bidaiarien eta gaualdien bilakaera, 2019-2021.....	212
33. grafikoa	Bidaiari kopuruaren eta gaualdien bilakaera, hilabeteka (Nafarroa, 2019-2021).....	215



1.LABURPEN EXEKUTIBOA



URTEKO LABURPENA

2021a suspertzeko urtea izan da, osasun-krisiak eta horri aurre egiteko neurriek izan dituzten eraginen ondoren. Hala ere, konfinamendua, 2020ko enpresa-itxierak eta zerbitzuen sektoreko murrizketak erdiraino luzatu dira, eta ekonomia globala erasan dute. Kontsumo-patroiaren norabidea aldatu egin da: ondasunetarantz jo du eta gehiegizko eskaria ekarri du. Horri pandemiak munduan izan duen bilakaera asinkronikoa gehitu zaio, eta, ondorioz, hornidura-kateak oztopatu eta prezioak garestitu egin dira. Hala, inflazioa aspaldian ikusi ez ditugun tasetara igo da.

Horren guztiaren ondorioz, atzeratu egin da denok espero genuen susperraldia. Espainiako ekonomian, adibidez, COVID-19ak bereziki gogor jo zuenez, hazkundera nabarmen atzeratu da, garatutako herrialde nagusiekin alderatuta.


Gure erreferentziako eremu geografikora etorritz, hauek nabarmendu daitezke:

- 2021ean, Nafarroako Foru Erkidegoko BPGd-ak % 5,9 egin du gora, Estatukoak baino zertxobait gehiago, hori % 5,1 hazi baita.
- Lan-merkatuko magnitude nagusiek 2021ean izan duten bilakaera bat dator aipatutako BPGd-aren datuekin: hazkunde-tasa % 1,9koa izan da Nafarroako Foru Erkidegoan eta % 3koa Estatuan.
- Era berean, eraginik handiena duen magnitudea, hau da, langabezia-tasa, % 10,6koa da Nafarroako Foru Erkidegoan —5 hamarren bakarrik igo da 2020koarekin alderatuta—. Espainian, berriz, % 14,8koa izan da, 2020tik 7 hamarren jaitsi ostean.
- Eskaintzaren ikuspegitik, lehen sektorea eta eraikuntza izan ezik Estatuan, azpimarratzekoa da sektore guztiek balio erantsi gordinaren hazkunde-erregistro positiboak dituztela aztertutako bi eremu geografikoetan.
- Prezioetan, batez besteko hazkunde-tasa % 3,4koa izan da Nafarroako Foru Erkidegoan, eta % 3,1koa Estatuan. Dena den, bada aipatu beharreko datu bat: urteko batez besteko zifraren atzean, inflazioak epe horretan izan duen goranzko joera ezkututzen da. Estatuan, % 0 inguruko urteko tasekin hasi da urtea, eta % 6,5eko urtetik urterako tasarekin amaitu.



BPGd-aren bilakaera	2019	2020	2021
			(%-tan)
Estatu Batuak	2,3	-3,4	5,7
Japonia	-0,2	-4,5	1,7
Alemania	1,1	-4,9	2,9
Frantzia	1,9	-7,9	6,8
Italia	0,5	-9,1	6,6
Erresuma Batua	1,7	-9,3	7,4
Kanada	1,9	-5,2	4,5
Eurogunea	1,6	-6,5	5,3
ELGA guztira	1,7	-4,6	5,5

Iturria: ELGA. Aurreikuspen ekonomikoak, 2022ko ekaina



Iturria: EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua

BPGd-aren bilakaera sektoreka	2019	2020	2021
			(%-tan)
NAFARROA			
- Nekazaritza	1,0	-2,2	2,1
- Industria	2,2	-9,5	6,5
- Eraikuntza	3,4	-7,6	4,3
- Zerbitzuak	2,9	-7,9	6,1
Guztira	2,7	-8,3	5,9
ESTATUA			
- Nekazaritza	-2,5	4,3	-3,7
- Industria	1,4	-10,1	5,2
- Eraikuntza	5,3	-11,3	-3,4
- Zerbitzuak	2,3	-11,5	6,0
Guztira	2,1	-10,8	5,1

Iturria: EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua

Enpleguaren bilakaera sektoreka (milaka pertsona)				
NAFARROA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2020	9,4	75,7	15,6	177,8
2021	8,4	78,8	18,4	177,9
ESTATUA				
2020	765,3	2.698,2	1.244,1	14.494,8
2021	802,7	2.700,1	1.291,5	14.979,3

Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko biztanleria-oinarria)

Nazioarteko hazkundea

2020ko ekitaldiaren ezaugarri nagusia pandemiaren inpaktu historikoa izan zen, munduko ekonomia % 3,1 uzkurto baitzen urte hartan. Ondoren, 2021ean, jarduerak indarra hartu du berriro, eta hazkunde orokorra % 6,1ekoa izan da. COVID-19aren omikron aldaerak, ekitaldi horren amaieran sortuak, inpaktu txikia izan du. Hala ere, kontuan hartu behar da osasun- eta ekonomia-krisiak ez direla oraindik behin betiko konpondu munduan, eta, gainera, 2022an susperraldirako beste mehatxu batzuk sortu direla, pandemian zehar ekonomia astintzen ari diren eskaintza-shockez gain.

BPGd-aren bilakaera (Estatua)

Ekonomiaren susperraldi-egoera horretan, Estatuko BPGd-ak % 5,1 egin du gora 2021ean —aurreko ekitaldian % 10,8ko beherakada historikoa izan ondoren—; hala, berriro ekin dio 2014. urtean hasitako hedapen-bideari, 2020an pandemiaren ondorioz eten zenari, hain zuzen.

Lan-merkatuari dagokionez, % 3 handitu da Estatuko biztanle okupatuaren kopurua 2021ean (% 2,9 jaitsi zen aurreko ekitaldian), eta enpleguaren gorakada orokorra izan da lau sektore nagusietan.

Sektorekako bilakaera (Nafarroa eta Estatu)

Era berean, Nafarroako ekonomiak ere hazkundeari ekin dio berriro 2021ean, eta BPGd-a % 5,9 hazi da, 2020ko ekitaldian % 8,3 txikitu ondoren. Hemen ere, lau sektore ekonomiko nagusietan egin du gora.

Estatuko gainerako erkidegoekin alderatuta, lau sektore handiek portaera hobea izan dute Nafarroako Foru Erkidegoan. Horietatik; zerbitzuen sektoreak izan ditu alderik txikienak.

Lan-merkatua (Nafarroa eta Estatu)

Guztiarekin ere, Nafarroako langabezia-tasa gora egin du apur bat, % 10,1etik (2020an) % 10,6ra (2021ean). Alabaina, biztanle okupatuaren kopuruak ere gora egin du: 283,6 milakoa da.

Estatuan, langabezia-tasa jaitsi egin da, 2020ko % 15,5etik 2021eko % 14,8ra.




Nafarroako ekonomia susperraldi ekonomikoa berresten ari da hiruhilekorik hiruhileko. 2021eko ekitaldiaren amaieran, BPGd-aren urtetik urterako hazkundera % 5,9koa izan da, baina ez da iritsi 2019ko mailetara.


2023rako eta 2024rako aurreikuspenak beherantz berrikusi dira, tentsio inflazionisten eta ezegonkortasun geopolitikoaren (Ukrainako gerraren) ondorioz, eta bat datoz interes-tasen igoerari buruzko iragarpenekin; izan ere, azken urteotan, zero ingurukoak edo negatiboak izan dira interes-tasak.

2021ean jarduera pixkanaka suspertzen ari dela erakusten dute sektore-adierazleak: lehen hiruhilekoa egonkorra izan da —2020ko lehen hiruhilekoa ia normala izan zen—; bigarren hiruhilekoan, gorakada izan da —2020ko bigarren hiruhilekoan, alarma-egoera betean geunden—; hirugarren hiruhilekoak argi-ilonak izan ditu, ondoz ondoko kutsatze-olatuak baldintzatuta, eta laugarren hiruhilekoak hobera egin du. Dena den, 2022aren hasieran hondatu egin da apur bat.

Gizarte Segurantzako afiliazioak nabarmen handitu da 2021ean, eta pandemia aurreko mailara iritsi da; Nafarroan eta Estatuan, maximo historikoak lortu dira. Kontratu berrien erritmoa berreskuratu egin da, baina 2019an sinatu zirenen kopurura iritsi gabe. Seguru asko, kopuru horiek ez dira berriro lortuko, duela gutxiko lan-erreformaren ondorioz, aldi baterako kontratazioa mugatu eta kontratazio mugagabea bultzatzen baitu.



Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta. **Iturria:** Hiruhilerako kontu ekonomikoak. Nafarroako Estadistika Institutua




Oharra: Industria Ekoizpenaren Indizeari, Zerbitzuen Indize Koiunturalari eta Txikizkako Merkataritzaren Indizeari dagozkien adierazleak. Egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta. **Iturria:** Nafarroako Estadistika Institutua

Afiliazioaren eta erregistratutako kontratu berrien bilakaera


(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Afiliazioa




Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE

Kontratuak



Kontsumitzaileen konfiantza-indizea. Nafarroa

(Hiruhileko bilakaeraren indizea)




Oharra: honela interpretatu ditugu eskuratutako datuak: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek. **Iturria:** Nafarroako Estadistika Institutua

Nafarroako familien konfiantzak nolabaiteko hobekuntza (ez hain negatiboa) islatzen du pandemia ostean, baina baita ekonomia orokorraren ezegonkortasunari eta, batez ere, prezioei buruz duten kezka ere. Hain zuzen, faktore erabakigarria da prezioena, familien ekonomiaren bilakaeran eta erosketa nahiz inbertsio handiei buruzko erabakietan.




2022-2023 ALDIRAKO AURREIKUSPENAK

BPGd




2022aren hasieran aurreikuspenak baikorrak ziren: pandemia atzera egiten ari da, txertaketari esker eta aldaera berriak ez direlako hain kaltegarriak. Ondorioz, hornidura-kateen arazoa konponbidean egon liteke, eta, horrekin batera, inflazioa maila onargarrietara jaitsi daiteke. Horrela, 2022ko urteko batez bestekoa 2021eko zifraren antzekoa izan daiteke, baina beheranzko joera argia izanez, eta ez goranzkoa, aurreko ekitaldian bezala.

Enplegua



Halere, joan den otsailaren 24an Ukrainaren eta Errusiaren artean piztutako gerrak nabarmen aldarazi du panorama ekonomikoa. Ondorioak bereziki kaltegarriak dira Europako ekonomian, bai energiaren ikuspegitik eta bai lehengaiei dagokienez. Energiaren alorrean, agerian geratu da petrolioarekiko eta, bereziki, Errusiako gasarekiko mendekotasuna. Lehengaien alorrean, berriz, nabaria da gatazkan dauden herrialdeek pisu handia dutela munduan. Horrek goraka bultzatu du inflazioa, eta zapuztu egin ditu orain hilabete gutxi genituen aurreikuspenak. Eta, jakina, aurtengo ekonomia-hazkunderari begira mehatxu argia da hori. Hain zuzen, prezioen gorakada geldiarazi nahian, Erreserba Federalak interes-tasen mugimendu erasokorrak egin ditu, eta Europako Banku Zentralak tasak igotzeari ekingo dio uztailean.


Prezioak (KPI)



Esandako guztiaren ondorioz, urtearen hasieratik beheraka zuzendu dituzte BPGd-aren hazkunde-tasak. Horrenbestez, txostena ixtean eskura dugun informazio ekonomikoa kontuan hartuta, abian den urterako aurreikuspenak positiboak dira: % 4ko hazkunde-tasa Espainian eta % 3,5ekoa Nafarroako Foru Erkidegoan. Eta, 2023ra begira, % 3,2ko eta % 2,6ko hazkunde-tasa espero da, hurrenez hurren, aztertutako bi eremu geografikoetan.

Iturria: Labor Kutxa

Nolanahi ere, ziurgabetasuna oso handia da, eta zifra horiek asko alda litezke, estimazioak baino ez dira eta. Edonola ere, bukatzeko, nabarmendu egin behar da testuinguru goibel horretan Next Generation funtsek ekonomiari emango dioten bultzada eraldatzailea. Izan ere, aukera bikaina eskaintzen dute produkzio-sarea sortzeko eta herrialdeko egitura ekonomikoa modernizatzen.



2. ESPARRU OROKORRA

1. COVID-19AREN ERAGINA

Pandemiako bigarren urtea izan zen 2021a, eta birusaren aldaera berrien kutsatzeen ondorengo ondoko olatuak, pertsonen bilarekin eta mugikortasunarekin lotutako murrizketen etengabeko berrikuspena eta egokitzapena eta txertatze-kanpainak izan ziren ezaugarri nagusiak. Jarduera ekonomikoa ez zen aurreikusi bezainbeste berreskuratu. Izan ere, kontsumoa eta inbertsioa oso gutxi hazi ziren, jarduera ekonomikoa guztiak ez ziren modu berean leheneratu eta ziurgabetasuna gailendu zen –batez ere, urtearen azken zatian prezioek izandako bilakaeraren ondorioz–, beste faktore batzuen artean.

Enpleguaren bilakaera aurreikusitakoa baino hobea izan zen ABEEE-ei esker. BPGak izan zuen atzerakada kontuan hartuta, euste-tresna hori gabe, aurreko krisialdian handiagoa izango zitekeen galera. 2020an, Nafarroan eta Estatuan txikiagoa izan zen enpleguaren galera, BPGaren jaitsiera baino. 2021ean, ordea, emaitza ezberdina izan zuten bietan: Nafarroan handiagoa izan zen BPGaren hazkundea (+% 5,9, eta enplegua +% 5,0), eta Estatuan handiagoa izan zen enpleguaren suspertzea (+% 6,6, eta BPGa +% 5,1). Jarduera ekonomikoen hobekuntza-erritmoak ezberdinak izan ziren, eta horrek azaltzen ditu alde horiek. Izan ere, jarduera horiek pisu ezberdina dute bi ekonomietan.

1. koadroa BPGaren eta enpleguaren bilakaera

	2020		2021	
	BPG	Enplegua (LOB)	BPG	Enplegua (LOB)
Nafarroa	-8,3	-6,4	5,9	5,0
Estatua	-10,8	-7,6	5,1	6,6

Iturria: EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua. Geuk egina.

Egoera lurrunkorra izan arren, Gizarte Segurantzako afiliazioak urte arteko suspertze nabarmenarekin itxi zuen 2021a (+% 3,0 eta +% 4,1 Nafarroan eta Estatuan). Hala, pandemiaren aurreko (2019) afiliazio-erregistroak gainditu zituzten bi kasuetan.

2. koadroa Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta erregistratutako kontratazioaren bilakaera

	Kopurua			Urte batetik besterako aldakuntza (%)		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Afiliazioa						
Nafarroa	289.851	287.099	295.665	2,6	-0,9	3,0
Estatua	19.408.538	19.048.433	19.824.911	2,0	-1,9	4,1
Kontratazioa						
Nafarroa	398.817	305.030	362.317	3,6	-23,5	18,8
Estatua	22.512.221	15.943.061	19.384.359	1,0	-29,2	21,6


Oharra: urte bakoitzeko abenduko batez besteko afiliatu kopurua (erregimen guztietan) eta urte bakoitzaren itxieran metatutako kontratuak.

Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.

Paradoxikoki, 2019an baino kontratu berri gutxiago erregistratuta lortu zen emaitza hori¹. Izan ere, aldagai hori nabarmen berreskuratu zen kontuan hartutako bi eremuetan (+% 18,8 eta +% 21,6 Nafarroan eta Estatuan), baina bi kasuetako batean ere ez zen 2019ko mailara iritsi. Funtsean, afiliazioaren eta kontratu berrien urteko bilakaera antzekoa izan zen: bultzada handia izan zuten lehen seihilekoan, baina moteldu egin ziren bigarrenean, bereziki, urteko laugarren hiruhilekoan, kutsatzeen seigarren olatuaren ondorioz, argi eta garbi.

1. grafikoa Afiliazioa (Gizarte Segurantzza) eta erregistratutako kontratuak. Hileko bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: Gizarte Segurantzza eta SEPE. Geuk egina.

¹ Horrek esan nahi du 2021ean erregistratutako kontratu berrien batez besteko iraupena handiagoa zela 2019koena baino. Baliteke honako hau izatea arrazoiak: kontratu berriek gehien gauzatzen dituzten jardueren eta/edo lanen iraupena luzeagoa izatea, eta pandemiak mugatutako jardueren pisu txikiagoa izatea kontratu berrietan (orokorrean iraupen laburragoa izan lezaketen kontratuak).

Afiliazioak Nafarroan eta Estatuan izandako bilakaerak erakusten duenez, erregimenaren arabera, hobekuntzaren zati handi bat soldatapeko enpleguaren hazkundeak eragin zuen, erregimen orokorraren bidez (+% 3,6 eta +% 4,6, hurrenez hurren). Bestetik, nabarmentzekoa da autonomoen erregimeneko afiliazioa gutxiago hazi zela (+% 0,7 eta +% 1,7 Nafarroan eta Estatuan). Azkenik, gainerako erregimenetako afiliazio agregatuak behera egin zuen Nafarroan (-% 0,5), eta apur bat hazi zen Estatuan (+% 0,4).

3. koadroa Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregimenaren arabera

	Nafarroa			Estatua		
	2021	%	Δ21/20	2021	%	Δ21/20
Erregimen orokorra	236.072	79,8	3,6	16.435.387	82,9	4,6
Autonomia	47.528	16,1	0,7	3.328.398	16,8	1,7
Gainerakoak ¹	12.066	4,1	-0,5	61.127	0,3	0,4
Afiliazioa, guztira	295.665	100,0	3,0	19.824.911	100,0	4,1

¹ Barnean hartzen ditu: Itsasoko Langileen Erregimen Berezia, Etxeko Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra, Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia, Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra.

Oharra: Urte bakoitzeko abendu batez besteko afiliatu kopurua.

Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.

Bi urte hauek ezohikoak izan dira, guztiz. Bizitako egoeraren inpaktua ezberdina izan da jardueraren arabera, eta gehiago edo gutxiago eragin dio afiliazioari. Hain zuzen ere, 2020an kontuan hartutako hogeita bat jarduera multzoen artetik, hamarrek afiliatu kopurua galdu zuten eta beste hamaikak mantendu edo areagotu egin zuten. Dena den, egoera hobetzearekin batera, 2021ean ia jarduera guztietan egin zuen gora afiliazioak, lautan izan ezik. Atxikitako koadroak sektoreko afiliazioa erakusten du, lau bloketan ordenatuta, hauen arabera: 2020an eta 2021ean erregistratutako urte arteko bilakaera, 2021ean afiliatutako biztanle kopurua eta pandemiaren aurreko (2019) afiliazioarekiko egoera.

Lehenengo blokeak zortzi jarduera hartzen ditu barne, bi urte horietan enplegua areagotu zutenak. Honako hauek dira: osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak; hezkuntza; eraikuntza; jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; informazioa eta komunikazioa; ur-hornidura eta hondakinen kudeaketa; higiezinekin lotutako jarduerak; eta lurraldez kanpoko erakundeak. Jarduera horiei dagokie Nafarroako afiliazioaren % 31,8, 93.962 afiliaturekin eta urte arteko % 3,8ko hazkundearekin (3.397 afiliazio gehiago).

Bigarren blokeak bost jarduera jasotzen ditu, 2021aren itxieran 2019an erregistratutako afiliazioa iristera lortu zutenak. Baina joera ezberdina izan zuten: batetik, manufaktura -industriak, garraioak eta biltegiatzeak eta aisialdiaren, kulturaren eta entretenimenduaren arloko jarduerak afiliazioa galdu zuten 2020an, eta berreskuratu egin zuten 2021ean. Bestetik, administrazio publikoak, defentsak eta gizarte-zerbitzuek eta lehen sektoreak afiliazioa irabazi zuten 2020an, baina atzera egin zuten 2021ean. Osotara, bost jarduera horiei dagokie Nafarroako afiliazioaren % 37,3, 110.359 afiliaturekin eta urte arteko % 1,5eko hazkundearekin (1.590 afiliazio gehiago).

Hirugarren blokeak jasotzen dituen bost jarduerak bilakaera negatiboa izan zuten 2020an eta positiboa 2021ean, baina ez zen nahikoa izan pandemiaren aurreko azken urtean (2019) erregistratutako afiliatu kopurura iristeko. Talde honen barruan sartu ditugun jarduerak esanguratsuak dira duten afiliatu kopuruarengatik: ibilgailuen merkataritza, salmenta eta konponketa; ostalaritza; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak; etxeko langileak; eta beste zerbitzu batzuk. Jarduera horiei dagokie Nafarroako afiliazioaren % 29,2, 86.303 afiliaturekin eta urte arteko % 4,4ko hazkundearekin (3.598 afiliazio gehiago).

Azkenik, biurteko osoan zehar (2020-2021) afiliatuak galdu zituzten lau jarduerak jasotzen ditu laugarren blokeak. Horrek ez du esan nahi afiliatu kopurua bi urteetan galdu zutenik, erauzketa-industrien kasuan izan ezik, bi ekitaldietan afiliazioa galdu zuen jarduera bakarra izan baitzen. Talde horretan sartu ditugu, gainera, finantza- eta aseguru-jarduerak eta energia-hornidura.

4. koadroa Afiliazioaren banaketa, jarduera arloen arabera. Nafarroa

	2020	2021		Aldakuntza	
	Afiliazioa	Afiliazioa	%	20/19	21/20
Osasungintzako jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	31.573	32.481	11,0	5,0	2,9
Hezkuntza	20.768	21.605	7,3	3,3	4,0
Eraikuntza	17.022	17.696	6,0	0,2	4,0
Jarduera profesional zientifiko-teknikoak	14.208	14.779	5,0	3,0	4,0
Informazioa eta komunikazioa	3.678	3.879	1,3	0,4	5,5
Ur-hornidura eta hondakinak	2.427	2.569	0,9	0,4	5,9
Higiezinekin lotutako jarduerak	876	935	0,3	0,8	6,7
Lurraldez kanpoko erakundeak	13	18	0,0	0,0	38,5
Manufaktura-industria	66.975	67.709	22,9	-0,8	1,1
Garraioa eta biltegiatzea	12.205	12.475	4,2	-0,5	2,2
Administrazio publikoak, defentsa eta gizarte-zerbitzuak	12.479	12.394	4,2	7,1	-0,7
Lehen sektorea	11.638	11.526	3,9	1,3	-1,0
Artearen, aisialdiaren eta entretenimenduaren arloko jarduerak	5.472	6.255	2,1	-8,2	14,3
Merkataritza eta ibilgailuen konponketak	36.278	37.031	12,5	-2,1	2,1
Ostalaritza	15.455	17.473	5,9	-17,0	13,1
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	16.830	17.354	5,9	-4,0	3,1
Etxeko langileak	7.196	7.244	2,5	-3,3	0,7
Beste zerbitzu batzuk	6.946	7.201	2,4	-4,6	3,7
Finantza- eta aseguru-jarduerak	3.948	3.921	1,3	0,6	-0,7
Energia-hornidura	841	850	0,3	-4,4	1,1
Erauzketa-industriak	271	270	0,1	-14,0	-0,4
Afiliazioa, guztira	287.099	295.665	100,0	-0,9	3,0

Oharra: Urte bakoitzeko abenduko batez besteko afiliatu kopurua. Erregimen guztiak.

Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.

Enplegua hobetzearekin batera, erregistratutako langabeziak behera egin zuen, eta pandemia agertu aurretiko beheranzko joerara itzuli zen. Asko jaitsi zen Nafarroan eta Estatuan (-% 21,2 eta -% 20,1). Halaber, langabezia-tasak behera egin zuen bi eremuetan (ehuneko -1,8 puntu eta ehuneko -2,8 puntu). Hala, 2019ko mailatik (% 9,0) ehuneko puntu bat baino gutxiagora kokatu zen Nafarroan (% 9,9). Estatuan (% 13,3), berriz, baxuagoa izan zen 2019an (% 13,8) baino.

5. koadroa Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera

	Datua			Urte batetik besterako aldakuntza (%)		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Erregistratutako langabezia (perts. kop.)						
Nafarroa	33.198	40.637	32.026	1,1	22,4	-21,2
Estatua	3.163.605	3.888.137	3.105.905	-1,2	22,9	-20,1
Langabezia-tasa (%)						
Nafarroa	9,0	11,7	9,9	-1,0	2,6	-1,8
Estatua	13,8	16,1	13,3	-0,7	2,4	-2,8


Oharra: urte bakoitzeko abenduan erregistratutako langabezia eta urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa. Langabezia-tasaren aldakuntza ehuneko puntutan adierazi dugu.

Iturria: SEPE eta EIN (BAI, Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Geuk egina.

Jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin lotutako adierazleek agerian uzten dituzte urte hartako zailtasunak eta, gainera, guztiz ezohikoa izan zen agertokiari (2020) kontrajartzen zaizkio. Hala, urte arteko tasei dagokienez, 2021eko bilakaerak honako hau erakusten du: lehen hiruhilekoan, egonkortasuna (alderatuz, 2020ko lehen hiruhilekoa ia normala izan zen); bigarren hiruhilekoan, gorakada (2020ko bigarrenean alarma-egoera bete-betean geunden); hirugarren hiruhilekoa 2020koa baino hobea, non egoera "ia normala" zen baina kutsatzeen etengabeko olatuek baldintzatu zuten; eta laugarren hiruhilekoan okerrera, esperotakoa baino bilakaera txarragoarekin.

2. grafikoa Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. Nafarroa

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



¹ Hauek dira adierazleak: Industria Ekoizpenaren Indizea, Zerbitzuen Sektoreko Jarduera Adierazlea (beste zerbitzu batzuk) eta Txikizkako Merkataritzaren Indizea (zerbitzuzunerik gabe).


² Egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua. Geuk egina.

Nafarroako enpresen konfiantzaren bilakaeran ere islatu zen emaitza hori. Izan ere, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan gora egin zuen (16,5 eta 32,5), eta apur bat atzera egin zuen laugarren hiruhilekoan. Dena den, balio positiboa izaten jarraitu zuen (24,3), eta urrundu egin zen 2020ko bigarren hiruhilekoan eta 2021eko lehenengoan eskuraturako erregistro negatiboetatik.

3. grafikoa Enpresa-konfiantzaren indizea. Nafarroa

(Urte arteko aldakuntza-tasa)




Oharra: Enpresa Konfiantzaren Adierazle Harmonizatua (EKAH) honakoetatik abiatuta eraikitzen da: amaitutako hiruhilekoko egoeraren adierazlea eta datorren hiruhilekorako igurikimenak. 2013ko lehen hiruhilekoa da oinarria.

Iturria: EIN Geuk egina.

Halaber, Nafarroako kontsumitzaileen konfiantzaren indizeak ere aipatutako enpresen igurikimenen suspertze-erritmo bera erakutsi zuen. Lehenengo hiruhilekoan apur bat ezkorra zen oraindik, baina bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan suspertu egin zen eta urrundu egin zen 2020ko erregistrorik okerrenetatik. Dena den, mesfidantza eta zuhurtzia gailentzen dira oraindik, eta 2021a nolabaiteko ezkortasunarekin itxi zuten Nafarroako familiek.

4. grafikoa Kontsumitzaileen konfiantza-indizea. Nafarroa

(hiruhileko bilakaeraren indizea)




Oharra: honela interpretatu ditugu eskuratutako datuak: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Geuk egina.

Nafarroako BPGaren bilakaerak baieztatu egiten du hobekuntzarako joera hori. Urte arteko hazkundera izan zuen hiruhilekoz hiruhileko, eta, osotara, urte arteko % 5,9ko hazkundera erregistratu zen. Hobekuntza hori oso esanguratsua izan zen, 2020ko atzerakada kontuan hartuta (-% 8,3). Hala, beste eremu batzuetan gertatu zen moduan, kutsatzeen ondoz ondoko olatuak, indarrean zeuden mugak (2022 arte) eta mesfidantza eta fidagaiztasuna egon ziren jardueraren suspertzearen oinarrian. Garrantzitsua izan zen suspertzea, baina aurreikusitakoa baino txikiagoa.

5. grafikoa BPGaren bilakaera. Nafarroa

(%)




Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta. Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak. Nafarroako Estadística Institutua. Geuk egina.

2022rako aurreikuspenetako ezberdintasunak alde batera utzita, Nafarroako ekonomiaren inguruko (EB-Estatua) suspertzea sendotzen ari da, behin onartuta ez dakigula noiz utziko dioten prezioek gora egiteari, noiz desagertuko diren hornidura-kateetako botila-lepoak eta noiz berreskuratuko den pertsonen estatuko eta nazioarteko mugikortasuna, jarduera guztiak oso-osorik berreskuratuzeko.

6. grafikoa BPGaren bilakaera eta aurreikuspenak. Nafarroa

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Oharra: Nafarroako Gobernuak 2021eko behin-behineko emaitza ekonomikoen aurkezpenaren esparruan egindako aurreikuspenetan (2022ko urtarrilean) oinarritzen da 2022ko datua.

Iturria: Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoak (Nafarroako Estadística Institutua) eta Nafarroako Gobernuak. Geuk egina.

Aurreikuspen hauek beherantz ari gara berrikusten, gerra-egoera dela eta¹. Eraginak ugariak dira: nazioarteko erantzuna emateko hitzarmenak –zigor ekonomiko -finantzarioak– ezartzearekin lotutako tentsio geopolitikoak; gas-merkatuetan eta energiaren prezioen (eta prezio guztien) gorakadan izandako eragina; eta interes-tasa batzuen igoera posibleak atzeratzea, sistemaren likidezia mantentzeko. Krisi honen iraupena mugatzeko gaitasuna, konponbidearen kostua eta inpaktua gutxitzea izango dira gakoak. Izan ere, jardueraren suspertzea oraindik ere ez zegoen normalizatuta (pandemiaren ondoren) eta inflazioaren joera goranzkoa zen.

6. koadroa Egindako ekonomia-aurreikuspenak. 2022ko urtarrila-otsaila

(%)

	Europako Batzordea			NDF		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Eurogunea	5,3	4,0	2,7	5,2	3,9	2,5
Alemania	2,8	3,6	2,6	2,7	3,8	2,5
Frantzia	7,0	3,6	2,1	6,7	3,5	1,8
Italia	6,5	4,1	2,3	6,2	3,8	2,2
Espania	5,0	5,6	4,4	4,9	5,8	3,8
Munduko ekonomia	-	-	-	5,9	4,4	3,8
AEB	-	-	-	5,6	4,0	2,6
Txina	-	-	-	8,1	4,8	5,2

Iturria: Europako Batzordea (2022ko otsaila) eta NDF (2022ko urtarrila). Geuk egina.

¹ Espainiako ekonomiaren proiektzio makroekonomikoen arabera (Espainiako Bankua), BPGa % 4,5 eta % 2,9 haziko da 2022an eta 2023an. KPIHa asko igoko dela adierazten dute (% 3tik % 7,5era 2021ean eta 2022an), eta 2023an apaldu egingo dela (% 2). Europako Batzordeak eta NDFk aurreratu dutenez, gutxienez ehuneko puntu bat egingo du behera, ekonomia bakoitzaren kalte-erantzun mailaren arabera.

2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

2.1. NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera

Pandemiaren inpaktuak historikoki markatu zuen 2020a, eta munduko ekonomia -% 3,1 murriztu zen. 2021ean indarrez suspertu zen jarduera, mundu mailako % 6,1eko hazkundearekin. Hala, ekitaldi horren amaieran agertu zen COVID-19aren omikron aldaeraren inpaktua mugatua izan zen. Dena den, kontuan izan behar da osasun-krisia eta krisi ekonomikoa oraindik ere ez direla behin betiko konpondu mundu mailan. Gainera, 2022an suspertzea oztopatzen duten mehatxu berriak agertu dira, eta pandemian zehar ekonomia astintzen ari diren eskaintza-shockei gehitu zaizkie.

Testuinguru honetan, suspertze-erritmo oso ezberdinak ikus daitezke bloke ekonomiko handien artean. Hala, aurreko ekitaldian -% 4,5eko beherakada erregistratu ondoren, ekonomia aurreratua % 5,2 hazi ziren 2021ean. Sortu berri diren merkatuen eta garapen-bidean dauden ekonomiak, berriz, % 6,8 hazi ziren, 2020an -% 2ko beherakada izan ondoren. Hortaz, alderaketa eginda, ekonomia aurreratuek beherakada handiagoa izan zuten 2020an, eta suspertze txikiagoa izan zuten 2021ean.

Herrialde industrializatuei dagokienez, ELGAren ekaineko aurreikuspenen arabera, 2021ean % 5,5eko hazkundera izan zuten, aurreko ekitaldian -% 4,6ko murrizketa erregistratu ondoren. Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren hazkunde orokortuari esker (% 6,3ko, % 3,7ko eta % 5eko hazkundeak, hurrenez hurren, 2021ean) gertatu zen gorakada hori.

7. koadroa Barne Produktu Gordinaren bilakaera

Herrialdea	(% Δ)		
	2019	2020	2021
Estatu Batuak	2,3	-3,4	5,7
Japonia	-0,2	-4,5	1,7
Alemania	1,1	-4,9	2,9
Frantzia	1,9	-7,9	6,8
Italia	0,5	-9,1	6,6
Erresuma Batua	1,7	-9,3	7,4
Kanada	1,9	-5,2	4,5
Eurogunea	1,6	-6,5	5,3
ELGA, guztira	1,7	-4,6	5,5

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

Ipar Amerikako ekonomiari dagokionez, 2020an -% 3,4ko jaitsiera erregistratu ondoren, 2021ean % 5,7 hazi zen (1984az geroztiko tasarik altuena); izan ere, nabarmen suspertu ziren kontsumo pribatua (% 7,9ko hazkundera) eta inbertsioa (% 6,1eko hazkundera). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoa, berriz, apaldu egin zen (% 1eko hazkundera 2021ean, eta % 2koa aurreko ekitaldian).

Bestetik, Japoniaren suspertzea ez zen hain handia izan 2021ean, eta % 1,7ko hazkunde apala izan zuen (2020an -% 4,5eko jaitsiera). Izan ere, familien kontsumoa bakarrik igo zen (% 1,3), kontsumo publikoaren hazkundera moteldu egin zen (% 2,1, eta 2020an % 2,3) eta inbertsioak tasa negatiboetan jarraitu zuen, nahiz eta datuak aurreko ekitaldian baino hobekak izan (2021ean -% 1,6 eta 2020an -% 4,6).

Sortu berri diren merkatuen eta garapen-bidean dauden ekonomien eremuan, 2021ean hazkunde handiagoa izan zuen Indiak, Errusiak eta Brasilek baino (% 8,9ko, % 4,7ko eta % 4,6ko hazkunderak, hurrenez hurren). Dena den, kontuan izan behar da Indiak besteek baino beherakada handiagoa izan zuela 2020an (-% 6,6ko, -% 2,7ko eta -% 3,9ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren, ekitaldi horretan).

8. koadroa Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera

(% Δ)

Herrialdea	Kontsumo pribatua			Kontsumo publikoa			Inbertsioa		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Estatu Batuak	2,2	-3,8	7,9	2,0	2,0	1,0	3,1	-1,5	6,1
Japonia	-0,5	-5,2	1,3	1,9	2,3	2,1	1,0	-4,6	-1,6
Alemania	1,6	-6,1	0,3	3,0	3,5	2,9	1,9	-3,0	1,0
Frantzia	1,8	-6,8	5,3	1,0	-4,0	6,4	4,1	-8,4	11,4
Italia	0,2	-10,6	5,2	-0,5	0,5	0,6	1,2	-9,2	17,0
Erresuma Batua	1,3	-10,6	6,2	4,2	-5,9	14,3	0,5	-9,5	5,9
Kanada	1,4	-6,1	4,9	1,7	0,0	5,8	0,0	-2,8	7,1
Eurogunea	1,4	-7,9	3,6	1,8	0,8	3,9	6,8	-7,2	4,1
ELGA, guztira	1,6	-5,5	6,3	2,4	1,3	3,7	2,1	-4,2	5,0

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

Europaren kasuan, 2020an -% 6,5eko beherakada handia erregistratu ondoren, Eurogunek % 5,3ko hazkunde nabarmena izan zuen 2021ean, kontsumo pribatuak eta inbertsioak izandako gorakaden ondorioz (% 3,6ko eta % 4,1eko hazkunderak, hurrenez hurren), eta kontsumo publikoaren hazkundera nabarmen areagotu izanaren ondorioz (% 3,9ko igoera, eta aurreko urtean % 0,8koa).

Kanpo-merkataritza

Jardueraren suspertze-testuinguru horretan, 2021ean indarrez berreskuratu zuen haren hazkundera kanpo-merkataritzak; ELGAko herrialdeen esportazioek zein inportazioek egin zuten gora, nabarmen.

Zehazki, kanpora egindako salmentak % 8,4 hazi ziren, eta kanpotik egindako erosketak % 9,6 (aurreko ekitaldian -% 9,6 eta -% 9ko jaitsierak, hurrenez hurren).

Herrialdeen arabera, honako taula honetan jasotako herrialde guztietan (ELGAkoak) igo ziren kanpora egindako salmentak eta kanpotik egindako erosketak, Erresuma Batuan izan ezik, EBtik irteteko prozesuaren eraginez. Bereziki, Japoniako esportazioen hazkundera (% 11,8ko gorakada) eta Ipar Amerikako inportazioen suspertzea (% 14ko igoera) nabarmendu ziren.

9. koadroa Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak

(% Δ)

Herrialdea	Inportazioak			Esportazioak		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Estatu Batuak	1,2	-8,9	14,0	-0,1	-13,6	4,5
Japonia	1,0	-6,9	5,1	-1,5	-11,7	11,8
Alemania	2,9	-9,2	9,0	1,1	-10,1	9,5
Frantzia	2,4	-13,0	7,8	1,6	-17,0	8,6
Italia	-0,5	-12,7	14,3	1,8	-14,2	13,4
Erresuma Batua	2,9	-15,8	3,8	3,4	-13,0	-1,3
Kanada	0,4	-10,8	7,7	2,3	-9,7	1,4
ELGA, guztira	2,4	-9,0	9,6	1,9	-9,6	8,4

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

Prezioak

Petrolio nabarmen garestitu zen (Brent upelak 41,5 dolar balio zuen 2020an, eta 71,1 dolar 2021ean) honako faktore hauen eraginez: ekonomiaren suspertzea, lehengaien prezioaren igoera izugarria, eta pandemiaren eraginez eskaintzaren eta eskariaren artean sortutako desorekak, beste batzuen artean. Horren ondorioz, kontsumo-prezioen hazkunde-erritmoa indartu egin zen, modu orokortuan, aintzat hartutako herrialde guztietan, Japonian izan ezik.

Hala, ELGAren arabera, 2021ean kontsumoko prezio-indizearen hazkundera % 4,7ra igo zen Estatu Batuetan, eta % 2,6ra Eurogunean (% 1,2ko eta % 0,3ko hazkunderak, hurrenez hurren, 2020an).

10. koadroa Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera

Herrialdea	(% Δ)		
	2019	2020	2021
Estatu Batuak	1,8	1,2	4,7
Japonia	0,5	0,0	-0,2
Alemania	1,4	0,4	3,2
Frantzia	1,3	0,5	2,1
Italia	0,6	-0,1	1,9
Erresuma Batua	1,8	0,9	2,6
Kanada	2,0	0,7	3,4
Eurogunea	1,2	0,3	2,6

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

Dena den, suspertze ekonomikoa errazteko eta sustatzeko, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak politika moldakorrak mantendu zituzten, eta 2021ean zehar gutxieneko mailan mantendu zituzten haien esku-hartze tasak: % 0,25 eta % 0, hurrenez hurren.

Lan-merkatua

2021ean jarduera ekonomikoa suspertzearen ondorioz, langabezia-tasak jaitsiera ia orokortua izan zuen. Italian baino ez zen hazi langabezia, apur bat, eta egonkor mantendu zen Japonian eta Erresuma Batuan. Estatu Batuetako langabezia-tasa % 8,1ekoa zen 2020an eta % 5,4ra jaitsi zen 2021ean; Eurogunean, berriz, % 8tik % 7,7ra jaitsi zen. Hala, ELGAko herrialdeetan tasa hori % 6,2ra jaitsi zen (% 7,1ekoa zen aurreko ekitaldian).

11. koadroa Langabezia-tasa

Herrialdea	(biztanleria aktiboaren %)		
	2019	2020	2021
Estatu Batuak	3,7	8,1	5,4
Japonia	2,4	2,8	2,8
Alemania	3,2	3,9	3,6
Frantzia	8,5	8,1	7,9
Italia	9,9	9,3	9,5
Erresuma Batua	3,8	4,5	4,5
Kanada	5,7	9,5	7,4
Eurogunea	7,6	8,0	7,7
ELGA, guztira	5,4	7,1	6,2

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

Diru- eta aurrekontu-politika

Pandemiaren egoerak hobera egin zuenez, 2021ean txikiagoa izan zen gastu publikoa egiteko beharra, 2020arekin alderatuta. Dena den, defizit altuek jarraitu zuten gailentzen, aurreko ekitaldian baino txikiagoak baziren ere.

Hala, Estatu Batuek haien BPG nominalaren $-\% 11,8$ adinako defizita zuten 2021ean; Eurogunea $-\% 5,1$ koa eta ELGak $-\% 7,4$ koa (2020an $-\% 15,4$, $-\% 7,1$ eta $-\% 10,4$, hurrenez hurren).

12. koadroa Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak
(finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)


Herraldea	2019	2020	2021
Estatu Batuak	-6,4	-15,4	-11,8
Japonia	-3,0	-9,0	-5,7
Alemania	1,5	-4,3	-3,8
Frantzia	-3,1	-8,9	-6,4
Italia	-1,5	-9,6	-7,2
Erresuma Batua	-2,3	-12,8	-8,3
Kanada	0,0	-11,4	-5,0
Eurogunea	-0,7	-7,1	-5,1
ELGA, guztira	-3,1	-10,4	-7,4

(BPGaren %)

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

Politika monetarioari dagokionez, aurrez esan dugun moduan, 2021ean zehar $\% 0,25$ ean eta $\% 0$ an mantendu ziren Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak, hurrenez hurren.

7. grafikoa Interes-tasen aldakuntza



Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

Europar Batasuna

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, 2021ean Europar Batasunak % 5,4ko hazkundera izan zuen, 2020an pandemiaren inpaktuaren harira erregistratutako -% 5,9ko ererikoaren ondoren. Barne-eskaria % 4,5 hazi zen (aurreko ekitaldian -% 5,7ko jaitsiera), esportazioak %10,7 eta inportazioak % 9,3 (2020an -% 8,4ko eta -% 8,2ko murrizketak, hurrenez hurren).

Nabarmentzekoa da, barne-eskariari dagokionez, hazkundera orokortua izan zela 2021ean; kontsumo pribatua zein kontsumo publikoa % 3,8 hazi ziren (aurreko ekitaldian -% 7,3ko beherakada eta % 1,1eko igoera txikia, hurrenez hurren) eta, inbertsioa, % 4,2 (-% 6,2ko jaitsiera 2020an).

13. koadroa Adierazle nagusiak (EB)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2019	2020	2021
Jarduera			
– Kontsumo pribatua	1,6	-7,3	3,8
– Kontsumo publikoa	2,0	1,1	3,8
– Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	6,5	-6,2	4,2
– Barne-eskaria	2,5	-5,7	4,5
– Esportazioak	3,0	-8,4	10,7
– Inportazioak	4,6	-8,2	9,3
– BPG	1,8	-5,9	5,4
Prezioak eta soldatak			
– BPGaren deflatorea	1,9	1,9	2,3
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	1,4	0,7	2,5
– Banakako lan-kostu errealak	-0,1	2,4	-2,7

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2022ko udaberria)

Herrialdeen arabeko azterketak erakusten duenez, 2021ean Batasuneko kide guztiak itzuli ziren hazkunde-ibilbidera. Irlandak eta Kroaziak izan zituzten hazkunderik handienak, % 10etik gorakoak, eta Alemaniak txikiena, ez baitzen % 3ra iritsi. Alemaniako ekonomiari dagokionez, Batasuneko traktore ekonomiko nagusia denez, kontuan izan behar da "Covidaren bigarren olatuan" murgilduta eta "itxita" hasi zuela 2021. urtea; ondorioz, haren BPGa murriztu egin zen lehen hiruhilekoan. Ondoren, bazirudien suspertzen hasiko zela, baina ekitaldiaren amaieran "laugarren olatua" eta murrizketak iritsi ziren (Batasuneko beste herrialde batzuetan finkatutakoak baino zorrotzagoak), eta horrek 2021eko hazkundera oztopatu zuen. Gainera, Alemania bereziki kaltetu zuten mundu mailako hornidura-katearen tirabirek.

14. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera (Europar Batasuna)

(Urte arteko aldakuntzaren %)

Herraldea	2019	2020	2021
Irlanda	4,9	5,9	13,5
Kroazia	3,5	-8,1	10,2
Malta	5,9	-8,3	9,4
Estonia	4,1	-3,0	8,3
Grezia	1,8	-9,0	8,3
Eslovenia	3,3	-4,2	8,1
Hungaria	4,6	-4,5	7,1
Frantzia	1,8	-7,9	7,0
Luxenburgo	3,3	-1,8	6,9
Italia	0,5	-9,0	6,6
Belgika	2,1	-5,7	6,2
Polonia	4,7	-2,2	5,9
Errumania	4,2	-3,7	5,9
Zipre	5,3	-5,0	5,5
EB	1,8	-5,9	5,4
Espainia	2,1	-10,8	5,1
Lituania	4,6	-0,1	5,0
Herbehereak	2,0	-3,8	5,0
Portugal	2,7	-8,4	4,9
Suedia	2,0	-2,9	4,8
Danimarka	2,1	-2,1	4,7
Letonia	2,5	-3,8	4,5
Austria	1,5	-6,7	4,5
Bulgaria	4,0	-4,4	4,2
Finlandia	1,2	-2,3	3,5
Txekiar Errepublika	3,0	-5,8	3,3
Eslovakia	2,6	-4,4	3,0
Alemania	1,1	-4,6	2,9

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2022ko udaberria)

Per capita BPGari dagokionez, erorketa-ahalmenaren parekotasuna kontuan hartuta, 2021ean oraindik ere ezberdintasun handiak zeuden Batasuneko herrialdeen artean. Zentzu horretan, Luxenburgok zuen mailarik altuena (277; EB-27 osoari dagokion balioa 100 da), eta Bulgariak txikiena (55); hala, bata bestea baino 5 aldiz handiagoa zen. Herralde hauek gainditu zuten Batasuneko batezbestekoa (neurri ezberdinetan): Irlanda (221), Danimarka (133), Herbehereak (132), Suedia (123), Belgika (122), Austria (121), Alemania (119), Finlandia (113) eta Frantzia (104). Gainerako herrialdeak batezbestekotik behera geratu ziren. Horrekin lotuta, aipatzekoa da EBn bata bestearen segidan kide berriak sartzearen ondorioz nabarmen jaitsi zela Batasuneko batez besteko per capita BPGa.

15. koadroa Europar Batasuneko *per capita*
BPGa (PPS) 2021

Herraldea	EB-27=100
Luxenburgo	277
Irlanda	221
Danimarka	133
Herbehereak	132
Suedia	123
Belgika	122
Austria	121
Alemania	119
Finlandia	113
Frantzia	104
EB-27 guztira	100
Malta	98
Italia	95
Txekiar Errepublika	92
Eslovenia	90
Zipre	88
Lituania	88
Estonia	87
Espainia	84
Polonia	77
Hungaria	76
Portugal	74
Errumania	73
Letonia	71
Kroazia	70
Eslovakia	68
Grezia	65
Bulgaria	55

Iturria: Eurostat (2022ko maiatza).

Aurreikuspenak

2014an hasitako Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gatazka gora joan zen 2022ko otsailean, eta horrek erronka berri bat ekarri dio munduko ekonomiaren hazkundeari. Zentzu horretan, 2022ko otsailaren amaieran Errusiak Ukrainaren aurka hasitako inbasioak agertoki berri bat ekarri du, ziurgabetasunez betea. Energiaren prezioek gora egin dute, bereziki, gasarenak (ez hainbeste petrolioarenak); Europak (eta, bereziki, herrialde batzuek) gasarekiko mendekotasuna dute. Gainera, beste lehengai batzuen kasuan ere (esaterako, nekazaritzako elikagaiak eta metal jakin batzuk) tentsio handiak daude, eta prezioak gora egiten ari dira. Halaber, mundu mailako hornidura kalteen arazoek oraindik ere jarraitzen dute, eta larriagotu egin litezke. Bestetik, gainerako ekonomiek Errusiaren aurka presioa egiteko hartutako neurriek ez diote Errusiari bakarrik eragiten modu negatiboan; ekonomia horien hazkunde propioa ere oztopatzen dute. Hala, 2021aren amaierako prezio altuek gora egin dute 2022an, energiaren prezioen gorakadaren ondorioz, eta inflazioa kezka bat gehiago bihurtu da, ziurgabetasunez betetako agertoki batean.

Testuinguru honetan, nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspen ekonomikoen arabera, hazkunde-erritmoa apaldu egingo da, argi eta garbi. NDFk 2022ko apirilean aurreikusi zuenez, munduko ekonomia % 3,6 haziko da 2022an eta 2023an, eta % 3,4 2024ean eta 2025ean.

ELGak ekainean egindako aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuen hazkundera % 2,7ra jaitsiko da 2022an eta % 1,6ra 2023an. Ekitaldi honetan inflazio-tasak ia % 7koak izango dira Estatu Batuetan eta Eurogunean, Ukrainaren inbasioak eragindako prezio energetikoen gorakadaren ondorioz.

Hortaz, ziurgabetasunez eta arriskuz betetako agertokia dugu aurrean. Izan ere, Errusiako gerra gehitu zaie oraindik ere konpontzeko zeuden arazoei, pandemiarekin, hornidura -kateko gorabeherekin eta estanflazioan sartzeko aukerarekin lotutakoei. Gainera, politika monetario eta zerga-politika moldakorrak kentzen joango dira agertoki honetan.

16. koadroa Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)

	(%)	
Kontzeptua	2022	2023
– BPG erreala (% Δ)		
• Estatu Batuak	2,5	1,2
• Japonia	1,7	1,8
• Eurogunea	2,6	1,6
• ELGA, guztira	2,7	1,6
– Inflazioa (kontsumoaren prezio-indizea) (%Δ)		
• Estatu Batuak	7,0	3,5
• Japonia	1,9	1,9
• Eurogunea	7,0	4,6
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)		
• Estatu Batuak	3,6	3,8
• Japonia	2,6	2,5
• Eurogunea	7,1	7,4
• ELGA, guztira	5,2	5,3
– Defizit publikoa (BPGaren %)		
• Estatu Batuak	-6,7	-5,3
• Japonia	-6,9	-4,6
• Eurogunea	-4,1	-3,0
• ELGA, guztira	-5,0	-3,8

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)

2.2. ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak

2020an, pandemiaren inpaktuaren ondorioz, aurrekaririk gabeko "shock"-a bizi izan genuen eta Estatuko BPGak jaitsiera historikoa izan zuen, -% 10,8koa. 2021ean, jarduera suspertzen hasi zen eta Espainiako ekonomia % 5,1 hazi zen. Dena den, kontuan izan behar dugu Estatuko Barne Produktu Gordina oraindik ere oso urrun dagoela pandemiaren aurreko mailatik.

Eskariaren ikuspegitik, 2021ean mundu mailako hazkundeari ekarpen positiboa egin zioten barne-eskariak zein kanpo-sektoreak. Barne-eskaria ehuneko 4,7 puntutan kokatu zen (2020an ehuneko -8,6 puntu negatibo), eta kanpo-sektorea ehuneko 4 hamarrenetan (aurreko ekitaldian ehuneko -2,2 puntu negatibo). Ondorioz, 2021ean nabarmen hazi zen Espainiako ekonomia.

Lan-merkatuari dagokionez, 2021ean % 3 hazi zen okupaturako biztanleen kopurua (aurreko ekitaldian -% 2,9 jaitsi zen). Izan ere, enplegua modu orokortuan hazi zen lau sektore handietan. Bestetik, biztanleria langabetua -% 2,9 murriztu zen (2020an % 8,7 areagotu zen). Hala, 2021ean 3.429.600 pertsonara jaitsi zen langabetu kopurua, eta langabezia-tasa % 14,8koa izan zen (% 15,5ekoa aurreko ekitaldian).

Prezioei dagokienez, 2021aren itxieran (abendutik abendura), KPIaren urte batetik besterako aldakuntza % 6,5era igo zen (2020aren itxieran, -% 0,5ekoa zen). Urteko batezbestekoa, berriz, % 3,1era igo zen (aurreko ekitaldiko batezbestekoa -% 0,3koa izan zen).

Azkenik, aurrekontuen gauzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoek BPGaren -% 6,76ko defizita izan zuten 2021ean (finantza-erakundeei emandako laguntza kontuan hartu gabe). Hala, ehuneko hiru puntu baino gehiago hobetu zen aurreko ekitaldian eskuratutako datua (2020an -% 10,08ko defizita izan zen). Izan ere, pandemiak sortutako osasun-krisiari erantzuteko beharrak guztiz baldintzatu zuen 2020ko emaitza.

Agregatu makroekonomiko nagusiak

Espainiako ekonomiak 2021eko ondoz ondoko hiruhilekoetan zehar erakutsitako profilak suspertze argia erakusten du. Honakoak izan ziren Estatuko BPGaren urteko arteko aldakuntzak: lehen hiruhilekoan -% 4,1; bigarrenean % 17,8; hirugarrenean % 3,5; eta laugarrenean % 5,5. Honekin lotuta, kontuan izan behar da 2021eko bigarren hiruhilekoari dagokion urte arteko datuak erreferentzia gisa hartzen duen aldia 2020ko itxialdi gogorreneko aldia dela.

Aurreko txostenetan egin bezala, jarraian ikuspegi hauen arabera aztertuko dugu jardueraren bilakaera: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2021ean, Estatuko guztizko BPGa 1.205.063 milioi eurokoa¹ izan zen. Azkeneko kontsumoari dagozkio 927.810 milioi (656.894 familiena, 12.840 familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 258.076 administrazio publikoena), inbertsioari 242.024 (119.029 eraikuntzan, 77.630 ekipo-ondasunetan, 3.835 landatutako baliabide biologikoetan eta 41.530 jabetza intelektualaren produktuetan) eta izakinen aldakuntzari 17.026. Hala, barne-eskaria 1.186.860 milioi eurokoa izan zen. Esportazioen (420.812 milioi euro) eta inportazioen (402.609 milioi euro) arteko aldea kanpo-eskaria da; eta horiek kontutan hartuta kalkulatzen da guztizko eskaria.
- Barne-eskariak mundu mailako hazkundeari egindako ehuneko 4,7 puntuko ekarpen positiboari, kanpo-eskariak egindako ehuneko 5 hamarreneko ekarpen positiboa gehitu behar zaio. Etxeko eskariari dagokionez, kontsumo pribatua nabarmen igo zen (% 4,7 2021ean, eta -% 12,2 aurreko ekitaldian). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoa, berriz, apur bat moteldu zen (% 3,1, eta % 3,3 urtebete lehenago). Halaber, inbertsioa ere nabarmen igo zen (% 4,3, eta 2020an -% 9,5). Izan ere, eraikuntzarekin lotutako inbertsioaren beheranzko erritmoa apaldu egin zen (-% 2,8, eta aurreko ekitaldian -% 9,6) eta ekipo-ondasunekin lotutakoak gora egin zuen berriz ere (2021ean % 16, eta 2020an -% 12,9ko jaitsiera).
- Sektorearen arabera banaketari erreparatuta, 32.875 milioi euro dagozkio lehen sektoreari, 184.587 milioi euro industriari, 62.486 milioi euro eraikuntzari eta 809.203 milioi euro hirugarren sektoreari. Zenbateko horiek zerga garbiei (115.912 milioi euro) gehituta, guztizko ekoizpena kalkulatzen da.
- Lehen sektoreak -% 3,7ko jaitsiera izan zuen (2020an % 4,3) eta eraikuntzak aurreko urtean baino jaitsiera apalagoa izan zuen, -% 3,4koa (urtebete lehenago, -% 11,3koa). Gainerako sektore guztiek goranzko ibilbideari ekin zioten berriro: % 5,2 industria eta % 6 zerbitzuak (-% 10,1 eta -% 11,5eko jaitsierak 2020an, hurrenez hurren).

¹ Prezio korrontekak.

17. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)

(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)

Eragiketak		2020	2021
ESKARIA	Azken kontsumoaren gastua	-8,2	4,2
	– Etxebizitzena	-12,2	4,7
	– EZIAGGE-ena	-1,5	1,3
	– Administrazio publikoena	3,3	3,1
	Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,5	4,3
	– Eraikuntza	-9,6	-2,8
	– Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak	-12,9	16,0
	Izakinen aldakuntza*	-0,5	0,5
	Barne-eskaria*	-8,6	4,7
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	-20,1	14,7
	Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	-15,2	13,9
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan		-10,8	5,1
ESKAINITZA	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	4,3	-3,7
	Industria	-10,1	5,2
	Eraikuntza	-11,3	-3,4
	Zerbitzuak	-11,5	6,0
	Produktuen gaineko zerga garbiak	-11,0	6,7

(*) Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.

Iturria: EIN.

- Errentaren ikuspegitik, guztizko BPGaren % 47,5 hartu zuen soldatapekoen ordainketak, % 42,1 ustiapenaren soberakin gordinak eta, gainerako % 10,4a, ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak.

18. koadroa Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)

(% Δ nominala)

Eragiketak	2019	2020	2021	2021 (M eurotan)
Soldatapekoen ordainketa ⁽¹⁾	5,5	-5,6	5,4	572.970
Ustiapenaren soberakin gordina ⁽²⁾	1,8	-11,9	6,5	507.304
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak ⁽³⁾	1,1	-20,3	22,7	124.789
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan ⁽⁴⁾	3,4	-9,8	7,4	1.205.063

(4) = (4)+(1)+(3).

Iturria: EIN.

Kanpo-merkataritza

2021ean jarduera suspertu egin zen mundu mailan eta, hortaz, nazioarteko merkataritza ere bai. Testuinguru horretan, Estatuko esportazioek eta inportazioek gora egin zuten: % 14,7 eta % 13,9, hurrenez hurren. Aurreko ekitaldian, -% 20,1 eta -% 15,2 egin zuten behera, hurrenez hurren.

Hala, esportazioen joera inportazioena baino hobea izan zela kontuan izanda, kanpo-eskariak mundu mailako hazkunderari egindako ekarpena positiboa izatera pasatu zen: ehuneko 5 hamarren positibo 2021ean eta ehuneko -2,2 puntu negatibo 2020an. Hiruhilekoaren arabera, kanpo-eskariak mundu mailako hazkunderari egindako ekarpena negatiboa izan zen lehen hiruhilekoan, nulua bigarreanean eta positibo gorakorra azken bietan.

Laneko prezioak eta kostuak

Pandemiaren inpaktuaren ondorioz aurreko ekitaldian erortze historikoa izan ondoren, 2021ean gora egin zuen jarduera ekonomikoak. Testuinguru horretan, 2021ean zehar Brent petrolio upelaren balioa % 71,2 hazi zen. Estatuko prezioek urte arteko hazkunderata positiboak izan zituzten, urtarrilean hasi eta ekitaldi osoan zehar, goranzko joera argiarekin, bereziki, urtearen amaierako zatian. Estatuko KPlaren urte batetik besterako aldakuntza % 0,5koa izan zen urtarrilean, nulua otsailean, % 1,3koa martxoan, % 2,2koa apirilean, % 2,7koa maiatzean eta ekainean, % 2,9koa uztailean, % 3,3koa abuztuan, % 4koa irailean, % 5,4koa urrian, % 5,5koa azaroan eta % 6,5koa abenduan.

Gauzak hala, 2021aren amaieran (abendutik abendurako urte arteko tasa) % 6,5era igo zen inflazioa (2020aren amaieran, -% 0,5). Ondorioz, ekitaldi osoan zehar % 3,1 igo ziren prezioak (-% 0,3 jaitsi ziren aurreko ekitaldian). Dena den, azpiko inflazioak aurreko ekitaldiko hazkunde-erritmo bera mantendu zuen ia (2021ean % 0,8 eta 2020an % 0,7).

ELGaren arabera, 2021ean Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumo-prezioen indizearen aldakuntzaren bidez neurtua) % 2,6koa izan zela kontuan izanda (2020an % 0,3koa), euroa duten herrialdeen blokea baino ehuneko bost hamarren positiboagoa izan zen Espainiako ekonomia (aurreko ekitaldian, ehuneko sei hamarren negatiboko aldea izan zen).

Ondasunen taldeei dagokienez, petrolioaren garestitzearen ildo beretik, etxebizitzaren atzetik (% 11,1), garraioa izan zen prezioen bigarren hazkunde handiena jasan zuena (% 7,3); elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak izan ziren hurrengoak (% 1,8). Lehengai jakin batzuen eta erregaien garestitzeak eragin zituen gorakada horiek. Hauek izan ziren hurrengoak: jantziak eta oinetakoak, eta beste batzuk gisa izendatutako taldea (% 1 bi kasuetan); etxeko tresneria, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (% 0,9 bi kasuetan); osasungintza (% 0,7); alkoholik gabeko edariak eta tabakoa (% 0,3); eta aisialdia eta kultura, eta irakaskuntza (% 0,2 bi kasuetan). Aitzitik, komunikazioen kasuan jaitsi egin zen prezioen maila (-% 3).

19. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2019	2020	2021
KPI			
– Indize Orokorra ⁽¹⁾	0,8	-0,5	6,5
– Indize Orokorra ⁽²⁾	0,7	-0,3	3,1
Elikagaiak	1,0	2,1	1,7
Elikagaiak ez direnak	0,6	-1,0	3,6
• Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	1,0	2,4	1,8
• Alkoholdun edariak, tabakoa	0,7	0,5	0,3
• Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,0	1,0
• Etxebizitza	-1,5	-3,5	11,1
• Etxeko tresneria	0,7	0,4	0,9
• Osasuna	0,8	0,4	0,7
• Garraioak	1,1	-3,8	7,3
• Komunikazioak	0,8	-1,2	-3,0
• Aisialdia eta Kultura	-0,5	-0,6	0,2
• Irakaskuntza	1,0	0,6	0,2
• Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	2,0	1,1	0,9
• Beste batzuk	1,4	1,4	1,0
Azpikoa	0,9	0,7	0,8
IPRI			
– Indize orokorra	-0,4	-4,3	17,3
• Kontsumo-ondasunak	0,2	1,1	3,3
• Ekipo-ondasunak	1,0	0,9	2,1
• Bitarteko ondasunak	-0,3	-1,7	13,2
• Energia	-1,7	-13,3	42,7

(1): Abendutik abendura.

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN.

Prezio industrialei dagokienez, 2021ean eten egin zen indize orokorraren beheranzko joera, eta nabarmen igo zen, % 17,3 (2019an -% 0,4 murriztu zen eta 2020an -% 4,3). Honako hauek eragin zuten indize orokorraren hazkundera: energiaren prezioen igoera izugarria (% 42,7ko hazkundera, eta aurreko ekitaldian -% 13,3ko jaitsiera); bitarteko ondasunen prezioen igoera (% 13,2ko hazkundera, eta aurreko ekitaldian -% 1,7ko jaitsiera); eta kontsumo-ondasunen eta ekipo-ondasunen prezioen igoeraren indartzea (2021ean % 3,3 eta % 2,1, eta 2020an % 1,1 eta % 0,9, hurrenez hurren).

Laneko kostuei dagokienez, produktibitateak -% 1,5eko jaitsiera izan zuen 2021ean (KPIaren % 5,1eko igoerak eta lanaldi osoko lanpostu kopuruaren % 6,6ko igoerak eraginda), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketak -% 0,6ko jaitsiera. Ondorioz, lan-kostu unitarioak % 0,9ko hazkunde txikia izan zuen 2021ean (% 4,3ko hazkundera aurreko ekitaldian).

20. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak

Kontzeptua	(%Δ)		
	2019	2020	2021
BPG erreala	2,1	-10,8	5,1
Enplegua guztira*	2,6	-7,6	6,6
Produktibitatea	-0,5	-3,2	-1,5
Soldatapekoen ordainketa	5,5	-5,6	5,4
Soldatapeko enplegua*	2,9	-6,7	6,0
Soldatapeko bakoitzeko ordainketa	2,6	1,1	-0,6
Lan-kostu unitarioa	3,1	4,3	0,9

(*): Kontabilitate Nazionalako enpleguaren datuak erabili dira: lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.

Lan-merkatua

Estatuko BPGak nabarmen gora egin zuenez (% 5,1eko hazkundera, aurreko ekitaldian -% 10,8ko jaitsiera historikoa izan ondoren, pandemiaren inpaktuaren ondorioz), 2021ean berriro ere hazi zen okupazioa, eta langabeziak behera egin zuen. Hala, langabezia-tasa murriztu egin zen.

Zehazki, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboa Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria okupatuak % 3 egin zuen gora 2021ean (2020an, -% 2,9). Biztanleria aktiboaren guztizkoak, berriz, % 2,1 egin zuen gora (aurreko ekitaldian -% 1,3).

Gauzak hala, 2020an % 57,4koa izatetik 2021ean % 58,5ekoa izatera pasatu zen jarduerata. Gizonezkoen zein emakumezkoen tasek egin zuten gora (% 62,9tik % 63,6ra eta % 52,2tik % 53,7ra, hurrenez hurren).

Aipatu bezala, enplegua % 3 hazi zen 2021ean, 19.773.600 pertsona okupatura iritsi arte. Igoera hori orokorra izan zen eta sektore guztiei eragin zien. Hala, % 4,9 hazi zen lehen sektoreari lotutako enplegua (-% 4 aurreko ekitaldian), % 3,8 eraikuntzari lotutakoa (-% 2,6 aurreko ekitaldian), % 3,3 zerbitzuei lotutakoa (-% 3 aurreko ekitaldian) eta % 0,1 baino ez industria-sektorekoa (2020an -% 2,3). Dena den, kontuan izan behar da, termino absolutuei dagokienez, zerbitzuek izan zutela sektoreko enpleguaren hazkunderik handiena, alde handiarekin (2020an baino 484.500 pertsona okupatu gehiago). Hala, 2021ean sortutako enpleguaren % 85 zerbitzuen sektoreari zegokion.

21. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera.
Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2021	2019	% Δ	
			2020	2021
Biztanleria aktiboa	23.203,2	1,0	-1,3	2,1
Biztanleria okupatua	19.773,6	2,3	-2,9	3,0
– Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	802,7	-1,9	-4,0	4,9
– Industria	2.700,1	2,0	-2,3	0,1
– Eraikuntza	1.291,5	4,6	-2,6	3,8
– Zerbitzuak	14.979,3	2,4	-3,0	3,3
Biztanleria langabetua	3.429,6	-6,6	8,7	-2,9
Langabezia-tasa*	14,8	-7,5	10,1	-4,8

(*): Biztanleria aktiboaren %.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak).

Okupatutako biztanleriari dagokionez, soldatapeko langileak zein soldatapekoak ez zirenak areagotu egin ziren 2021ean, baina soldatapekoak neurri handiagoan (% 3,2 eta % 1,8, hurrenez hurren). Kontratu motari dagokionez, 2021ean areagotu egin ziren aldi baterako kontratua zein kontratu mugagabea zuten soldatapeko langileak (% 7,6 eta % 1,8, hurrenez hurren). Aldiz, lanaldi motaren arabera, enpleguaren hazkundera handiagoa izan zen lanaldi osoaren kasuan (% 3,2), lanaldi partzialaren kasuan baino (% 1,6).

Azterketa biztanleria langabetuan zentratuta, 2021ean -% 2,9 murriztu zen hura (aurreko ekitaldian % 8,7 hazi zen), 3.429.600 langabetura iritsi arte. Hala, 2014an hasitako beheranzko joerak jarraipena izan zuen, 2020an eten egin baitzen, pandemiaren inpaktuaren ondorioz. Hortaz, langabezia tasa % 14,8ra jaitsi zen 2021ean (2020an % 15,5), baina EBko altuenetakoa izaten jarraitu zuen.

22. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2021	2019	% Δ	
			2020	2021
Biztanleria okupatua	19.773,6	2,3	-2,9	3,0
Soldatapekoak	16.625,6	2,7	-3,4	3,2
– Sektore pribatua	13.176,5	2,8	-4,7	2,8
– Sektore publikoa	3.449,1	2,3	2,3	4,6
Soldatapekoak ez direnak*	3.148,0	0,5	-0,5	1,8
– Enplegu-emailleak	944,2	-0,6	-7,0	6,4
– Autonomoak	2.082,1	0,9	2,9	-1,1
– Kooperatibistak	26,4	-1,5	-12,5	18,4
– Familia-laguntza	80,2	3,4	-6,8	14,2
Soldatapekoak, kontratu mugagabea	12.455,8	3,5	-0,5	1,8
Soldatapekoak, aldi baterako kontratua	4.169,8	0,6	-11,4	7,6
Lanaldi osoko okupazioa	17.031,9	2,3	-2,2	3,2
Lanaldi partzialeko okupazioa	2.741,6	2,3	-6,9	1,6

(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak).

Sektore publikoa eta interes-tasak

Ekitaldi honetako martxoaren amaieran Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak emandako informazioaren arabera, 2021ean BPGaren -% 6,76 adinako defizita erregistratu zuten Administrazio Publikoek (finantza-erakundeei emandako laguntzak kontuan hartu gabe). Hala, ehuneko hiru puntu baino gehiago hobetu zen aurreko ekitaldian erregistratutako saldo negatiboa: -% 10,08ko defizita 2020an, pandemiari aurre egiteko gastu publikoa areagotu izanak eta familiei, langileei eta enpresei laguntzeko neurri sozialek baldintzatuta. 2021ean ekonomia suspertu izanak eta enplegua sortu izanak bultzatu zuen defizitaren murrizketa; serie historikoko murrizketarik handiena izan zen, finantza-laguntzarik gabe.

Askotariko erakundeak aintzat hartuta, 2021ean Tokiko Udalbatzek bakarrik eskuratu zuten saldo positiboa haien kontuetan (% 0,27). Dena den, Autonomia Erkidegoek ere aurrekontuen oreka eskuratu zuten ia (-% 0,03). Aitzitik, Administrazio Zentralaren defizit handia nabarmentzen da (-% 5,99), baita Gizarte Segurantzarena ere, neurri txikiagoan (-% 1,02).

Hala ere, urte arteko bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da eragile guztiek hobetu zutela haien aurrekontu-betearazpenen balantzea (defizita murriztuta edo superabita handituta), bereziki, Administrazio Zentralak eta Gizarte Segurantzak; bi kasu horietan, ehuneko puntu eta erdi baino gehiago murriztu zuten haien defizit negatiboa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

23. koadroa Defizit publikoa


(BPGaren %)

Kontzeptua	2020	2021
Administrazio zentrala	-7,51	-5,99
Autonomia-erkidegoak	-0,22	-0,03
Tokiko udalbatzak	0,26	0,27
Gizarte Segurantza	-2,62	-1,02
Administrazio Publikoak guztira	-10,08	-6,76
Finantza-erakundeei laguntzea	-0,19	-0,11
Finantza-laguntza duten Administrazio Publikoak guztira	-10,27	-6,87

Iturria: Ogasun Ministerioa (2022ko martxoak 31)

Azkenik, gogoratu beharrekoa da 2021aren amaieran Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak ekitaldiaren hasierako maila berean mantendu zirela (% 0,25 eta % 0, hurrenez hurren), eta ekitaldian zehar ez zela aldaketarik izan.

8. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ, Erreserba Federala

Aurreikuspenak

Ukrainaren aurkako inbasioaren shock geopolitikoak inpaktua eragin badu ere, Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak 2022ko apirilaren amaieran argitaratutako agertoki makroekonomikoaren arabera, Espainiako ekonomia indarrez haziko da 2022-2025 aldian zehar, enpleguaren, inbertsioaren eta turismoaren suspertzeak bultzatuta, baita Suspertze Planetik eratorritako inbertsioek eta eraberritzeak bultzatuta ere.

Gauzak hala, 2022an zehar BPGa % 4,3 haziko dela aurreikusten da. Dena den, Estatuko ekonomiaren hazkundera indarra galtzen joango da pixkanaka, eta % 1,8an kokatuko da 2025ean. Bestetik, lanaldi osoko enplegua % 3 haziko da 2022an, eta langabezia-tasa % 12tik gora mantenduko da ekitaldi honetan oraindik ere (% 12,8).

24. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2022)

Kontzeptua	Urte batetik besterako aldakuntza-tasa
BPG eta ESKARI-AGREGATUAK	
• Nazio mailako azken kontsumo pribatuaren gastua	4,1
• Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua.	2,0
• Kapital finkoaren eraketa gordina	9,3
– Barne-eskaria (BPGaren hazkunderari egindako ekarpena)	4,6
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	7,8
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	9,1
– Kanpo-saldoa (BPGaren hazkunderari egindako ekarpena)	-0,3
– BPG	4,3
LAN MERKATUA	
– Enpleguaren aldakuntza %-tan ^(*)	3,0
– Langabezia-tasa	12,8

()*: Lanaldi osoko enplegua edo baliokidea

Iturria: Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa (2022ko apirilak 29)

3. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA

Nafarroako egitura ekonomikoa aztertuko dugu kapitulu honetan. Ekonomia garatuetan ohikoa den ekoizpenaren eta enpleguaren banaketa sektoriala du Nafarroako egitura ekonomikoak. Zerbitzuen sektorea da sektore ekonomiko nagusia, eta industria bigarrena. Eta atzerago daude eraikuntza- eta nekazaritza-sektoreak. Dena den, aipatu beharrekoa da Nafarroako industria-sektoreak pisu erlatibo handia duela, eta eskualdeko ekonomiaren motor handietako bat dela.

25. koadroa Ekoizpen-egitura (BEGaren sektore-osaera), 1960-2021

Sektorea	1960		1975		1990		2021	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Nekazaritza	33,0	22,6	14,1	9,7	4,9	4,9	3,1	3,0
Industria	27,5	31,5	37,4	31,8	38,7	27,5	31,0	16,9
Eraikuntza	5,3	5,3	6,4	7,3	7,8	9,7	6,5	5,7
Zerbitzuak	34,2	40,6	42,1	51,2	48,6	57,9	59,4	74,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EIN, FUNCAS.

26. koadroa Okupazio-egitura (enpleguaren sektore-osaera), 1960-2021

Sektorea	1960		1975		1990		2021	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Nekazaritza	41,1	41,7	20,9	23,4	7,2	11,0	3,5	4,2
Industria	23,1	23,2	36,8	27,2	35,7	22,6	26,7	13,7
Eraikuntza	7,2	6,8	8,8	9,6	8,5	9,4	6,4	6,4
Zerbitzuak	28,6	28,3	33,5	39,8	48,6	57,0	63,5	75,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EIN, FUNCAS.

Nafarroako ekoizpenaren eta enpleguaren egitura sektorialaren bilakaera aztertuta, zerbitzuen garrantziak hazten jarraitu zuela eta lehen sektoreak garrantzi handia galdu zuela ikus daiteke. Industria-sektorea 1960ko hamarkadan hasi zen hedatzen, eta Nafarroako ekonomian zuen garrantzia hazten joan zen, hamarkadaren erdialdean puntu gorenera iritsi zen arte. Ondoren, behera egiten hasi zen, baina inguruko ekonomietan baino polikiago. Eraikuntzaren jogaera, berriz, aldakorragoa izan da denboran zehar. Mende honetako lehen urteetan gora egin zuen eraikuntzak, eta Nafarroako ekonomiaren hazkunderaren motor nagusietako bat izan zen (Estatu osoan bezala). Azken urteetan, ordea, joera hori gelditu egin da, sektoreak jasan zuen "adreiluaren krisiaren" ondorioz.

Ekoizpenaren eta enpleguaren egitura sektoriala antzekoa izan da Nafarroan eta Estatuan, baina pandemiaren ondoren ere, baina xehetasunez aztertuz gero, alde batzuk ikus daitezke bi egitura ekonomikoen artean. Zehazki, Nafarroako nekazaritzako ekoizpenaren partaidetzak behera egiten jarraitu zuen 2021ean eta % 3,1ean kokatu zen (2020an % 4,3koa izan zen). Estatuan, berriz, % 3,0ko partaidetza izan zuen sektore horrek (aurreko ekitaldian % 3,5ekoa). Nekazaritza-sektorea izan da pandemiak gehien kaltetu duen sektoreetako bat, eta haren susperraldia geldoagoa izaten ari da.

Zerbitzuen sektorearen partaidetza, berriz, igo egin zen Nafarroan zein Estatuan, baina Estatuan hazkundera handiagoa izan zen. Zehazki, 2021ean % 74,3ko partaidetza izan zuen Estatuan, eta % 59,4koa Nafarroan.

Azkenik, industria-sektorearen ekoizpenaren partaidetzak behera egiten jarraitzen du azken urteetan zehar, era nabarmenean. Zehazki, 2021ean % 16,9ko partaidetza izan zuen Estatuan (2020an % 16,3), eta % 31,0koa Nafarroan (2020an % 30,1).

27. koadroa Nafarroaren parte-hartzea Espainia osoan, 2021

Sektorea	% Nafarroa/Espainia	
	BEGa	Enplegua
Nekazaritza	1,89	1,19
Industria	3,38	2,78
Eraikuntza	2,09	1,43
Zerbitzuak	1,48	1,19
Guztira	1,85	1,43

Iturria: EIN

Nekazaritzak eta eraikuntzak antzeko partaidetza dute Nafarroako eta Estatuako ekonomietan, baina aldea handiagoa da industria-sektorean eta zerbitzuen sektorean.

Zehazki, Nafarroako industria-ekoizpenaren pisu erlatiboa Espainiakoa baino ehuneko 14,1 puntu handiagoa izan zen 2021ean (2020an, ehuneko 13,8 puntu handiagoa). Baina ez zen gauza bera gertatu zerbitzuen kasuan, Estatuak ehuneko 14,9 puntu gehiago eskuratu baitzituen (2020an ehuneko 14 puntu). Enpleguaren egitura sektorialaren bilakaera aztertuta, joera berak errepikatzen dira. Izan ere, aipatutako produkzio-sistemaren eraldaketa lotuta dago produkzio-ehunaren eraldaketarekin.

28. koadroa **Balio erantsi gordina Nafarroako biztanle bakoitzeko**

(Espainiako batez besteko oinarriaren indizea=100)

Urtea	BEG biztanle bakoitzeko
2012	126,1
2013	125,5
2014	123,5
2015	123,2
2016	124,4
2017	123,8
2018	123,3
2019	123,7
2020	130,8
2021	133,2

Iturria: EIN

Era berean, azken urteetan Nafarroako ekonomiak izandako hazkundearen ondorioz, biztanle bakoitzeko balio erantsia Estatuan baino handiagoa da Nafarroan (2021ean % 33,2 handiagoa eta 2020an % 30,8). Estatu mailan, Nafarroako ekonomia industrian espezializatu da, eta horrek eragin du Nafarroako industriaren garapena eta ongizatea Espainiakoak baino handiagoak izatea.

Lehen sektorea

Sektore honek lurraldeko enpleguari eta ekoizpenari egiten dion ekarpena nabarmen jaitsi da azken urteetan, baina, hala ere, Nafarroako ekonomiaren oinarritzko jarduera bat izaten jarraitzen du. 2021ean enpleguaren % 3,5 eta eskualdeko BEGaren % 3,1 lehen sektoreari zegozkion. Horrez gain, nekazaritzako elikagaien industria sostengatzen du, eta industria horrek garrantzi eta dinamikotasun handiak ditu Nafarroan, lurraldeko ekonomiaren hazkundeari eragiten baitio.

Hain zuzen ere, Nafarroako lehen sektorea –nekazaritza, abeltzaintza eta basoak –, tradizioz, elikagai- eta aberastasun-iturri nagusia izan da bertako biztanleentzat. Joan den mendeko 60ko eta 70eko urteetan industriaren booma iritsi zenean, lehen sektoreak garrantzia galdu zuen, eta industria-ekoizpenak hartu zuen garrantzia. Dena den, ordutik, zorionez, Nafarroako landa-eremuak hazten eta modernizatzen jarraitu dute azken hamarkada hauetan. Pandemiak moteldu egin zuen hazkunde hori eta ikaragarritzko eragina izan zuen sektorearen bilakaeran, kalteak larrituz. Orain, aurrera egiteko eta berregituratzeko ahaleginetan ari da sektorea, neurri batean, Nafarroako Gobernuaren laguntzari esker.

Zentzu horretan, nabarmendu beharrekoa da eskualdeko sektore ekologikoarentzako estrategia bat finkatzeko erronka garrantzitsua duela aurrean Nafarroak, eta 2030eko Nafarroako Ekoizpen Ekologikorako Planean estrategia hori mamitzea espero da.



Era berean, merkaturatzeko kanal laburrei buruzko Foru Legearen aurreproiektua ere ekoizpen ekologikorako oso lagungarria izango dela aurreikusten da. Nekazaritzako ustiapenetako titularren eta amaierako kontsumitzaileen arteko elikagaien zuzeneko merkaturatzea arautzea eta sustatzea da Foru Lege horren helburua.

Produktu ekologiko gehien eskatzen dituen laugarren autonomia-erkidegoa da Nafarroa: 39,6 kg pertsonako eta urteko. Hori ez dator bat haren ekoizpen ekologikoarekin, nekazaritzako azaleraren % 7 baino ez baitu ziurtatuta. Hortaz, beste autonomia-erkidego batzuk baino askoz ere atzerago kokatzen da. Esaterako, Kataluniak % 24,8 du ziurtatuta, Andaluziak % 22, Valentziako Erkidegoak % 19,6 eta Balearrek ere % 19,6. Europako Batzordearen 'Baserritik mahaira' estrategiak ezartzen duenez, Nafarroako nekazaritzako azaleraren % 25ek ziurtagiri ekologikoa izan behar du 2030erako. Hortaz, azkenaldian aurrerapausoak eman diren arren, bide luzea dago egiteko oraindik.

Dena den, Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak apustu sendoa egin du ekoizpen ekologikoaren alde (2021ean, Nafarroako nekazaritza ekologikoari ordaindutako laguntzen zenbatekoa 1,7 milioi euro baino zerbait altuagoa izan zen). Hala, nekazariak, abeltzainak eta nekazaritza-sektoreko enpresek aukera dute haien jarduera eta sektorearen jarduera berreskuratzeko.

Azkenik, Ciudad Agroalimentaria de Tudelak eta CEINek nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzeko eta sektoreko enpresen arteko elkarlana indartzeko helburuz sinatutako akordioa aipatu behar da. Akordio horren arabera, CATen kokatuta dagoen Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Haztegia kudeatzen jarraituko du CEINek, eta Haztegi Digital berri bat jarriko du martxan.

Industria

Espainiako eremu industrializatuenetako bat da Nafarroa. Azken hamarkadetan, funtsezko ekoizpen-jarduera bilakatu da lurralderako. 2021ean Nafarroako enpleguaren % 26,7 eta BEGaren % 31,0 zegozkion industriari.

Estatistika Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, honako hauek dira jarduera-sektore nagusiak: Elikagaien industria; Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa; Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik; eta beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa. Hain zuzen ere, lau jarduera horiek Nafarroako industria-sektoreko enpleguaren % 56,4 eta sortutako diru-sarreraren % 59,2 bildu zuten 2020an.

Industria-ehunari dagokionez, Nafarroan ETEak nagusitzen dira. Horietako 37k 250 langile baino gehiago zituzten 2021ean, Camerdataren (Espainiako Merkataritza Ganberek osatutako sozietatea) datu-basearen arabera.

Industria-enpresa gehienak Iruñean, Nafarroako ipar-mendebaldean, Erriberagoitian eta Tuteran kokatzen dira.

Sektoreko azken berritasunen artean, Nafarroako Gobernuak etorkizuneko 2021-2025 Industrializazio Planaren alde egindako apustua nabarmendu behar da. Honakoak dira planaren helburuak: industriak Nafarroako BPGan duen ordezkartzaren tasa ehuneko puntu bat handitzea; 2.000 langile gehiago izatea, hau da, 74.000 langile; eta 3.500 enpresako ekosistema izatea.

Nafarroako industria Foru Erkidegoaren politika sozioekonomikoko bide-orriaren erdian kokatu nahi du plan honek. Horretarako, Nafarroako industria-sektorearen hazkundea indartu nahi du, eta beharrezkoa den eraldaketa bikoitza bultzatu. Industria-sektoreko enpresak erresilienteak, jasangarriak eta lehiakorak izatea lortu nahi da, eta enpresa horiek hainbat alderditan nabarmentzea, hala nola I+G+b arloko inbertsioan. Plana indarrean egongo den bost urteetan 130 milioi euro bideratuko liriteke ardatz estrategiko horretara.

Hala, Nafarroak oinarriak finkatu nahi ditu motor ekonomiko gisa duen lidergo industrialia indartzeko eta Agenda 2030ek mahai gainean jarritako Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzen laguntzeko. Modu horretan, S4 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak proposatzen duen trantsizio bikoitza lortuko litzateke: ekologikoa eta digitala.

Eraikuntza

Mendearen hasieran sektoreak Nafarroan izan zuen garapen garrantzitsua zapuztu egin da azken urteetan, jarduerak bizi izandako krisi ezagunaren ondorioz. Dena den, 2021ean Nafarroako enpleguaren % 6,4 eta BEGaren % 6,5 eraikuntza-sektoreari zegozkion.

2021ean sektorean gertatutako berritasunen artean, Nafarroak industrializazioaren eta eraikuntzako robotikaren zentro nazional bat izango duela aipatu behar da. Prestakuntzarako eta ikerketarako erabiliko da instalazio hori. Ez du aurrekaririk sektore honetan, eta arlo honetako erreferentia izan nahi du Europa mailan.

Zentro berritzaile hau Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak bultzatzen du. Haren helburua profesionalak prestatzea eta etxegintza industrializatuaren gainean ikertzea izango da, eraikuntza modularrean faktore teknologikoak, digitalak eta robotizazio-faktoreak txertatuta. Nafarroako Gobernuak eta Ministerioak laster sinatuko duten lankidetzaren hitzarmenean oinarrituko da zentroa martxan jartzea. Kudeaketan pareko parte-hartzea izatea eta bien artean finantzatzea aurreikusten da, Next Generation funtsen bidez.

Zerbitzuak

Azken urteetan zerbitzuen sektorearen profila oso dinamikoa izan da, eta egonkor mantendu izanagatik nabarmendu da. Horrez gain, ziklo ekonomikoarekiko mendekotasun txikiagoa eta etengabeko hazkunde orokorra izan ditu. Ondorioz, Nafarroako ekoizpen-ehunean duen partaidetzak ere gora egin du apurka. 2021ean enpleguaren % 63,5 eta BEGaren % 59,4 zegozkion zerbitzuen sektoreari, eta enpresen ia erdiak Iruñean eta Iruñeko eskualdean zeuden.

Osasun-zerbitzuak, hezkuntza, merkataritza, bankuak eta aholkularitzak nabarmentzen dira Nafarroan, haien kalitateagatik eta garrantziagatik. Azken urteetan, internetek eta teknologia berriek izan duten gorakadaren ondorioz, gero eta enpresa gehiago espezializatu dira eremu horretan.

Turismo-sektoreko proiektu nabarmenei eta berritasunei dagokienez, aipatzekoa da Foru Erkidegoak 56 milioi euro jasoko dituela 2021 eta 2023 artean, Helmugen Jasangarritasun Turistikorako Planetarako Estatuko ezohiko laguntza-programaren eskutik; Next Generation EU Europako suspertze funtsetan dute jatorria laguntza horiek, eta sektorearen suspertzea bultzatzera bideratuta daude. Helmugen Jasangarritasun Turistikorako Planen Programa Turismoko Estatu Idazkaritzak diseinatutako eskuhartzea da, eta Estatuko Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren parte da. Plan horrek funtsezko tresna izan nahi du turismo-sektorea berreraikitzeke eta ehun ekonomikoa zein soziala berregituratzeko.

Gainera, helmuga bakarra sortzeko helburuz, hau da, munduari begira gastronomiaren, nekazaritzako elikagaien eta turismoaren arloko produktu eta baliabideen erakusleihu bat sortzeko helburuz, Nafarroak online plataforma bat sustatu du EAE, Errioxa, Bearno eta Ipar Euskal Herriarekin batera, GATURI proiektuaren babesean. Gertutasun geografikoa eta bost eskualdeek turismo gastronomikoari eta nekazaritzako elikagaien arloko baliabideei ematen dieten balioa funtsezkoak izan dira indarrak batu eta proiektu hau bultzatzeko; Europako funtsen bidez finantzatu dute, POCTEFA programaren barruan. Lehen hilabeteak egoera aztertzeke erabili ondoren, egitasmoak indarra hartu du orain, eta gastronomiaren inguruko turismo jasangarriaren aldeko apustua egin du.

Azkenik, aipatzekoa da sektore turistikoak eta merkataritza-sektoreak ahaleginak egiten jarraitzen dutela eraldaketa digitalerako. Nafarroako Gobernuari esker eta digitalizaziorako martxan jarritako hainbat tresnari esker, sektoreak aurrerapauso handiak eman ditu norabide horretan. Esaterako, 2021ean martxan jarri zituzten E-commerce gida interaktiboa, IKT laguntzak (milioi bat eurotik gorako balioa zutenak) eta turismo-sektorearen heldutasun digitalari buruzko diagnostikoa egiteko tresna bat.

4. IKUSPEGI OROKORRA

2021ean, mundu mailan, berreskuratu egin zen jarduera. Testuinguru horretan, Nafarroako BPGa % 5,9 igo zen, aurreko ekitaldian pandemiaren inpaktuaren ondorioz -% 8,3ko atzerakada handia izan ondoren.

Kontzeptua	29. koadroa		Bilakaera orokorra		
	2017	2018	2019	2020	2021
<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>					
NAFARROA					
- BPG	3,2	2,9	2,7	-8,3	5,9
- Enplegua	4,2	1,2	2,4	-3,6	1,9
- Langabezia-tasa ⁽¹⁾	10,2	10,0	8,2	10,1	10,6
- KPI ⁽²⁾	0,6	1,3	1,3	-0,6	6,6
ESPAINIA					
- BPG	3,0	2,3	2,1	-10,8	5,1
- Enplegua	2,6	2,7	2,3	-2,9	3,0
- Langabezia-tasa ⁽¹⁾	17,2	15,3	14,1	15,5	14,8
- KPI ⁽²⁾	1,1	1,2	0,8	-0,5	6,5

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza abendutik abendura.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria Oinarria, 2011).

Hala, aintzat hartuta Foru Erkidegoko hazkundera apur bat handiagoa izan zela Eurogunekoa baino (% 5,3ko hazkundera, ELGAren arabera), 2021ean aurrerapauso txiki bat gertatu zen Europako ekonomia nagusiekin bat etortzeko prozesuari dagokionez.

Bestetik, FUNCAS Aurrezki Kutxen Fundazioak 2022ko maiatzean egindako aurreikuspenak aintzat hartuta, 2021ean Espainiako autonomia-erkidego guztiak hazi ziren, modu orokorrean. Hazkunderik handiena Balear eta Kanariar uharteek izan zuten (% 10,8 eta % 7, hurrenez hurren), hain zuzen ere, 2020an pandemiaren ondorioz beherakada handiena izan zutenek. Izan ere, bi erkidego horiek turismoaren mendekotasun handia dute, eta ekitaldi hartan jendeak ezin izan zuen mugitu. Jarraian, hazkunderik handiena izan zuten erkidegoak honako hauek izan ziren, Estatuko batezbestekotik gora: Asturias, Madril eta Katalunia, % 5etik apur bat gorago (% 5,5, % 5,3 eta % 5,2, hurrenez hurren). Aitzitik, hazkunderik txikienak Extremadurak, Gaztela Mantxak (% 4,2 bi kasuetan), Murtziak (% 4) eta Aragoik (% 3,8) izan zituzten.


Lan-merkatuari dagokionez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2021ean % 1,9 igo zen okupazio-tasa Nafarroan. Estatuan handiagoa izan zen hazkundera (% 3). Hala, langabezia-tasak Estatuan bakarrik egin zuen behera (2020an % 15,5 eta 2021ean % 14,8). Foru Erkidegoan apur bat igo zen (2020an % 10,1 eta urtebete geroago % 10,6). Prezioei dagokienez, petrolio-upela garestitzen joan zen, pixkanaka.

Agertoki horretan, 2021ean, ondoz ondoko hilabeteetan prezioen urte arteko tasak positiboak eta gorakorrak izan ziren Nafarroan zein Estatuan. Zehazki, 2021ean, inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) % 6,6ra igo zen Nafarroan eta % 6,5era Estatuan (2020aren itxieran -% 0,6 eta -% 0,5, hurrenez hurren).

Azkenik, aipatzekoa da 2022ko lehen hiruhilekoan Nafarroako BPGak urte arteko % 6,5eko hazkundea izan duela. Hala, jarraitu egin du 2021eko bigarren hiruhilekoan hasitako goranzko joerak. Dena den, ekitaldi honetan zehar Nafarroako ekonomiaren hazkunde-erritmoa moteldu egingo dela diote aurreikuspenek.

9. grafikoa BPGaren bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN.

4.1 PRODUKZIOA

2020an, pandemiaren inpaktuaren ondorioz, BPGak jaitsiera historikoa izan zuen Nafarroan, -% 8,3koa. Horren ondoren, 2021ean, Foru Erkidegoko ekonomia % 5,9 hazi zen. Estatuan ere hazi egin zen ekonomia (2021ean % 5,1eko hazkunde; eta, aurreko ekitaldian, -% 10,8ko jaitsiera).

Azterketa hiruhilekoen arabera sakonduta, Foru Erkidegoak 2021ean zehar izandako urte arteko profilak suspertzea erakusten du, baina erritmo heterogeneoarekin: lehenengo hiruhilekoan jarduera -% 2,2 jatsi zen, bigarrenean % 18,5eko hazkunde nabarmena izan zuen (konfinamenduko aldirik gogorrenarekin alderatuta), hirugarrenean % 4,1era jaitzi zen hazkunde-erritmoa eta laugarren hiruhilekoan berriz indartu egin zen hazkunde, % 4,9ra arte.

Eskaintzaren ikuspegitik, lau sektore handiak hazi egin ziren 2021ean: industria-sektorea % 6,5, zerbitzuak % 6,1, eraikuntza % 4,3 eta lehen sektorea % 2,1 (-% 9,5, -% 7,9, -% 7,6 eta -% 2,2eko jaitsierak 2020an, hurrenez hurren).

30. koadroa Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa errealak)

Kontzeptua	2019	2020	2021
NAFARROA^(*)			
- Nekazaritza	1,0	-2,2	2,1
- Industria	2,2	-9,5	6,5
- Eraikuntza	3,4	-7,6	4,3
- Zerbitzuak	2,9	-7,9	6,1
- Guztira	2,7	-8,3	5,9
ESPAINIA^(*)			
- Nekazaritza	-2,5	4,3	-3,7
- Industria	1,4	-10,1	5,2
- Eraikuntza	5,3	-11,3	-3,4
- Zerbitzuak	2,3	-11,5	6,0
- Guztira	2,1	-10,8	5,1

(*): Oinarrizko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Arreta industria-sektorera ekarrita, Industria Produktzioen Indizea (IPI) goranzko joerara itzuli zen berriz ere 2021ean, eta % 10,4ko hazkunde handia izan zuen. 2020an, berriz, -% 10,9ko jaitsiera erregistratu zen. Bestetik, klima industrialak zifra positiboetara itzuli zen (2021ean 1, eta aurreko ekitaldian, -10). Aldi berean, aurreikusitako eskarien bilakaera positiboa indartu egin zen (10, eta urtebete lehenago, 4), baina uneko eskariak balantze negatiboarekin jarraitu zuten, aurreko ekitaldian baino apalagoa izan arren (-4, eta 2020an, -22). Hala, 2021ean % 4,1 hazi zen industria-sektoreko enplegua Foru Erkidegoan.

31. koadroa Industria Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2019	2020	2021
Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	9,8	-10,9	10,4
Industria-giroa ⁽²⁾	3	-10	1
Egungo eskaerak ⁽²⁾	10	-22	-4
Aurreikusitako eskaerak ⁽²⁾	7	4	10
Industria-enplegua	-0,4	1,1	4,1

(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

(2): Erantzunen saldoak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Eraikuntzari dagokionez, 2021ean gora egin zuen lizitazio ofizialak ere, % 69,1eko hazkunde nabarmenarekin (urtebete lehenago, -% 44,7ko murrizketa). Halaber, areagotu egin ziren hasitako etxebizitzak (% 12,6, eta 2020an, -% 11,8) eta indartu egin zen amaitutako etxebizitzaren hazkunde-erritmoa (% 22,6, eta aurreko ekitaldian, % 14,7). Gauzak hala, Nafarroako sektoreko enplegua % 17,9 hazi zen 2021ean, 2020an -% 3,7ko jaitsiera izan ondoren.

32. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2019	2020	2021
Zementuaren itxurazko kontsumoa*	9,8	-13,4	9,6
Lizitazio ofiziala ⁽¹⁾	-3,2	-44,7	69,1
Hasitako etxebizitzak ⁽²⁾	14,4	-11,8	12,6
Amaitutako etxebizitzak ⁽²⁾	20,8	14,7	22,6
Enplegua	-9,0	-3,7	17,9

(*): Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.

(1): Seopan.

(2): Etxebizitza Ministerioa.

Iturria: Nafarroako Gobernua, EIN.

Zerbitzuei dagokienez, sektorea heterogeneoa denez, aldeak daude aztertutako azpisektoreetako adierazleen artean. Dena den, 2021ean goranzko bilakaera gailendu zen.

Zentzu horretan, Nafarroan, aztertutako azpisektoreko adierazle guztiak tasa positiboetara itzuli ziren 2021ean: hoteletako gaualdiak % 78,6 areagotu ziren, aire-trafikoko bidaiariak % 33,9, autobideetako ibilgailu arinen trafikoa % 26,2 eta ibilgailu astunena % 8,2 (-% 63,1, -% 65,5, -% 26,3 eta -% 9,4ko jaitsierak aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Hala, Nafarroako sektoreko enpleguak % 0,1eko igoera apala izan zuen 2021ean (-% 5,2ko jaitsiera 2020an).

33. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

Kontzeptua	2019	2020	2021
Hoteletako gaualdiak	3,0	-63,1	78,6
Aire-trafikoko bidaiariak	18,5	-65,5	33,9
Ibilgailu arinen trafikoa autobideetatik	4,7	-26,3	26,2
Ibilgailu astunen trafikoa autobideetatik	1,6	-9,4	8,2
Enplegua	5,7	-5,2	0,1

*Iturria: AENA, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.***4.2 ESKARIA****Barne-eskaria**

Suspertze ekonomikoa gailendu zen agertoki horretan, Nafarroako ekonomiak gora egin zuen 2021ean (% 5,9; aurreko ekitaldian, -% 8,3ko jaitsiera). Hala, barne-eskariak ehuneko 4,9 puntu positiboko ekarpena egin zion hazkunde globalari (ehuneko -7,5 puntu negatibo 2020an).

Osagaiei dagokienez, kontsumo pribatua eta, bereziki, inbertsioa hazi egin ziren (% 4,9 eta % 8 2021ean, eta -% 8,9 eta -% 13,2 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoak, berriz, behera egin zuen (% 2,9 2021ean, eta % 5,1 aurreko ekitaldian).

34. koadroa Barne eskaerako adierazleak*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

Kontzeptua	2019	2020	2021
Kontsumo pribatua	2,1	-8,9	4,9
Kontsumo publikoa	3,4	5,1	2,9
Kapital-eraketa gordina	1,9	-13,2	8,0
Barne eskaria*	2,1	-7,5	4,9

Hazkunde globalera ekarpenaIturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua.*

Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak aintzat hartuta, turismoen matrikulazioen beheranzko erritmoa geldotu egin zen (2021ean -% 18,7 eta 2020an -% 28,5). Ibilgailu industrialen matrikulazioak, berriz, % 9,1 egin zuen gora (aurreko ekitaldian -% 32,1). Bestalde, hitzarmenetan itundutako soldata-igoerak behera egiten jarraitu zuen, % 1,54ra arte (2019an % 2,18 eta 2020an % 1,76).

35. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2019	2020	2021
Ibilgailuen matrikulazioa	-5,2	-28,5	-18,7
KPI ⁽¹⁾	1,3	-0,6	6,6
Soldata-igoera ⁽²⁾	2,18	1,76	1,54
Ibilgailu industrialen matrikulazioa	-8,2	-32,1	9,1

(1): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

(2): Hitzarmenetan itundua.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa.

Kanpo-merkataritza

2021ean nabarmen suspertu zen jarduera eta, testuinguru horretan, Nafarroako kanpo-merkataritzak igoera handia izan zuen: % 6,5 hazi ziren esportazioak eta % 22,1 inportazioak (-% 12,6 eta -% 15eko jaitsierak, hurrenez hurren, aurreko ekitaldian).

36. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan

(M euro)

Kontzeptua	2019	2020	2021*	% Δ 21/20
Esportazioak, guztira	10.205,4	8.917,7	9.497,2	6,5
Inportazioak, guztira	5.465,0	4.646,4	5.672,5	22,1
Saldoa, guztira	4.740,4	4.271,3	3.824,7	-10,5

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua.

Zehazki, 2021ean Nafarroako esportazioak 9.497,2 milioi eurora iritsi ziren, hau da, % 6,5 hazi ziren aurreko ekitalditik. Nafarroako inportazioak, berriz, 5.672,5 milioi eurora igo ziren, hau da, urte arteko % 22,1eko igoera izan zuten. Hala, kanpotik egindako erosketek pandemiaren aurreko bolumena (2019koa) gainditu zuten, eta kanpora egindako salmentek baxuagoak izaten jarraitu zuten.

Bilakaera horrekin bat, Nafarroako merkataritza-balantzaren saldo positiboa 3.824,7 milioi eurora murriztu zen 2021ean (2020an 4.271,3 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, % 167,4ra jaitsi zen (% 191,9 aurreko ekitaldian).

37. koadroa Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(M euro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2019	2020	2021*	%	% Δ 21/20	2019	2020	2021*	%	% Δ 21/20
GUZTIRA (gutzizkoak)	10.205,4	8.917,7	9.497,2	100,0	6,5	5.465,0	4.646,4	5.672,5	100,0	22,1
HERRIALDEEN ARABERA (gutzizkoak)										
– Frantzia	1.779,5	1.554,8	1.729,6	18,2	11,2	574,7	536,3	639,8	11,3	19,3
– Alemania	1.688,3	1.451,7	1.340,1	14,1	-7,7	1.423,2	1.138,6	1.482,6	26,1	30,2
– Italia	999,8	790,2	743,0	7,8	-6,0	326,4	283,4	357,9	6,3	26,3
– Erresuma Batua	580,5	539,5	582,0	6,1	7,9	114,2	112,0	72,9	1,3	-34,9
– Portugal	430,3	396,7	464,2	4,9	17,0	235,2	191,6	246,9	4,4	28,9
– EB-27 guztira	6.612,9	5.578,4	5.945,9	62,6	6,6	4.016,0	3.505,2	4.233,4	74,6	20,8
– Europako gainerakoak	981,4	971,3	1.095,6	11,5	12,8	306,2	240,7	230,0	4,1	-4,4
– Estatu Batuak	496,2	534,0	735,4	7,7	37,7	172,2	127,0	134,9	2,4	6,2
– Beste helmuga batzuk	2.114,9	1.834,0	1.720,3	18,1	-6,2	970,6	773,6	1.074,2	18,9	38,9
SEKTOREEN ARABERA (gutzizkoak)										
– Lehen sektorea	718,7	737,1	853,0	9,0	15,7	443,3	411,4	404,8	7,1	-1,6
– Nekazaritzako elikagaien industria	629,2	641,5	583,6	6,1	-9,0	229,9	227,6	221,4	3,9	-2,7
– Industria kimikoa	259,3	209,9	177,0	1,9	-15,7	377,5	387,9	634,8	11,2	63,7
– Material plastikoak, kautxua	341,0	356,0	390,3	4,1	9,6	299,4	256,3	320,3	5,6	25,0
– Metal komunen manufaktura	745,7	687,9	895,8	9,4	30,2	539,1	484,0	751,1	13,2	55,2
– Makinak, material elektrikoa	2.167,3	2.040,5	2.151,8	22,7	5,5	1.737,0	1.402,0	1.719,2	30,3	22,6
– Garraiorako materiala	4.665,2	3.615,7	3.713,0	39,1	2,7	1.156,8	944,6	995,5	17,5	5,4
– Gainerakoak	679,0	629,0	732,6	7,7	16,5	682,0	532,5	625,2	11,0	17,4

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Eremu geografiko handien arabera, Europa (EB-27) izan zen Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia. 2021ean, Europara egin zituzten esportazioen % 62,6, eta handik inportatu zuten gutzizkoaren % 74,6. Zentzu horretan, Frantziara eta Alemaniara egin ziren kanpo-salmenten % 18,2 eta % 14,1, eta handik egin ziren kanpoko erosketen % 11,3 eta % 26,1, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2021ean garraiorako materiala izan zen esanguratsuen, esportazioen % 39,1 eta inportazioen % 17,5 hartu baitzuen. Horrek neurri handian baldintzatu zuen Nafarroako kanpo-merkataritzaren etorkizuna.

4.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

Pandemiaren inpaktuaren ondorioz aurreko ekitaldian erortze historikoa izan ondoren, 2021ean nabarmen egin zuen gora jarduerak. Testuinguru horretan, 2021ean zehar Brent petrolio upelaren balioa % 71,2 hazi zen eta prezioek urte arteko aldakuntza-tasa positiboak izan zituzten Nafarroako Foru Erkidegoan, 2021eko urtarrilean hasi eta ekitaldi osoan zehar, goranzko joera argiarekin. Hala, KPlaren urte arteko hazkunde-erritmoa hiletik hileraz azkartzen joan zen, otsailean eta ekainean izan ezik. Ekitaldiko azken hiru hilabeteetan % 5etik gorako tasak eskuratu zituen.

Hala, 2021ean metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 6,6 igo zen Nafarroan (aurreko ekitaldiaren itxieran -% 0,6koa zen). Ekitaldi osoko batez besteko tasa % 3,4koa izan zen (-% 0,6 aurreko ekitaldian).

38. koadroa Prezioen bilakaera Nafarroan

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

NAFARROA	2019	2020	2021
KPI			
Orokorra ⁽¹⁾	1,2	-0,6	3,4
Orokorra ⁽²⁾	1,3	-0,6	6,6
– Elik. eta alkoh. gabeko edariak	3,2	1,5	5,1
– Alkoholdun edariak, tabakoa	0,7	0,2	0,7
– Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,7	1,1
– Etxebizitza	-4,0	-1,7	24,6
– Etxeko tresneria	0,4	0,8	3,0
– Osasuna	1,5	0,9	1,9
– Garraioak	5,8	-5,0	10,2
– Komunikazioak	0,2	-4,2	-0,4
– Aisialdia eta Kultura	0,7	-2,1	4,0
– Irakaskuntza	0,2	1,7	-5,5
– Hotelak eta jatetxeak	0,5	0,9	3,1
– Beste batzuk	1,0	2,0	2,0
Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea			
Orokorra	-1,0	2,0	1,5
– Nekazaritza-produktuak	-0,6	0,0	5,2
– Baso-produktuak	6,7	7,3	5,8
– Animalia-produktuak	-1,8	4,2	-4,3

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua eta EIN.

Arreta 2021eko abenduko urte arteko aldakuntzan jarrita, eta ondasunen taldeak aintzat hartuta, petrolioaren garestitze nabarmenaren harira, garraioak nabaritu zuen prezioen bigarren hazkunderik handiena Nafarroan (% 10,2), eta etxebizitza izan zen lehenengoa (% 24,6). Garraioaren atzetik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 5,1) kokatu ziren, lehenengai jakin batzuen eta erregaien garestitzearen ondorioz. Aitzitik, ekitaldiaren itxieran, behera egin zuten komunikazioen zein irakaskuntzaren prezioek (-% 0,4 eta -% 5,5, hurrenez hurren).

Nafarroako nekazariak jasotako prezioei dagokienez, horien hazkundea % 1,5era jaitsi zen 2021ean (% 2koa 2020an). Izan ere, nekazaritza-produktuen prezioek gora egin zuten arren (% 5,2ko hazkundea 2021ean, eta aldakuntza nulua 2020an), animalia-produktuen prezioak jaitsi egin ziren (-% 4,3) eta baso-produktuen prezioen hazkundea moteldu egin zen (% 5,8ko hazkundea, eta aurreko ekitaldian % 7,3koa).

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, 2021ean ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua -% 1,9 jaitsi zen Nafarroan (2020an % 5,6 hazi zen). Langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua, berriz, % 2,3 igo zen Foru Erkidegoan (-% 0,1eko jaitsiera aurreko ekitaldian).

39. koadroa		Soldata-adierazleak		
Kontzeptua	2019	2020	2021	
Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa)				
- Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	2,4	5,6	-1,9	
- Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	1,9	-0,1	2,3	
Hitzarmenak				
- Hitzarmen kopurua	225	92.725	2,18	
- Eragina jasandako langileak	183	102.306	1,76	
- Adostutako soldata-igoera	138	86.814	1,54	

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa (2022ko otsailko hitzarmenetako datuak).

4.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Lan-merkatua Nafarroan

2020an erortze historikoa izan zuen jarduerak, pandemiaren inpaktuaren ondorioz. 2021ean, berriz, ekonomiaren gorakada orokorra izan zen, eta okupazioa berriz ere hazi zen Nafarroan eta Estatuan. Dena den, langabetuen kopuruak Estatu mailan bakarrik egin zuen behera, eta hazten jarraitu zuen Nafarroan.

Lehenik eta behin, biztanleria aktiboari erreparatuko diogu. 2021ean % 2,5 hazi zen Nafarroan eta 317.200 pertsonatara iritsi arte. Horietatik 283,6 mila pertsona okupatuak ziren (% 1,9ko igoera) eta 33,6 mila pertsona langabezia zeuden (aurreko ekitaldian baino % 8 gehiago). Estatu mailan ere 2021ean hazi egin ziren biztanleria aktiboa (% 2,1) eta okupazioa (% 3), baina eremu horretan behera egin zuen langabezia zegoen biztanle kopuruak (-% 2,9).

Dinamika horrekin bat, Nafarroako jarduera-tasa % 58,6ra igo zen 2021ean (% 57,1ekoa zen 2020an). Gizonezkoen tasa egonkor mantendu zen (% 62,5ekoa zen 2021ean eta 2020an), eta emakumezkoenak gora egin zuen (% 54,8 eta % 52 hurrenez hurren). Hortaz, bi sexuen arteko diferentziala murriztu egin zen 2021ean Foru Erkidegoan: 2020an ehuneko 10,5 puntukoa zen, eta 2021ean ehuneko 7,7 puntukoa. Estatuko jarduera-tasa, berriz, hazi egin zen, % 57,4tik % 58,5era.

Nafarroako langabeak aintzat hartuta, 2021ean % 8 hazi zen langabetuen kopurua, 33,6 mila pertsonara arte; hala, jarraitu egin zuen pandemiaren etorrerarekin 2020an hasitako goranzko joerak (% 20,1). Emakumeen eta, bereziki, gizonen langabeziak egin zuen gora (% 0,7 eta % 14,5, hurrenez hurren). Aitzitik, Estatuan -% 2,9 murriztu zen biztanleria langabetua (aurreko ekitaldian % 8,7ko igoera), eta bi sexuen kasuan egin zuen behera langabeziak, modu orokortuan (-% 4,8ko jaitsiera gizonen artean eta -% 1,1 emakumeen artean).

Hala, biztanleria langabetuaren bilakaerari dagokionez, aurrez COVID-19aren inpaktuari buruzko kapituluari aipatu duguna aintzat hartzea komeni da, hau da, ABEEEak funtsezko tresnak izan zirela enpleguaren galera gelditzeko. Tresna horiek izan ezean, langabetu kopuruaren igoera askoz ere handiagoa izango zen.

Modu horretan, 2021ean bilakaera heterogeneoa izan zuen langabezia-tasak. Nafarroan gora egin zuen (% 10,6, eta 2020an % 10), eta Estatuan behera (% 14,8, eta urtebete lehenago % 15,5). Sexuaren arabera, Nafarroan, langabezia-tasa igo egin zen gizonen artean (2021ean % 11,4 eta aurreko ekitaldian % 10), eta jaitsi emakumeen artean (% 9,7 eta % 10,1, hurrenez hurren). Estatuan, berriz, bi kasuetan egin zuen behera (2020an % 13,9koa izatetik 2021ean % 13,1ekoa izatera, eta % 17,4tik % 16,7ra, hurrenez hurren).

40. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia

(urteko batezbestekoak, milakotan)

Eremua		2020			2021		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Nafarroa	Potentzialki aktiboak	266,6	275,2	541,8	266,9	274,7	541,5
	Aktiboak	166,5	143,0	309,5	166,8	150,4	317,2
	Okupatuak	149,9	128,5	278,4	147,7	135,8	283,6
	Langabeak	16,6	14,5	31,1	19,0	14,6	33,6
	Jarduera-tasa	62,5	52,0	57,1	62,5	54,8	58,6
	Langabezia-tasa	10,0	10,1	10,0	11,4	9,7	10,6
	Erregistratutako langabezia*	17,4	23,2	40,6	13,3	18,7	32,0
Espainia	Potentzialki aktiboak	19.241,9	20.336,9	39.578,8	19.270,8	20.383,4	39.654,2
	Aktiboak	12.108,9	10.624,4	22.733,3	12.250,6	10.952,6	23.203,2
	Okupatuak	10.429,7	8.772,7	19.202,4	10.651,7	9.121,9	19.773,6
	Langabeak	1.679,3	1.851,6	3.530,9	1.598,9	1.830,7	3.429,6
	Jarduera-tasa	62,9	52,2	57,4	63,6	53,7	58,5
	Langabezia-tasa	13,9	17,4	15,5	13,1	16,7	14,8
	Erregistratutako langabezia*	1.663,0	2.225,1	3.888,1	1.281,9	1.824,0	3.105,9

(*): Abendua.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak) eta SEPE.

Txostenaren aurreko edizioetan bezala, jarraian labor aztertuko dugu langabeziaren bilakaera, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, eskainitako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari.

Zentzu horretan, aipatutako iturriaren arabera, SEPEren Nafarroako bulegoetan 32 mila langabetu zeuden erregistratuta 2021eko abenduan, aurreko urtean baino -% 21,2 gutxiago. Halaber, Estatu mailan, 2021eko abenduan erregistratutako langabeziak-% 20,1 egin zuen behera, 3.105,9 mila pertsonara iritsi arte.

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batezbesteko datuak), kontuan hartu behar da langabezia-tasa nabarmen aldatzen dela adinaren arabera; hala, gazteenek dituzte maila altuenak. Hala, Nafarroako 16 eta 19 urte artekoen artean langabezia-tasa % 40,9koa zen 2021ean. Zerrendan hurrengoak 20 eta 24 urte artekoak izan ziren (% 20,3), ondorengoak 25 eta 54 urte artekoak (% 10,2) eta, azkenik, 55 urte edo gehiago zituztenak (% 8).

41. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

(%)

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztira
Nafarroa	2019	45,5	20,1	7,9	4,9	8,2
	2020	23,5	26,4	9,6	7,0	10,0
	2021	40,9	20,3	10,2	8,0	10,6
Espainia	2019	45,2	29,8	12,9	12,2	14,1
	2020	54,3	35,1	14,5	12,1	15,5
	2021	50,8	31,6	13,5	12,9	14,8

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak).

Urte arteko aldakuntzei dagokienez, Foru Erkidegoan langabezia-tasa igo egin zen adin-tarte guztietan, 20-24 urte artekoen artean izan ezik; kasu horretan langabezia-tasa % 26,4koa zen 2020an, eta % 20,3ra jaitsi zen 2021ean. Gazteenen artean % 23,5etik % 40,9ra igo zen langabezia-tasa; 25 eta 54 urtekoen artean, % 9,6tik % 10,2ra; eta adin nagusienekoen artean, % 7tik % 8ra.

Estatu mailan, pertsona helduenen kasuan izan ezik, langabezia-tasak modu orokorrean egin zuen behera, eta gazteenek izan zuten tasarik altuena (2021ean % 50,8).

Biztanleria okupatuaren bilakaera sektoreen arabera aztertuta, 2021ean Nafarroan lehen sektorean baino ez zen murriztu enpleguaren bolumena (-% 10,6); bolumen hori hazi egin zen eraikuntzan (% 17,9), industria-sektorean (% 4,1) eta zerbitzuetan (% 0,1). Kopuru absolutuei dagokienez, industria-sektoreak sortu zuen enplegu gehien (2020an baino 3.100 pertsona okupatu gehiago). Nafarroako enpleguaren % 27,8 dagokio sektore horri.

Estatu mailan, 2021ean sektore guztietan hazi zen sektoreko enpleguaren bolumena, modu orokortuan (% 4,9 lehen sektorearen kasuan, % 3,8 eraikuntzan, % 3,3 zerbitzuen sektorean eta % 0,1 industrian). Kasu honetan, hazkunde absoluturik handiena hirugarren sektoreak izan zuen (aurreko ekitaldian baino 484.500 pertsona okupatu gehiago).

42. koadroa Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak

(m pertsona)

Eremua	Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Nafarroa	2019	10,2	74,9	16,2	187,6
	2020	9,4	75,7	15,6	177,8
	2021	8,4	78,8	18,4	177,9
Espainia	2019	797,3	2.763,1	1.277,9	14.941,0
	2020	765,3	2.698,2	1.244,1	14.494,8
	2021	802,7	2.700,1	1.291,5	14.979,3

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak). (EJSN-09).

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2021ean nabarmen areagotu ziren kontuan hartu ditugun bi geografia-eremuetan. Hala, ekitaldi horretan 362.337 kontratu jakinarazi zituzten Nafarroan. Hortaz, igoera nabarmena izan zen, % 18,8koa. Estatuan, berriz, 19.384.359 kontratu jakinarazi zituzten, aurreko ekitaldian baino % 21,6 gehiago.

Kontratu mota kontuan hartuta, bi kasuetan, kontratu mugagabeak (% 28,7 eta % 36,7 Nafarroan eta Estatuan, hurrenez hurren) eta aldi baterako kontratuak (% 18,1 eta % 20, hurrenez hurren) areagotu izanak eragin zuen guztizko kontratazioa haztea. Kontuan hartu behar da jakinarazitako kontratuen % 90 inguru aldi baterakoak zirela.

		43. koadroa SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak							
Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak				Kontratuak, guztira
		Hasierako mugagabea	Konbertsioak	Guztira	Obra eta Zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainerakoak	Guztira	
Nafarroa	2019	14.009	11.593	25.602	91.337	193.380	88.498	373.215	398.817
	2020	10.446	8.836	19.282	75.109	137.937	72.702	285.748	305.030
	2021	12.644	12.164	24.808	78.036	183.447	76.046	337.529	362.337
Espainia	2019	1.323.913	835.521	2.159.434	8.193.202	10.341.952	1.817.633	20.352.787	22.512.221
	2020	936.513	609.097	1.545.610	6.241.088	6.777.227	1.379.136	14.397.451	15.943.061
	2021	1.235.476	877.865	2.113.341	6.998.685	8.683.539	1.588.794	17.271.018	19.384.359

Iturria: SEPE.

Bestetik, aipamen txiki bat egin behar dugu autonomoi buruz. Horrekin lotuta, EINEk egindako BAiren arabera, Estatuan 48.100 pertsonako igoera izan zuen norberaren konturako langileen kopuruak 2020 eta 2021 artean (urteko batezbestekoak kontuan hartuta). Nafarroan, aldiz, 4.100 pertsonako jaitsiera izan zuen kopuru horrek.

Gizarte eta lan arloko giroari dagokionez, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2021ean hitzarmen gutxiago negoziatu zituzten, eta kontuan hartutako bi eremu geografikoetako langile gutxiagori eragin zieten hitzarmen horiek. Zehazki, 2021ean negoziatutako hitzarmenen jaitsiera hauek izan ziren: Nafarroan -% 24,6 eta Estatu mailan -% 23,1. Bestalde, hitzarmen horien eraginpeko langileak -% 15,1 murriztu ziren Foru Erkidegoan eta -% 16,7 Estatu osoan.

		44. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak						
Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak*			
		Kopurua	Eragindako langileak	Adostutako soldata-igoera	Kopurua	Parte hartu zuten langileak	Greba bakoitzeko langileak	Lan egin gabeko lanaldiak
Nafarroa	2019	225	92.725	2,18	102	5.412	53	18.668
	2020	183	102.306	1,76	37	1.249	34	3.653
	2021	138	86.814	1,54	59	2.130	36	5.068
Espainia	2019	5.539	11.397.608	2,24	898	264.454	294	858.401
	2020	4.187	10.043.541	1,73	487	151.496	311	540.579
	2021	3.218	8.367.095	1,70	606	199.026	328	422.815

* Ez ditu jasotzen greba orokorretako datuak. 2021eko datuak urtarrila-abendua bitarteko aurrerapenari dagozkio.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. 2022ko otsaileko hitzarmenen datuak. 2022ko martxoko greben datuak.

Laneko gatazkei dagokienez, 2021ean gora egin zuten greba kopuruak eta horiek eragindako pertsona kopuruak Nafarroan (% 59,5 eta % 70,5, hurrenez hurren) eta Estatuan (% 24,4 eta % 31,4, hurrenez hurren). Lan egin gabeko lanaldiak, berriz, areagotu egin ziren Foru Erkidegoan (% 38,7) eta murriztu Estatuan (-% 21,8).

Biztanleria

2020an (eskuragarri dagoen behin betiko azken datua) % 1,1 hazi zen Nafarroako biztanleria, eta Estatuok ere gora egin zuen (% 0,9). Zehazki, Foru Erkidegoan 661.197 biztanlera iritsi ziren, eta Estatuan 47.450.795 biztanlera.

2020an 5.036 jaiotza (aurreko ekitaldian baino % 6,2 gutxiago) eta 6.662 heriotza (aurreko ekitaldian baino % 19,6 gehiago) erregistratu ziren Nafarroan. Hori kontuan hartuta, saldo begetatiboa negatiboa izan zen, -1.626 pertsonakoa. Hala, 2017an hasitako hazkunde begetatibo negatiboen ibilbidea indartu egin zen.

Estatuan, 341.315 jaiotza jakinarazi ziren 2020an (-% 5,4 gutxiago) eta 493.776 heriotza zenbatu ziren (% 17,9 gehiago). Horrenbestez, saldo begetatibo negatiboa adierazgarria izan zen, -152.461 pertsonakoa (aurreko ekitaldian -58.086 pertsonakoa izan zen saldo begetatibo negatiboa).

45. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala.

Eremua	Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa
Nafarroa	2016	640.647	2.383	5.894	9,2	5.727	8,9	167
	2017	643.234	2.295	5.746	8,9	5.844	9,1	-98
	2018	647.554	2.050	5.398	8,3	5.819	9,0	-421
	2019	654.214	2.050	5.371	8,2	5.568	8,5	-197
	2020	661.197	1.279	5.036	7,6	6.662	10,1	-1.626
Espainia	2016	46.557.008	171.023	410.583	8,8	410.611	8,8	-28
	2017	46.572.132	168.989	393.181	8,4	424.523	9,1	-31.342
	2018	46.722.980	162.743	372.777	8,0	427.721	9,2	-54.944
	2019	47.026.208	161.389	360.617	7,7	418.703	8,9	-58.086
	2020	47.450.795	87.481	341.315	7,2	493.776	10,4	-152.461

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2021eko abenduko datuak.

Hala, Nafarroan jaitsi egin zen jaiotza-tasa (2020an ‰ 7,6 eta 2019an ‰ 8,2). Heriotza-tasa, berriz, nabarmen hazi zen (‰ 10,1 eta ‰ 8,5, hurrenez hurren). Estatuok jaiotza-tasa txikiagoa izan zen (‰ 7,2), eta heriotza-tasa apur bat handiagoa (‰ 10,4).

Ezkontzei dagokienez, horiek 1.279ra mugatu ziren Foru Erkidegoan 2020an; hortaz, jaitsiera handia izan zuten, -% 37,6koa. Estatuan, aldiz, 87.481 ezkontza erregistratu zituzten; kasu horretan ere handia izan zen jaitsiera, -% 45,8koa.

Behin puntu honetara iritsita, 2020an izandako hildako kopuruaren hazkunde nabarmenaren (eta, ondorioz, heriotza-tasaren igoeraren) eta ezkontza kopuruaren

jaitsiera bortitzaren gaineko argibide batzuk eman behar ditugu. Horrekin lotuta, aipatzekoa da COVID-19aren lehen olatuen inpaktuak eragin zuela heriotzen hazkundera, orduan bereziki hilgarria baitzen gaixotasuna. Ezkontzen jaitsiera, berriz, konfinamenduan zehar ezkontzarik ospatu ezinak (edo oso modu mugatuan egin beharrak) eragin zuen, baita konfinamendua amaitzean ezarritzako neurri murriztaileek ere.

Azkenik, nabarmendu behar da 2020an Nafarroak migrazio-saldo (autonomia artekoa) positiboa izan zuela, 682 pertsonakoa, immigrazio kopurua handiagoa izan zelako emigrazio kopurua baino. Adin txikieneko estratuan 224 pertsonako migrazio-saldo positiboa izan zen, 16 eta 64 urtekoen artean 397koa eta adin nagusienekoen artean 61 pertsonakoa.

46. koadroa Nafarroako migrazio-saldoak, adinaren arabera (autonomia artekoak)

Urtea	Adin estratuak			Guztira
	-16	16-64	+ 64	
2013	45	-123	4	-75 (*)
2014	306	373	3	680 (*)
2015	337	812	48	1.196 (*)
2016	362	837	-22	1.174 (*)
2017	431	225	-31	625
2018	403	391	-103	691
2019	268	141	-25	384
2020	224	397	61	682

** 2017ra arte EINEk ez zuen zuzendu migrazio-saldoa kalkulatzeko egiten zuen akats bat. Akats hori lotuta zegoen 0 urteko biztanleen barne-migrazioarekin.*

Iturria: Migrazio-mugimenduak (EIN) 2021eko abenduko datuak.

4.5 FINANTZA-SEKTOREA


Ikuspegi orokorra

2021. urtea ere ez zen "normala" izan. Agian hori da bizitako egoera ongien laburtzen duen kalifikatzailea. Bata bestearen segidako kutsatze-olatuak nabarmendu ziren, eta herritarren txertaketa ere bai, huraxe izan baitzen tresnarik erabilgarriena covid-19ak sortutako pandemiak pertsonen osasunean eta osasun-sistemetan eragindako kalteei aurre egiteko.

Hala, 2021. urtean zehar, mugikortasuna berreskuratu eta pertsonen bilkurak mugatu egin ziren (neurri handiagoan edo txikiagoan), eta horrek baldintzatu egin zuen jarduera batzuen lehengoratzea (turismoa, aisialdia, ostalaritza, etab.). Bestetik, "normaltasunerako itzulera" aldi berean egin zuten herrialde gehienek. Ondorioz, presio esanguratsua izan zen lehengaien prezioetan, hornidura-kateetan eta, orokorrean, nazioarteko merkataritza-fluxuetan. Funtsean, faktore multzo horrek, batetik, inflazioaren

gorakada orokorra eragin zuen; eta, bestetik, hasiera batean esperotakoa baino apur bat txikiagoa izan zen suspertzea.

10. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*



(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

EB-27 eta AEBren artean aldea izan zen pandemiaren inpaktuari eta suspertze-erritmoei dagokienez¹; gainera, AEBk independentzia energetiko handiagoa du. Ondorioz, urtean zehar, dolarraren posizioa indartu egin zen euroaren aurrean. Gainera, gaur egun, gerra-gatazkak eragindako ziurgabetasuna ere gehitu zaio euroari, eta horrek arrazoituko luke kapitalen irteera. Hala, euroaren balioa -% 8,6 jaitsi da 2021eko abendutik.

Horrek mesede egiten dio Europako esportazioari, baina garestitu egiten du lehengaien erosketaren faktura (petrolio eta gasa, beste batzuen artean), normalean dolarretan izendatzen baitira lehengaiak. Bestetik, bi ekonomiek dute agertoki inflazionista², eta diru-agintaritzak erantzun ezberdinak ari dira ematen: 2022ko maiatzean Erreserba Federalak (AEB) oinarrizko 50 puntu handitu zituen interes-tasak; Europako Banku Zentralak, berriz, ez du mugimendurik egin (oraindik). Kasu honetan ere, ordainsariak hobeak izatea (eguneratuak eta esperotakoak) akuilua da inbertitzaileentzat, eta horretan AEBko merkatuak abantaila du Europakoarekin alderatua.

¹ AEBn, BPGaren urte arteko aldakuntza-tasa -% 3,4koa izan zen 2020an eta +% 5,7koa 2021ean. EB-27n, berriz, -% 6,4 eta +% 5,4.

² Arrazoi ezberdinengatik: AEBn modu orokorrean igo ziren ondasunen eta zerbitzuen prezioak, pandemiatik irtearean ondorioz; EB-27n, berriz, osagai energetikoa izan zen prezioak igotzearen faktore nagusia (lehenengo eta bigarren txandan).

Burtsako indizeen bilakaerak islatzen du, nolabait, ekonomia amerikarraren ibilbidea hobea izan zela: Dow Jones (+% 18,7) eta Nasdaq Composite (+% 21,4) indizeek suspertze handiagoa erregistratu zuten FT-SE 100 (+% 14,3), Dax-Xetra (+% 15,8), Ibex-35 (+% 7,9) eta Nikkei (+% 4,9) indizeek baino; Eurostoxx 50 indizeak (+% 21,0), berriz, antzeko gorakada izan zuten. Aipatzekoa da Pariseko burtsaren indizeak erregistratu zuela 2021ean urte arteko hazkunderik handiena (+% 28,9).

47. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2019	9.549,2	5.978,1	13.249,0	7.542,4	28.538,4	23.656,6	3.745,2	8.972,6
2020	8.073,7	5.551,4	13.718,8	6.460,5	30.606,5	27.444,2	3.552,6	12.888,3
2021	8.713,8	7.153,0	15.884,9	7.384,5	36.338,3	28.791,7	4.298,4	15.645,0
<i>Urte batetik besterako aldakuntza (%)</i>								
2019	11,8	26,4	25,5	12,1	22,3	18,2	24,8	35,2
2020	-15,5	-7,1	3,5	-14,3	7,2	16,0	-5,1	43,6
2021	7,9	28,9	15,8	14,3	18,7	4,9	21,0	21,4

Oharra: Abenduaren 31n.

Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Bestetik, 2021ean zehar ez zen apenas aldaketarik izan Espainian lan egiten duten gordailu-erakundeen egiturari dagokionez. Guztizkoak gora egin zuten apur bat (+3 erakunde), baina gutxitu egin ziren jatorri espainiarrekoak (-3 erakunde).

48. koadroa Kreditu-erakundeak eta EFC

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Erakunde kopurua. Guztira	250	245	238	232	226	228
Gordailu-erakundeak	206	205	198	195	191	194
Espainiako gordailu-entitateak	124	122	115	114	113	110
EFC/ECAOL	43	39	39	36	34	33

Oharra: Erakunde kopurua. Guztizkora arteko aldea atzerriko sukurtsalei (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialari (1 erakunde) dagokie.

Iturria: Espainiako Bankua.

2021ean murrizten jarraitu zuen bulego kopuruak. Hala, berriz ere behera egin zuen Nafarroan (-42 bulego) eta Estatuan (-3.284 bulego). Galera hori aurreko urteetako batu zitzairen. Hala, 2016 eta 2021 artean sarearen herena galdu zuen Espainiak (-% 33,6) eta Nafarroan (-% 22,8) apur bat txikiagoak izan ziren galerak. Aldi berean, erakundeek tresna digitalak hedatzen jarraitzen dute; tresna irisgarriak, errazak eta seguruak. Dena den, badirudi agertoki honek "talka" egin duela gizarteko pertsona helduekin. Horiek zailtasunak dituzte arrakala digitala gainditzeko, eta arreta pertsonala bermatzeko aldarrikatzen dute.

49. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua

Urtea	Nafarroa	Espainia
2016	531	28.643
2017	508	27.320
2018	485	26.011
2019	459	23.851
2020	452	22.299
2021	410	19.015
<i>2021/ 2016,%</i>	<i>-22,8</i>	<i>-33,6</i>

Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, bulego-sareak izandako antzeko bilakaera izan zuen finantza-jarduerekin lotutako enpleguak (Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak) eta, aurreko ekitaldian bezala, behera egin zuen Nafarroan (-% 4,9) eta Estatuan (-% 6,6). Hortaz, 2016arekin alderatuta, sarea heren bat murriztu zen, gutxi gorabehera, baina horri lotutako enplegua % 10 inguru. Funtsean, bulego gutxiago zeuden, baina bulego bakoitzaren batez besteko tamaina handiagoa zen. Eraitza horrek espazio fisikoaren doiketa erakusten du, jardueraren berregituraketa eta bezeroekiko harremanaren bultzada, aurrez aurrekoan eta digitalean oinarrituta.

Datu "historiko" gisa: finantza-erakundeetako enplegua 200.000 pertsonatik behera jaitsi da Espainian; 70eko hamarkadatik ez zen zifra hori izan¹.

50. koadroa Afiliazioa finantza-jardueretan

Urtea	Finantza- eta aseguru-jarduerak		Finantza-jarduerak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2016	3.456	322.803	2.437	213.199
2017	3.358	320.856	2.372	209.215
2018	3.374	322.402	2.401	207.022
2019	3.254	319.956	2.265	203.334
2020	3.302	318.834	2.307	201.961
2021	3.276	312.246	2.193	188.449
<i>2021/ 2016,%</i>	<i>-5,2</i>	<i>-3,3</i>	<i>-10,0</i>	<i>-10,7</i>

Oharra: Afiliazioa, urte bakoitzeko abenduaren 31n Erregimen orokorra

Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE.

¹ Ez dago antzeko daturik eskuragarri. Baina, Espainiako Bankuaren arabera, 1992an 261.839 pertsonak lan egiten zuten Kreditu Erakundeetan eta Kreditu Erakunde Finantzarioetan. Bestetik, 1981ean 252.351 pertsonak lan egiten zuten gordailu-erakundeetan, eta 2020an, 175.185 pertsonak.

Kredituaren bilakaera Nafarroan

Esparru orokorra

2021ean, Estatuko kreditu-erakundeetako aktiboa ia 3 bilioi eurokoa izan zen (+% 4,1). Hala, 2008-2013 aldian erregistratutako mailara gerturatu zen. Hazkunde hori lotuta dago kreditu-partiden bilakaera positiboarekin (+% 9,1). Igoera horrek konpentsatu egin zituen partida hauetan erregistratutako atzerakadak: akzioak eta partaidetzak ez diren balioak (-% 8,7), akzioak eta partaidetzak (-% 3,4) eta sektorizatu gabeko aktiboak (-% 6,9). Modu horretan, 2021ean zerbait hobetu ziren eragile publiko-pribatuen kreditu-posizioak, pandemiaren ondorio ekonomikoekin eta ondorengo suspertze-aldiarekin lotutako finantziazio-beharrekin lotuta.

Kreditu-jarduerarena izan zen aktiboaren partida nagusia, guztizko ekarpenaren % 71,5. Partida horren ekarpena handitu egin zen 2020arekin alderatuta (ehuneko +3,3 puntu). Gainerako segmentuen ekarpena txikiagoa izan zen, eta honela banatu zen: akzioak eta partaidetzak ez diren balioak (% 10,7), sektorizatu gabeko aktiboak (% 9,5) eta akzioak eta partaidetzak (% 8,2). Hiru partida horiek pisua mantendu eta/edo galdu zuten 2020arekin alderatuta (ehuneko +0,1 puntu, ehuneko -0,8 puntu eta ehuneko -1,0 puntu), jarduera mailaren bilakaerarekin lerrokatuta (jaitsiera). Hala, kredituen partida 2,1 bilioikoa izan zen; akzioak eta partaidetzak ez diren balioen partida eta sektorizatu gabeko aktiboena izan ziren hurrengoak (0,3 bilioi euro, bi kasuetan); eta, azkenik, akzioekin eta partaidetzekin lotutako saldoa (0,2 bilioi euro).

51. koadroa Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera

Kontzeptua	(M euro)					
	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guztira	2.646.981	2.652.154	2.575.633	2.612.781	2.822.182	2.937.620
Kredituak	1.718.815	1.766.467	1.726.181	1.740.034	1.926.930	2.101.591
Baloreak, akzioak eta partaidetzak izan ezik	365.826	329.531	326.042	316.424	345.785	315.636
Akzioak eta partaidetzak	243.811	259.266	236.416	252.012	250.781	242.290
Sektorizatu gabeko aktiboak	318.529	296.890	286.994	304.311	298.686	278.103

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kreditu-jarduera xehetasunez aztertuta, ikus daiteke ia bezero-segmentu guztiek egin zutela gora. Hala, hazi egin zen kreditu-sistemak (+% 37,8), Administrazio Publikoek (+% 5,6) eta beste sektore ez-egoiliar batzuek (+% 15,8) emandako kreditua. Beste sektore egoiliar batzuen segmentuak, berriz, behera egin zuen apur bat (-% 0,1). Azken emaitza gisa, kreditu-jardueraren zatirik handiena (guztizkoaren % 58,2; 1,22 bilioi euro) familiei eta enpresei emandako kredituei (sektore pribatua) egokitu zitzairen. Horien bilakaerak –2021ean jaitsi egin ziren, 2020ko gorakadaren ondoren– argi uzten du familiek eta enpresek finantza-egoera onarekin egin dietela aurre egungo egoerari.

Dena den, egungo ziurgabetasun-egoeran, zuhurtzia izatea gomendatzen dute autoritate monetarioek (adibidez, Espainiako Bankuak). Izan ere, pandemian zehar sinatutako ICO¹ kreditu gehienen gabealdia 2022an zehar amaitzen da. Horrek berankortasunaren igoera ekar dezake, eta horrek kreditu-erakundeen balantzeak okertuko lituzke. Gainera, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren ondorio ekonomikoak arintzeko Espainiako Gobernuak hartutako neurri berrien² ondorioz, berriz ere igo egingo da kreditu-erakundeek emandako kreditua. Hala, 2007-2012 aldian erregistratutako mailara gerturatzea aurreikusten da -2,2-2,4 bilioi euro inguruko kreditu-bolumena-.

52. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

(M euro)

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guztira	1.718.815	1.766.467	1.726.181	1.740.034	1.926.930	2.101.591
Kreditu-sistema	163.053	234.694	211.861	190.494	328.166	452.347
AP	88.471	78.110	68.956	66.922	77.198	81.491
Beste sektore egoiliar batzuk	1.276.140	1.253.944	1.208.315	1.193.526	1.224.440	1.223.700
Beste ez-egoiliar batzuk	191.151	199.719	237.049	289.092	297.126	344.053

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren jomuga Estatuan

Beste sektore egoiliar batzuei (familiak eta enpresak) emandako kreditua hauen bidez bideratzen da: merkataritza-kreditua, eperako beste zordun batzuk³ eta beste mailegu batzuk (ageriko zordunak, errentamendu finantzarioa eta kobrantza zalantzarriko kredituak). Atxikitako taulan ikus daitekeen moduan, 2021ean sektore pribatura bideratutako kredituaren jaitsiera txikia (-% 0,1) eperako beste zordun batzuen segmentuaren bilakaerak eragin zuen (-% 0,6). Merkataritza-kredituaren (+% 11,9) eta beste mailegu batzuen (+% 1,0) saldoak, berriz, gora egin zuen.

Aurreko ekitaldietan bezala, kredituaren zatirik handiena, 1,1 bilioi eurokoa, eperako beste zordun batzuen izan zen (guztizkoaren % 87,5), eta honako hauen ekarpenekin osatu zen: beste mailegu batzuk (% 8,6; 0,1 bilioi euro) eta merkataritza-kreditua (% 3,9; 47.169 milioi euro). Nahiko egitura egonkorra da.

¹ Kreditu Ofizialeko Institutuaren (ICO) abalarekin ematen diren maileguak dira, Espainiako Gobernuak bultzatzen dituenak, enpresei likidezia emateko helburuarekin, pandemiak sortutako krisialdiaren eragin ekonomikoak arintzeko.

² Gerraren Inpaktuari Erantzuteko Plan Nazionalak Estatuak abalaturako ICO kredituen beste 10.000 milioiko pakete bat hartzen du barne; pandemian zehar enpresen likidezia-arazoak arintzeko Gobernuak aktibatu zuen 100.000 milioi euroei gehitu behar zaie pakete hori.

³ 2017az geroztik, Espainiako Bankuak ez du informazio bereizirik eskaintzen eperako beste zordun batzuen inguruan, berme erreal batean oinarritzen diren kredituei dagokienez eta, horien barruan, hipoteka modalitatearen pean sinatutakoak. Aldaketa hori Europar Batasuneko sailkapen-eredurako egokitzapena dela-eta gertatu da (Europako Banku Zentrala).

53. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guztira	1.276.140	1.253.944	1.208.315	1.193.526	1.224.440	1.223.700
Merkataritza-kreditua	45.058	48.764	48.723	50.561	42.162	47.169
Eperako beste zordun batzuk	1.064.196	1.047.827	1.037.809	1.034.061	1.077.559	1.070.780
Beste mailegu batzuk	166.886	157.353	121.783	108.904	104.719	105.751

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailu-erakundeek¹ 2020ko kredituaren saldoaren antzekoa izan zuten 2021ean (-% 0,1; 1,2 bilioi euro). Kredituaren helburuaren arabera, bilakaera ezberdina izan zen. Etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako kredituaren saldoak gora egin zuen (+% 1,2). Ekoizpen-jardueretarako (-% 0,7), kontsumo iraunkorreko ondasunak erosteko (-% 0,1) eta beste kreditu batzuen (-% 5,0) saldoa, berriz, murriztu egin zen.

Orokorrean, ehunekoen egitura mantendu egin zen. Ekoizpen-jardueretara eta etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako kredituek pisu handia izan zuten (% 46,9 eta % 42,6, hurrenez hurren). Eta kontsumo iraunkorreko ondasunak erosteko kredituen (% 4,2) eta beste kreditu batzuen (% 6,3) ekarpenak pixkanaka gora egiten jarraitu zuen.

54. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guztira	1.222.541	1.199.079	1.150.231	1.135.590	1.174.945	1.173.435
Ekoizpen-jarduerak	582.060	570.220	523.942	512.107	554.073	550.342
Etxebizitzak erostea eta birgaitzea	524.780	511.355	508.235	500.474	493.951	500.045
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	24.464	30.975	35.418	42.635	49.727	49.688
Beste kreditu batzuk	91.237	86.529	82.636	80.374	77.194	73.360

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

¹ Kreditu-erakundeen azpitaldea, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek osatua.

11. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren bilakaera Nafarroan

Gordailu-erakundeek Nafarroan eta Estatuan errotutako eragile ekonomikoek (publikoek eta pribatuek) emandako kredituaren bilakaera erakusten du atxikitako taulak. 2021ean bilakaera ezberdina izan zuten horiek. Izan ere, Nafarroako kredituak behera egin zuten (-% 6,3), eta Estatuko saldoa mantendu egin zen (+% 0,2). Pandemiaren aurreko saldoa (2019) baino handiago izan zen bi lurraldeetan, eta kreditu-jarduera suspertzen ari dela erakutsiko luke horrek (batez ere, Estatuan), 2020ra arte mantendutako joera hautsiz, ordura arte kreditu-saldo garbiaren beherakada gailentzen baitzen. Doiketa hori bat dator eragile ekonomikoek abiatutako desapalankamendu finantzarioaren prozesuarekin. Eragile ekonomikoak pixkanaka haien zorpetze maila jaisten joan ziren, pandemiak sortutako krisia etorri zen arte.


Testuinguru horretan, 2021ean, Nafarroan emandako kreditua 16.278 milioi eurokoa izan zen eta, gehiena (guztizkoaren % 93,7), beste sektore egoiliar batzuei zegokien; Administrazio Publikoek (% 6,3) pisu txikia izan zuten. Bi segmentuetan egin zuten behera kreditu-jarduerak, baina, batez ere, sektore publikoan (-% 22,5, eta pribatuan -% 5,0). Estatuan mantendu egin zen sektore pribatuaren kreditua (-% 0,1) eta hazi egin zen segmentu publikoari zegokion saldoa (+% 6,1); azken horrek baldintzatu zuen kredituaren emaitza globala.

55. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera

(M euro)				
Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Nafarroa	2019	982	15.082	16.063
	2020	1.327	16.044	17.372
	2021	1.028	15.249	16.278
Espainia	2019	63.786	1.135.590	1.199.375
	2020	74.357	1.174.944	1.249.301
	2021	78.919	1.173.435	1.252.354

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

12. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

Familien inbertsio eremu nagusietako bi aztertzen ditu atal honek: etxebizitzak erostea eta birgaitzea (horretarako, normalean bankuen finantzazioa behar izaten da, hau da, hipoteka) eta autoa erostea.

Hipoteka berriei buruzko informazioak erakusten duenez, 2021ean berriz aktibatu zen higiezinaren merkatua, eta 2019ko maila gainditu zuen (pandemiaren aurreko erreferentzia gisa). Zehazki, Estatuan 418.175 hipoteka formalizatu ziren. Hala, urte arteko hazkunde handia izan zen (+% 23,8); zati batean, 2020an gauzatu ez ziren eragiketak barne hartzen ditu kopuru horrek¹. Nafarroan ere gora egin zuen hipoteka kopuruak (+% 20,6); guztira, 5.065 hipoteka berri sinatu ziren.

¹ Pandemia kontrolatzeko ezarritako murrizketek (konfinamendua, pertsonen mugikortasunerako mugak), kasu askotan, zaildu eta atzeratu egin zuten eragiketa horien garapena.

Dena den, aipatu beharrekoa da 2006an eskuratutako gehieneko baliotik behera jarraitzen duela jarduera mailak Estatuan (-% 68,8) zein Nafarroan (-% 61,9).

Formalizatutako hipoteken zenbatekoa ere asko hazi zen, sinatutako hipoteken kopurua baino are gehiago. Estatuan, 57.683 milioi eurora iritsi zen (+% 26,8) eta Nafarroan 628 milioi eurora (+% 28,5); bi digituko urte arteko hazkundeak izan zituzten biek. Hala, hipoteken batez besteko zenbatekoak gora egin zuen Estatuan (137.939 euro) eta Nafarroan (123.908 euro).

Estatuan sinatutako hipoteken bi heren interes-tasa finkokoak izan ziren (% 62,9). Emaitza horrek baieztatu egiten du azken urteetan ikusitako joera-aldaketa, lehen ohikoagoa baitzen interes-tasa aldakorretara jotzea. Ziur asko, interes-tasak igoko zirela aurreikusi zutelako¹ aldatu zen joera (eta hala baieztatu da 2022an).

Bestetik, nabarmentzekoa da hipoteka askok aldaketa notarialak erregistratu zituztela²; hirukoiztu egin zen 2020ko datua. 206.694 eta 816 hipoteka aldatu zituzten Estatuan eta Nafarroan (+% 214,6 eta +% 279,5). Aldaketa gehienak nobazioarekin daude lotuta, eta hainbat azalpen-argudio ematen dituzte, hala nola prezioen igoera, Euriborraren goranzko bilakaera, etab. Horiek ziurgabetasuna eragiten dute, eta aldaketen arrazoiak dira. Antzeko zerbait gertatu zen 2021ean hasitako hipoteka-betearazpenen³ kopuruarekin, 2017koaren antzeko mailara itzuli baitzen. 14.862 eta 84 betearazpen izan ziren Estatuan eta Nafarroan (+% 53,3 eta +% 50,0).

56. koadroa Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Espainia						
Hipoteka kopurua	282.707	312.843	348.326	361.291	337.752	418.175
Zenbatekoa guztira (milioi €)	31.037	36.665	43.285	45.383	45.508	57.683
<i>Batez besteko zenbatekoa (mila €)</i>	<i>109,79</i>	<i>117,20</i>	<i>124,27</i>	<i>125,61</i>	<i>134,74</i>	<i>137,94</i>
Nafarroa						
Hipoteka kopurua	3.990	4.069	4.739	4.508	4.201	5.065
Zenbatekoa guztira (milioi €)	405	430	514	519	488	628
<i>Batez besteko zenbatekoa (mila €)</i>	<i>101,45</i>	<i>105,72</i>	<i>108,46</i>	<i>115,22</i>	<i>116,28</i>	<i>123,91</i>

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

¹ Euriborra (urtebetera) positiboa izan zen apirilean, 2016ko otsailaz geroztik negatiboa izan ondoren (Espainiako Bankua).

² Zehazki, hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldean borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuaren baldintzetan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira egindako aldaketen alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikatutako diferentziala.

³Hipoteka baten karga ezarrita duen ondasun higiezin baten salmenta agintzen duen prozedura exekutiboa, zordunak hipotekan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

Ibilgailu berrien matrikulazioari buruzko informazioak baieztatu egiten du jarduera geldi dagoela Estatuan. Zifrak 2020koak baino hobek izan arren (+% 1,0), oso urrun daude oraindik suspertzetik: 859.477 ibilgailu berri erregistratu ziren, 2019an baino askoz ere gutxiago; urte hartan milioi bat matrikulazio baino gehiago izan ziren. Nafarroak 2020an baino erregistro okerragoak izan zituen (-% 13,7), eta gutxieneko historikoak eskuratu zituen: 7.229 ibilgailu. Askok dira suspertze ezdeus hori baldintzatzen ari diren faktoreak, hala nola osagai batzuen hornidura-arazoak, logistika arloko "botila-lepoak", neurri fiskalak eta motorizazio-sistema aukeratzeko ziurgabetasuna (elektrikoa?, hibridoa?), beste batzuen artean. Pandemiatik irtetearen ondorioek ere badute eragina (ziurgabetasuna enpleguan, pertsonen errentetan, etab.). Agertoki horrek asko zailtzen du autoa erosteko erabakia hartzea.

57. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak

(Unitate kopurua)

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Espainia	1.147.007	1.234.932	1.321.437	1.258.251	851.210	859.477
Nafarroa	10.814	12.314	13.243	11.449	8.381	7.229

Iturria: Anfac. Geuk egina.

Berankortasunaren bilakaera¹

Kobranta zalantzarriko kredituek behera egin zuten berriro ere 2021ean, eta 49.378 milioi euroan kokatu ziren (-% 5,4). Hain zuzen ere, emandako kredituaren saldoa (-% 0,1) baino gehiago murriztu ziren, hortaz, berankortasun-ratioak² behera egin zuen eta % 4,2an geratu zen. Hala, krisialdian egon arren, eta horrelako beste momentu konplikatu batzuetan ez bezala, kreditu zalantzarriak bilakaera bereizgarria izan zuen, beheranzko joera mantendu baitzuen.

Martxan jarritako politika ekonomikoko neurriek eragin handia izan zuten emaitza horretan, familien eta enpresen ordaintzeko gaitasuna mantentzen lagundu baitzuten. Dena den, okertze-zantzu batzuk ikusten dira³, eta baliteke kreditu zalantzarrien bolumenak gora egitea.

¹ Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

² Ordaindu gabeko edo kobranta zalantzarriko kredituen ehunekoa, emandako finantzaketa osoari dagokionez.

³ Zaintza bereziko maileguez gora egin dute, eta horiek dira ez ordaintzeko probabilitaterik altuena dutenak; birfinantzaketa- eta egituratze-eragiketek ere gora egin dute, eta horiek ere ordaintzeko arazo posibleekin lotuta egoten dira, kreditua jaso duenaren aldetik (Espainiako Bankua).

58. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Urtea	Zalantzazko kobrantzak	Kredituak*	(Zalantzazkoak/Kredituak) x100
2016	112.275	1.222.511	9,2
2017	94.174	1.199.106	7,9
2018	67.199	1.150.231	5,8
2019	54.301	1.135.590	4,8
2020	52.224	1.174.945	4,4
2021	49.378	1.173.435	4,2

() Beste sektore egoiliar batzuei emandako funtsak
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Familien eta ekoizpen-jardueren segmentuan behera egin zuen berankortasun-ratioak, baina familiek mantendu zuten ratorik txikiena (% 3,6; ekoizpen-jarduerak, berriz, % 4,8). Halaber, ezberdintasunak ikusten dira produktu-segmentu bakoitzaren xehetasunen artean. Izan ere, familien kasuan, etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako kredituen berankortasun-ratioa txikiagoa da (% 2,8), kontsumora bideratutakoena baino (% 7,5). Ekoizpen-jardueren xehetasunek ere ezberdintasun handiak erakusten dituzte. Zalantzagarren ratioa handiagoa (bikoitza) da eraikuntzan¹ (% 8,4), industrian (% 4,5) eta zerbitzuen sektorean (% 4,6) baino. Hala ere, lau ekoizpen-sektoreen berankortasun-ratioa jaitsi egin zen 2020arekin alderatuta.

Berankortasun-tasa handiena duten hirugarren sektoreko jarduerak ostalaritza eta merkataritza eta ibilgailuen konponketa dira (% 7,7 eta % 6,4); horiek oso baldintzatuta egon dira pandemiaren eraginengatik. Beste zerbitzu batzuetan (% 5,1) eta garraioan eta biltegiatzean (% 5,0) ere nabarmendu zen pandemiaren eragina. Finantza-jardueran, berriz, baxuagoa da berankortasuna (% 0,4). Gainera, urte arteko aldakuntzari dagokionez, ostalaritzan eta merkataritzan (ehuneko +2,3 puntu) eta garraioan eta biltegiatzean (ehuneko +0,7 puntu) erregistratutako berankortasun-tasaren igoerak nabarmentzen dira; hirugarren sektoreko beste jarduera batzuetan, berriz, murriztu egin zen berankortasun-tasa.

Kobrantza zalantzagarriko kredituaren saldoaren bilakaerak aurreko krisialdiaz geroztiko doiketa-sekuentzia erakusten du; 2013an eskuratu zuen gehieneko balioa (191.748 milioi euro). Krisialdi honetan mantendu egin zen hobekuntza-ibilbidea, baina orain arteko doiketa-erritmoa moteldu egin zen.

¹ Sektore honek kalte handia jasan zuen 2008ko krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboen balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.).

Familien eta ekoizpen-jardueren segmentuak ere bilakaera hori izan zuen. Horien kobrantza zalantzarriko kredituaren saldoa murriztu egin zen (-% 6,1 eta -% 5,3) 22.356 eta 26.508 milioi eurora arte, hurrenez hurren. Eraikuntzak eta industriak izan zuten beherakadarik handiena (-% 11,0 eta -% 8,1). Zerbitzuen sektorean ez zen horrenbeste murriztu (-% 3,9); izan ere, kreditu zalantzarriek gora egin zuten ostalaritzan (+% 33,8) eta garraioa eta biltegiatzean (+% 24,0).

59. koadroa **Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

(Guztizkoaren gaineko % zalantzarriak)

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Zalantzakok guztira	9,2	7,9	5,8	4,8	4,4	4,2
Ekoizpen-jarduerak	13,3	10,4	7,0	5,5	5,1	4,8
Nekazaritza eta arrantza	9,1	7,5	6,3	6,0	5,5	5,2
Industria	9,1	8,8	6,3	5,6	4,9	4,5
Eraikuntza	29,7	24,5	14,4	12,0	9,2	8,4
Zerbitzuak	13,0	9,9	6,7	5,1	4,8	4,6
Higiezinak	25,4	18,2	8,9	5,2	4,9	4,1
Finantzak (ez banka)	2,1	0,3	0,2	0,2	0,3	0,4
Merkataritza eta konponketak	11,5	10,5	9,2	8,5	7,0	6,4
Garraioa eta biltegiak	8,3	6,4	5,3	4,8	4,3	5,0
Ostalaritza	14,6	10,8	7,9	5,8	5,4	7,7
Beste zerbitzu batzuk	8,8	8,7	7,2	5,3	5,8	5,1
Beste helburu batzuk/familiak	5,4	5,3	4,8	4,1	3,9	3,6
Etxebizitzak erostea eta birgaitzea	4,6	4,6	4,0	3,3	3,0	2,8
Beste batzuk	10,0	9,2	8,9	8,0	7,8	7,5
Gainerakoak	7,0	13,2	7,5	6,0	3,8	5,2

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

**60. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera.
Beste sektore egoiliar batzuk**

	<i>(Meuro)</i>					
Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Zalantzazkoak guztira	112.275	94.175	67.196	54.301	52.224	49.378
Ekoizpen-jarduerak	77.335	59.493	36.725	28.302	27.986	26.508
Nekazaritza eta arrantza	1.706	1.506	1.310	1.275	1.217	1.170
Industria	9.407	9.121	6.397	5.473	5.169	4.749
Eraikuntza	11.304	8.053	3.932	2.914	2.408	2.143
Zerbitzuak	54.918	40.813	25.086	18.640	19.192	18.446
<i>Higiezinak</i>	<i>30.275</i>	<i>19.759</i>	<i>8.299</i>	<i>4.559</i>	<i>4.023</i>	<i>3.340</i>
<i>Finantzak (ez banka)</i>	<i>1.690</i>	<i>274</i>	<i>162</i>	<i>136</i>	<i>185</i>	<i>217</i>
<i>Merkataritza eta konponketak</i>	<i>7.768</i>	<i>7.506</i>	<i>6.657</i>	<i>6.366</i>	<i>5.829</i>	<i>5.245</i>
<i>Garraioa eta biltegiak</i>	<i>2.278</i>	<i>1.920</i>	<i>1.582</i>	<i>1.432</i>	<i>1.513</i>	<i>1.876</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>3.881</i>	<i>2.889</i>	<i>2.014</i>	<i>1.545</i>	<i>1.885</i>	<i>2.523</i>
<i>Beste zerbitzu batzuk</i>	<i>9.026</i>	<i>8.465</i>	<i>6.373</i>	<i>4.601</i>	<i>5.757</i>	<i>5.244</i>
Beste helburu batzuk/familiak	33.652	32.712	29.505	25.337	23.804	22.356
Etxebizitzak erostea eta birgaitzea	23.930	23.274	20.127	16.374	14.789	13.915
Beste batzuk	9.722	9.438	9.378	8.963	9.015	8.441
Gainerakoak	1.288	1.970	966	662	434	514

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Aurreikuspenen arabera¹, berankortasuna % 4,6ra igoko da 2022an eta % 4,5era jaitsi 2023an. Pizgarriak erretiratzeak eta politika monetarioa gogortzeak (interes-tasen igoera) eragina izango lukete berankortasunaren igoera horretan, baita tentsio inflazionistek ere. Gainera, kontuan izan behar da pandemian zehar emandako ICO kreditu gehieneren gabealdia 2022an amaitzen dela. Egoera horrek eragina izan lezake kreditu-erakundearen balantzearen kalitatean.

Gordailuen bilakaera Nafarroan
Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Pandemiak eragindako agertoki ziurgabearen zuhurtzia gailendu zen, eta gastuarekin lotutako erabakiak gelditu egin ziren. Ondorioz, eragile ekonomikoaren aurrezkiak areagotu egin zen. 2021ean, gordailuetako saldoa 2,2 bilioi eurora igo zen (+% 5,7) eta sendotu egin zen 2020an erregistratutako hazkunde handia. Batetik, egoera ekonomikoa zela eta, aurreztu egin zuen jendeak, badaezpada.

¹ "European Bank Lending Economic Forecast", EY, Euroguneko banku-maileguen aurreikuspenak.

Bestetik, gastu-erabakiak gauzatu ezin zituztenez, aurrezki-poltsak sortu ziren (“aurrezki behartua”). 2021ean nolabaiteko ziurgabetasuna gailendu zen eguneroko bizimoduaren “normaltasunerako itzuleran”. 2022aren hasieran bi faktore berri gehitu dira, ezegonkortasuna ekarri dutenak: inflazioaren gorakada eta gerra-gatazka.

Eragile ekonomiko guztien kasuan handitu zen aurrezkiak: beste sektore egoiliar batzuk (+% 4,1), kreditu-sistema (+% 10,7), Administrazio Publikoak (+% 20,1) eta kanpo-sektorea (+% 2,8). Gordailuen partida nagusia sektore pribatuari dagokio: 1,4 bilioi euro, guztizkoaren % 65,4. Kreditu-sistemaren segmentuaren (% 18,8), kanpo-sektorearen (% 11,3) eta Administrazio Publikoaren (% 4,5) ekarpenak txikiagoak dira. Egitura hori nahiko egonkor mantentzen da.

61. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera

	<i>(M euro)</i>					
Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guztira	1.866.552	1.866.973	1.836.493	1.848.536	2.059.571	2.177.660
• Kreditu-sistema	288.158	327.483	287.838	253.978	369.741	409.433
• AP	54.371	61.722	71.785	69.445	80.754	96.988
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.242.580	1.202.893	1.212.837	1.259.938	1.369.548	1.425.055
• Beste ez-egoiliar batzuk	281.444	274.874	264.033	265.174	239.526	246.183

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beste sektore egoiliar batzuek egindako gordailuak (familiek eta enpresek), batez ere, ageriko posizioen bidez egin zituzten (guztizkoaren % 88,8), 1,3 bilioi euroko saldoarekin.

Gainera, figura hori izan zen 2020arekin alderatuta balioa handitu zuen bakarra (+% 8,6). Eperako gordailuek (-% 26,9) eta beste batzuen partidak¹ (-% 3,7) behera egin zuten, baina askoz ere ekarpen txikiagoarekin (% 8,2 eta % 3,0, hurrenez hurren). Epe luzerako gordailuek behera egitearen arrazoa horien erakarpena galdu izana da –errentagarritasun urria eta/edo ia hutsa dutelako–. Horrek mesede egin die baliabideak eskuragarriago izatea ahalbidetzen duten posizioei, hala nola ageriko posizioei. Bestetik, “beste batzuk” partidak beheranzko profil jarraitua mantentzen du, eta haren pisua nabarmen jaisten ari da 2007az geroztik (urte hartan % 20,9 eta 2021ean % 3,0).

¹ Barne hartzen ditu aktiboen aldi baterako lagapena, aktiboen transferentziagatik eraturako pasiboak, finantza-pasibo hibridoak eta mendeko gordailuak.

62. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guztira	1.242.580	1.202.893	1.212.837	1.259.938	1.369.548	1.425.055
• Agerikoak	753.624	857.135	931.257	1.021.213	1.164.411	1.264.798
• Eperakoa	403.567	286.365	231.450	196.656	160.440	117.220
• Beste batzuk	85.389	59.393	50.130	42.069	44.697	43.037

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailuen bilakaera Nafarroan

2021ean, Nafarroan 20.674 milioi eurokoa zen gordailuen bolumena, hortaz, urte arteko hazkundea izan zuen (+% 3,1). Hala, Erkidegoko gordailuetako saldoa oso altua izan zen historikoki (20.000 milioitik gorakoa). Saldo hori ia guztia (guztizkoaren % 95,2) beste sektore egoiliar batzuei zegokien. Segmentu horrek, Administrazio Publikoen segmentuak bezala, aldakuntza positiboa izan zuen (+% 3,2 eta +% 0,4). Estatuan ere hazi egin ziren gordailuak (+% 5,5). Izan ere, sektore pribatuan (+% 4,5) eta sektore publikoan (+% 21,3) egin zuten gora, eta banaketa Nafarroakoaren antzekoa izan zen (% 93,5 eta % 6,5, hurrenez hurren). Gordailuetako guztizko saldoaren % 1,4 dagokio Nafarroari.

63. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailuak.

(M euro)

Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Nafarroa	2019	867	17.519	18.386
	2020	986	19.067	20.053
	2021	990	19.684	20.674
Espainia	2019	68.817	1.218.981	1.287.798
	2020	79.416	1.329.870	1.409.286
	2021	96.329	1.390.015	1.486.344

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Aurrezkiaren beste adierazle batzuk

Familien errenta gordin erabilgarriaren bilakaerak (Estatukoa) osatzen du panoramika, baita aurrezki gordinak eta aurrezki-tasak ere. 2020an, pandemiak okertu egin zuen familien errenta (-% 4,9), baina 2021ean zehar apur bat hobetu zen (+% 2,2). Dena den, ez zen hobetu pandemiaren aurreko mailara iristeko adina. Egia esan, 2021eko ekonomiaren eta enpleguaren suspertzea, azkenean, hasiera batean aurreikusitakoa baino zerbait txikiagoa izan zen, eta suspertzearen zati bat 2022ra atzeratu zen. Hala ere, 2022ko lehen lauhilekoko agertokia, dagoeneko, urteko aurreikuspenak baino okerragoa izan da¹. Hortaz, badirudi zaila izango dela errenta maila horretara iristea.

¹ Espainiako Bankuak (2022ko maiatza) berriz berrikusi du Espainiak 2022an izango duen hazkunde ekonomikoa, eta % 4an geratuko litzateke.

Aitzitik, aurrezkiaren ibilbidea asko indartu zen 2020an (+% 71,6), badaezpadako aurrezkiaren ondorioz, baina baita gastua egiteko ezintasunagatik ere. 2021. urtean jaitsi egin zen aurrezki gordinaren bolumena (-% 21,8); baina errenta gordin erabilgarriaren gaineko ratioa ezohiko maila altuetan mantendu zen (% 11,4). Estatu osoko emaitza horiek adierazgarriak dira Nafarroarentzat, eta badirudi metatutako aurrezki-poltsa ez dela ari kontsumora edo inbertsiora pasatzen.

64. koadroa Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia


Kontzeptua	(M euro)					
	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Errenta gordin erabilgarria	700.591	722.935	743.555	780.898	742.538	758.724
Aurrezki gordina	49.249	41.767	41.250	64.507	110.694	86.547
<i>Aurrezki-tasa (%)</i>	<i>7,0</i>	<i>5,8</i>	<i>5,5</i>	<i>8,3</i>	<i>14,9</i>	<i>11,4</i>

Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.

Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

2021ean zehar, Euriborraren (urtebetera) hileko bilakaerak sekuentzia negatiboa mantendu zuen, 2016az geroztik bezala. Finantza-merkatuen likidezia-egoera bikaina zela eta gertatu zen hori (ziur aski). Dena den, pandemiaren aurretik ere jada iragartzen ari ziren politika monetarioaren baldintzak aldatu egingo zirela, baina 2020an eta 2021ean bizitako egoeraren ondorioz interes-tasak apur bat igo ziren eta horrek atzeratu egin zituen aldaketak. Baina, 2021eko udazkenaz geroztik eta, bereziki, 2022ko udaberrian izandako inflazioaren igoera orokortuaren ondorioz, Erreserba Federalak handitu egin du erreferentzia-tasa. Europako Banku Zentralak ez du erreferentzia-tasa handitu, baina 2022ko apirilean Euriborrak balio positiboa eskuratu zuen, eta badirudi interes-tasak progresiboki igotzen joango direla.

13. grafikoa Euriborraren bilakaera (urtebetera)



Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.

Familiei eta sozietate ez-finantzarioei eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasen bilakaerak erakusten duenez, finantzaketa-baldintzek oso onak izaten jarraitzen dute, 2020koak baino are hobeak. Hala, 2021ean jaitsi egin ziren etxebizitza erosteko, kontsumorako eta beste helburu batzuetarako emandako maileguei aplikatutako interes-tasak (% 1,38, % 6,10 eta % 2,44), baita enpresei emandako kredituen interes-tasa ere, zeina % 1,04 eta % 1,69 artean kokatu zen.

Gordailuei dagokienez, finantza-tresna horien errentagarritasuna igo egin zen, baina % 0ren inguruan jarraitu zuten. Horrek agerian uzten du gordailuen errentagarritasun eskasa¹. Errentagarritasuna apur bat handiagoa da enpresen segmentuan eta epe luzerako posizioetan.

¹ Egoera horrek mesede egiten die inbertsio finantzarioko edo ez-finantzarioko beste modalitate batzuei (inbertsioa bigarren etxean eta/edo etxea inbertsio gisa erabiltzea, adibidez).

65. koadroa Kreditu-erakundeak. Familietarako⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)⁽¹⁾

Kontzeptua	2018	2019	2020	2021
(%)				
FAMILIETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK ⁽²⁾				
– Etxebizitza ⁽³⁾	1,99	1,69	1,51	1,38
– Kontsumoa ⁽³⁾⁽⁴⁾	6,92	6,66	6,32	6,10
– Beste helburu batzuk ⁽³⁾	3,27	3,04	2,77	2,44
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK				
– Zorpekoak	1,74	1,56	1,44	1,55
– 250.000 €-ra arteko kredituak ⁽³⁾	2,05	1,87	1,87	1,69
– 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak ⁽³⁾	1,50	1,40	1,51	1,29
– 1.000.000 € baino gehiagoko kredituak ⁽³⁾	1,53	1,23	1,37	1,04
FAMILIEN GORDAILUAK ⁽²⁾				
– Agerikoak	0,03	0,03	0,01	0,02
– Eperakoak ⁽³⁾	0,05	0,04	0,02	0,06
• 1 urte arte	0,05	0,02	0,01	0,01
• 2 baino gehiago	0,17	0,18	0,15	0,03
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK				
– Agerikoak	0,08	0,07	0,01	0,03
– Eperakoak ⁽³⁾	0,37	0,38	0,01	0,45
• 1 urte arte	0,39	0,36	0,01	0,45
• 2 baino gehiago	0,74	0,92	0,13	0,55

(1): TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, komisiorik gabeko UTB.

(2): Familiak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

(3): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(4): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

2022ko lehen hiruhilekoan joera-aldaketa bat ikusten da. Izan ere, kredituei aplikatutako interes-tasak handitu egin dira, eta aurrezkiei dagozkienak, murriztu. Bilakaera hori bat dator Feden politika monetarioaren gogortzearekin, eta 2022an zehar Europako Banku Zentralera hedatuko dela pentsa daiteke. Dena den, oraindik zuhurtziazko posizioetan egongo da, gerra-gatazkaren ondorioen inpaktuaren ondorioz.

5. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Jarraian Nafarroako enpresen bilakaera ekonomiko-finantzarioaren azterketa egingo dugu, baita enpleguaren produktibitateari buruzko zenbait gairena ere. Urtero Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralari informazioa bidaltzen dioten Nafarroako enpresen gaineko ustiapen espezifikoko batetik atera dugu azterketa honetarako erabilitako informazioa. Kasu honetan, 150 enpresak eman zuten informazioa 2019ko eta 2020ko¹ ekitaldietan.

5.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK

Aztertutako Nafarroako 150 enpresen emaitzen kontu bateratuan oinarrituta, enpresen magnitude esanguratsuenek 2019an eta 2020an izandako bilakaera ageri da lehenik eta behin, diru-sarrerai, gastuei eta emaitzei dagokienez. Zehazki, enpresa horien guztizko fakturazioari nabarmen eragin zion pandemiak eta 2020an 11.262.940 mila eurokoa izan zen, 2019an baino % 11,4 baxuagoa.

66. koadroa Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia

(m euro)

Aldagaia	2019		2020		Aldakuntza-tasa % Δ 20/19
	(m euro)	%	(m euro)	%	
Ustiapeneko diru-sarrerak	12.706.547	100,0	11.262.940	100,0	-11,4
Bitarteko kontsumoak	10.202.826	80,3	8.948.265	79,4	-12,3
Balio erantsi gordina	2.503.721	19,7	2.314.675	20,6	-7,6
Langile-gastuak	1.564.020	12,3	1.540.349	13,7	-1,5
Ustiapenaren emaitza ekonomiko gordina	939.701	7,4	774.326	6,9	-17,6
Amortizazioak eta hornidurak	481.765	3,8	482.494	4,3	0,2
Ustiapenaren emaitza ekonomiko garbia	457.936	3,6	291.832	2,6	-36,3
Finantza-karga garbia	-130.722	-1,0	-163.988	-1,5	25,4
Ohiko jardueren emaitza	588.658	4,6	455.820	4,0	-22,6
Ezohiko jardueren emaitza	-131.600	-1,0	-49.400	-0,4	-62,5
Zergen aurreko emaitza	457.058	3,6	406.420	3,6	-11,1
Zergak	129.989	1,0	49.119	0,4	-62,2
Ekitaldiko emaitza garbia	327.069	2,6	357.301	3,2	9,2
Cash-flow	808.834	6,4	839.795	7,5	3,8

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala

¹ Urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken informazioa.

Kostuen egituraren bilakaeraren azterketaren arabera (kostu-partiden partaidetza, fakturazioarekiko), bitarteko kontsumoek ere jaitsiera nabarmena izan zuten 2020an: % 12,3ko jaitsiera, 2019arekin alderatuta. Fakturazioaren gaineko haien partaidetza ere murriztu egin zen, eta fakturazioaren % 79,4koa izan zen 2020an; 2019an, aldiz, % 80,3koa. Langile-gastuek % 1,5eko jaitsiera nominala izan zuten 2020an. Hala, jaitsiera txikiagoa izan zen kontsumoen kasuan baino. Dena den, diru-sarrerren gaineko partaidetza nabarmen hazi zen (2020an % 13,7 eta 2019an % 12,3).

Era berean, finantza-karga garbiak 2020an izandako aldakuntza nabarmendu behar da, % 25,4 hazi baitzen 2019arekin alderatuta; fakturazioaren gaineko pisua, berriz, % 1,5ekoa izan zen 2020an, eta -% 1,0koa 2019an. Ezohiko emaitzek izandako jaitsiera nabarmena ere aipatzekoa da: -49.400 milioi euroko balio negatiboa izan zuten 2020an, eta -131.600 milioi eurokoa 2019an (2020an fakturazioaren -% 0,4 ziren eta 2019an % 1,0). Ordaindutako zergak ere asko jaitsi ziren.

Aurrez aipatu ditugun kostu-partidek izandako bilakaera dela eta, 2020an argi eta garbi okertu zen ustiapenaren emaitza garbia (-% 36,3ko jaitsiera nominala; fakturazioaren % 2,6 ordezkatzera igaro zen). Ohiko jardueren emaitzaren kasuan, jaitsiera txikiagoa izan zen (-% 22,6; fakturazioaren gaineko % 4ko ordezkarietza). Eta, ekitaldiko emaitza garbiak bilakaera positiboa izan zuen (% 9,2; eta partaidetza apur bat igo zen, guztizko fakturazioaren % 3,2ra).

Funtsean, nabarmentzekoa da ustiapeneko diru-sarrerak behera egiten ari baziren ere, Nafarroako enpresen emaitzak apur bat hobetu zirela, batez ere, honako bilakaera onari esker: finantza-karga garbia, ezohiko emaitzak eta zergak.

5.2 INBERTSIOA-FINANTZAKETA

2019-2020 aldian aztertutako Nafarroako enpresen laginaren balantze bateratuaren azterketak enpresen magnitude esanguratsuenen bilakaera erakusten du, egindako inbertsioei eta finantzaketari dagokienez.

Inbertsioen kapituluari buruz honako alderdiak nabarmendu behar dira:

- 2020an hazi egin zen aktibo finkoak guztizko aktiboaren gainean zuen partaidetza (2019an % 56,0 ordezkatzetik 2020an % 57,0 ordezkatzera pasatu zen). Gainera, % 14,4ko igoera nominala erregistratu zen.
- Aktibo finkoaren pisua hazi egin zen, ibilgetu finantzarioak izandako hazkunde nabarmenaren ondorioz; azken horrek % 30,3ko ordezkarietza zuen 2020an, eta % 25,3koa 2019an. Ibilgetu materialak (magnitude honek nahiko ongi neurtzen du inbertsioaren bilakaera, ondasun finkoei eta ukigarriei dagokienez) -%0,7ko jaitsiera nominal txikia erregistratu zuen, eta guztizkoaren % 18,6 ordezkatzera zuen 2020an; 2019an, berriz, % 21,2.

Ibilgetu immateriala % 6,9 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta, eta guztizko aktiboaren % 8,0 ordezkatu zuen 2020an; 2019an, % 9,3.

- Aktibo zirkulatzailan egindako inbertsioek guztizko aktiboaren gainean izan zuten partaidetza murriztu egin zen (% 43,0ko partaidetza 2020an, eta % 43,8koa 2019an), baina % 10,8ko hazkunde nominala izan zuten.
- Zordunen partidak (2020an % 27,8 eta 2019an % 28,9, nahiz eta % 8,7ko igoera nominala erregistratu) zein izakinen partidak (2020an % 10,2 eta 2019an % 11,1) egin zuten behera, eta testuinguru horretan murriztu zen aktibo zirkulatzailak guztizko aktiboaren gainean zuen pisua. Dena den, diruzaintzaren pisua nabarmen hazi zen (2020an % 5,0 eta 2019an % 3,8), eta hazkunde nominal handia izan zuen, % 48,9koa.

Finantzaketaekin lotutako daturik esanguratsuenei dagokienez, hauek nabarmendu behar dira:

- Finantzaketa iraunkorraren pisua jaitsi egin zen eta, testuinguru horretan, nabarmen jaitsi zen horniduren pisu erlatiboa.
- Pasibo finkoaren pisu erlatiboa murriztu egin zen apur bat. Izan ere, behera egin zuen ondare garbiaren partaidetzak ere (pasibo finkoaren guztizkoaren % 42,3 izatera pasatu zen; 2019an % 44,9), eta gora epe luzerako besteren baliabideen partaidetzak (2020an % 15,2 eta 2019an % 14,8); azken horien hazkunde nominala ere nabarmena izan zen (% 15,7).
- Kostua duten baliabideek hazkunde nabarmena izan zuten 2020an, aurreko ekitaldiarekin alderatua, hain zuzen ere, % 76,6koa (2020an pasiboaren guztizkoaren % 19,4 eta 2019an % 12,4). Kosturik gabeko baliabideek, berriz, behera egin zuten (2020an guztizkoaren % 21,0 eta 2019an % 25,4). Testuinguru horretan, epe laburreko finantzaketa nabarmen igo zen (% 20,4).
- Azkenik, maniobra-funtsak (aktibo zirkulatzaila ken epe motzeko hartzekodunak) % 50,4ko jaitsiera nominala izan zuen. Ondorioz, guztizko pasiboaren gain zuen partaidetza % 2,6ra jaitsi zen (2019an % 6,0koa zen).

67. koadroa Nafarroako enpresen balantze erantsia

Aldagaia	2019		2020		Aldakuntza-tas % Δ 20/19
	(m euro)	%	(m euro)	%	
AKTIBOA, GUZTIRA	14.901.818	100,0	16.812.976	100,0	12,8
AKTIBO FINKOA	8.373.153	56,2	9.582.279	57,0	14,4
Ibilgetu immateriala	1.452.891	9,7	1.352.596	8,0	-6,9
Ibilgetu materiala	3.154.726	21,2	3.131.257	18,6	-0,7
Ibilgetu finantzarioa	3.765.536	25,3	5.098.426	30,3	35,4
ZIRKULATZAILEA	6.528.665	43,8	7.230.697	43,0	10,8
Izakinak	1.658.861	11,1	1.706.649	10,2	2,9
Zordunak	4.300.012	28,9	4.675.450	27,8	8,7
Diruzaintza	569.792	3,8	848.598	5,0	48,9
PASIBOA, GUZTIRA	14.901.818	100,0	16.812.952	100,0	12,8
PASIBO FINKOA	8.904.348	59,8	9.671.348	57,5	8,6
Ondare garbia	6.695.984	44,9	7.117.016	42,3	6,3
Epe luzerako besteren baliabideak	2.208.364	14,8	2.554.332	15,2	15,7
EPE MOTZEKO HARTZEKODUNAK	5.635.984	37,8	6.788.245	40,4	20,4
- Kostua dutenak	1.846.497	12,4	3.261.003	19,4	76,6
- Kosturik gabekoak	3.789.487	25,4	3.527.242	21,0	-6,9
HORNIDURAK	892.681	6,0	442.452	2,6	-50,4

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala

5.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK

Nabarmentzekoa da, batetik, aztertutako Nafarroako enpresen laginaren errentagarritasun ekonomikoa (zergen aurretik kalkulatuta) jaitsi egin zela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, errentagarritasun hori % 4,1ekoa izan zen 2020an, eta % 5,1ekoa 2019an.

68. koadroa Nafarroako enpresen errentagarritasuna


Ratioak (%)	2016	2017	2018	2019	2020
AKTIBO GARBIAREN ERRENTAGARRITASUNA (zergen aurretik)	3,7	4,6	10,7	5,1	4,1
Jasotako finantzaketa-interesak / Kostua duten besteren baliabideak	2,8	2,4	2,2	2,6	2,4
BALIABIDE PROPIOEN ERRENTAGARRITASUNA (zergen aurretik)	4,6	6,3	15,7	6,8	5,7
Zorpetze-ratioa	46,7	45,1	39,5	43,8	58,0
Apalankamendu finantzarioa*	0,9	2,2	8,5	2,5	1,7

(*): Errentagarritasun ekonomikoa - besteren finantzaketaren kostua

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala

Bestetik, errentagarritasun finantzarioak (zergen aurretik kalkulatuta) ere nabarmen egin zuen behera 2020an, argi eta garbi, pandemiaren eraginez. Hala, % 5,7an kokatu zen (2019an % 6,8 eta 2018an % 15,7). Errentagarritasun ekonomikoak izandako jaitsierak eragin zuen errentagarritasun finantzarioaren beherakada, batez ere. Izan ere, zorraren kostuak jaitsiera apala izan zuen (2020an % 2,4koa zen eta 2019an % 2,6koa). Testuinguru horretan, apalankamendu finantzarioa nabarmen jaitsi zen 2020an, % 1,7ra arte (2019an % 2,5), eta zorpetze-ratioa nabarmen igo zen (2020an % 58 eta 2019an % 43,8).

14. grafikoa Nafarroako enpresen errentagarritasuna



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala

5.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA

Aurreko ataletan egindako analisi ekonomiko-finantzarioa osatzeko, aztertutako Nafarroako enpresen lagineko enpleguaren produktibitatearekin lotutako alderdi batzuk aipatuko ditugu labur.

69. koadroa Enpleguaren produktibitatea

Ratioak	(m euro)				
	2016	2017	2018	2019	2020
BEG/langile	81,1	79,0	79,0	77,8	73,9
Enpleguaren batez besteko kostua	47,0	47,8	47,8	48,6	49,2

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala

Zentzu horretan, langile bakoitzeko balio erantsia 2013ko mailara jaitsi zen; zehazki, 2020an 73,9 mila eurokoa izan zen, hau da, -% 5,1 murriztu zen 2019arekin alderatuta. Enpleguaren batez besteko kostuak hazten jarraitu zuen eta 49,2 mila eurora iritsi zen 2020an; hortaz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 1,2ko hazkundea izan zuen.

5.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA

Orain arte aipatutako informazioaren laburpen gisa, Nafarroako enpresen 2020ko egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako aldeko eta kontrako alderdi nagusiak aipatuko ditugu jarraian. Nabarmentzekoa da pandemiaren eragina enpresen egoeran islatu zela, ezegonkortasun eta ziurgabetasun ekonomiko-finantzario handiak sortu baitzituen. Eta, 2020aren amaieran emaitzak apur bat hobetu baziren ere, aurrekaririk gabeko krisiaren eraginak hautematen hasi ziren partidak.

Aldeko alderdien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Bitarteko kontsumoen ehuneko pisua jaitsi egin zen, eta sortutako balio erantsiaren pisuak gora egin zuen.
- Finantza-karga garbiak, ezohiko emaitzek eta zergek bilakaera ona izan zuten.
- Zergak nabarmen jaitsi ziren.
- Emaitza garbiak apur bat hobetu ziren.
- Zorpetze-kostua jaitsi egin zen.
- Diruzaintza nabarmen hazi zen, bai nominalki, bai ehuneko pisuari dagokionez.

Aurkako alderdiei dagokienez, aipatzekoak dira:

- Ustiapeneko diru-sarrerek jaitsiera nabarmena izan zuten.
- Langile-gastuen eta amortizazioen pisu erlatiboak gora egin zuen.
- Kostua duten epe laburreko hartzekodunen pisu erlatiboa hazi egin zen (hazkunde nominal nabarmena izan zuten, era berean).
- Ibilgetu materialaren ehuneko pisuak behera egin zuen (era berean, jaitsiera nominala izan zuten).
- Errentagarritasun finantzarioa eta ekonomikoa jaitsi egin ziren.
- Zorpetze-ratioa nabarmen hazi zen.

5.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK

Azkenik, Espainiako enpresa ez-finantzarioen 2021eko emaitzen inguruko alderdi nagusiak aipatuko ditugu, labor. Horretarako, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala¹ izango da informazio-iturri nagusia. Hark emandako informazioa Estatuko egoerari buruzkoa da, baina ongi erakusten du COVID-19ren krisiak zer nolako eragin esanguratsua izan zuen Nafarroako enpresen bilakaera ekonomikoa eta finantzarioan.

70. koadroa Emtzen kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala ^(*)		
	2019 I-IV / 2018 I-IV	2020 I-IV / 2019 I-IV	2021 I-IV / 2020 I-IV
Enpresa kopurua/Nazioko guztizko estaldura	1.031/% 13,0	943/% 11,6	926/% 11,3
1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne)	0,0	-19,7	18,1
Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak	-1,3	-20,1	21,4
2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne)	-0,6	-19,0	21,3
Erosketa garbiak	-2,0	-25,1	33,0
Beste ustiapen-gastu batzuk	2,4	-10,3	8,0
S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	1,4	-21,1	10,9
3. Langile-gastuak	3,3	-4,2	2,4
S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3)	-0,6	-38,3	23,6
4. Diru-sarrera finantzarioak	4,7	-19,7	24,2
5. Gastu finantzarioak	-5,8	-10,4	-7,0
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	1,1	0,1	-2,9
S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 -5 -6)	2,1	-56,0	68,1
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	-44,6	—	—
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	-20,8	41,7	—
9. Mozkinen gaineko zergak	-26,9	-50,1	58,6
S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9)	-12,8	-80,0	141,3
EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1)	38,0	10,0	25,8
ERRENTAGARRITASUNAK			
R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik)	6,8	4,3	4,7
R.2. Jasotako finantzaketa interesak/kostua duten besteren baliabideak	2,0	1,8	1,6
R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik)	10,4	6,2	7,1
R.4. Aldea: errentagarritasuna – kostu finantzarioa (R.1. - R.2.)	4,8	2,5	3,1

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.

Iturria: Espainiako Bankua.

¹ 2021eko lau hiruhilekoetako informazioa bidali duten Espainiako 926 enpresa ez-finantzariok osatutako lagin baten emaitzak (lagin hori ezberdina izaten da urtero, eta manufaktura-industriak izaten du ordezkariarik handiena). Enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren %11,3 ordezkatzeko dute.

Balantzeen Zentralaren hiruhilekoko lagineko emaitzek agerian uzten dute 2021ean enpresen jarduerak gora egin zuela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Izan ere, enplegua zein soberakin arruntak hazi egin ziren. Ondorioz, neurri batean leheneratu egin zen aurreko urtean COVID-19aren krisiaren inpaktuaren ondorioz erregistratutako jaitsiera handia. Dena den, ekitaldiaren azken zatian hazi egin ziren energiaren kostuak, eta horrek gelditu egin zuen enpresen soberakinen susperraldia energia gehien kontsumitzen duten adarretan.

Ohiko irabaziek gora egin zuten eta, ondorioz, errentagarritasun mailak ere igo egin ziren aurreko urtearekin alderatuta, baina pandemiaren aurreko balioetara iritsi gabe. Bestetik, aktiboarekiko zorpetze-ratioak hazten jarraitu zuen. Aldiz, soberakin arruntekiko kalkulaturako zorpetze-ratioa -emaitza ekonomiko gordina gehi diru-sarrera finantzarioak- jaitsi egin zen, enpresen emaitzek bilakaera positiboa izan zutelako.

Etekinak hobetu izanari esker eta zor biziaren batez besteko kostua jaitsi izanari esker, interesak ordaintzera bideratutako ohiko emaitzen ehunekoak beheranzko joera hartu zuen. Azkenik, 2021ean, ziurgabetasuna murrizten joan zen pixkanaka, aurreko urtean erregistratutako hazkunde handiaren ondoren. Testuinguru horretan, likidezia-ratioa jaitsi egin zen enpresa gehienetan.

Sektoreen araberrako azterketak agerian uzten du sektore gehienetan suspertu egin zela BEGa. Industria-sektorea nabarmentzen da, hazkunde handiena izan zuelako, % 38,9koa. Aitzitik, 2021ean informazioaren eta komunikazioen adarrean bakarrik jarraitu zuen BEGak behera egiten; % 2,8 murriztu zen adar horretan. Dena den, jaitsiera hori aurreko urtekoa (% 16,1) baino askoz ere apalagoa izan zen.

Nolanahi ere, Balantzeen Zentralaren hiruhilekoko laginaren BEGak ez zuen lortu pandemiaren aurreko maila berreskuratzea eta 2019ko zifra baino % 12,8 beherago kokatu zen. BEGa sektoreka banakatuta, ikus daiteke industria-sektorea izan zela pandemiaren aurreko balioaren antzekoa erregistratu zuen bakarra. Energia-sektoreko enpresek eta zerbitzuetakoeak, aldiz, 2019ko jarduera maila baino nabarmen baxuagoa izan zuten.

Aktiboaren errentagarritasuna sektorearen arabera banatuta, ikus daiteke bilakaera ezberdina izan zutela. Hala, batetik, merkataritza- eta ostalaritza-sektorean eta, bereziki, industria-sektorean hazi egin zen errentagarritasun maila; % 7,3koa eta % 6,8koa izan zen horietan, hurrenez hurren. Bestalde, energiaren adarrean eta «gainerako jarduerak» izeneko adarrean apur bat (bi hamarren) jaitsi zen aktiboaren errentagarritasun maila aurreko urtetik, eta % 5,1ekoa eta % 3,6koa izan ziren, hurrenez hurren. Informazioa eta komunikazioaren adarrean, berriz, ehuneko 1 puntutik gorakoa izan zen jaitsiera, eta % 7,7an kokatu zen.



3. INDUSTRIA

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1. JARDUERAREN BILAKAERA

Nafarroako industria-sektoreak beherakada handia izan zuen 2020an, pandemiaren inpaktuaren ondorioz. Baina, gaur egun, jarduera berreskuratzeko prozesuan daude enpresak. Hala erakusten du egindako azterketak, 2021eko bilakaera positiboa izan zela erakusten baitu. Zentzu horretan, Nafarroako industriaren balio erantsi gordinak % 6,5eko hazkundera izan zuen (2020an -% 9,5). Estatuan ere antzeko igoera izan zuen adierazle horrek (2021ean % 5,9 eta 2020an -% 12,1).

2021eko hiruhilekoei erreparatuta, urteko bigarren hiruhilekoan izandako hobekuntza handia nabarmentzen da, % 26,1ekoa (-% 1,2 lehenengo hiruhilekoan), eta urtean zehar balio positiboekin jarraitu zuen (% 3,5 bigarren hiruhilekoan eta % 1,5 laugarrenean). Estatuko portaera antzekoa izan zen, eta hobekuntza nabarmena izan zen bigarren hiruhilekotik aurrera (-%0,3, %29,3, %0,4 eta -%0,1), nahiz eta bilakaera ez zen hain hedakorra izan.

71. koadroa Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera

(%)

Urtea	IPI* - Nafarroa	IPI* - Estatua
2012	-8,0	-6,7
2013	-1,6	-1,7
2014	3,9	1,5
2015	2,2	3,3
2016	0,7	1,6
2017	-2,1	2,9
2018	-0,5	0,7
2019	9,8	0,7
2020	-10,9	-9,2
2021	10,4	7,1

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Nafarroako Gobernuoko Ekonomia eta Ogasun Departamentua (NEI) eta EIN.

Industria Ekoizpenaren Indizearen bilakaerari dagokionez (IPI), honek ere suspertze argia izan zuen Nafarroan zein Estatuan (baina bigarren horren kasuan, modu apalagoan): % 10,4 Nafarroan (2020an -% 10,9) eta % 7,1 Estatuan (2020an -% 9,2).

72. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera

(%)

Kontzeptua	2019	2020	2021
Bitarteko ondasunak	-2,1	-6,7	6,6
Ekipo-ondasunak	18,4	-18,0	13,8
Kontsumo-ondasunak	0,0	-7,6	5,5
Energia	45,5	-12,3	19,4

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Nafarroako Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera izandako bilakaerari dagokionez, helmuga ekonomiko guztietan IPIak hobekuntza orokorra izan zuela ikus daiteke. Bereziki, ekipo-ondasunetan eta energian ekoizpenak izandako hazkunde handia nabarmentzen da, % 13,8koa ekipo-ondasunen kasuan (2020an -% 18,0) eta % 19,4koa energiaren kasuan (2020an -% 12,3).

73. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera

(%)

Kontzeptua	2019	2020	2021
Nekazaritzako elikagaien industria	3,6	-6,5	3,6
Metalurgia eta produktu metalikoak	6,1	-10,9	17,8
Papera, zura eta altzariak	0,0	-9,5	13,4
Garraiorako materiala	13,3	-22,6	-5,2
Beste manufaktura-industria batzuk	-1,2	-2,1	4,9

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Azkenik, Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) jardueraren adarraren arabera izandako bilakaerari dagokionez, kasu honetan ere 2020an baino nabarmen hobea izan zen portaera 2021ean. Hobekuntza orokorra izan zen jarduera adar guztietan, eta horrek agerian uzten du pandemiaren ondoren sektorea suspertzen ari dela.

Zehazki, honako jarduera-adar hauek nabarmentzen dira, haien IPIek izandako igoerengatik: Metalurgia eta produktu metalikoak (2020an -% 10,9 eta 2021ean % 17,8), Garraio-materiala (-% 22,6tik -% 5,2ra) eta Papera, zura eta altzariak (-% 9,5etik % 13,4ra).

1.2. ENPRESAK ETA ENPLEGUA

EINek emandako datuen arabera, pandemiaren ondorioak oraindik ere agerikoak dira sektoreko enpresa-ehunaren bilakaeran, enpresak galtzen jarraitzen baitu 2020arekiko.

74. koadroa Industria-sektorean langile eta enpresa kopuruak izandako bilakaera

Urtea	Enpresak	% Δ	Enplegua	% Δ
2012	2.539	-3,0	68,6	-3,0
2013	2.456	-3,3	67,3	-1,9
2014	2.460	0,2	66,9	-0,6
2015	2.447	-0,5	64,4	-3,7
2016	2.436	-0,4	67,2	4,3
2017	2.438	0,1	75,0	11,6
2018	2.445	0,3	75,2	0,3
2019	2.451	0,2	74,9	-0,4
2020	2.350	-4,1	75,7	1,1
2021	2.318	-1,4	78,8	4,1

*Enplegua, langileen milakotan.
Iturria: INE eta geuk egin.*

Zehazki, EINek emandako informazioaren arabera, 2021ean -% 1,4 murriztu zen industriako enpresen kopurua, 2.318 enpresara iritsi arte (2020an 2.350 zenbatu ziren). Dena den, langileen kopurua % 4,1 igo zen (2020an % 1,1) eta 78,8 mila langilera iritsi ziren (2020an 75,7 mila langile zenbatu ziren).

2. INDUSTRIA EGITURA

Kapitulu honetan Nafarroako industriaren sektorekako azterketa dugu, Nafarroako ekonomian garrantzi handiena duten industria-sektoreak zein diren ezagutzeko helburuz. Horretarako, azpisektore bakoitzak sortzen dituen enplegua eta diru-sarrerak aztertuko ditugu alde batetik, eskuragarri dauden EInen industria-inkestaren azken datuetan oinarrituta (2020). Ondoren, enpresaren tamainaren arabera aztertuko ditugu industriako enpresak eta langileak. Azkenik, eskualdeko industria-enpresa nagusiak zerrendatuko ditugu.

2.1. JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIAK IDENTIFIKATZEA

EInen industria-inkestak bildutako datuen arabera, 2020an 74.080 langile zituen Nafarroako industria-sektoreak eta 20.408 milioi euro fakturatu zituen. Nafarroako industria-sektorean lan egiten zuten pertsonen Estatuko industria-sektoreko langileen % 2,8 osatzen zuten, eta fakturazioa Estatuakoaren % 3,4koa zen.

Nafarroako industria-sektoreko jarduera-azpisektore bakoitzaren partaidetzari dagokionez, eta EJSN-2009ren datuen arabera, honakoak izan ziren jarduera nagusiak: Elikagaien industria (% 19,4), Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa (% 17,0), Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik (% 10,5) eta Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineria eta ekipoen fabrikazioa (% 9,5). Sektore horietan bildu zen Nafarroako industria-enpleguaren % 56,4.

Honako hauek izan ziren rankingean hurrengoak: Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (% 5,8), Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa (% 4,8), Metalurgia (% 4,0), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 3,4), Paperaren industria (% 3,1), Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% 2,5), Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire hornikuntza (% 2,4), Farmaziako produktuen fabrikazioa (% 2,2), Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena (% 2,2) eta Edariaren fabrikazioa (% 2,2). Gainerako jardueren garrantzia, berriz, % 2tik beherakoa izan zen.

75. koadroa Nafarroako industria-sektoreak sortutako enplegua eta diru-sarrerak, jarduera-azpisektoreen arabera, 2020

Sektorea (EJSN-2009)	Enplegua Kopurua	Diru-sarrerak (m euro)
Elikagaien industria	14.336	3.581.788
Edarien fabrikazioa	1.626	492.899
Ehungintza	345	47.015
Jantzigintza	318	48.179
Larrugintza eta oinetakogintza	193	19.841
Zuraren eta kortxoaren industria	1.116	145.266
Papergintza	2.326	701.802
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa	1.017	131.133
Industria kimikoa	1.089	336.262
Farmazia-produktuen fabrikazioa	1.652	440.989
Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	3.563	736.474
Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa	1.828	426.575
Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa	2.944	815.875
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik	7.771	1.398.954
Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa	658	74.973
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	4.323	1.476.611
Makineria eta ekipoen fabrikazioa	7.057	2.096.879
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	12.629	4.998.286
Bestelako garraio-materialen fabrikazioa	386	65.116
Altzarien fabrikazioa	918	90.351
Beste manufaktura-industria batzuk	769	44.939
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	2.531	221.001
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	1.777	1.541.927
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	867	124.154
Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	1.631	233.235
Gainerako jarduerak	410	117.234
Industria, guztira	74.080	20.407.758

Iturria: EIN, Industria Inkesta.

Jarduera sektore bakoitzaren diru-sarrerei dagokienez, honako hauek izan ziren sektore nagusiak: Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa (% 24,5), Elikagaien industria (% 17,6) eta Makineria eta ekipoen fabrikazioa (% 10,3). Hiru sektore horiek bildu zuten Nafarroako industriak 2020an sortutako balio erantsiaren % 50 baino gehiago (% 52,4, zehazki).

Sektore hauek ere partaidetza esanguratsua izan zuten: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire hornikuntza (% 7,6), Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (% 7,2), Produktu metalikoen fabrikazioa makineria eta ekipoak izan ezik (% 6,9), Metalurgia (% 4,0), Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa (% 3,6), Paperaren industria (% 3,4), Edarien fabrikazioa (% 2,4), Farmazia-produktuen fabrikazioa (% 2,2) eta Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% 2,1). Gainerako jarduera-sektoreen garrantzia ez zen % 2ra iritsi.


76. koadroa **Jarduera-adar desberdinek industriako enpleguaren eta diru-sarreraren guztizkoan duten partaidetza, 2020**

Sektorea (EJSN-2009)	Enpleguaren %	Sektorea (EJSN-2009)	Diru-sarreraren %
Elikagaien industria	19,4	Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	24,5
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	17,0	Elikagaien industria	17,6
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik	10,5	Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	10,3
Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	9,5	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	7,6
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	5,8	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	7,2
Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	4,8	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik	6,9
Metalurgia	4,0	Metalurgia	4,0
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	3,4	Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	3,6
Papergintza	3,1	Papergintza	3,4
Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa	2,5	Edariaren fabrikazioa	2,4
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	2,4	Farmazia-produktuen fabrikazioa	2,2
Farmazia-produktuen fabrikazioa	2,2	Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa	2,1
Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	2,2	Industria kimikoa	1,6
Edariaren fabrikazioa	2,2	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	1,1
Zuraren eta kortxoaren industria	1,5	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	1,1
Industria kimikoa	1,5	Zuraren eta kortxoaren industria	0,7
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioa	1,4	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioa	0,6
Altzarien fabrikazioa	1,2	Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	0,6
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	1,2	Gainerako jarduerak	0,6
Beste manufaktura-industria batzuk	1,0	Altzarien fabrikazioa	0,4
Produktu informatikoen, elektronikoaren eta optikoen fabrikazioa	0,9	Produktu informatikoen, elektronikoaren eta optikoen fabrikazioa	0,4
Gainerako jarduerak	0,6	Bestelako garraio-materialen fabrikazioa	0,3
Bestelako garraio-materialen fabrikazioa	0,5	Jantzigintza	0,2
Ehungintza	0,5	Ehungintza	0,2
Jantzigintza	0,4	Beste manufaktura-industria batzuk	0,2
Larrugintza eta oinetakogintza	0,3	Larrugintza eta oinetakogintza	0,1
Industria, guztira	100,0	Industria, guztira	100,0

Iturria: EIN, Industria Inkesta eta geuk egina.

Nafarroako industria-sektoreko jarduerarik garrantzitsuenak identifikatzen jarraitzeko, interesgarria da enplegua eta diru-sarrerak modu bateratuan aztertzea, jarduera-sektoreka. Zentzu horretan, jarduera hauek izan ziren esanguratsuenak: Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa; Elikagaien industria; Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen fabrikazioa; eta Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa. Hauek izan ziren hurrengoak, baina hauek jardueran izandako pisua aurrez aipatutakoena baino nabarmen txikiagoa izan zen: Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa; Metalurgia; eta Papergintza. Azkenik, nabarmentzekoa da 2020an asko igo zela elikagaien industriaren pisua, pandemiaren aurreko urteetako erregistroak gainditzera.

15. grafikoa **Jarduera-azpisektore desberdinek Nafarroako industriako enpleguaren eta diru-sarreraren guztizkoan duten partaidetza, 2020**



- | | |
|---|---|
| 1 Elikagaien industria | 14 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik |
| 2 Edarien fabrikazioa | 15 Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa |
| 3 Ehungintza | 16 Material eta ekipo elektriko en fabrikazioa |
| 4 Jantzigintza | 17 Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa |
| 5 Larrugintza eta oinetakogintza | 18 Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioa |
| 6 Zuraren eta kortxoaren industria | 19 Bestelako garraio-materialen fabrikazioa |
| 7 Papergintza | 20 Altzarien fabrikazioa |
| 8 Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioa | 21 Beste manufaktura-industria batzuk |
| 9 Industria kimikoa | 22 Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa |
| 10 Farmazia-produktuen fabrikazioa | 23 Energia elektriko en, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza |
| 11 Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 24 Uraren bilketa, arazketa eta banaketa |
| 12 Produktu mineral ez-metaliko en fabrikazioa | 25 Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena |
| 13 Metalurgia | 26 Gainerako jarduerak |

Iturria: EIN, Industria Inkesta eta geuk egina.

2.2. ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA

Halaber, Nafarroako industria-sektorean garrantzirik handiena izan zuten jarduerak identifikatu ondoren, atal honetan enpresa eta langile kopuruak aztertuko ditugu, enpresaren tamainaren arabera. Jarduera-sektore anitzetako enpresen ehunaren ezaugarriak sakonago ezagutzeko aukera ematen du analisi honek.

EINek emandako informazioaren arabera, 2021ean 2.318 enpresa zituen Nafarroak, batez ere, jarduera hauetara bideratuak: Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik (% 20,9) eta Elikagaien industria (% 15,7). Horiek, guztira, 78.800 langile zituzten. Aipatutako bi sektore horietakoak ziren Nafarroako industria-enpresen % 36,6.

Enpresa kopuru txikiagoarekin, hauek kokatu ziren distantzia apur batera: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 6,6); Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 6,0); Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik (% 5,8); Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza (% 5,3); Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioa (% 4,4); Edarien fabrikazioa (% 4,1); Beste produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% 3,8); Altzarien fabrikazioa (% 3,1); eta Uraren bilketa, arazketa eta banaketa (% 3,1). Gainerako jardueren partaidetza % 3koa baino txikiagoa izan zen.

77. koadroa Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera, 2021

SEKTOREA (EJSN-2009)	1-5 langile	6-49 langile	50-99 langile	100-249 langile	> 250 langile	Guztira	Industria osoaren %
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik	231	232	11	7	3	484	20,9
Elikagaien industria	189	135	15	10	15	364	15,7
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	93	52	6	2	0	153	6,6
Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	51	67	9	8	4	139	6,0
Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik	86	48	1	0	0	135	5,8
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	110	11	0	0	1	122	5,3
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa	75	27	1	0	0	103	4,4
Edarien fabrikazioa	53	37	5	1	0	96	4,1
Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa	47	35	5	1	0	88	3,8
Altzarien fabrikazioa	52	17	1	0	1	71	3,1
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	61	8	0	1	1	71	3,1
Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	24	27	7	5	2	65	2,8
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	20	26	6	4	6	62	2,7
Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea; balorizazioa	22	32	0	1	0	55	2,4
Beste manufaktura-industria batzuk	29	17	1	0	0	47	2,0
Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa	11	20	4	4	1	40	1,7
Industria kimikoa	16	17	5	0	1	39	1,7
Jantzigintza	23	11	0	0	0	34	1,5
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	9	15	5	1	2	32	1,4
Produktu informatikoen, elektronikoaren eta optikoen fabrikazioa	12	13	0	2	0	27	1,2
Ehungintza	16	7	1	1	0	25	1,1
Papergintza	4	10	1	2	2	19	0,8
Beste erauzketa-industria batzuk	8	10	0	0	0	18	0,8
Larrugintza eta oinetakogintza	8	4	1	0	0	13	0,6
Farmazia-produktuen fabrikazioa	3	1	0	1	2	7	0,3
Hondakin-uren bilketa eta tratamendua	1	2	0	0	0	3	0,1
Deskontaminazio-jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk	2	1	0	0	0	3	0,1
Bestelako garraio-materialen fabrikazioa	0	1	0	1	0	2	0,1
Mineral metalikoen erauzketa	0	0	0	1	0	1	0,0
Antrazitaren, harrikatzen eta lignitoaren erauzketa	0	0	0	0	0	0	0,0
Petrolio gordinararen eta gas naturalaren erauzketa	0	0	0	0	0	0	0,0
Erauzketa-industriei laguntzeko jarduerak	0	0	0	0	0	0	0,0
Tabakoaren industria	0	0	0	0	0	0	0,0
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	0	0	0	0	0	0	0,0
Guztira	1.256	883	85	53	41	2.318	100,0

Iturria: EIN-Enpresen Direktorio Nagusia-DIRCE (enpresak autonomia-erkidegoen, jarduera nagusiaren eta soldatapekoen estratuen arabera) eta geuk egina.

2.3. ENPRESA NAGUSIAK

Amaitzeko, Foru Erkidegoko industria-enpresa nagusien analisi labur bat egingo dugu.

Camerdataren (Espainiako Merkataritza Ganberek osatutako elkarte) datu-basearen arabera, 2021ean 250 langiletik gorako 37 industria-enpresa zeuden. Enpresa horiek zein diren, zein udalerritan dauden eta zein jarduera duten azaltzen da honako koadro honetan (EJSN-2009ren arabera).

Azkenik, gogoratu beharrekoa da atzerriko inbertsioak garrantzitsuak izan direla azken urteetan Nafarroan, industria-sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko, nahiz eta erkidegotik kanpoko erabaki-guneeekiko mendekotasun handiagoa eragin dezakeen.

Gaur egun, Nafarroan finkatuta dauden industria-enpresa askok dute kapital multinazionala; batez ere, enpresa ertainak eta handiak dira, esportatzeko joera handia dutenak.



78. koadroa

Nafarroako industria-enpresa nagusiak, 2021

Enpresa	Udalerría	Enplegu- estratua	Jarduera
FAGOR EDERLAN TAFALLA SC	Tafalla	+ 500	Burdinaren galdaketa
ZF AFTERMARKET IBERICA SL	Corella	+ 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa
SIEMENS GAMESA RENEWABLE ENERGY EOLICA SL	Sarriguren	+ 500	Beste mota batzuetako energia elektrikoaren ekoizpena
GENERAL MILLS SAN ADRIAN SL	San Adrián	+ 500	Espezieen, saltsen eta gozagarrien elaborazioa
GAS NATURAL COMERCIALIZADORA SA	Etxarri Aranatz	+ 500	Hoditeriaren bidezko gasaren merkataritza
ACCIONA BLADES SA	Sarriguren	+ 500	Motorren eta turbinen fabrikazioa, aireontzietara, autoetara eta ziklomotorretara bideratutakoak izan ezik
SAS AUTOSYSTEMTECHNIK SA	Arazuri	+ 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa
CONGELADOS DE NAVARRA SA	Arguedas	+ 500	Beste prozesatu batzuk eta fruta eta barazkien kontserbak
INDUSTRIAS ALIMENTARIAS DE NAVARRA SAU	Alesbes	+ 500	Beste prozesatu batzuk eta fruta eta barazkien kontserbak
ULTRACONGELADOS VIRTO SA	Azagra	+ 500	Beste prozesatu batzuk eta fruta eta barazkien kontserbak
M TORRES DISEÑOS INDUSTRIALES SA	Elortz	+ 500	Beste erabilera zehatz batzuetarako makineriaren fabrikazioa
U V E SA	Tutera	+ 500	Beste ganadu-ustiategi batzuk
CEMENTOS PORTLAND VALDERRIVAS SA	Iruñea	+ 500	Zementuaren fabrikazioa
ACCIONA ENERGIA SA	Mutiloa	+ 500	Beste mota batzuetako energia elektrikoaren ekoizpena
NORDEX ENERGY SPAIN SAU	Barasoain	+ 500	Motorren eta turbinen fabrikazioa, aireontzietara, autoetara eta ziklomotorretara bideratutakoak izan ezik
VOLKSWAGEN NAVARRA SA	Arazuri	+ 500	Ibilgailu motordunen fabrikazioa
VISCOFAN SA	Iruñea	+ 500	Plastikozko ontzien eta bilgarrien fabrikazioa
KYB SUSPENSIONS EUROPE SA	Asiain	+ 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa
MANUFACTURAS DEL ALUMINIO PAMPLONA SECTO	Orkoien	251- 500	Burdinazkoak ez diren beste metal batzuen fundizioa
VEGETALES DE NAVARRA SLU	Milagro	251- 500	Beste prozesatu batzuk eta fruta eta barazkien kontserbak
ELABORADOS NATURALES DE LA RIBERA DEL EBRO SL	Funes	251- 500	Prestatutako plateren eta otorduen elaborazioa
BENTELER MPPV AUTOMOTIVE MANUFACTURING ESPAÑA SL	Arazuri	251- 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa
GUARDIAN INDUSTRIES NAVARRA SL	Tutera	251- 500	Beira lauaren fabrikazioa
FAURECIA EMISSIONS CONTROL TECHNOLOGIES PAMPLONA S	Orkoien	251- 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa
ZALAIN TRANSFORMADOS SL	Zalain Zoko	251- 500	Altzairuzko hodian, hoditerien, profil hutsen eta haien osagarrien fabrikazioa
3 P BIOPHARMACEUTICALS SL	Noain	251- 500	Oinarrizko farmazia-produktuen fabrikazioa
SOFIDEL SPAIN SLU	Buñuel	251- 500	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, etxerako, osasungintzarako eta higienerako
GELAGRI IBERICA SL	Milagro	251- 500	Beste prozesatu batzuk eta fruta eta barazkien kontserbak
EDITORIAL ARANZADI SAU	Zizur Txikia	251- 500	Liburuen edizioa
GESTAMP NAVARRA SA	Iruñea	251- 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa
PIHER SENSORS & CONTROLS SA	Tutera	251- 500	Osagai elektronikoen fabrikazioa
TIMAC AGRO ESPAÑA SA	Orkoien	251- 500	Ongarrien eta konposatu nitrogenodunen fabrikazioa
SMURFIT KAPPA NAVARRA SA	Cordovilla (Galar)	251- 500	Paperaren eta kartoi ondulatuen fabrikazioa - Paperezko eta kartoi-zko ontzien eta bilgarrien fabrikazioa
IBERFRUTA-MUERZA SA	Azagra	251- 500	Beste prozesatu batzuk eta fruta eta barazkien kontserbak
TECNOCONFORT SA	Iruñea	251- 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa
APERITIVOS Y EXTRUSIONADOS SA	Ribaforada	251- 500	Beste elikagai-produktu batzuen elaborazioa
DANA AUTOMOCION SA	Iruñea	251- 500	Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.

3. SIDERURGIA

3.1. IKUSPEGI OROKORRA

Osasun-krisiak mundu osoan izan zuen eztrandak inflexio-puntu bat markatu zuen martxa ekonomikoan, eta pandemiaren ondorioak arintzeko inoiz ikusi gabeko neurriak hartu ziren. Siderurgiaren moduko industrietzat benetan zalantzazkoa zen egoera batean, txertoen banaketaren azelerazioak eta jarduera ekonomikoen pixkanakako irekierak arnas pixka bat eman zioten sektoreari, erresilientzia-gaitasuna agerian utziz. Eskariaren gorakadak eta balio-kate osoko stock urriak lehengaien prezioen igoera ekarri zuten, covid-19aren ondorioz antzemandako arazo operatibo eta logistikoak neurri batean atzean utzita. Egoera horri, aurrekaririk gabeko energia-kostuen igoera gehitu zitzaion, eta horrek produkzio-geldialdia ere eragin zuen konpainia askoren artean, oso sektore elektointentsiboa baita.

Ildo horretan, EBk neurri sorta bat onartu zuen, besteak beste, Europako altzairua babesteko neurriak 3 urtez luzatzea, Europako industriaren bideragarritasuna eta enpleguari eustea bermatzeko eta Txinak egindako presio komertzial gero eta handiagoaren aurrean babes handiagoa izateko. Bitartean, AEBk lasaitu egin zituen Trumpen administrazioan ezarritako muga-zergen neurriak.

Ingurumen-jasangarritasunaren esparruan, Batasuneko agintarien jarduera-ildo nagusia industriaren berotegi-efektuko gasen emisio-maila altuen inpaktua arintzera bideratu da, klima-aldaketaren aurkako borrokan EBren lidergo-posizioa indartzen duen «Fit for 55» plan berria ezartzea bultzatuz.

Era berean, eta automobilgintzako ingeniari-programa handinahiaren barruan (Steel E-Motive programa), joan den ekitaldian World Auto Steel¹-en bidez abiarazita, garrantzi handiko aurrerapenak egin dira, hala nola tentsio handiko bateria bat edo segurtasun-egitura bat garatzea ibilgailu elektriko eta autonomoentzat, hori guztia mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko.

¹World Steel Associationen baitako automobilgintzako taldea da WorldAutoSteel, mundu osoko 21 altzairu ekoizle handik osatua.

Siderurgia-jarduerak gorabehera handiak izan baditu ere, urtearen balantzea positiboa izan zen, produkzio- eta eskaera-maila errekorra izan baitzen, besteak beste, eraikuntzaren eta ekipo-ondasunen sektoreen dinamismoak eraginda–Altzairu-eskatzaile handienetako bat–, beste bezero nagusietako bat, automobilgintza, erdi-eroaleen krisiaren eraginpean geratu zen bitartean.

Testuinguru horretan, eta World Steel Association-ek argitaratutako datuen arabera, 2021ean altzairu gordinaren ekoizpena, maila globalean, 1.951,2 milioi tonara igo zen, industrian erregistro historiko bat markatuz eta urte arteko % 3,8ko hazkundea eraginez.

Altzairuaren ekoizpenaren bilakaeraren banaketa geografikoari dagokionez, saldo positibo orokorra izan zuen, Txinarentzat izan ezik, azken urtean % 3 murriztu baitzen haren ekoizpen-bolumena. Asiako erraldoia, aleazioaren fabrikazioan mundu mailan aitzindaria, 1.032,8 milioi tonarekin (guztizkoaren % 52,9), ekoizpenean izandako etenaldi etengabeek ahuldu zuten, «Zero COVID» politika aplikatzearen ondorioz. Aldiz, tradizio siderurgiko handia duten beste herrialde batzuek, hala nola AEBk, Kanadak, Japoniak edo Indiak, hazkunde handiekin itxi zuten urtea (% 18, % 15,7 eta % 17,8, hurrenez hurren) eta 100-120 milioi tona inguruko ekoizpen-mailarekin. Europan, datuen irakurketa antzekoa da: Alemania (40,1 milioi tona), Italia (24,4), Espainia (14,2) eta Frantzia (13,9) bi digituen gainetik hazi dira; ez ordea Erresuma Batua (7,2 milioi tona, % 1,4), kaltetuta geratu baitzen Europar Batasunarekiko aldebiko akordioak hoztu egin zirelako, Erresuma Batuak proiektu komunitarioa bertan behera utzi ondoren.

79. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena

Herrialdea	M Tm	2020		2021		
		% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	83,7	-16,9	4,5	98,8	18,0	5,1
Japonia	83,2	-16,2	4,4	96,3	15,7	4,9
Txina	1.064,7	7,0	56,7	1.032,8	-3,0	52,9
India	100,3	-10,0	5,3	118,2	17,8	6,1
Alemania	35,7	-9,8	1,9	40,1	12,3	2,1
Italia	20,4	-12,1	1,1	24,4	19,6	1,3
Frantzia	11,6	-19,4	0,6	13,9	19,8	0,7
Erresuma Batua	7,1	-1,4	0,4	7,2	1,4	0,4
Espainia	11,0	-19,1	0,6	14,2	29,1	0,7
EB-27*	127,9	-11,7	6,8	147,6	15,4	7,6
Mundu osoa	1.879,4	0,3	100,0	1.951,2	3,8	100,0

(*): 2020ko otsailaren 1era arte, EB-28.

Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

Ekitaldian ez zen aldaketa nabarmenik izan altzairu gordinaren munduko produkzio-maparen osaeran, eta Asiako kontinentea izan zen berriro ere rankinaren liderra, guztizkoaren ia hiru laurdeneko jarduera-bolumenarekin (% 71,9). Europako ekonomia handien agregatuak munduko produkzioaren % 13,2 osatu zuen, eta Amerikak, berriz, guztizkoaren % 8,4.

16. grafikoa Altzairuaren mundu mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Produktu siderurgikoen munduko kontsumoari dagokionez, oro har, eskaria % 2,7 handitu zen, eta 1.833,7 milioi tona kontsumitu ziren. Aztertutako herrialdeen artean, eta ekoizpen-eremuan bezala, Txina dago altzairuaren kontsumo globalaren buruan, % 5,4ko jaitsierarekin itxi baitzuen urtea eta 1.000 milioi tonako mugaren azpitik kokatu baitzen; gainerako herrialdeen ezaugarria, berriz, dinamismo handia izan zen, eta urtea % 10etik gorako hazkundeekin amaitu zuten; beraz, oro har, azken hamarkadako eskaera-maila handiena izan zen.

80. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2020			2021		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	92,2	-16,6	5,2	111,7	21,1	6,1
Japonia	52,6	-16,8	2,9	57,5	9,3	3,1
Txina	1.006,3	10,4	56,4	952,0	-5,4	51,9
India	89,3	-13,0	5,0	106,1	18,8	5,8
Alemania	31,2	-11,1	1,7	35,2	12,8	1,9
Italia	20,4	-18,4	1,1	25,9	27,0	1,4
Frantzia	12,2	-16,4	0,7	13,9	13,9	0,8
Erresuma Batua	9,0	-11,8	0,5	10,8	20,0	0,6
Espainia	11,6	-12,1	0,6	13,1	12,9	0,7
EB-27*	131,0	-11,5	7,3	152,8	16,6	8,3
Mundu osoa	1.784,9	0,5	100,0	1.833,7	2,7	100,0

(*): 2020ko otsailaren 1era arte, EB-28.

Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

3.2. ESPAINIAKO ETA NAFARROAKO SIDERURGIA

Industria-jardueraren suspertzeak eta altzairua kontsumitzen duten sektoreen eskariaren bultzadak markatutako ekitaldi batean, nahiz eta urtearen azken zatian moteldu egin zen energia-prezioen etengabeko igoeraren ondorioz, Espainiako siderurgia-sektoreak hazkunde-bideari heldu zion berriro, 2020. urtea oso gogorra izan ondoren. Zehazki, Estatuko siderurgiaren magnitude nagusiek sektorearen martxa ona berretsi zuten, ekoizpen-bolumenaren gorakada nabarmenarekin (% 27,6), esportazioarekin (% 18,6), inportazioarekin (% 12) eta kontsumoarekin (% 11,9).

81. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*

(mila Tm)


Urtea	Produkzioa	Esportazioa	Inportazioa	Ageriko kontsumoa
2014	14.280	9.969	8.307	11.840
2015	14.888	9.628	8.989	13.043
2016	13.658	9.415	9.447	12.957
2017	14.441	9.710	9.972	13.258
2018	14.320	9.649	10.761	13.838
2019	13.588	9.494	10.286	13.236
2020	11.141	7.974	8.988	11.691
2021	14.220	9.461	10.070	13.081

(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza, berriz, siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Balio absolutuei dagokienez, 14.220 mila tona altzairu gordin ekoitzi zituzten, aurreko ekitaldian baino askoz ere handiagoa (3.079 mila tona gehiago). Edonola ere 2007an lortutako balio haietatik oso urrun (4.779 mila tona gutxiago), urte hartan erregistratu baitzuten altzairuaren inoizko ekoizpen mailarik altuena. Kanpo-merkataritzari dagokionez, atzerriko ekonomiak apurka-apurka zabaltzeak mesede egin zion jarduerari, eta Espainiako altzairuaren esportazioak 9.461 mila tonakoak izan ziren (1.487 mila tona gehiago), krisiaren aurreko zifrak gaindituz (2007an baino 1.657 mila tona gehiago); inportazioak, berriz, 10.070 mila tonakoak dira (2020an baino +1.082 mila tona, eta 2007an baino -4.968 tona). Azkenik, itxurazko kontsumoa 13.081 mila tonakoa izan zen, hau da, jaitsiera nabarmena 2007ko balioekin alderatuta (10.320 mila tona gutxiago).

17. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Inportatutako lehengaien bilakaerari buruzko informazioa oso baldintzatuta egon zen zenbait faktoreren konbinazioa zela eta: indartzen hasi zen eskaria (ekonomia berriz irekitzea) eta eskaintzaren eskasia (hornikuntza-kateko itoguneak eta inbentarioen murrizketa). Horren ondorioz, lehengai industrialen prezioetan aurrekaririk ez duen inflazioren hazkundera gertatu zen.

Zentzu horretan, azpimarratzekoa da koke bihur daitekeen harrikatzen kontsumoak izandako gorakada ikusgarria (1.421 mila tona, % 294,2), biurteko bat minimoetan egin ondoren. Igoera nabarmena izan zen burdina-mineralean eta pelletetan (% 58,5) eta txatarrean (% 21,8) ere. Prezioei dagokienez, inflazioaren testuinguru garrantzitsu batean, burdina-meak eta txatarrak maximo historikoak markatzea lortu zuten (155,3 eta 444,3 euro/Tn, hurrenez hurren), koke bihur daitekeen harrikatzen igoera handiarekin (177,9 euro/Tn.).

82. koadroa Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikatza		Burdin-meak eta pelleta		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2012	2.260	174,0	4.506	99,9	4.346	372,9
2013	2.528	128,9	6.259	102,9	4.925	318,1
2014	1.632	105,2	5.699	73,7	4.960	331,7
2015	1.720	102,0	6.288	50,7	5.144	292,2
2016	1.768	107,5	6.010	52,0	4.004	263,5
2017	1.767	207,3	6.572	76,3	4.242	321,0
2018	1.621	191,7	6.556	74,5	4.040	345,1
2019	780	188,2	5.557	91,6	4.024	304,4
2020	360	118,8	3.564	101,9	3.385	298,0
2021	1.421	177,9	5.650	155,3	4.122	444,3
Hazkundera % 20-21	294,2	49,7	58,5	52,4	21,8	49,1

Iturria: Unesid.

Industria siderurgiko nazionalaren hobekuntzak ez zuen islarik izan sektoreari atxikitako enpleguan, plantillen beheranzko berregokitzapena luzatu baitzuen. Guztira 20.864 enplegatu zeuden UNESIDeko kide diren enpresetan, hau da, aurreko ekitaldian baino % 1,5 gutxiago (322 lanpostu gutxiago). Ildo horretan, ekoizpen-jarduera berreskuratzeak eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen figura aplikatzeak enpleguaren beherakada txikiagoa ekarri zuten urteko lehen seihilekoan. Aldiz, urteko bigarren seihilekoan, energia-kostuen garestitzearen ondorioz ekoizpen-lantegi asko gelditu egin ziren eta enpleguak honen eragin negatiboa jasan zuten. Horri dagokionez, Administrazio Publikoek hainbat neurri jarri zituzten abian argiaren prezio neurrigabeari erantzuteko, hala nola gasaren muga, baina oraingoz ez du nahi zuten eraginik izan.


Hala eta guztiz ere, industriak urrats sendoak ematen jarraitzen du modernizazioan, berrikuntzan eta emakumeen kolektiboa sektore siderurgikoan pixkanaka txertatzen. Ildo horretan, UNESIDek bultzatutako "Altzairuzko emakumeak" programak *"funtsezko zeregina du talentua erakartzeko eta, zehatzago, talentu femeninoa edo STEM emakumeak industria-inguruneetara eta, zehazki, altzairugintza-sektorerara erakartzeko – historikoki, postu teknikoak gizonezkoen generoarekin lotuta egon dira–, eta bertan, sarrera-arrapala bultzatu behar da."*

Era berean, altzairuaren industria etengabe ari da aldatzen, eta, beraz, digitalizazioari edo 4.0 industria-iraultzari eta antzeko beste gai batzuei aurre egin behar die. Horregatik, Europako Batzordeak ESSA (European Steel Skills Agenda) proiektua onartzea bultzatu zuen, 4 milioi euroko aurrekontuarekin, kualifikazio handiagoko eta merkatuan eskatzen diren IKT konpetentzia berrieekin guztiz bat datorren eskulana bermatzeko.

Trantsizio ekologikoaren erronka da industriak jorratu beharreko ardatz nagusietako bat. Azken urteotan, azkartu egin da ekonomia zirkularreko estrategiekin bat datorren ekoizpen-eredu iraunkorragoa bermatzera bideratutako neurri berrien onarpena eta abiaraztea. 2021ean, burdingintza nazionalak 11,1 milioi tona txatar birziklatu zituen, altzairu berri bihurtuta, azken bosturtekoan izan den kopururik handiena. Era berean, aurrerapen nabarmenak egin dira hondakinen eta uraren erabilera eraginkorrean.

Azkenik, eta Europako funtsen hedapenari eta lan-erreformari eta beste erregulazio-gai batzuei begira, UNESIDek deitoratu egiten du funts horien ezarpenaren moteltasuna, gai burokratikoak direla medio, eta akordioak arinago hartzea eskatu du, *"inbertsioa errazteko egonkortasun erregulatzailea izateko, ezinbestekoa izango baita hurrengo urteetan, enpresei aurreikuspenak egiteko eta erabaki informatuak hartzeko aukera emanaz."*

18. grafikoa Metalurgiaren eta produktu metalikoen industria-ekoizpenaren indizea



*Oharra: Estatu osoko datuak metalezko produktuen IPlari bakarrik dagozkio.
Iturria: Nastat eta Industria Produkzioaren Indizea (EIN). Geuk egina.*

Azkenik, eta Estatuko eta Nafarroako industria-ekoizpenaren indizeari dagokionez, Metalurgiaren eta produktu metalikoen sektoreari dagokion Nafarroako Industria-ekoizpenaren indizeak, sektore siderurgikoaren zeharkako hurbilketa gisa, adierazlearen bilakaeraren antzeko portaera erakutsi zuen: 2015etik aurrera hobekuntza-sekuentzia izan zuen, baina 2020an eten zen, osasun-krisia lehertu zelako, eta horrek ekonomia guztiz ixtea eta funtsezkotzat jasota ez zeuden jarduera guztiak geldiaraztea ekarri zuelako, eta ondorioz, industriaren lehiakortasuna galdu zen. Hala ere, eta jarduerari dagokionez, 2021a benetan apartekoa izan ondoren, adierazleak gora egin zuen, Foru Erkidegoaren kasuan (124,7) balio maximoetara iritsi arte, baina ez estatu osoan, oraindik ere krisi aurreko balioak (107,1) baino zertxobait beherago geratu baitzen.

4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA

4.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Europar Batasuneko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Konfederazioaren azken txostenaren arabera, 2021ean nolabaiteko hobekuntza izan zen 2020an pandemiaren ondorioz erregistratutako beherakadarekin alderatuta. 2021ean zehar, suspertzea lortu zuen sektoreak.

83. koadroa		Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera	
Urtea	Aldia	% Δ	
2020	I. hiruhilekoa	0,9	
	II. hiruhilekoa	-8,8	
	III. hiruhilekoa	6,7	
	IV. hiruhilekoa	-0,9	
2021	I. hiruhilekoa	2,1	
	II. hiruhilekoa	1,6	
	III. hiruhilekoa	0,5	
	IV. hiruhilekoa	1,0	

Iturria: CIAA.

Europar Batasunean, manufaktura-industriaren baitako jarduera nagusia da elikagaien industria. 1.093.000 milioi eurotik gorako negozio-bolumena du eta manufaktura-industriaren % 14,2 ordezkatzen du. Bestalde, 2020an baino txikiagoa da, Erresuma Batuko datuak dagoeneko ez baitira barne hartzen, ez delako Europar Batasuneko.

289.000 enpresa eta 4,52 milioi langile ditu. Enpresa txikiek eta ertainek ordezkatzen dute elikagaien sektoreko negozio-bolumenaren % 40,5 eta sortzen dituen lanpostu guztien % 58,4. Hain zuzen ere, enpresa horien % 95,4 ETEak dira, 50 langile baino gutxiagokoak, eta % 79,8k 10 langile baino gutxiago dituzte.

Espainiako elikagaien industriak laugarren postua du negozio-zifraren balioari dagokionez (% 10,9), hauen atzetik: Frantzia (% 19,5), Alemania (% 16,9) eta Italia (% 13,3).

4.2. SEKTOREA ESPAINIAN

Gizartearentzat giltzarria dela erakutsi du nekazaritzako elikagaien sektoreak, eta Espainiako ekonomiaren susperraldiaren funtsezko zutabea bilakatu da, 2021eko nekazaritzako elikagaien txostenak ('Avanzando hacia la sostenibilidad') azaltzen duen moduan.

2020an zehar, elikagaien kateak pandemiak sortutako krisiari emandako erantzuna apartekoa izan zen, eta etenik gabeko hornidura bermatu zien Espainiako familia guztiei, egoera muturrekoa izan arren. Txosten horren arabera, 2020ko jardueraren jaitzierak gehiago eragin zion nekazaritzako elikagaien industriari; honek, dagoeneko, gainditu egin du krisiaren aurreko maila, negozio-zifrari dagokionez. Baina, lan-merkatuan, oraindik ez da aurreko okupazio mailara iritsi.

Estatistika Institutuaren (EIN) Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) arabera, Espainiako elikagaien industriak jarduera berreskuratu zuen 2021ean, pandemiaren inpaktuaren ondorioz aurreko urtean izandako jaitsieraren ondoren. 2021ean % 4,2 hazi zen Elikagaien industriaren IPIa (2020an -% 4,8). Industria osoan islatu zen suspertzea (% 7,3; 2020an, berriz, -% 9,6).

84. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

Urtea	Elikagaiak*	Industria, guztira*
2017	0,2	3,2
2018	0,8	0,2
2019	2,0	0,7
2020	-4,8	-9,6
2021	4,2	7,3

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

2020an, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emandako informazioaren arabera, nekazaritzako elikagaien sektoreak Estatuko industria-jardueraren gailurrean jarraitzen zuen, 126.354,1 milioi euroko fakturazioarekin. Industriari dagokion fakturazio osoaren % 25,4 ordezkatu zuen, langile kopuruaren % 22,5 eta balio erantsiaren % 20,6.

Halaber, 30.260 enpresako sareak osatzen zuen ekoizpena, EINeko Enpresen Direktorio Nagusiak emandako azken datuen arabera. Hala, manufaktura-industria osoaren % 15,7 ordezkaten zuten. Enpresa horien % 96,5ek 50 langile baino gutxiago zituzten (29.214) eta % 79,5ek 10 langile baino gutxiago (24.061).

Hortaz, nekazaritzako elikagaien sektorea Espainiako ekonomiako lehen industria-sektorea da, zalantzarik gabe. Gainera, haren jarduera propioaren bidez aberastasuna sortzeaz gain, ekonomiaren gainerako esparruei ere mesede egiten die zeharka, beste sektore batzuekin duen harremanagatik eta arrastatzeko gaitasunagatik. Nekazaritzako elikagaien industriak haren hornitzaileei egindako erosketek eragiten duten jarduera ekonomikoaren bidez sortzen dira zeharkako efektu horiek. Eskari horri erantzuteko helburuarekin, hornitzaileek, aldi berean, gehiago erosten diete haien hornitzaile propioei, eta horrek ere balio erantsia sortzen du.

Etorkizunera begira, Espainiako nekazaritzako elikagaien sektoreak dituen erronken artean, bi nabarmentzen dira: digitalizazio maila areagotzea eta jasangarritasuna hobetzea. Gainera, sektorearen lehiakortasunari eragiten dioten mehatxuei erantzuten jakin behar dute: enpresen kapitalizazio maila baxua, I+G+b inbertsio baxua, teknologia digitalak txertatzeko orduan atzerapena eta aldaketa klimatikoaren arriskuen eraginpean egotea. Erronka horiei erantzuteko, garrantzitsua da sektoreko PERTEaren (Suspertze eta eraldaketa ekonomikorako proiektu estrategikoak) bidez finantzatuko diren inbertsioetan oinarritzea; Espainiako Gobernuak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak sustatzen ditu horiek.

Azkenik, egungo egoeraren ondorioz (bereziki, osasun-krisiak eragina), inbertsio-funts handiek nekazaritzako elikagaien sektorera zuzendu dute haien begirada. Sektore honen tamaina eta lehiakortasuna handitzeko aukera bat da, eta horrek nekazaritzari ere eragingo dio. Hori dela eta, eragiketa korporatibo asko ari dira gertatzen. Joera horren adibide gisa, Angulas Aguinagak Deligusti erosi du, eta Supercorrek Supermercados Sanchez Romero erosi du. Nekazaritzako elikagaien sektoreak, agerikoa den moduan, nekazaritzan du oinarria, eta nekazaritza ere inbertitzaileen fokuari azpian dago; hala erakusten du Oleocampo olio-enpresak kooperatiba bat xurgatu izanak edota CG Carniak etxalde bat xurgatu izanak.

4.3. SEKTOREA NAFARROAN

Nekazaritzako elikagaien industria Nafarroako ekonomiaren baitako sektorerik esanguratsuenetako bat izan da tradizioz, eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere. Zehazki, EINek emandako 2020ko datuen arabera, elikagaien eta edarien industriak (nekazaritzako elikagaiak) sortzen du industria osoaren enpleguaren % 19,4 (Nafarroako industrian eragin handiena duten azpisektoreen artean lehena da, Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioaren aurretik), eta industriako balio erantsi gordinaren % 17,6 (kasu honetan bigarrena da, balio erantsi gordinaren % 24,5 sortzen duen ibilgailu motordunen azpisektorearen atzetik).

85. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria, 2021

Tamaina	Enpresa kopurua	%, guztizkoarekiko
1-5 langile	242	52,6
6-49 langile	172	37,4
50-99 langile	20	4,3
> 100 langile	26	5,7
Guztira	460	100,0

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala.

EINek emandako informazioaren arabera, 2021ean nekazaritzako elikagaien industriara bideratutako 460 enpresa zeuden Nafarroan. Enpresa kopurua % 1,3 hazi zen 2020arekiko.

Bestetik, enpresa horien tamaina langile kopuruaren arabera aztertuz gero, argi geratzen da enpresa txikiak eta ertainak nagusitzen direla enpresa-ehunean. Enpresen % 52,6k 6 langile baino gutxiago zituzten, % 37,4k 6 eta 49 langile artean eta, azkenik, gainerako % 10,0ak 50 enplegatu baino gehiago.

Sektoreko enpresa garrantzitsuenei dagokienez, ondorengo taulan agertzen dira 250 langiletik gorakoak (guztira, 11 enpresa), eta zein herritan dauden, zein jarduera burutzen duten eta dagokien enplegu-estrategia ere adierazten da. Aipatutako enpresetako sei 500 langiletik gorakoak ziren (General Mills San Adrian SL, Congelados de Navarra SA, Industrias Alimentarias de Navarra SAU, Ultracongelados Virto SA, UVE SA eta Viscofan SA).

86. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak, 2021

Enpresa	Udalerría	Enplegu-estratua	Jarduera nagusia
GENERAL MILLS SAN ADRIAN SL	San Adrián	+ 500	Beste elikagai-produktu batzuen elaborazioa
CONGELADOS DE NAVARRA SA	Arguedas	+ 500	Kontserba begetalak
INDUSTRIAS ALIMENTARIAS DE NAVARRA SAU	Alesbes	+ 500	Kontserba begetalak
ULTRACONGELADOS VIRTO SA	Azagra	+ 500	Kontserba begetalak
U V E SA	Tutera	+ 500	Edozein motatako pentsu konposatuen elaborazioa (4224 epigrafekoak izan ezik)
VISCOFAN SA	Iruñea	+ 500	Beste elikagai-produktu batzuen elaborazioa
VEGETALES DE NAVARRA SLU	Milagro	251- 500	Fruta eta beste produktu begetal batzuen garbiketa, sailkapena eta ontziratzea.
ELABORADOS NATURALES DE LA RIBERA DEL EBRO SL	Funes	251- 500	Zuku eta kontserba begetalen fabrikazioa
GELAGRI IBERICA SL	Milagro	251- 500	Zuku eta kontserba begetalen fabrikazioa
IBERFRUTA-MUERZA SA	Azagra	251- 500	Zuku eta kontserba begetalen fabrikazioa
APERITIVOS Y EXTRUSIONADOS SA	Ribaforada	251- 500	Beste elikagai-produktu batzuen elaborazioa

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.

Sektorearen egituraren ezaugarri nagusiak aztertuta, industria honetako jardueraren aldagai nagusien bilakaera aztertuko dugu jarraian.

2021ean sektoreak 460 enpresa zituen guztira (2020an 454 enpresa), oraindik ere pandemiaren aurretik erregistratutako 546 enpresatik oso urrun. Dena den, hazkunde txiki bat izan zen (% 1,3) 2020arekiko; urte hartan % 16,8ko beherakada izan zen.

87. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera

Urtea	Enpresak	% Δ	Enplegua	% Δ	Batez besteko enplegua
2012	579	0,3	11.773	-1,0	20,3
2013	566	-2,2	11.419	-3,0	20,2
2014	560	-1,1	11.999	5,1	21,4
2015	552	-1,4	12.457	3,8	22,6
2016	545	-1,3	12.989	4,3	23,8
2017	546	0,2	13.524	4,1	24,8
2018	539	-1,3	13.614	0,7	25,3
2019	546	1,3	15.016	10,3	27,5
2020	454	-16,8	--	--	--
2021	460	1,3	--	--	--

Iturria: INE eta geuk egina.

Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren Industria Produkzioaren Indizeak ere (IPI, jardueraren bilakaeraren adierazle gisa erabiltzen dena) hazkundea izan zuen 2021ean, % 3,6koa (2020an -% 6,5). Bilakaera hori bat dator Nafarroako industria-sektorean erregistratutako goranzko joerarekin, IPIa % 10,4 hazi baitzen (2020an -% 10,9).

88. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

(% Δ)

Urtea	Nekazaritzako elikagaiak	Industria, guztira*
2014	0,4	3,9
2015	3,8	2,2
2016	1,3	0,7
2017	-2,3	-2,1
2018	-1,6	-0,5
2019	3,6	9,8
2020	-6,5	-10,9
2021	3,6	10,4

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Sektoreko kanpo-merkataritzaren bilakaeraren azterketak erakusten duenez, esportazioak zein inportazioak nabarmen jaitsi ziren 2020arekin alderatuta. Esportazioak -% 9,0 murriztu ziren, 583,6 milioi eurora arte. Inportazioak, berriz, -% 2,7 gutxitu ziren, 221,4 milioi eurora arte.

Kanpo-merkataritzaren bilakaera horri lotuta, sektoreko merkataritza-balantzaren superabita 362,2 milioikoa izan zen 2021ean, 2020koa baino saldo baxuagoa (413,9 milioi euro). Estaldura-tasa, berriz, % 263,6koa izan zen 2021ean (2020an, aldiz, % 281,9koa).

89. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan

(M euro)

Urtea	Esportazioak	% Δ	Inportazioak	% Δ	Merkataritza-balantza	Estaldura-tasa %
2012	402,6	1,8	163,1	14,5	239,5	246,8
2013	493,1	22,5	211,6	29,8	281,5	233,0
2014	512,9	4,0	203,5	-3,8	309,4	252,0
2015	538,8	5,1	217,8	7,0	321,0	247,4
2016	553,6	2,7	237,3	9,0	316,3	233,3
2017	567,4	2,5	238,2	0,4	329,2	238,2
2018	574,6	1,3	238,7	0,2	335,9	240,7
2019	616,1	7,2	259,6	8,8	356,5	237,3
2020	641,5	4,1	227,6	12,3	413,9	281,9
2021	583,6	-9,0	221,4	-2,7	362,2	263,6

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.

Sektoreak Nafarroan duen jarduera aztertzen amaitzeko, sektoreko 16 enpresak osatutako laginaren jardueraren emaitzak agertzen dira jarraian, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak emandako datuen arabera.

Enpresen guztizkoak 1.230.314 mila euro fakturatu zituen 2020an, aurreko ekitaldian baino -% 6,8 gutxiago (1.319.475 mila euro 2019an); izan ere, ezohiko urtea izan zen, pandemiaren ondorioz.

90. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 5 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua

Kontzeptua	2019		2020		% Δ 20/19
	(m euro)	%	(m euro)	%	
Ustiapeneko diru-sarrerak	1.319.475	100,0	1.230.314	100,0	-6,8
Bitarteko kontsumoak	1.055.793	80,0	987.647	80,3	-6,5
Balio erantsi gordina	263.682	20,0	242.667	19,7	-8,0
Langile-gastuak	140.301	10,6	143.212	11,6	2,1
Ustiapenaren emaitza ekonomiko gordina	123.381	9,4	99.455	8,1	-19,4
Amortizazioak eta hornidurak	57.078	4,3	57.996	4,7	1,6
Ustiapenaren emaitza ekonomiko garbia	66.303	5,0	41.459	3,4	-37,5
Finantza-karga	-110,00	0,0	-6.983	-0,6	6248,2
Ohiko jardueren emaitza	66.413	5,0	48.442	3,9	-27,1
Ezohiko jardueren emaitza	-38.037	-2,9	-40.773	-3,3	7,2
Zergen aurreko emaitza	28.376	2,2	7.669	0,6	-73,0
Zergak	1.184	0,1	-2.512	-0,2	-312,2
Ekitaldiko emaitza garbia	27.192	2,1	10.181	0,8	-62,6
Cash-flow	84.270	6,4	68.177	5,5	-19,1

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala

Kostuen egituraren bilakaeraren azterketaren arabera (kostu-partiden partaidetza, fakturazioarekiko), bitarteko kontsumoen igoera txiki bat ikus daiteke. 2020an % 80,3ko partaidetza izan zuten bitarteko kontsumoek (2019an % 80,0koa). Balio erantsiaren partaidetzak, berriz, behera egin zuen apur bat; % 19,7koa izan zen 2020an, eta % 20,0koa 2019an.

Langile-gastuek diru-sarreraren gainean zuten pisua % 11,6ra igo zen 2020an (% 10,6koa izan zen 2019an), eta amortizazioen eta horniduren partaidetza % 4,7ra igo zen 2020an (2019an % 4,3koa). Finantza-kargak, bestalde, -% 0,6ko partaidetza erregistratu zuen fakturazioan (2019an % 0,0).

Bilakaera horren ondorioz eta aparteko emaitzen jaitsieraren ondorioz, ekitaldiko emaitza garbiak nabarmen egin zuen behera, eta diru-sarreraren gaineko partaidetza % 0,8koa izan zen 2020an (2019an % 2,1). Gauza bera gertatu zen cash-flowarekin, % 5,5era jaitsi baitzen (2019an % 6,4koa izan zen).

91. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako laginaren errentagarritasuna

RATIOAK	2018	2019	2020
AKTIBO GARBIAREN ERRENTAGARRITASUNA (zergen aurretik)	22,5	3,7	3,6
Jasotako finantzaketa-interesak / Kostua duten besteren baliabideak	1,5	3,2	3,0
BALIABIDE PROPIOEN ERRENTAGARRITASUNA (zergen aurretik)	25,3	4,2	1,2
Zorpetze-ratioa	11,7	47,8	53,3
Apalankamendu finantzarioa*	21,0	0,5	0,6

(*): Errentagarritasun ekonomikoa - besteren finantzaketaren kostua.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala

Azkenik, nabarmen behera egin zuten aztertutako lagineko enpresen errentagarritasun ekonomikoak eta errentagarritasun finantzarioak ere (zergen aurretik). Izan ere, pandemiak enpresen jardueran izandako eragina errentagarritasunean islatu zen.

Zehatzago esanda, errentagarritasun ekonomikoa % 3,6koa izan zen 2020an (2019an % 3,7koa). Errentagarritasun finantzarioa % 1,2koa izan zen (2019an % 4,2koa), zorpetze-kostua jaitsi egin zen (2020an % 3,0 eta 2019an % 3,2), eta zorpetze-ratioa hazi egin zen (2020an % 53,3 eta 2019an % 47,8).

5. AUTOMOBILGINTZA

Automobilgintzaren industriak 2021ean jarduera berreskuratzea espero zuen, baina egoera larria izaten jarraitu zuen. Sektoreak 2019rako akidura-sintomak erakusten zituen karbonoaren neutraltasuna lortzeko eraldaketa betean murgilduta, konektagarritasunarekin eta 5Garekin, ibilgailu autonomoarekin eta etorkizuneko planetarako propulsiio alternatiboekin. Gainera, aurreko urte batzuetako zailtasunak dituen sektoreari 2020an pandemiaren eragina gehitu zitzaion.

Horrez gain, eta nahi izan zitekeenaren kontrara, 2021ean egoera are gehiago zaildu zen jardueraren garapenerako mehatxu berriak sortu ondoren. Mundu mailako mikrotxipen eskasia, logistika-arazo ugariak eta hornidura batzuen garestitzea izan ziren automobilgintzak aurre egin beharreko erronkak, besteak beste.

Gauzak horrela, eta mikrotxipen hornidura ezari aurre egiteko, Europak eta Estatu Batuek osagai horien esportatzaile nagusi diren Asiako herrialdeekiko mendekotasuna saihesteko plan eta estrategiak iragarri zituzten. Zehazki, Europar Batasunak mikrotxipak ekoizteko zentroen irekiera sustatzeko lege bat jarri zuen abian, 2030erako Europak ekoitz dezan mundu mailako erdieroaleen % 20 (gaur egun ekoizpena % 10ekoa da). Apustu hori oso beharrezkoa zen, kontuan hartuta elektrifikazioa dela garraioaren etorkizuna, eta ibilgailu hibridoek eta elektrikoek behar dituztela gehien erdieroale eta eskasian dauden beste material batzuk.

Eta, horrez gain, 2022ko otsailean Errusia-Ukraina gerra piztu zen, zalantzarik gabe eragin handia izango zuena munduko ekonomian, hornigaien eta, batez ere, energiaren prezioen igoera nabarmenarekin, maximo historikoetan egonik. Hala, bere krisi berezian murgilduta zegoen sektore bati zailtasun handiagoak erantsiko zizkion.

5.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Arestian adierazitakoarekin bat etorritz, 2021ean ibilgailuen munduko ekoizpena pixka bat hobetu zen, 80,1 milioi ibilgailutara iritsita, aurreko ekitaldian baino % 3,1 gehiago, baina pandemia aurreko balioetatik oso urrun (2019ko datuekin alderatuta, -% 13,1). Mikrotxipen faltak eta mundu mailako arazo logistiko ugari ekoizpen-erritmoa kaltetzea eragin zuten eta fabrika-jarduera ia hamarkada bat atzeragoko balioetara itzuli zen, urtez urte ekoizpen-erritmoa igotzetik zetorren industria batean.

Hala ere, produkzio-eremuan gertatutakoari buruzko azterketa zehatzagoa eginez gero, ikus daiteke herrialde ekoizle nagusien jardueran desberdintasunak daudela. Ekoizpen-mapan Txina nabarmendu zen, eta ez bakarrik munduko ibilgailu-fabrika nagusia delako, munduko ekoizpenaren herena hartzen baitu, baizik eta 2021ean 2019ko ekoizpen-mailak gainditzen zituen herrialde bakarra zelako (+% 1,3). Ildo horretan, azpimarratu behar da Txina izan zela pandemiak kaltetutako lehen herrialdea, baita nolabaiteko normaltasuna hartu zuen lehena ere, gainerako ekonomiei aurrea hartuz. Bigarren eta hirugarren postuetan, Asiako erraldoiaren ekoizpen-mailetatik oso urrun, AEB (9,1 milioi ibilgailu; % 11,4ko partaidetza) eta Japonia (7,8 milioi ibilgailu; % 9,8) zeuden, urte arteko aldakuntza kontrajarriekin (+% 3,9 eta -% 2,7). India (4,4 milioi ibilgailu; % 5,5eko partaidetza) eta Hego Korea (3,5 milioi ibilgailu; % 4,3ko partaidetza) zeuden jarraian ibilgailuak ekoizten dituzten lehen bost herrialdeen rankingean. Indiak, hain zuzen ere, 2021ean jardueraren hazkunde esponentziala erregistratu zuen (+% 30,1), eta Koreak berriz, bere ekoizpena pixka bat murriztu zuen (-% 1,3).

Jarraian, nazioarteko ekoizpenaren testuinguruan nolabaiteko pisua izanik, Europako bi herrialde, Amerikako bi eta Asiako bat zeuden. Hau da, Alemania (3,3 milioi ibilgailu; % 4,1eko partaidetza), Mexiko (3,1 milioi; % 3,9), Brasil (2,2 milioi; % 2,8), Espainia (2,1 milioi; % 2,6) eta Thailandia (1,7 milioi; % 2,1). Jarduerari dagokionez, elkarren aurkako portaerak ikus daitezke. Hala, ekitaldia negatiboa izan zen Alemaniaren kasuan (2020arekiko-% 11,6), Mexikorenean (-% 1,0) eta Espainiarenean (-% 7,5), eta aldekoa, berriz, Brasilen (+% 11,6) eta Thailandiaren kasuan (+% 18,1).

10 herrialde ekoizle nagusien atzetik herrialde ugari zeuden: Errusia, adibidez, 1,6 milioi unitateko ekoizpenarekin, edo Eslovakia, milioi batekoarekin. Guztien artean urte arteko aldakuntza oso heterogeneoak ikus daitezke. Horren guztiaren ondorioz, 2021ean Asia-Ozeanian ekoizti ziren ibilgailu guztien % 58,3; Amerikan eta European, % 20 inguru, eta, azkenik, Afrikan, % 1,2.

Beraz, ekonomiaren arabera, hainbeste desiratutako susperraldiak abiadura oso desberdinetan egin zuen aurrera. Hala, kontrako joerak ikus daitezkeen testuinguru batean, bilakaera ona zuten ekoizleek erritmo desberdinetako bilakaera zutela egiazta daiteke. Bat ez datorren joera gisa Txina nabarmendu zen, bere ekoizpena covid aurreko balioen gainetik kokatu zuen herrialde bakarra izan baitzen.

92. koadroa Ibilgailuen ekoizpena Herrialde nagusiak

(unitateak)

Herrialde nagusiak	2019	2020	2021	% Δ 21/20	% Δ 21/19
Alemania	4.947.316	3.742.570	3.308.692	-11,6	-33,1
Espainia	2.822.632	2.268.185	2.098.133	-7,5	-25,7
Errusia	1.719.146	1.435.551	1.566.317	9,1	-8,9
Frantzia	2.175.350	1.316.371	1.351.308	2,7	-37,9
Turkia	1.461.244	1.297.878	1.276.140	-1,7	-12,7
Txekiar Errepublikak	1.433.961	1.159.151	1.111.432	-4,1	-22,5
Eslovakia	1.107.902	990.598	1.000.000	0,9	-9,7
Erresuma Batua	1.381.405	987.044	932.488	-5,5	-32,5
Italia	915.291	777.057	795.856	2,4	-13,0
Europa	21.575.118	16.942.248	16.330.509	-3,6	-24,3
AEB	10.892.884	8.821.026	9.167.214	3,9	-15,8
Mexiko	4.013.137	3.177.251	3.145.653	-1,0	-21,6
Brasil	2.944.988	2.014.055	2.248.253	11,6	-23,7
Kanada	1.916.585	1.376.127	1.115.002	-19,0	-41,8
Amerika	20.160.401	15.692.927	16.151.639	2,9	-19,9
Txina	25.750.650	25.225.242	26.082.220	3,4	1,3
Japonia	9.684.507	8.067.943	7.846.955	-2,7	-19,0
India*	4.524.366	3.381.819	4.399.112	30,1	-2,8
Hego Korea	3.950.614	3.506.774	3.462.404	-1,3	-12,4
Thailandia	2.013.710	1.427.074	1.685.705	18,1	-16,3
Indonesia	1.286.848	690.176	1.121.967	62,6	-12,8
Asia-Ozeania	49.333.841	44.276.549	46.732.785	5,5	-5,3
Afrika	1.113.651	800.001	931.056	16,4	-16,4
Mundua, guztira	92.183.011	77.711.725	80.145.988	3,1	-13,1

(*): Indian marka batzuk ez daude kontabilizatuta.

Iturria: OICA.

Azterketa hori ibilgailuen matrikulazioetara eramanda, 2021ean zifra globala 80 milioi unitatetik gorakoa zen. Aipatutako ekoizpen-arazoez gain, egoera ekonomikoa ere txarra zen, eta erosle potentzialen artean nahasmena zegoen erosi beharreko motorren inguruan, eta horrek atzeratu egin zuen erosteko asmoa. Egoera horren aurrean, munduko matrikulazio kopurua % 5 igo zen 2021ean aurreko urtearekin alderatuta, baina pandemia aurreko balioetatik oso urrun (2019arekin alderatuta, -% 9,4).

Herrialde bakoitzaren pisu espezifikuari dagokionez, Txina zen ibilgailuen merkatu nagusia, 26,3 milioi matrikulazioarekin, 2020an baino % 3,8 gehiago eta covid aurreko balioak baino % 1,9 gehiago, guztizkoaren % 31,8 lortuta. Ekoizpen-atalean bezala, AEB zegoen rankingeko bigarren postuan, 15,4 milioi ibilgailu matrikulatu baitziren 2021ean (% 18,6ko partaidetza); Japonia eta India, berriz, hirugarren eta laugarren postuetan kokatu ziren, baina askoz ere neurri txikiagoarekin (4,4 milioi matrikulazio eta 3,8 milioi, hurrenez hurren). Matrikulatutako 2 milioi ibilgailuko atalasearen gaineretik Europako hiru herrialde eta Amerikako bat zeuden: Alemania (2,9 milioi), Frantzia (2,1 milioi), Brasil (2,1 milioi) eta Erresuma Batua (2 milioi). Merkatu nagusien 10eko rankinga osatzeko, Errusia eta Hego Korea zeuden, 1,7 milioi ibilgailurekin.

Europan, Italia eta Espainia dira matrikulazio gehien izan zituzten hurrengo merkatuak, 1,6 milioi eta 1 milioi matrikulazio, hurrenez hurren. Era berean, Amerikan, Kanada (1,7 milioi) eta Mexiko (1 milioi) zeuden matrikulazioen rankingaren goiko aldean, eta Asia-Ozeania-Ekialde Ertainean, Australia nabarmendu zen (milioi bat matrikulazio) baita Indonesia eta Thailandia ere, naiz eta milioi bateko mugaren azpitik izan.

2021eko merkatuen jarduerari dagokionez, eta ekoizpenaren atalean adierazitakoaren arabera, herrialdeen arabeko portaera desberdinak izan ziren. Hala, eta Txina salbuetsita (goranzko joera izan baitzuen), gainerako merkatuek 2019ko erregistroen azpitik jarraitu zuten, nahiz eta 2021ean matrikulazio gehienek gora egin zuten. Ildo horretan, Japonia, Alemania eta Hego Korea nabarmendu ziren, denborazko bi konparazioetan matrikulazioetan beharazko desbideratzeak izan zituztelako.

Hala eta guztiz ere, Asia-Ozeania-Ekialde Ertainak, 43 milioi matrikulazio ingururekin, munduko merkatuaren erdia hartu zuen (% 51,6), neurri handi batean Txinaren pisuari eta dinamismoari esker, Txinak presentzia handiagoa hartu baitzuen nazioartean (ehuneko 3,5 puntu gehiago 2019an baino). Amerikari dagokionez, 22 milioi matrikulazio izan ziren 2021ean (guztizkoaren % 26,6), 17 milioi inguru Europan (% 20,4) eta milioi bat unitate baino zertxobait gehiago Afrikan (% 1,4).

93. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak

(unitateak)

Herrialde nagusiak	2019	2020	2021	% Δ 21/20	% Δ 21/19
Alemania	4.017.059	3.266.759	2.973.319	-9,0	-26,0
Frantzia	2.755.728	2.100.030	2.142.284	2,0	-22,3
Erresuma Batua	2.736.559	1.964.660	2.044.091	4,0	-25,3
Errusia	1.778.841	1.631.163	1.741.965	6,8	-2,1
Italia	2.132.630	1.564.756	1.664.483	6,4	-22,0
Espainia	1.501.244	1.030.746	1.034.063	0,3	-31,1
Turkia	491.947	796.150	772.722	-2,9	57,1
Polonia	656.258	510.153	554.613	8,7	-15,5
Belgika	642.000	509.994	462.536	-9,3	-28,0
EB-27+ EFTA+Erresuma Batua	18.424.199	14.079.756	14.133.619	0,4	-23,3
Europa	20.930.716	16.712.898	16.874.893	1,0	-19,4
AEB	17.488.154	14.881.356	15.408.565	3,5	-11,9
Brasil	2.787.850	2.058.437	2.119.851	3,0	-24,0
Kanada	1.976.440	1.586.474	1.704.850	7,5	-13,7
Mexiko	1.360.008	977.650	1.046.705	7,1	-23,0
Amerika	25.384.924	20.814.832	22.001.152	5,7	-13,3
Txina	25.796.931	25.311.069	26.274.820	3,8	1,9
Japonia	5.195.216	4.598.615	4.448.340	-3,3	-14,4
India	3.816.858	2.938.575	3.759.398	27,9	-1,5
Hego Korea	1.795.134	1.905.972	1.734.581	-9,0	-3,4
Indonesia	1.030.486	532.077	887.205	66,7	-13,9
Thailandia	1.007.552	792.146	748.580	-5,5	-25,7
Asia-Ozeania-Ekialde ertaina	43.713.696	40.322.544	42.663.736	5,8	-2,4
Afrika	1.197.846	924.046	1.145.007	23,9	-4,4
Mundua, guztira	91.227.182	78.774.320	82.684.788	5,0	-9,4

Iturria: OICA.

5.2. SEKTOREA ESPAINIAN

Pandemiak 2020an eragindako ondorio ekonomikoen ondoren, bazirudien automobilgintzako industria nazionalak nolabaiteko baikortasuna berreskuratu zuela, 2021ean nolabaiteko normaltasunera itzuliko zelakoan, osasun-egoera nabarmen hobetu eta NextGenerationEU funtsen moduko berreskuratze-planak abian jarri ondoren. Hala ere, mikrotxipen eskasiak eta ondorioak gutxitzeko aplikatutako aldi baterako lan-erregulazioek berriro geldiarazi zuten sektorearen susperraldia. Hala eta guztiz ere, 2021ean, industria honek bildu zuen BPGaren¹ % 7,7, eta bi milioi enplegu inguru sortu zituen (enpleguaren % 9 inguru).

¹ Sektorearen fakturazioak BPGan zuen partaidetza (ibilgailuen eta osagaien fabrikatzaileak). Automobilgintzarekin lotutako gainerako sektoreen ekarpena zenbatetsita (banaketa, aseguruak, finantzak, etab.), fakturazioak BPGan zuen partaidetza % 10etik gorakoa izan zen.

Beraz, egiturazko zein koiunturazko kontrako faktore ugari aldi berean elkartzeak arriskuan jarri zuen automobilgintzako industria nazionalaren lehiakortasuna; izan ere, 2021ean 60.908 milioi euroko fakturazioa lortu zuen, hau da, aurreko urtean baino % 1 gehiago (69.500 milioi euro 2019an).

Hala eta guztiz ere, 2021ean fabrikatzaileek berrikuntza eta garapen teknologikoan egindako inbertsioak hazten jarraitu zuen, 1.500 milioi euro ingurura iritsita. Kopuru horrek bermatzen du industriak etorkizuneko mugikortasunarekiko duen eraldaketarekiko konpromisoa.

Edonola ere, eta automobilgintza-enpresek beren jarduera garatzen duten ingurunearen konplexutasuna izan arren, Espainiak bigarren postuan mantentzea lortu zuen Europako rankingean, Alemaniaren atzetik, eta munduko sailkapeneko bederatzigarren postuan. Izan ere, Estatuko lurzoruan ibilgailuen ekoizpena 2 milioi unitateren gainera kokatu zen, hornikuntza-faltak lantegietan eragindako aldi baterako geldialdien isla.

Zehazki, 2021ean 2.098.133 ibilgailu ekoitzi ziren, 2020an baino % 7,5 gutxiago. Hala ere, 2019ko datuekin alderatuta, ekoizpen-erritmoa nabarmen murriztu zen (-% 25,7), eta ekoiztako unitateen kopurua nabarmen okertu da (-724.499).

Informazioa ibilgailu motaren arabera banakatuta, turismoen eta lur orotako ibilgailuen ekoizpenak, % 80 inguruko pisu espezifikoarekin, % 7,7ko murrizketa izan zuen (2019arekin alderatuta -% 26,1) eta 1.662.174 unitate ekoitzi ziren. Merkataritza-ibilgailu arinek, % 18,3ko partaidetzarekin, % 10,9ko jaitsiera izan zuten (-% 26,8koa 2019ko balioekin alderatuta) 383.736 unitatera iritsi arte. Aldiz, industria-ibilgailuek eta autobusek presentzia txikiagoa izan zuten produkzio-mapan (% 2,5), joera nagusitik aldentuta, eta ekoizpen-mailak igo egin ziren (+% 41,5); hala, ekoizpena 52.223 unitatera igo zen.

Testuinguru horretan, ibilgailu alternatiboen ekoizpena (ibilgailu elektrikoak, hibrido entxufagarriak, hibrido ez-entxufagarriak, PGL eta gas naturala) handitzen joan zen pixkanaka, eta ekoizpen osoaren % 11,6 izatera iritsi zen. Horrela, 2021ean zero emisio eta emisio gutxiko 242.380 ibilgailu ekoitzi ziren, 2020ko bolumenak % 33,8 handituta.

94. koadroa Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza

(unitateak)

Azpisektorea	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak		
	2020	2021	%Δ	2020	2021	%Δ	2020	2021	%Δ
Turismoak eta lur orotakoak	1.800.664	1.662.174	-7,7	1.588.889	1.455.634	-8,4	851.210	859.476	1,0
Merkataritza-ibilgailu arinak	430.616	383.736	-10,9	335.280	320.053	-4,5	158.120	151.823	-4,0
Industria-ibilgailuak eta autobusak	36.905	52.223	41,5	27.279	45.040	65,1	21.416	22.764	6,3
Guztira	2.268.185	2.098.133	-7,5	1.951.448	1.820.727	-6,7	1.030.746	1.034.063	0,3

Iturria: Anfac.

Esportazioei dagokienez, eta industriaren izaera esportatzailea kontuan hartuta (% 80), 2021ean esportazioak % 6,7 murriztu ziren, 1.820.727 ibilgailu esportatu ziren guztira. Hala, esportazio-merkatuaren dimentsioa arrunt batetik urrun geratu zen (2019arekin alderatuta, -% 21,2). Aurretik ekoizpenaren atalean adierazitakoarekin bat etorritik, turismoak eta lur orotariko ibilgailuak zeuden esportazio-maparen buruan (guztizkoaren % 80), ondoren merkataritza-ibilgailu arinak zeuden (% 17,6) eta, azkenik, industria-ibilgailuak (% 2,5). Urte arteko bilakaera negatiboa izan zen lehenengo bientzat (-% 8,4 eta -% 4,5, hurrenez hurren) eta positiboa hirugarrenentzat (+% 65,1). 2019ko datuekin alderatuta, bilakaera bera izan zen, eta murrizketak areagotu egin ziren turismoetan, lur orotako ibilgailuetan eta merkataritza-ibilgailu arinetan (-% 23,6 eta -% 17,4), baina igo egin ziren industria-ibilgailuen eta autobusen esportazioak (+% 143,7).

Azterketa hori bera matrikulazioetara eramanez, urte arteko bilakaeran merkatuaren tamainan aldaketa esanguratsurik ikusten ez den arren, 1.034.063 matrikulazio zenbatu ziren guztira (+% 0,3), ekitaldi arrunt batekin alderatuz gero eskaera asko murriztu zela egiazta daiteke (-% 31,1). Hala, pisu handieneko segmentuak, turismoen eta lur orotako ibilgailuenak (guztizkoaren % 83,1) eta ordezkartza txikiagoko segmentuak, ibilgailu industrial eta autobusenak (% 2,2), 2020ko mailak apur bat gaintitzea lortu zuten (+% 1 eta +% 6,3, hurrenez hurren), baina % 14,7ko partaidetza duten merkataritza-ibilgailu arinek matrikulazioak murriztu zituzten (-% 4). Hala ere, aztertutako hiru segmentuetan, 2019ko datuekin alderatuta, bi digituko beherakadak izan ziren: % 30 inguru turismoentzat eta lur orotako ibilgailuentzat, eta % 20 inguru ibilgailu industrialentzat eta autobusentzat.

Informazioan eta merkataritza-marken jardueran sakonduz, Seat eta Peugeot dira oraindik merkatuko liderrak, 70.523 eta 67.266 unitate saldu baitziren, eta urte arteko hazkundeak % 2,5 ingurukoak izan ziren. Toyotak eta Volkswagenek hirugarren eta laugarren postua lortu zuten, 62.329 eta 61.724 matrikulazioekin, hurrenez hurren; izan ere, urte batetik bestera gora egin zuen lehenak (+% 8,2) eta salmentak nabarmen jaitsi dira bigarrenaren kasuan (-% 7,6). Gauzak horrela, lau marka horiek matrikulazio nazional guztien % 25 hartzen dute, baina dinamismoagatik Asiako bi enpresa nabarmentzen dira: Hyundai (+% 26,7) eta Kia (+% 20,2), baita Xikoda (+% 16,6) ere, bi digituko igoerekin itxi baitute ekitaldia.

Hala eta guztiz ere, Volkswagen taldeak jarraitzen du mapa nazionalaren buruan, 193.418 ibilgailu saldu baitzituzten haren marka nagusiek, eta orain gutxi sendotutako Stellantis taldeak¹, PSA Taldearen eta Fiat-Chryslerren markak biltzen dituenak, 172.919 unitate saldu zituen gutzira, eta % 2,8ko hazkundera izan zuen 2020arekiko.

95. koadroa Turismoen matrikulazioa marken arabera

(unitateak)

Marka nagusiak	2019	2020	2021	%Δ 21/20	%Δ 21/19
Seat	111.982	68.721	70.523	2,6	-37,0
Volkswagen	94.328	66.817	61.724	-7,6	-34,6
Audi	51.114	37.285	34.732	-6,8	-32,0
Škoda	29.388	22.667	26.439	16,6	-10,0
Volkswagen taldea	286.812	195.490	193.418	-1,1	-32,6
Peugeot	97.939	65.699	67.266	2,4	-31,3
Opel	69.101	30.223	30.350	0,4	-56,1
Citroën	67.151	43.820	47.072	7,4	-29,9
Fiat	47.115	28.516	28.231	-1,0	-40,1
Stellantis Taldea:	281.306	168.258	172.919	2,8	-38,5
Renault	86.420	56.138	51.700	-7,9	-40,2
Toyota	71.696	57.580	62.329	8,2	-13,1
Hyundai	62.766	45.405	57.508	26,7	-8,4
KIA	59.523	47.624	57.235	20,2	-3,8
Ford	57.168	34.776	29.336	-15,6	-48,7
Dacia	55.692	39.395	36.771	-6,7	-34,0
Mercedes	53.719	42.375	33.676	-20,5	-37,3
Nissan	51.554	34.761	26.058	-25,0	-49,5
BMW	46.887	35.229	35.193	-0,1	-24,9
Gainerako markak	387.701	273.715	277.920	1,5	-28,3
Guztira	1.501.244	1.030.746	1.034.063	0,3	-31,1

(*) Taldeko marka nagusiak soilik daude sartuta.
Iturria: Anfac.

¹ Stellantis Taldea: Lehengo PSA Taldea (Peugeot, Citroën, DS eta Opel/Vauxhall) alde batetik, eta Fiat, Lancia, Alfa Romeo, Maserati, Abarth, Chrysler, Dodge, RAM eta Jeep bestetik.

2021 urtea bezalako agertoki konplexu batean, fabrikatzaile askok hamarkada bat atzeragoko bolumenetan kokatzen dituzte salmentak. Gainera, eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak, horniduretako stocken hausturak eta horren ondoriozko produkzio-geldialdiek eraginda, ez zen matrikulazioen bultzada areagotu, eta erosleek denbora luzez itxaron behar izan zuten.

Arestian aipatu bezala, esportazioak ere 2020ko (-% 6,7) eta 2019ko (-% 21,2) erregistroen azpitik kokatu ziren, alde batetik, ekoizpenaren narriaduraren ondorioz, eta, bestetik, industria nazionalaren bezero diren merkatu nagusietako eskariaren uzkurduraren ondorioz. Hala eta guztiz ere, Europak produktu nazionalaren helmuga nagusia izaten jarraitu zuen, esportatutako 10 ibilgailutatik 9 lortuta. Izan ere, egonkortasunak markatutako merkataritza-harremanak ditu. Hala, 2021ean ez zen produktu nazionala inportatzen duten herrialde nagusien rankinga aldatu.

96. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

(unitateak)

Herrialdea	2019	2020	2021	%Δ 21/20	%Δ 21/19
Frantzia	437.550	397.641	336.052	-15,5	-23,2
Alemania	480.687	386.341	318.536	-17,6	-33,7
Erresuma Batua	327.186	241.848	222.696	-7,9	-31,9
Italia	250.455	225.748	221.066	-2,1	-11,7
Turkia	35.560	71.791	84.499	17,7	137,6
Belgika	87.695	66.116	53.049	-19,8	-39,5
Herbehereak	53.573	43.989	40.274	-8,4	-24,8
Polonia	55.702	42.129	39.716	-5,7	-28,7
Austria	49.516	38.259	34.218	-10,6	-30,9
Portugal	47.194	36.341	32.901	-9,5	-30,3
10 herrialde nagusiak, guztira	1.825.118	1.550.203	1.383.007	-10,8	-24,2
Gainerakoak	484.952	401.245	407.720	1,6	-15,9
Esportazioak, guztira	2.310.070	1.951.448	1.820.727	-6,7	-21,2

Iturria: Anfac.

Horrela, esportazioen dinamismo-galera argi eta garbi islatzen da produktu nazionalaren xede diren bi herrialde nagusien arteko merkataritza-fluxuen narriaduran, hala nola Frantzia (esportazioen % 18,5) eta Alemania (% 17,5), bi digituko uzkurdurak izan baitzituzten (-% 15,5 eta -% 17,6). Ordezkaritza handiena duen bigarren binomioak, hau da, Erresuma Batuak eta Italiak (% 12 biek), % 7,9ko eta % 2,1eko murrizketak izan zituzten beren balioetan. Aldiz, nabarmentzekoa da Turkiara zuzendutako esportazioen jarduera ona, nabarmen handitu baitziren 2021ean (+% 17,7).

Hala eta guztiz ere, European esportazioek izandako portaera ez zen oso ona izan produktu nazionalarentzat, baina nabarmendu behar da gainerako kontinenteetan, parte-hartzea askoz txikiagoa izanik, aldeko emaitzak izan zituztela. Ozeanian, Afrikan eta Asian esportazioak nabarmen hazi ziren (+% 55,3, +% 40,4 eta +% 20,6, hurrenez hurren), eta AEBn ere joera bera izan da, baina askoz apalagoa (+% 3,2).

Merkataritza-balantzari dagokionez, esportazioen balioak gora egin zuen (+% 7,8), aurreikusitako partida guztien gehikuntzaren ondorioz, motorrak eta abiadura-kaxak izan ezik, guztira 44.106 milioi eurora iritsiz. Inportazioek, bestalde, oso antzeko jardura erakutsi zuten, ekitaldia 32.031 milioi euroekin itxiz, 2020ko balioak baino % 8,9 gehiago. Horren guztiaren ondorioz, merkataritza-saldoa 12.075 milioi eurokoa izan zen, eta handitu egin zen 2020ko balioekin alderatuta (+% 5,1), nahiz eta partida nagusian beheranzko bilakaera txikia izan (-% 1,5) (turismoak eta lur orotakoak).

97. koadroa Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak)

(M euro)

Kontzeptua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa: Esportazioak - Inportazioak		
	2020	2021	%Δ	2020	2021	%Δ	2020	2021	%Δ
Turismoak eta lur orotakoak	26.216	27.734	5,8	11.936	13.662	14,5	14.281	14.072	-1,5
Merkataritza-ibilgailuak, industria-ibilgailuak eta autobusak	5.300	6.485	22,4	2.415	2.615	8,3	2.885	3.870	34,1
Zatiak, piezak eta osagarriak	7.673	8.354	8,9	11.162	12.153	8,9	-3.489	-3.799	8,9
Motorrak eta abiadura-kaxak	1.714	1.533	-0,6	3.901	3.601	-7,7	-2.187	-2.068	-5,4
Guztira	40.903	44.106	7,8	29.414	32.031	8,9	11.489	12.075	5,1

Iturria: Anfac.

Egoera nahasi horretan, fabrika nazionalek munduko merkatuan duten posizioa sendotzearen aldeko apustua egiten jarraitu zuten, deskarbonizatzeke eta eredu elektriko berriak ekoizpen-lerroetan txertatzeko helburuarekin, eta, aldi berean, mix produktiboari eutsi zioten eskariari erantzuteko. Anfacen arabera, Espainiak, gutxienez, 700.000 ibilgailu elektriko ekoitzi behar ditu 2030erako Europako merkatu-kuota mantendu nahi badu edo % 15era arte handitu nahi badu.

Eta, sektorerako apustu handi gisa mugikortasun elektriko berrirako eraldaketa horretan, kontsumitzailea oraindik zalantzati dago motorizazio berrien prezioa zaharrena baino askoz ere altuagoa delako (haiek oso zigortuta daude, bestalde) eta ibilgailu elektrikoa kargatzeko puntuak behar bezala ez direlako hedatzen.

Espero zitekeen bezala, ziurgabetasunak eta automobilgintza-enpresek beren jarduera garatzeko izan duten agertoki konplexuak isla izan dute industria osagarriaren jardueran; izan ere, enpresa-sarea mila ingurukoa da panorama nazionalan.

2021ean ere, Covid-19ak ekonomia orokorra eta automobilgintzako laguntzailea kolokan jarri zituen, neurri batean erdieroaleen hornidura ezagatik, sektorearentzat garrantzi berezia baitu, eta horri pixkanaka beste faktore exogeno batzuk gehitu zitzaizkion, hala nola garraioaren eta energiaren prezioen igoera. Hala eta guztiz ere, 2021ean, automobilgintzako hornitzaile nazionalak fakturazioa handitzea lortu zuten (+% 6,2), eta fakturazioa 32.085 milioi eurora igo zen, aurreko urtekoa gainditzen duen arren, balio aurre-pandemikoetatik (36.000 milioi euro inguru) urrun samar.

98. koadroa Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak

(M euro)

Kontzeptua	2019	2020	2021	%Δ 21/20	%Δ 21/19
Fakturazioa	35.822	30.200	32.085	6,2	-10,4
Merkatu nazionalako salmentak	15.068	12.300	12.416	0,9	-17,6
- Ekipo originala	9.798	7.740	7.291	-5,8	-25,6
- Ordezkoak	5.270	4.560	5.125	12,4	-2,8
Esportazioak	20.754	17.879	19.669	10,0	-5,2
I+G+b inbertsioa	1.458	1.075	1.164	8,3	-20,2
Enplegua (langile kopurua)	225.400	212.500	201.450	-5,2	-10,6

Iturria: Sernauto.

Kanpoko merkataritza-jarduerari dagokionez, 2021ean esportazioak 20.000 milioi euro ingurura iritsi ziren, 2020an baino % 10 gehiago (covid aurreko balioen azpitik % 5,2). Aurreko ekitaldietan adierazi den bezala, esportazioak dira sektorearen susperraldiaren benetako eragileak, 2021ean etxeko merkaturako salmenten aldaketa txikia izan baitzen (+% 0,9), covid aurreko dimentsiotik oso urrun (-% 17,6). Zehatzago, ekipo originalaren salmentek (salmenta nazionalen % 58,7) bolumenen % 5,8ko narriadura izan zuten (-% 25,6koa 2019aren aldean), eta ordezkoen merkatuak hazkunde nabarmena erakusten du (+% 12,4); hain zuzen ere, balio aurre-pandemikoetatik oso hurbil kokatzen du.

Ohikoa den bezala, Europar Batasuna izan zen automobilgintzako osagarrien industriako esportazioen helburu nagusia, kanpoko salmenten % 66,4ren (13.051 milioi euro) erantzulea izanik. Urteik urterako balioa % 9,8 handitu zuen, pixkanaka 2019ko mailetara hurbilduz (-% 3,2).

Informazioa herrialdeka banakatuta, Alemania (3.376 milioi euro) izan zen bazkide komertzial nagusia (2020rekiko +% 11), Frantziari lehen postua kenduta, 3.083 milioi eurora iritsi baitzen Frantzia (-% 2,8, urte batetik bestera). Ondoren, Portugal eta Italia zeuden, 1.676 milioi eurekin eta 1.033 milioi eurekin, hurrenez hurren, eta bi digituko urte arteko hazkundeak izan zituzten (+% 10,9 eta +% 17,8).

Europar Batasunetik kanpo, merkatuen dimentsioagatik nabarmendu ziren Erresuma Batua (1.100 milioi euro; -% 8,6) eta AEB (1.087 milioi euro; +% 14,5), nahiz eta azken urtean jarduera oso desberdinak izan. Marokok (832 milioi euro eta -% 1,2), Txinak (583 milioi euro, +% 18,5) eta Mexikok (399 milioi euro eta +% 38), osatu zuten, besteak beste, esportazio nazionalen mapa.

I+G+b arloko inbertsioari dagokionez (1.164 milioi euro 2021ean), hazten jarraitu zuen eta % 8,3 hazi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, hau da, fakturazioaren % 3,6. Egoera zaila izan arren, industria hornitzaileak I+G+b arloan inbertitzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, ibilgailu osoan osagaiek duten pisu espezifiko handia dela-eta, industria osagarriak ibilgailuaren balioaren % 75 ematen baitu. Zifra horrek industriaren buruan jartzen du sektorea, kontuan hartuta I+G+b arloan inbertitutako bolumena industriaren batez bestekoa halako hiru dela.

Etorkizuneko perspektibei dagokienez, Sernautoren¹ arabera, sektorea aurrekaririk gabeko eraldaketan murgilduta dago, eta hainbat erronka ditu aurretik. Alde batetik, fabrikatzaileek produktu jakin batzuen eskuragarritasun- eta hornidura-arazoei aurre egiten jarraitu beharko dute, eta lehengaien kostuen eta prezioaren igoera kudeatu beharko dute; bestetik, auto elektrikoaren garapenak agintzen du plan guztien gainean, automobilgintzaren industriak Europan eta munduan duen posizioari eusteko.

Horretarako, Sernautok ibilbide-orri bat definitu du, eta 23 neurritan zehazten da, bost jarduera-ardatzetan: merkatua, inbertsioa, erregulazioa eta fiskalitatea, I+G+b eta talentua.

¹ Automobilgintzako Hornitzaileen Espainiako Elkartea.

5.3. SEKTOREA NAFARROAN

Automobilgintzaren industria da, nekazaritzako elikagaien industriaren atzetik, Nafarroan garrantzitsuena. 120 enpresa inguruk osatzen dute sektorea, sei bilioi euro inguruko negozio-bolumenarekin eta 12.000 pertsonari zuzenean enplegua emanez. Enpresa-sare garrantzitsu horri Volkswagen Taldeak Landabenen duen lantegia gehitu behar zaio, zalantzarik gabe, protagonista gisa, mundu guztian dituen 120 lantegiren artean.

Nafarroan, BPGren % 30 inguru industrialak dela kalkulatu da, eta, hortik, % 25 automobilgintzaren sektoreari dagokio. Nafarroako egitura ekonomikoaren berezitasun hori dela eta, Foru Komunitatea Automobilgintzako Eskualdeen Aliantza ordezkatuta dago. Aliantza hori Eskualdeen Europako Batzordearen 150. osoko bilkuran sortu zen, eta garraioaren sektorea deskarbonizatzeko eta Europako Itun Berdearen helburuak lortzen laguntzeko zeregina aktiboa izan nahi duten automobilgintzako eta hornikuntzako sektore indartsua duten eskualdeak biltzea du helburu.

99. koadroa Nafarroako enpresa aktiboak, jarduera nagusia automobilgintza dutenak, 2021

Enpresa aktiboak	Enpresa kopurua
Ibilgailu motordunen fabrikazioa	9
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren karrozerien fabrikazioa	15
Ibilgailu motordunentzako osagaien, piezen eta osagarrien fabrikazioa	49
GUZTIRA	73

*Oharra: Jarduera nagusia (291-292-293 taldeak, EINS 2009).
Iturria: EIN.*

Enpresa-egitura aztertzen hasita, 2021ean 73 enpresa ziren jarduera nagusia automobilgintza zutenak (2020an baino 4 gehiagok). Osagaiak, piezak eta osagarriak fabrikatzen dituzten enpresak ziren ugariak (49; +1), eta, ondoren, ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren karrozeriak fabrikatzen dituztenak (15; +3); azkenik, ibilgailu motordunen fabrikazio-kategorian sartzen direnak, horiek baitira aldaketarik izan ez zuten bakarrak 2020rekiko (9).

100. koadroa Nafarroako enpresa aktiboak, 2021ean jarduera nagusia automobilgintza dutenak, enplegu-estratuaren arabera.

Enplegu-estratuak	Enpresa kopurua
≤ 5	31
6-49	26
50-99	6
100-249	4
>250	6
GUZTIRA	73

*Oharra: Jarduera nagusia - 29 Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa (EINS 2009).
Iturria: EIN.*

Enpresa-lagin hori bera kontuan hartuta eta enpresa-dimentsioari dagokionez, enpresa gehienak txikiak eta ertainak zirela ikus daiteke. Zehatzago, 31 ziren (+2, 2020rekin alderatuta) enplegatu kopuru txikieneko enpresak, 5 enplegu edo gutxiagorekin, eta, ondoren, hurrengo tarteak, 6-49 enplegukoa, 26 enpresarekin guztira (+5). 50-99 enplegatu arteko enpresei dagokienez, 2021ean 2020ko berberak erregistratu ziren, hau da, 6 enpresa; aldiz, 100-249 langileko enpresa bat gehitu zen, 4 guztira. Enpresa-ehuna osatzen amaitzeko, enpresa handienak daude (250 langiletik gorakoak), urtetik urtera beheranzko aldakuntza (-4) ikusten da, 2021ean 6 enpresa aktibo izanik.

101. koadroa Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2021

Enpresa	Enplegua	Udalerría
Volkswagen Navarra S.A.	4625 ^(*)	Arazuri
ZF Aftermarket Iberica S.L.	500 baino gehiago	Iruñea
KYB Suspensions Europe, S.A.	500 baino gehiago	Asiain
Dana Automoción, S.A.	500 baino gehiago	Iruñea
SAS Autosystemtechnik SA (Faurecia taldea)	500 baino gehiago	Arazuri
Tecnoconfort S.A	251-500	Iruñea
Gestamp Navarra	251-500	Orkoien
AISA Navarra (Cosmos taldea)	251-500	Agoitz
KYB Steering Spain, S.A.	101-250	Orkoien
Grupo Antolin Navarra, S.A.	101-250	Arazuri
Iberica de suspensiones (Sogefi taldea)	101-250	Altsasu
TI Automotive Pamplona, S.A.	101-250	Aitzoain
Delmon Group Inepsa, S.A.	101-250	Iruñea
Isringhausen Spain S.L.	101-250	Iruñea
Maier Navarra, S.L	101-250	Iraizotz
Schnellecke Logistics España S.A.	101-250	Arazuri
Zertan S.A. (Grupo Cebi)	101-250	Lizarra

(*): Langile kopurua abenduaren 31n. Volkswagen Navarraren datua.

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Enpresa Direktorioaren eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren informazioa oinarri hartuta.

Nafarroan, Volkswagenean presentziari esker, osagaien fabrikatzaile ugari garatu dira, Tier1 eta Tier2, horietako asko talde multinazional handietakoak. Testuinguru horretan, ZF Aftermarket Iberica, KYB Suspensions Europe, Dana Automoción edo SAS Autosystemtechnik nazioarteko enpresek posizio nabarmena dute, besteak beste. Enpresa horietako asko, mundu mailan aintzatetsiak izateaz gain, Foru Erkidegoan gehien fakturatzeko duten enpresen artean daude.

102. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Automobilak, piezak eta osagarriak*

(M euro)

Kontzeptua	2018	2019	2020	2021**
Automobilgintzako esportazioak (1)	3.835,0	4.618,0	3.569,1	3.625,5
Esportazioak, guztira (2)	9.145,3	10.205,4	8.917,7	9.497,2
(1)/(2)	42,1	45,3	40,0	38,2
Automobilgintzako inportazioak	1.055,4	1.152,8	942,5	992,8

(*): Muga-zergen 87.kapitulua: Automobilak, traktoreak, zikloak eta lurreko gainerako ibilgailuak, piezak eta osagarriak.

(**): Aurrerapen-datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Kanpo-merkataritzaren bilakaerari dagokionez, eta esportazioei dagokienez, 2021ean jarduera hobetu egin zen; izan ere, automobilgintzak suspertze-zantzuak erakutsi zituen, baina Nafarroako esportazio guztiak baino erritmo motelagoan.

Zehazki, 2021ean sektoreko esportazioak 3.625,5 milioi eurokoak izan ziren, % 1,6ko hazkunde txikia izan ondoren (2019ko balioen aldean, -%21,5). Nafarroako esportazio guztiak, bestalde, neurri handiagoan hazi ziren (+% 6,5), eta 9.497,2 milioi eurora iritsi ziren 2021ean (2019ko datuekin alderatuta, -% 6,9). Horren guztiaren ondorioz, sektoreari lotutako esportazioek garrantzia galdu zuen jarduera osoarekiko, eta partaidetza % 40tik behera geratu zen (% 38,2, 2019an % 45,3 izanik). Hala ere, egoera horrek ez du Nafarroako esportazio-mapan duen posizioa aldatzen, esportazio-partida nagusia baita, hurrengo bi partidetatik oso urrun: alde batetik, makinak, aparatuak eta material elektrikoa eta horien zatiak, % 12,1eko pisu erlatiboarekin, eta, bestetik, errektore nuklearrak, galdarak, makinak eta bestelako aparatuak, % 10,6ko partaidetzarekin.

Inportazioen bilakaerari dagokionez, 2021ean partida horri esleitutako balioa 992,8 milioi eurokoa izan zen, urte arteko % 5,3ko igoera egiaztatu baitzen (2019aren aldean, -% 13,9), Nafarroako inportazio guztiak nabarmen hazi ziren testuinguruan (+% 22,1), eta 5.672,5 milioi euroko zenbatekoarekin amaitu zen ekitaldia. Horrenbestez, 2021ean, automobilgintzako inportazioek Nafarroan duten pisu erlatiboa % 17,5era jaitsi zen. Kopuru hori ekitaldi horretan errektore nuklearren, galdaren, makinaren eta aparatuen partidak gainditu zuen, jarduera osoari % 18,2ko ekarpena eginez.

103. koadroa Volkswagen Navarra SA enpresaren jarduera-magnitudo nagusiak

(M euro)

Kontzeptua	2019	2020	2021	% Δ 21/20
Ekoizpen-jarduera				
-Ekoizpena (ibilgailu kopurua)	320.523	242.666	221.122	-8,9
Langile kopurua (abenduaren 31n)	4.867	4.754	4.625	-2,7
Diru-sarrerak	3.844,6	3.066,1	2.954,4	-3,6
Emitza zergen ondoren	78,0	66,2	60,3	-8,9
Cash-Flow gordina	193,1	183,0	183,5	0,3
Inbertsioak	61,3	98,8	72,4	-26,7

Iturria: Volkswagen Navarra, SA

Kapituluaekin jarraituz eta Nafarroako Volkswagenei dagokionez, ukaezina da pandemiak Landabengo lantegian izandako eragina. Erdieroaleen krisiak produkzio-kadentzia geldiarazi zuen, eta 2021ean 221.122 unitate izatera iritsi zen, 2020ko mailaren % 8,9 azpitik eta pandemiaren aurreko balioen % 31 azpitik. Modeloen arabera, T-Crosseko 141.379 unitate fabrikatu ziren, Poloko 70.899 unitate (horietatik 28.609 birdiseinatutako Polo modelokoak) eta Taigoko 8.844 unitate. Motorizazioei dagokienez, fabrikatutako autoen % 98 gasolina-bertsioetakoak izan ziren, eta gainerako % 2a CNG-koak (gas natural konprimitua).

Halaber, eta ohikoa den bezala, ekoizpenaren % 91 atzerrira bideratu zen, 41 herrialdetara zehazki, eta Alemania zen helmuga nagusia (guztizkoaren % 18), ondoren, Frantzia (% 16) eta Italia (% 14).

Datu ekonomikoekin jarraituz, 2021ean Volkswagen Navarran diru-sarrerak murriztu egin ziren eta 3.000 milioi eurotik behera geratu ziren (2020arekiko -% 3,6 eta 2019arekiko -% 23,2). Zergen ondorengo emaitzak ere okerrera egin zuen (2020arekiko -% 8,9 eta 2019arekiko -% 22,7), eta 60,3 milioi eurotan kokatu zen. Negozio-zifra horren % 95 autoen salmentatik dator, eta gainerako % 5a karrozerien, osagaien eta ordeztako piezen salmentatik.

Cash-flowari dagokionez, 2021ean 183,5 milioi euroraino igo zen, eta 2020ko mailetan mantendu zen (2019arekiko -% 5,0). Testuinguru horretan, enpresako plantilla ere ahuldu egin zen, 4.625 langilerekin, 2020an baino % 2,7 gutxiago (2019an baino -% 5 gutxiago), inbertsiorako gertatu bezala; izan ere, inbertitutako 72,4 milioi eurekin, nabarmen uzurtu zen inbertsioa 2020arekin alderatuta (-% 26,7), baina pandemia aurreko balioen gaineratik (+% 18,1). Kopuru horretatik, 40 milioi Taigo -lantegiko hirugarren modelo-merkaturatzearekin lotutako lanetara bideratu ziren; 9,5 milioi, Poloaren birdiseinuarekin zuzenean lotutako lanetara, eta fabrikari egindako gainerako jarduketek 22,9 milioi euroko inbertsioa izan zuten.

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokienez, eta enpresak argitaratutako informazioaren arabera, Volkswagen Navarrak urrats sendoak ematen jarraitzen du lantegia eraldatzeko, eta horrek mugikortasun elektrikorako fabrika multimarka bilakatuko du. Horrela, Volkswagen Navarrako eta Seateko lantaldeak batera ari dira lanean produktu elektriko berriak garatzeko, "Small BEV" izenarekin. Ibilgailu elektriko txikiak izango dira, horrela, Alemaniako markak mugikortasun elektrikoa publiko zabalari hurbildu nahi dio. Modelo berri horiek 2025 eta 2026 urteen artean aterako dira Martorell eta Iruñeko lineetatik.

6. PAPERERA

6.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Confederation of European Paper Industries-ek (CEPI) emandako informaziotik abiatuta, Paper eta Ore Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ASPAPPEL) emandako datuen arabera, 2021ean 90.190 mila tonara igo zen nazioartean ekoizitako paper eta kartoi kopurua; hau da, aurreko urtean baino % 5,8 gehiago ekoitzi zen. Hortaz, eten egin zen aurreko bi ekitaldietan erregistratutako beheranzko ibilbidea.

104. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)

Urtea	m Tm	% Δ
2016	90.982	0,1
2017	92.173	1,3
2018	92.200	0,0
2019	89.581	-2,8
2020	85.208	-4,9
2021*	90.190	5,8

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetan oinarrituta.

Paperaren ekoizpena herrialdeen arabera aztertuta, eta datuak 2020ari dagozkiola kontuan izanda, Txinaren eta Estatu Batuen artean ekoitzi zuten guztizko bolumenaren erdia baino gehiago (% 53,2). Europari dagokionez, Alemania eta Suedia gailendu ziren, baina haien partaidetzak askoz txikiagoak izan ziren (% 6,6 eta % 2,9, hurrenez hurren).

105. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka

(m tona)

Herrialdea	2020*	% Δ
Alemania	21.358	-3,3
Austria	4.717	-5,4
Belgika	1.610	-8,8
Bulgaria	245	14,0
Danimarka	71	7,6
Espainia	6.269	-2,6
Finlandia	8.202	-15,5
Frantzia	6.872	-6,2
Grezia	265	-3,3
Hungaria	804	1,8
Italia	8.672	-3,2
Holanda	2.869	-0,9
Polonia	4.933	1,2
Portugal	2.127	-5,5
Erresuma Batua	3.628	-5,8
Txekiar Errepublika	909	3,1
Eslovakia	696	-4,9
Suedia	9.333	-2,9
Norvegia	933	-11,6
Suitza	961	-6,5
Brasil	10.348	-2,4
Kanada	8.553	-10,8
Txina	103.994	-4,3
Estatu Batuak	67.955	-1,7
India	14.459	-6,4
Japonia	22.887	-9,9
Errusia	9.429	4,5

():* Herrialdeen arabera banaketaren kasuan, 2020ko informazioa baino ez dago eskuragarri.

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

Arreta orearen ekoizpenean jarrita, 2020an Estatu Batuak, Brasil, Kanada eta Txina izan ziren protagonistak; lauren artean osatu zuten guztizko ekoizpenaren ia bi heren (% 63,4). Europan, Suediak eta Finlandiak % 8 inguruko kuotak eskuratu zituzten bi kasuetan.

106. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera

(m tona)

Herrialdea	2020*	% Δ
Alemania	2.269	-2,5
Austria	1.581	-2,9
Belgika	415	-17,0
Bulgaria	167	-20,5
Danimarka	0	--
Espainia	1.650	-0,4
Finlandia	10.343	-9,4
Frantzia	1.545	-3,4
Grezia	0	--
Hungaria	0	--
Italia	182	-44,0
Holanda	35	2,9
Polonia	1.190	0,8
Portugal	2.495	-5,9
Erresuma Batua	208	-5,5
Txekiar Errepublika	566	6,0
Eslovakia	725	5,4
Suedia	11.678	0,1
Norvegia	833	0,6
Suitza	72	-20,9
Brasil	20.953	6,4
Kanada	14.365	-7,8
Txina	14.270	11,0
Estatu Batuak	43.373	-4,2
India	2.050	0,0
Japonia	7.053	-15,7
Errusia	8.625	2,9

(): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2020ko informazioa baino ez dago eskuragarri.*

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

6.2. SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPEn Txosten Estatistikoaren arabera, 2021ean paperaren eta kartoiaren ekoizpena % 6,2 hazi zen Espainian, 6.658,9 mila tonara arte. CEPIren eremuan nahiko antzekoa izan zen dinamika (paperaren eta kartoiaren ekoizpena % 5,8 hazi zen).

Era berean, paperaren esportazioak eta inportazioak (2.823,3 mila eta 3.067,7 mila tona, hurrenez hurren) ere igo egin ziren 2021ean Espainian (hurrenez hurren, % 8,9ko eta % 6,6ko hazkundeak), paperaren ageriko kontsumoa % 5,3 hazi baitzen (6.903,3 mila tona). Hala, 2021ean Estatuko paperaren merkataritza-balantzaren saldo negatiboa-244,4 mila tonara murriztu zen (2020an -284,4 mila tonakoa izan zen saldo negatiboa).

107. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.


(m Tm)

Urtea	Produkzioa	Inportazioa	Esportazioak	Ageriko kontsumoa
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5
2017	6.217,8	3.266,6	2.681,4	6.802,9
2018	6.156,6	3.288,4	2.584,9	6.860,1
2019	6.436,6	3.088,4	2.651,1	6.873,9
2020	6.268,5	2.877,3	2.592,9	6.552,9
2021	6.658,9	3.067,7	2.823,3	6.903,3

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

19. grafikoa Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian

(Indizea: 1985= 100)



Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Bloke geografiko handien arabera, aurreko ekitaldian bezala, 2021ean ere EB izan zen Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia. EBtik egin ziren kanpo-erosketen % 91, eta EBra egin ziren kanpo-salmenten % 60. Zehatzago, Frantziari dagokio inportazioen % 16, eta, Alemaniari eta Finlandiari inportazioen % 15, bi kasuetan. Bestetik, Portugalari eta Frantziari dagozkie esportazioen % 21 eta % 20, hurrenez hurren.

Paper motak aintzat hartuta, 2021ean hazkunde orokortua izan zuen ekoizpenak. Prentsarako eta inprimatzeko eta idazteko paperaren ekoizpena eta beste paper batzuen ekoizpena % 15,9 igo zen bi kasuetan; uhin-kartoiarena % 5,1 hazi zen; beste ontzi eta enbalaje batzuetara bideratutakoa % 4,6; higienikoak eta sanitarioak % 1,3; eta kartoi iztukatuarena % 0,9.

108. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2021	% Δ 21/20	2021	% Δ 21/20	2021	% Δ 21/20	2021	% Δ 21/20
Prensa eta inprimatzea eta idazketa	740,2	15,9	882,3	3,5	898,0	15,5	724,5	1,5
Higienikoak eta sanitarioak	813,2	1,3	152,8	1,6	221,4	5,5	744,6	0,2
Uhin-kartoirako	3.694,6	5,1	1.012,9	10,3	973,8	1,8	3.733,7	7,3
– Uhinatarako	1.680,1	8,5	311,3	13,6	331,1	-4,7	1.660,2	12,6
– Test Liner eta Kraft Liner	1.591,3	2,6	676,8	8,6	570,1	7,8	1.697,9	3,2
– Bikoak eta larruak	423,2	1,5	24,8	19,7	72,5	-9,4	375,6	4,9
Kartoi iztukatua	322,8	0,9	484,2	0,8	156,3	-10,3	650,7	3,9
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	552,6	4,6	399,8	15,7	475,7	15,2	476,7	3,3
Beste paper batzuk	535,5	15,9	135,7	3,9	98,0	56,4	573,2	8,2
Papera eta kartoiak, guztira	6.658,9	6,2	3.067,7	6,6	2.823,3	8,9	6.903,3	5,3

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2021ean 1.777 mila tona ekoitzi ziren, aurreko urtean baino gehiago (% 7,7). Era berean, igo egin ziren orearen inportazioa (1.129,3 mila tona, % 3,5eko igoera) eta esportazioa (1.084,4 mila tona, % 5,6ko igoera); baita ageriko kontsumoa ere (1.821,9 mila tona, aurreko ekitaldian baino % 6,3 gehiago).

Gauzak horrela, orearen Estatuko merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -44,9 mila tonara murriztu zen 2021ean (-63,9 mila tonako saldo negatiboa zuen 2020an), eta estaldura-tasa % 96koa izan zen (aurreko ekitaldian % 94,1koa).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa % 4,4 hazi zen 2021ean eta 5.354,8 mila tonatan kokatu zen.

109. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2021	% Δ 21/20	2021	% Δ 21/20	2021	% Δ 21/20	2021	% Δ 21/20
Ore birjinak, guztira	1.777,0	7,7	1.129,3	3,5	1.084,4	5,6	1.821,9	6,3
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.403,2	0,4	1.655,5	12,8	704,0	-2,5	5.354,8	4,4

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

Txosten honen aurreko edizioetan egindakoaren ildotik, jarraian, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu, adierazle hauetan oinarrituta: ageriko bilketa-tasa, erabilera-tasa eta birziklapen-tasa. Ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2021ean % 63,8 (2020an % 66,9). Erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): 2021ean % 80,4 (aurreko ekitaldian % 81,8). Birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2021ean % 77,6 (aurreko ekitaldian % 78,3).

6.3. SEKTOREA NAFARROAN

CEPIren eremuan (% 5,8) eta Estatuan (% 6,2) erregistratutako igoeren ildotik, Nafarroan ere gora egin zuen paperaren sektoreko paperaren eta kartoiaren ekoizpenak 2021ean. % 1,1eko igoera erregistratu zen; hala, 518,8 mila tonara egin zuen gora ekoizpenak. Hala, Nafarroako hazkunde erlatiboa txikiagoa izan zen Estatukoa baino eta, ondorioz, Nafarroako paperaren sektorearen partaidetza-kuota apur bat jaitsi zen (2021ean Espainiako ekoizpenaren % 7,8, eta aurreko ekitaldian, % 8,2).

110. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Nafarroan (*)

Kontzeptua	2019	2020	2021	(m Tm)
				% Δ 21/20
Papera eta kartoiak, guztira	502,5	513,3	518,8	1,1

(*): Orearen ekoizpenari buruzko informazioa ez dago eskuragarri, datuen konfidentziasuna dela eta.
Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

Kanpo-merkataritzako elkartrukeei dagokienez, eta kasu honetan aurkezten diren zifrak monetarioak direla aintzat hartuta, 2021ean hazi egin ziren Nafarroako paperaren eta orearen esportazioak zein inportazioak. Hala, kanpora egindako salmentak % 15,1 igo ziren, 274.000 mila eurora arte, eta kanpotik egindako erosketak % 9,3 hazi ziren, 118.800 mila eurora arte. Gauzak hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 155.200 mila eurora arte hazi zen (aurreko ekitaldian 129.300 mila eurokoa zen).

111. koadroa Paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan

(m euro)

Urtea	Esportazioak	% Δ	Inportazioak	% Δ	Merkataritza-balantza	% Δ	Estaldura-tasa
2017	290.100	21,5	124.200	7,6	165.900	34,4	233,6
2018	280.000	-3,5	119.500	-3,8	160.500	-3,3	234,3
2019	283.200	1,1	121.200	1,4	162.000	0,9	233,7
2020	238.000	-16,0	108.700	-10,3	129.300	-20,2	219,0
2021*	274.000	15,1	118.800	9,3	155.200	20,0	230,6

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Azkenik, paperaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak azaltzen dira jarraian, modu sintetikoan, eta bakoitza non dagoen eta zer paper mota ekoizten duten adierazten da.

112. koadroa Nafarroako paperaren sektoreko enpresa nagusiak

Enpresak	Kokapena	Jarduera
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, kraft papera, uhin-kartoiak eta zakuak
Sca Hygiene Spain (Essity Operations Allo)	Allo	Tisu papera
Papelera del Ebro	Viana	Paperaren eta enbalajeen fabrikazioa
Newark San Andrés (Solidus Solutions San Andrés)	Atarrabia	Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa
Bertako	Uharte	Paperaren eta uhin-kartoiaren fabrikazioa
Papertech	Tutera	Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa
Papeles el Carmen	Altzuza	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Ibertissue (Sofidel Spain)	Buñuel	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Videcart (Solidus Solutions Videcart)	Ibiriku	Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa

Iturria: Memoriak eta Nafarroako Ganbera.

7. ERAIKUNTZA

Pandemiaren agerpena kolpe handia izan zen eraikuntza-jarduerarentzat, baina, aurreko krisialdian ez bezala (higiezinen burbuilaren leherketa 2008an), sektorea zutik mantendu zen eta erresilientzia-gaitasun handia erakutsi zuen. Egia da aurreko krisiaren epizentroa sektorea bera izan zela. Oraingo honetan, ordea, kanpoko faktore global bat izan zen eragilea, Covid-19a. Ondorioz, suspertzea azkarragoa izan zen, testuinguru ekonomikoa aurkakoa izan arren.

Hala, 2021ean leheneratu egin ziren sektoreko adierazleak, eta pandemiaren kaltea gainditu zuten. Batetik, sektorearen sendotasunari esker gertatu zen hori eta, bestetik, honakoei esker: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoetarako (MRR) Europako funtsak jaso izana, eraikinak birgaitzeko bultzada publikoa, eta etxebizitza berriak eta azpiegiturak sustatzeko proiektuak.

Dena den, suspertze ekonomikoa finkatzen zihoan heinean, beste mehatxu batek astindu zuen sektorea: prezioen igoerak. Lehengai nagusien eta eraikuntzarako materialen (egurra, aluminioa, altzairua, zementua...) prezioak inoiz ez bezala igo ziren, batetik, mundu mailako eskari handiagatik –pandemian zehar ezkutuan egon zen eskaria azalerratu baitzen– eta, bestetik, itsaso bidezko nazioarteko garraioak garestitze historikoa izan zuelako. Gainera, Errusia-Ukraina gerra-gatazkaren ondorioz 2022an energiaren prezioak izandako garestitzea eta horren inpaktua gehitu behar zaizkio agertoki konplikatu horri.

Hala, lehengaien, garraioaren eta energiaren gainkostuaren aurrean, epe motzean egoera hobetu ezean sektorearentzako ondorioak oso txarrak izan daitezkeela ohartarazi du Seopanek¹. Hortaz, sektoreari laguntzeko neurri gisa, honakoak premiatzen ditu elkarteak: 3/2022 Errege Dekretu Legeak (prezioen berrikuspenaren arloko aparteko neurriak obretako kontratu publikoetan) barne hartzen dituen neurrien eraginkortasuna edo lehiaketa irekietan eskaintzak aurkezteko epea luzatzea.

Gainera, ziurgabetasun-testuinguru honetan, ekoizpen-eredu jasangarriago baterantz mugitzen ari da sektorea. Hainbat erronka uztartzen dira bide horretan: eraginkortasun energetikoa, digitalizazioa edota langile kualifikatuen gabezia. Aldaketari aurre hartzeko helburuz, 2021eko urrian Eraikuntza Sektoreko Eraldaketa Mahaia osatu zuten, elkartzeko, hausnartzeko eta ideiak sortzeko organo gisa, Nafarroako Enpresen Konfederazioak (CEN) bultzatuta.

¹ Enpresa eraikitzaileen eta azpiegituren lizitzaileen elkarteak.

Sektorearen % 80ko ordezkariak du Mahaiak, eta honako helburu hauek ditu, beste batzuen artean: sektorean lan egiten duten azpisektoreen artean lankidetzaren ereduaren sustatzea eta kontratatze eta parte hartze ereduaren aldatzea; sektoreko langileen eta enpresen aldaketa kulturean laguntzea; edota sektorearen digitalizazioaren sustatzea, langileen gaitasun digitalen mailari dagokionez eta enpresen eta haien prozesuen eraldaketa digitalari dagokionez.

Hori esanda, eraikuntza-sektorearen adierazle nagusiek gora egin zuten 2021ean, Nafarroan zein Estatuan. Hala, pandemiaren aurretik erregistratutako balioen oso antzekoak edota altuagoak eskuratu zituzten.

113. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

(% Δ)

Kontzeptua	Nafarroa		Espainia	
	2020	2021	2020	2021
Enplegua	-3,6	18,5	-2,6	3,8
Zementuaren ageriko kontsumoa (**)	-13,4	9,6	-8,6	11,0
Amaitutako etxebizitzak	14,7	22,6	10,7	8,6
Hasitako etxebizitzak	-11,8	12,6	-19,5	28,5
Lizitazio ofiziala	-44,7	69,1	-20,1	63,0

(*): Oficemeneko bazkide diren enpresek Ipar Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak dira.

Iturria: EIN, Seopan eta Oficemen.


Zehatzago esanda, Nafarroako sektoreko magnitude nagusien bilakaeraren azterketan lizitazio ofizialaren portaera nabarmentzen da, hazkunde handia izan baitzuen 2020ko balioekiko, % 69,1ekoa. Amaitutako etxebizitzek (% 22,6), hasitako etxebizitzek (% 12,6) eta zementuaren ageriko kontsumoak (% 9,6) ere gora egin zuten, baina apalago. Sektoreko enpleguak ere goranzko bilakaera izan zuen (% 18,5), eta covidaren krisiaren aurreko mailak gaingitzea lortu zuen.

Estatuan ere, urteko balantzeari begiratuta, lizitazio ofizialak hazkunde handia izan zuen (% 63,0). Halaber, gora egin zuten amaitutako etxebizitzek zein hasitakoek, baina erritmo oso ezberdinetan (% 8,6 eta % 28,5, hurrenez hurren). Zementuaren ageriko kontsumoa, berriz, % 11,0 hazi zen. Azkenik, enplegua ere hazi egin zen (% 3,8), baina Nafarroan baino askoz ere motelago (% 18,5).

Sektorearen jardueran sakontzeko, Nafarroako eraikuntza-enpresen konfiantza-indize harmonizatuaren bilakaera aztertuko dugu. Establezimenduen kudeatzaileek haien negozioaren martxari buruz duten iritzia jasotzen du indize horrek, pasatako hiruhilekoari dagokionez, baita datorren hiruhilekorako dituzten igurikimenak ere.

20. grafikoa Eraikuntza-enpresen konfiantza-indize harmonizatua

(hiruhileko bilakaeraren indizea)



Oharra: Eraikuntza-sektoreko Konfiantzaren Indizeak (ICC) enpresak kudeatzen dituzten pertsonen iritziak jasotzen ditu, pasatu den hiruhileko bakoitzean negozioak izandako martxari buruz eta datorren hiruhilekorako dituzten igurikimenei buruz.

Iturria: Inbertsio-eskariaren inkesta, Nastat (2013ko oinarria). Geuk egina.

Grafikoan ikus daitekeen moduan, Nafarroako eraikuntza-enpresen konfiantza-indize harmonizatua 2020ko bigarren hiruhilekoan hasitako goranzko ibilbidearekin jarraitu zuen; izan ere, 2020ko lehenengo hiruhilekoan beherakada handia izan zuen (111,5), eraikuntza-jarduera erabat gelditu baitzen. Une horretatik aurrera, neurri murriztaileak erlaxatzen eta enpresen jarduera apur bat suspertzen zihoazen heinean, konfiantza-indizea progresiboki hobetu zen. Dena den, 2021. urtearen bigarren erdian eten egin zen hazkunde jarraitua, lehengaien prezioen igoerak ziurgabetasun handia eragin zuelako.

114. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa

(M euro)

Eremua	2020				2021			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Nafarroa	7,2	140,6	95,5	243,2	16,2	247,3	147,8	411,3
Espania	3.315,0	5.012,3	6.213,9	14.541,1	7.899,2	6.839,1	8.960,6	23.698,9

Iturria: Seopan.

Sektoreko jardueraren analisiarekin jarraituz, eta lizitazio ofizialari dagokionez, bi lurraldeetan inbertsioak gora egin zuela ikus daiteke. Zehatzago esanda, Nafarroan 411,3 milioi euro lizitatuta amaitu zuten ekitaldia; Estatu mailan 23.698,9 milioi eurokoa izan zen zifra hori.

Hala ere, informazioa organismo lizitatzaileraren arabera banatuz gero, bilakaera heterogeneoak ikus daitezke.

Administrazio Zentralak izan zuen hazkunderik handiena (% 125), baina partaidetza txikia (% 3,9). Ordezkaritza handieneko organismoak, Administrazio Autonomikoak (% 60,1) nabarmen igo zuen haren inbertsio-karga 2021ean (% 75,9). Tokiko Administrazioak, berriz, % 35,9ko kuotarekin, 2020ko balioak baino % 54,8 altuagoa zen ekarpenarekin amaitu zuen ekitaldia.

Estatu mailan azterketa hau bera eginda, agerikoa da obra publikoaren bultzada garrantzitsua dela, Foru Erkidegoan bezala. Horrekin lotuta, Administrazio Zentralaren inbertsioaren hazkunde esponentziala nabarmendu behar da (% 138,3). Aldiz, Tokiko Administrazioak (% 44,2) eta Administrazio Autonomikoak (% 36,4) antzeko bilakaera izan zuten. Ondorioz, lizitatzailen mapa nahiko orekatua izan zen. Tokiko Administrazioa kokatu zen buruan (% 37,8), ondoren Administrazio Zentrala (% 33,3) eta, azkenik, Administrazio Autonomikoa (% 28,9).

115. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2021)

Obra mota	Nafarroa			Espainia		
	M euro	% Δ 2021/20	%	M euro	% Δ 2021/20	%
Etxebizitzak	33,2	-39,7	8,1	880,2	25,7	3,7
Gizarte-ekipamendua	68,4	72,9	16,6	5.130,7	64,3	21,6
Gainerako etxegintza	19,0	1,9	4,6	2.445,7	27,2	10,3
Etxegintza, guztira	120,5	6,5	29,3	8.456,6	47,2	35,7
Garraioak	82,2	408,5	20,0	9.360,0	123,3	39,5
Urbanizazioak	92,9	21,4	22,6	3.131,6	44,9	13,2
Hidraulikoak	22,0	-29,4	5,3	2.116,2	3,5	8,9
Ingurumena	93,6	1.395,8	22,8	634,6	60,0	2,7
Obra zibila, guztira	290,8	123,5	70,7	15.242,3	73,3	64,3
GUZTIRA	411,3	69,1	100,0	23.698,9	63,0	100,0

Iturria: Seopan.

Nafarroan obra motaren arabera egindako inbertsioari dagokionez, Obra Zibilaren segmentuak hartu zuen lizitazio-jardueraren % 70,7; ekarpena 290,8 milioi eurokoa izan zen, 2020koaren bikoitza baino gehiago (% 123,5). Hazkunde ikaragarri horren jatorrian Ingurumeneko Obretara (% 1.395,8) eta Garraioen azpiegituretara (% 408,5) bideratutako ekarpenaren bilakaera dago; horiek % 22,8ko eta % 20,0ko partaidetza izan zuten. Antzeko pisua izan zuen Urbanizazioetara (% 22,6) bideratutako ekarpenak; haren jarduera ere hazi egin zen 2021ean, baina modu apalagoan (% 21,4). Aitzitik, Obra Hidraulikoetara bideratutako lizitazio-jarduera ez zen bat etorri joera horrekin eta murriztu egin zen (-% 29,4); hala, % 5,3ko ordezkaritza izan zuen.

Etxegintzaren azpisektoreari dagokionez, ekitaldian zehar 120,5 milioi euro lizitatu ziren, 2020an baino % 6,5 gehiago; azpisektore honen inbertsio-karga murriztagoa da (% 29,3). Segmentu bakoitzaren bilakaera sakon aztertuz gero Etxebizitzaren inbertsioak behera egin zuela (-% 39,7) ikus daiteke; Gainerako Etxegintzak mantendu egin zuen haren ekarpena (% 1,9), eta Gizarte Ekipamendua nabarmen hazi zen (% 72,9).

Hala, segmentu horiek honako partaidetza hauek izan zituzten lizitatutako guztizkoaren gainean: % 8,1, % 4,6 eta % 16,6, hurrenez hurren. Azterketa hau bera Estatu mailara eramanda, Obra Zibilari egokitu zitzaion inbertsio-kargaren % 64,3, hau da, 15.242,3 milioi euro lizitatu zituen, 2020an baino % 73,3 gehiago. Neurri handiagoan edo txikiagoan, segmentu guztietan hedatu zen lizitazio-jarduera. Garraio-azpiegitura (% 123,3), Ingurumen (% 60,0) eta Urbanizazio (% 44,9) arloetako lizitazio jarduera nabarmendu zen, izan zuten hazkundeagatik; hiru horiek, batera, inbertsio kargaren erdia baino zerbait gehiago osatu zuten (% 55,4). Testuinguru horretan, Obra Hidraulikoen segmentuak zifrak % 3,5 areagotzea lortu zuen.

Etxegintzaren azpisektorean ere gora egin zuen lizitazio-jarduerak (% 47,2). Gizarte-ekipamenduaren kasuan (% 64,3) hazkundera handiagoa izan zen Gainerako Etxegintzaren (% 27,2) eta Etxebizitzen (% 25,7) kasuan baino. Hala, inbertsio-karga osoaren % 21,6, % 10,3 eta % 3,7ko ekarpenak egin zituzten horiek, hurrenez hurren.

116. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak

(etxebizitza kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak			Amaitutako etxebizitzak		
		2019	2020	2021	2019	2020	2021
Nafarroa	Babestuak	219	605	541	327	558	360
	Libreak	2.683	1.954	2.340	1.465	1.498	2.160
Espainia	Babestuak	12.496	11.569	12.262	6.615	9.038	9.957
	Libreak	96.245	75.930	100.182	71.562	77.531	84.091

Iturria: Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentua eta Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusia.

Azterketa etxebizitzen eraikuntza-jarduerara ekarrita, datuek agerian uzten dute jarduera nabarmen suspertu zela, etxebizitzak hasteari zein amaitzeari dagokionez, bai Nafarroan, bai Estatuan.

Zehatzago esanda, Estatuan hasitako 112.444 etxebizitza zenbatu ziren (12.262 babestuak eta 100.182 libreak), aurreko ekitaldian baino % 28,5 gehiago. Babes ofizialeko segmentuak, % 10,9ko pisu erlatiboarekin, eta, neurri handiagoan, segmentu libreak (guztizkoaren % 89,1) lagundu zuten hasitako etxebizitzen parkea handitzen (% 6,0 eta % 31,9, hurrenez hurren). Nafarroari dagokionez, 2021ean hazi egin zen hasitako etxebizitzen kopurua (% 12,6), segmentu libreari esker (guztizkoaren % 81,2 lortuta, % 19,8ko hazkundera). Izan ere, babestutako etxebizitzen segmentuak behera egin zuen (guztizkoaren % 18,8 lortuta, % 10,6ko jaitsiera).

Amaitutako etxebizitzen kasuan, Estatuan 94.048 etxebizitza amaitu zituzten, 2020an baino % 8,6 gehiago, bi segmentuek izandako bilakaera onari esker (% 10,2 babestuak eta % 8,5 libreak). Hala, etxebizitza babestuen kasuan, amaitutako etxebizitzen parkea 9.957ra igo zen eta, jabetza librekoen kasuan, 84.091ra.

Bestalde, Nafarroan, amaitutako 2.520 etxebizitza zenbatu ziren, 2020an baino % 22,6 gehiago. Segmentu libreari esker (% 44,2) egin zuen gora, babes ofizialeko etxebizitzaren segmentuak behera egin baitzuen (-% 35,5). Hortaz, amaitutako etxebizitzaren parkea 360 babestuk eta 2.160 librek osatu zuten.

117. koadroa Eraikuntza lanean ari den biztanleria

Eremua	<i>(m pertsona)</i>			
	2019	2020	2021	% Δ 21/20
Nafarroa	16,2	15,6	18,5	18,5
Espainia	1.277,9	1.244,1	1.291,5	3,8

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2005eko oinarria).

Eraikuntza-sektoreko langileei dagokienez, sektoreak erakutsitako erresilientzia 2021eko enplegu-zifretan ere islatu zen. Hala, covidaren aurreko erregistroak gaintitu ziren. Nafarroan, 18,5 mila pertsonak lan egiten zuten eraikuntzan, eta hazkunde nabarmena izan zuen (% 18,5eko igoera). Estatuan, aldiz, sektorean 1.291,5 mila langilerekin, hazkunde askoz ere apalagoa izan zuten (% 3,8).

Hala, urte bukaerako aurreikuspenak ez ziren urte hasierakoak bezain baikorrak, lehengaien prezioen igoera kontuan hartuta. Zalantzarik gabe, igoera horrek gelditu egingo du jardueraren hazkundea. Gainera, eraldaketa-prozesu indartsu baten aurrean dago industria, eta prozesu horretan jasagarritasuna funtsezkoa izango da. Estatuko ekonomia berreskuratzeko orduan eraikuntzak paper garrantzitsua duela dio sektoreak, ingurumen arloko ikuspegi argiarekin eta Europako Itun Berdearen baitako ekonomia zirkularraren eta deskarbonizazioaren estrategiekin modu argian lerrokatuta.

8. NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

8.1. SARRERA

Txosten honen aurreko edizioetan bezala, kapitulu honek Nafarroako eta Estatu osoko enpresa-ehunaren bilakaera eta egitura aztertzen ditu, denbora-ikuspegi zabal batetik (2015-2021 aldia), eta sektore ekonomikoak eta soldatapeko estratuak aintzat hartuta. Horren harira, komeni da kontuan izatea, azterketaren homogeneotasun handiagoa izateko, EINeko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat.

Iturri horrek, EINeko Enpresen Direktorio Nagusiak (DIRCE), ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean aktibo dauden enpresen kopurua hartzen du kontuan. Hortaz, 2021eko datuek, urteko lehen egunari dagozkionak direnez, ez dute COVID-19ak urte horretan zehar izandako eragina jasotzen (2021eko urtarrilaren 1ean aktibo zeuden enpresetan pandemiak 2020an zehar izandako eragina jasotzen dute datuek).

8.2. BILAKAERA OROKORRA

Azken ekitaldietan zehar, enpresa aktiboen kopuruaren bilakaera ezberdina izan da aztertutako bi eremu geografikoetan (Nafarroa eta Estatu osoa). Hala, enpresen bolumenak urte arteko hazkundeak eta murrizketak izan zituen Nafarroan, txandaka. Estatuan, berriz, 2021. urtera arte etengabe hazi zen enpresa kopurua. Ekitaldi hartan modu orokortuan egin zuen behera enpresa aktiboen kopuruak bi eremuetan, COVIDaren inpaktuaren ondorioz.

Zehazki, Nafarroako enpresa aktiboen kopurua 2015ean 43.131 izatetik 2021ean 44.334 izatera igaro zen; hortaz, hazkunde metatua % 2,8koa izan zen. Estatuan enpresa aktiboen hazkunde metatua % 5,6koa izan zen: 2015ean 3.186.878 ziren eta 2021ean 3.366.570. Hala, 2015 eta 2021 artean enpresa aktiboen kopurua igo egin zen bi eremu geografikoetan.

Edonola ere, aipatu beharrekoa da urte arteko aldakuntzen intentsitatea desberdina izan dela azken urteetan aztertutako bi geografia-eremuetan, eta, halaber, alde nabarmenak hauteman direla eremu bakoitzari dagozkion urte arteko gorabeheren artean.


21. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Nafarroari dagokionez, jaitsierarik handiena 2021ean izan zen (-% 0,2) eta hazkunderik handiena 2016an (% 1,8). Estatuan, berriz, 2021ean bakarrik egin zuen behera enpresa aktiboen kopuruak (-% 1,1).


22. grafikoa Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Hala, Nafarroako enpresa aktiboek Estatuko guztizkoarekiko zuten pisu erlatiboa ia ez zen aldatu (% 1,32koa zen 2021ean, eta % 1,31koa 2020an).

23. grafikoa Pisuaren bilakaera Estatuko guztizkoarekiko (Estatua=100)




Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

8.3. SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoak honela multzokatu ditugu: industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak. Hala, 2015 eta 2021 artean Nafarroan eta Estatuan industriako eta merkataritzako enpresen bolumena mantendu egin zen, eta eraikuntzakoak eta gainerako zerbitzuetakoak areagotu egin ziren.

Bi eremu geografikoen kasuan, merkataritzak izan zuen enpresa kopuruaren jaitsierarik handiena 2015 eta 2021 artean (-% 8,1 Nafarroan eta -% 6,6 Estatuan). Hazkunderik handienak, aldiz, gainerako zerbitzuen taldeak erregistratu zituen (% 7,7 Nafarroan eta % 12,3 Estatu osoan).

24. grafikoa Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2015=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Arreta 2015 eta 2021 ekitaldietan jarrita eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN-2009) banaketak aintzat hartuta, handizkako eta txikizkako merkataritzak eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketak eskuratu zuten pisu erlatiborik handiena (enpresa kopuruari dagokionez) Foru Erkidegoan zein Estatuan, bi ekitaldietan. Hala, Nafarroan 2021ean jarduera hori burutzen zuten 9.036 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 20,4 osatzen zuten (2015ean % 22,8). Datu hori jarduera horrek Estatuan erregistratutako kuota baino apur bat baxuagoa da (guztizko nazionalaren % 21,2 izan zen 2021ean).

118. koadroa Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2015-2021 konparazioa

Atal ekonomikoa	Nafarroa		Estaturia	
	2015	2021	2015	2021
Guztira	43.131	44.334	3.186.878	3.366.570
Erauzketa-industriak	35	26	2.416	1.883
Manufaktura-industria	3.087	2.893	174.333	172.119
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	584	771	14.551	11.558
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa	144	148	6.704	6.995
Eraikuntza	6.122	6.335	405.849	417.017
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	9.830	9.036	763.930	713.305
Garraioa eta biltegiatzea	3.295	3.402	194.201	210.502
Ostalaritza	3.563	3.306	276.412	274.085
Informazioa eta komunikazioak	590	689	58.858	69.881
Finantza- eta aseguru-jarduerak	781	808	71.672	78.227
Higiezinekin lotutako jarduerak	1.307	1.533	148.826	188.456
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	5.234	5.467	379.415	421.715
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	2.324	2.472	184.967	201.249
Hezkuntza	1.099	1.459	92.689	109.999
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	1.569	1.736	148.692	168.806
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	1.078	1.400	83.635	104.628
Beste zerbitzu batzuk	2.489	2.853	179.728	216.145


Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Estatu osoko 2021eko datuak alde batera utzita, bi geografia-eremuetan, handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren, honako hauek nabarmendu behar dira hurrenez hurren: eraikuntza eta jarduera profesional zientifiko-teknikoak. Zehazki, eraikuntza-sektoreko 6.335 enpresa zeuden 2021ean Nafarroan, hau da, erkidegoko enpresen % 14,3 ziren arlo horretakoak (2015ean % 14,2); Estatuan 417.017 zeuden, guztizkoaren % 12,4. Jarduera profesional zientifiko-teknikoei dagokienez, arlo horretako 5.467 enpresa zeuden Nafarroan 2021ean, hau da, autonomia-erkidegoko enpresen % 12,3 ziren arlo horretakoak (2015ean % 12,1). Estatuan, berriz, 421.715 enpresa ziren arlo horretakoak, guztizkoaren % 12,5.

8.4. SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK

Soldatapekoen estratuak aztertuko ditugu orain. Lehenik eta behin, estratu ezberdinak multzokatuko ditugu datuak aztertzeko. 2015 eta 2021 artean bilakaera ezberdina izan zuten estratu horiek Nafarroan eta Estatuan, baina soldatapekorik gabeko enpresen kopurua hazi egin zen bi eremuetan; alderdi horretan bakarrik etorri ziren bat. Nafarroan soldatapekorik gabeko enpresek bakarrik egin zuten gora (% 6,3), eta 6 eta 9 soldatapeko artean zituzten enpresek izan zuten jaitsierarik handiena (-% 4,7 adierazitako aldia). Estatuan, enpresa kopuruak modu orokortuan egin zuen gora 2015 eta 2021 artean, eta 20 langile edo gehiagoko enpresek izan zuten hazkunderik handiena (% 8,2).

25. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2015=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Azterketa 2015 eta 2021 ekitaldietara mugatuta, eta soldatapekoen estratuak modu banakatuagoan aztertuta, honako ondorioa atera dezakegu: soldatapekorik ez zuten enpresen kopurua izan zen handiena bi ekitaldietan, Nafarroan zein Estatuan. Zehazki, 2021ean Foru Erkidegoan zeuden mota horretako 25.479 enpresek erkidegoko guztizkoaren % 57,5 osatzen zuten (2015ean % 55,6). Estatuko partaidetza-kuota apur bat baxuagoa izan zen (Estatuko guztizkoaren % 55,8).

119. koadroa Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2015-2021 konparazioa

Enplegu-estratua	Nafarroa		Estatua	
	2015	2021	2015	2021
Guztira	43.131	44.334	3.186.878	3.366.570
Soldatapekorik gabe	23.967	25.479	1.754.002	1.879.126
1-2 soldatapeko	11.395	11.251	899.802	920.321
3-5 soldatapeko	3.885	3.829	287.430	304.095
6-9 soldatapeko	1.634	1.557	112.527	120.828
10-19 soldatapeko	1.113	1.106	71.518	75.522
20-49 soldatapeko	708	679	39.101	42.012
50-99 soldatapeko	200	208	11.503	11.959
100-199 soldatapeko	131	123	5.928	6.655
200-249 soldatapeko		24		1.380
250-999 soldatapeko	87 (*)	64	4.277 (*)	3.634
1.000-4.999 soldatapeko	10	11	683	867
5.000 soldatapeko edo gehiago	1	3	107	171

(*) 2015ean aipatutako soldatapekoen estratuak ez zeuden banakatuta.

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Orokorrean, soldatapeko bat edo bi zituzten enpresak eta hiru eta bost soldatapeko artean zituztenak izan ziren hurrengoak, ordena horretan. Hala, soldatapeko bat edo bi zituzten 11.251 enpresa zeuden Nafarroan 2021ean, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 25,4 (2015ean % 26,4). Estratu horren partaidetza apur bat handiagoa izan zen Estatuan (% 27,3). Era berean, 2021ean Nafarroan hiru eta bost soldatapeko artean zituzten 3.829 enpresek foru-erkidegoko guztizkoaren % 8,6 biltzen zuten (sei urte lehenago % 9); kuota hori Estatuan (% 9) erregistratutako baino txikiagoa izan zen.



4. LEHEN SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1. BILAKAERA ESTATU MAILAN

Lehen sektoreak honako jarduerak hartzen ditu barne: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta bereizi ezin diren beste batzuk, elikagaien industriari ez dagozkionak. Kapitulu honetan, batez ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak hartuko ditugu kontuan.

2020an, pandemia agertu arren, hazkunde-joera mantendu zuen sektoreetako bat izan zen, eta Espainian hazkunde-joera hori mantendu zuen 2021ean ere. Landare-ekoizpena eta animalia-ekoizpena hazi egin ziren bi ekitaldietan, ikuspegi ekonomikotik. Sektore honetako produktu gehienak premiazkoak dira, eta kasu batzuetan, are, igo egin zen labore edo animalia-produktu jakin batzuen ekoizpena. Elikadura-ohiturak aldatu egin ziren, neurri handi batean albo batera utzi behar izan genuelako ostalaritza. Hala, hazi egin zen etxean kontsumitutako proportzioa. Ondorioz, produktu batzuek gora egin zuten, eta beste batzuek behera.

Espainiako nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera hazten ari dira etengabe eta, azken hamarkadan, hazkunde handia izan dute, bereziki, haragiak (batez ere, txerriak) eta barazki eta frutak. Aldi horretan ia bikoiztu egin dute haien bolumen ekonomikoa. Ondoz ondoko krisialdiak igaro arren, sektore hauek teknifikatu egin dira, kostuei eta eskulanari dagokienez eraginkortasuna areagotzeko. Eta, gero eta gehiago, esportaziora bideratu dira. Gainera, mesede egin die ostalaritzak eta turismoak Espainian izan duten jarraikortasunak, sektore traktore gisa.

Epe luzeko egoera hori ez du aldatu pandemiak. Dena den, hazkunde horren atzean dagoen errealitatea zera da, marjinak oso estuak direla, baita hazkunderik handiena izan duten aipatutako azpisektoreetan ere. Sektorea eta balio-kateko hurrengoak ahalegin handia egiten ari dira produktuen kalitatea areagotzeko eta haien gainera pertzepzioa hobetzeko, hala, kostuen igoera etengabeak prezioetara pasatu ahal izateko. Era berean, ustiapenak handitzen, batzen edo modernizatzen ari dira. Etengabeko egokitze hori egin ezean, benetako nekazaritza-errentak beheranzko joera du, inflazioaren eragina jakintzat emanda. Kostu horien igoeren adibideak oso agerikoak izan ziren 2021ean, energiaren eta erregaien prezioen igoerarekin, edo pentsuen eta zerealenekin. Hori guztia, hurrengo urtean hasi zen krisi geopolitikoaren inpaktua gehitu gabe.

Balioari dagokionez, estatistikek adierazten dutenez, 2021ean %6,6 hazi zen nekazaritzako ekoizpena, 2020an baino are gehiago (% 2,4). Barne hartzen dituen lau azpisektoreetan ikusi zen joera hori: % 10,7ko hazkundera landareetan, % 3,7koa animalietan, % 4,6koa lotutako zerbitzuetan eta % 6,3koa lotutako beste ekoizpen batzuetan. Funtsean, zerealen eta olioaren garestitzean oinarritu zen hazkundera. Gainera, landareen kanpaina ona izan zen, eta abeltzaintzako ere nahiko positiboa izan zen, txerri-azienda alde batera utzita. Baina bitarteko kontsumoak are gehiago hazi ziren, % 12,6. Ondorioz, Balio Erantsi Gordina % 3,8 hazi zen 2020arekiko (urte horretan % 2,2 hazi zen) eta nekazaritza-errentak (amortizazioak, dirulaguntzak eta zergak aplikatuta kalkulatzen da) % 2,3ko hazkundera izan zuen; 2020an % 1,4 hazi zen.

Orokorrean, sektoreak etengabeko presioa du gauza bera berarekin egiteko, edo marjinei eusteko; azken hori lortzeko, gutxiago ekoitzi behar dute eta, eskaintza murriztearen ondorioz, prezioak igo ditzaten presioa egin. Ez da kasualitatea aipatutako adarren kopuruen datuek adierazten dutena: nekazaritza-adarrean kopuruek % 0,2 baino ez zuten egin gora; landareen adarrean, balioa gehien hazi zen adarra izan bazen ere, kopuruek -% 0,8 egin zuten behera; animalien adarrean, % 1,6ko hazkundera; zerbitzuetan -% 0,3; eta, beste ekoizpen batzuetan, +% 0,1. Hortaz, aldakuntza materialak oso txikiak izan ziren. Ondorioz, aipatutako kostuak prezioetan islatu ziren: talde osoko prezioak % 7,6 igo ziren; landare-ekoizpenean, % 11,6; animalietan, % 2; zerbitzuetan, % 5; "beste batzuk" atalean, % 6,2; eta bitarteko kontsumoak % 12,2 garestitu ziren.

Kategorien arabera, kopuruak landareen kasuan jaitsi ziren gehien: -% 6 zerealean, -% 9,5 industria-laboreetan (erremolatxa, koltza...), -% 4,9 bazketan, -% 4,3 frutetan, -% 12,8 ardoetan. Landareak (+% 4,3), patata (+% 4,4) eta oliba-olioa (+% 23,6) salbuespenak izan ziren. Oliba-olioaren kasuan, zerikusia du bi urtez behingo efektu biologikoak; urte batean fruitu gutxi izaten dute, eta hurrengo urtean uzta handiagoa. Animalia-ekoizpenaren kasuan, urte arteko aldakuntzak txikiagoak izan ziren; beti gertatzen da hori, animalien bizi zikloa luzeagoa delako.

Prezioen artean, oso deigarriak izan ziren honakoen hazkunderak: zerealak (% 35,5), esan dugun moduan; industria-laboreak (% 32,2) eta olioak (% 42,8; guttizko balioa % 76,5 hazi zen 2020arekiko), baita ardoak ere (% 16). Animalia-ekoizpenaren kasuan, hazkundera apalak izan ziren. Baina Estatuko abeltzaintza-ekoizpen nagusiak behera egin zuen, txerri-aziendak (-% 2,2), eta ardi- eta ahuntz-aziendak apur bat garestitu ziren (% 11,2). Era berean, nabarmendu beharrekoa da energiaren eta lubrikatzaileen kostuek % 34,7 egin zutelako gora sektorean, estatistika honen arabera. Horren ondoriozko egituraren argi geratu zen zein ziren nekazaritzako jardueraren euskarri nagusiak: txerri-aziendari zegokion Estatuko ekoizpenaren % 15,7, landareei % 19, frutei % 16,6, zerealei % 10,7 (bi digitura iritsi ziren) eta, distantzia handira kokatu zen esnea (% 6,1).

120. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(M euro)

Kontzeptua	2020	2021*	% Δ 2021/2020		
	Balioa	Balioa	Balioa	Kopurua	Prezioa
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	52.344,5	56.427,1	7,8	0,2	7,6
• Landare-ekoizpena	30.400,1	33.643,8	10,7	-0,8	11,6
• Animalia-ekoizpena	20.178,4	20.915,3	3,7	1,6	2,0
• Zerbitzu-ekoizpena	580,3	607,3	4,7	-0,3	5,0
• Bigarren mailako jarduerak, ez- nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	1.185,7	1.260,7	6,3	0,1	6,2
B.- Bitarteko kontsumoak	23.774,1	26.774,5	12,6	0,4	12,2
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	28.570,4	29.652,6	3,8	--	--
D.- Amortizazioak	5.528,9	5.821,6	5,3	--	--
E.- Beste dirulaguntza batzuk	5.736,3	5.642,1	-1,6	--	--
F.- Beste zerga batzuk	449,4	487,7	8,5	--	--
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	28.328,4	28.985,4	2,3	--	--

(*): 2022ko urtarrileko 2. estimazioa. Ekoizleak jasotako oinarritzko prezioen arabera.
Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Bilakaera Nafarroan

Nafarroan, nekazaritza-sektoreko egoera orokorra ezin da modu berean baloratu. Izan ere, Estatuaren kasuan ikusi ditugun estimazio estatistikoaren gisakoak ez dira modu horretan aurreratzen, atzerapen handiz argitaratzen dira. Foru Erkidegoaren kasuan, argitaratzen joaten diren datu nagusiek barne hartzen dituzte basogintza eta lehen sektoreko beste jarduera minoritario batzuk ere.

Hori gertatzen da oinarritzko prezioetarako Balio Erantsi Gordinaren kalkuluarekin; izan ere, nekazaritzari eta abeltzaintzari gehitzen dizkio sektore txikiago horiek. Ondoz ondoko hirugarren urtez, neurketa ekonomikoaren aldakuntzak oso txikiak izan ziren: 2019an % 0,8; 2020an, pandemiaren zero urtean, -% 0,1; eta, 2021ean, +% 0,9. 620,2 milioi euroko zifrara iritsi zen 2021ean, gehieneko historikora.


Nafarroan, 2021eko ekitaldian, nekazaritza-sektoreetako prezioek urte arteko % 9,1eko hazkundea izan zuten, honela banatuta: +% 13,9 nekazaritzako produktuetan, % 1,1eko hazkundea animalia-produktuetan eta % 9koa basogintzako produktuetan. Estaturako dagoeneko eman ditugun datuak gogoratu, eremu horretan % 7,6, % 11,6 eta % 2ko aldakuntzak izan zituzten atal orokorrak, landareen adarrak eta animalien adarrak. Hortaz, Nafarroako Gobernuak emandako datuen antzekoak izan ziren.

Alderaketa horretan oinarrituta, segida bat eraiki daiteke atxikitako grafikoan. 100 balio gisa 2015. urtea hartuta, agerikoa da azken bost urteetan landareen adarrak prezioen hazkunde handiagoa izan duela Nafarroako merkatuetan, Estaturako kalkulatuak batezbestekoan baino. Hori are nabarmenagoa izan zen 2021ean, landareen adarrak hazkunde handia izan baitzuen, ezohikoa.

Emaitzak kategoriaren arabera aztertuta, ikus daiteke zerealek eta industria-laboreek izandako garestitzeak antzekoak izan zirela Nafarroan eta Estatuan (heren baten ingurukoak eta ezohikoak, argi eta garbi). Nafarroan apur bat igo zen bazken balioa, eta Estatuan apur bat merkatu ziren; barazkiekin, aldiz, kontrakoa gertatu zen. Alderik nagusiena ardogintzan izan zen; Estatuan % 16 garestitu zen eta, Nafarroan, % 28,4.

26. grafikoa Nekazaritzako ekoizleek jasotako prezioen indizeak

(Indizea 2015=100)



Iturria: Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Prezioen bilakaera nahiko antzekoa izatea normala da, prezioak monitorizatzen diren merkatu batzuei eta besteei eragiten dieten joerak, neurri handi batean, globalak eta komunak direlako, tokiko faktore puntualak alde batera utzita.

Orokorrean, Nafarroako kategorien balio ekonomikoaren egitura Espainiakoen nahiko antzekoa da, aurreko urteetako datuak kontuan hartuta. Esan bezala, 2021eko datuak denbora-tarte luze baten ondoren eskainiko dira. Estatuarekin alderatuta, Nafarroan pisu apur bat handiagoa du abeltzaintzak, nekazaritzak baino. Eta, abeltzaintzaren barruan, Nafarroan garrantzi handixeagoa du esneak, eta txikiagoa txerrikiak. Dena den, alderik handienak landare-ekoizpenaren egituran ikus daitezke; Espainian pisu erlatibo askoz ere handiagoa du frutak, eta txikiagoa zerealek eta bazkek. Gainera, Nafarroan badago oliba-ekoizpena, baina Espainian baino askoz ere neurri txikiagoan.

Nafarroan, BEGaren eta kategorien arabera prezioen adierazleen kasuan, hazkunde-erritmo apala baina egonkorra gailendu zen. 2021ean ohiko mailara itzuli zen erkidegoko ekonomiaren guztizko BEGaren gaineko pisua (% 2,8). Izan ere, 2020an, gainerako sektoreek baino hobeto eutsi zion Covid-19aren kolpearri. Izan ziren salbuespen batzuk, hala nola animalien kategoriako prezioak, ozta-ozta lortu baitzuten ekonomiako prezioen ohiko erritmoan haztea. Aipatzekoa da industria-laboreen kategoria ere. Azken bosturtekoan jaitsi egin zen haren balioa eta 2021ean indarrez berreskuratu zituen prezioak, eskuragarri zegoen eskaintza murriztuta.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorean 2021. ekitaldia monitorizatzeko eskura dauden beste adierazle batzuk Nafarroako sektoreek Estatutik kanpo egindako esportazioak eta inportazioak dira; kasu honetan, barne hartzen da nekazaritzako elikagaien industria.

Azken urteetan etengabe hazten ari ziren esportazioak, batez ere, landareenak, baina prozesatu industrialena ere bai; eta, neurri txikiagoan, animalia-produktuena. Joera horrek jarraitu egin zuen 2021ean, elikagaien industriaren atalean izan ezik –bolumen ekonomikoari dagokionez, Nafarroako hiru atalen artean gehien esportatzen duena–; atal horretan behera egin zuten esportazioek.

Inportazioen kasuan, azken ekitaldietan eta, bereziki, 2020an, eten egin zen goranzko joera orokorra. 2021ean berriro ere behera egin zuen, animalia-ekoizpenaren kasuan izan ezik. Eremu honetan, industriaren eta landareen azpisektorean inportazioek askoz baxuagoak izaten jarraitu zuten esportazioek baino –hortaz, superabita zuen balantzak–. Abeltzaintzaren azpisektorean, berriz, azken hiru urte hauetan bakarrik lortu dute saldo positiboa izatea.

Dena den, Nafarroan, hiru azpisektoreen joera orokorra ez zen asko apurtu. Merkataritza-bolumenak hazi egin ziren, esportazioak azkarrago hazi ziren eta balantza hobetu egin zen, beherakada zehatz eta puntual batzuk izan arren. Nekazaritzako elikagaien sektoreak kanpo-merkataritzan zuen pisua askoz ere handiagoa izan zen sektore horrek ekonomiaren guztizkoaren gainean zuen bolumen ekonomikoaren pisua baino.

121. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa

(M euro)

Muga-zerga atala	Esportazioak		Inportazioak	
	2020	2021	2020	2021
Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak	203,8	251,9	141,4	166,7
Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak	520,7	557,0	260,5	197,9
Elikagaien industrietako produktuak	631,3	583,6	226,4	221,4
Nekazaritzako elikagaien sektorea	1.355,8	1.392,5	628,3	586,0
Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio-inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren %	15,4	14,7	13,6	10,3

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta.

Biztanleria okupatua

Azkenik, enplegu-datuei erreparatzea da Nafarroako landa-eremuko eta mendiko lehen sektoreko errealitate orokorrera hurbiltzeko beste modu bat. Kasu honetan hiru hileko datuak aztertuko ditugu, Biztanleria Aktiboaren Inkestak ematen dituenak. Atxikitako taulan urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoko datuak bakarrik ageri dira, Foru Erkidegokoak eta Estatu osokoak.

BAIk emandako Espainiako eta Nafarroako datuak guztiz bat datoz azken urteetako joerarekin. Ikusten den joera orokorra indartsua eta egonkorra da, nahiz eta nekazaritzako eta abeltzaintzako lan asko teknifikatu diren. Dena den, azken bi hamarkadetako bilakaerari begiratuta, Nafarroako joera orokorra beheranzkoa dela ikus daiteke, baina ez oso azkarra. Espainian, berriz, bilakaera askoz ere lauagoa edo egonkorragoa da, bereziki, 2008ko krisialdiaren baitan izandako beherakadaz geroztik. Sektorean pisu handia dute aldi baterako enpleguek, eta horrek eragiten du erresistentzia hori, baita ikus daitezkeen gorabehera nabarmenak ere. Badira urte osoan eta epe luzean nekazaritzako jardueretan lan egiten duten langileak, baina beste asko kanpaina zehatzetarako kontratatzen dituzte, esaterako, mahastietako uzta-garairako. Gainera, gaur egun, langile asko prest daude haien diru-sarrerak lan mota hauekin osatzeko, lan finkorik ez badute. Gaur egun ohikoagoa da hori, lehen baino; izan ere, gaur egun jende gehiagok du aldi baterako mugitzeko gaitasuna.

Kontratu mota horien pisuak ekainaren amaiera (erreferentzia gisa hartzen den epea) baino lehen edo ondoren izan dezake eragina, eta urtetik urtera ere asko alda daiteke. Izan ere, uztaldi horiek urteko hilabete batzuetan edo besteetan egon daitezke zentratuta, laborearen bilakaera biologikoa atzeratu egin daitekeelako, edo ez, hainbat faktoreren arabera, esaterako, faktore meteorologikoen arabera. Gainera, uztaldiek gehiago edo gutxiago iraun dezakete eskuratutako produktu kopuruaren arabera, edo beste faktore batzuen arabera. Adibidez, pandemiaren harira, labore batzuen kasuan bilketa-prozesua luzatzen saiatu ziren, lan horiek egiten zituzten pertsonak denboran zehar gehiago banatu ahal izateko.

122. koadroa Enplegua lehen sektorean*

(m pertsona)

Urtea	Nafarroa	Espainia
2012	8,6	722,3
2013	15,5	753,1
2014	13,4	739,3
2015	9,4	740,4
2016	9,8	760,2
2017	10,1	832,6
2018	14,2	822,5
2019	12,5	809,3
2020	9,6	763,4
2021	9,4	811,1

(): Ekaineko datuak aurkeztu dira, uste baita adierazgarriagoak direla sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan.*

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.

2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA

Nafarroako nekazaritza-sektoreak ospe onari eutsi zion, funtsean, Erriberako barazkiei esker. 2021eko laboreen datuen artean, nabarmendu beharreko albiste nagusia Nafarroan hain apartekoa den kategoria horren indarra da. Etengabe hobetzen eta etekinak teknifikatzen ari da, eta gehieneko historikoak eskuratu zituen.

Nafarroako iparraldean eta mendialdean bazka nabarmendu daiteke, abeltzaintza-jardueri lotua. Orokorrean, nekazaritako jarduerak baino arazo handiagoak eta bilakaera okerragoa izaten dute abeltzaintzako jarduerak. Bazka bigarren mailako garrantzia duen laborea da eta, epe luzean, ez da hazkunderik ikusten. Dena den, nolabaiteko egonkortasuna du.

Behin mendiak, baso eremuak eta belardiak atzean utzita, erdialdeko eremua zerealen kategoriarekin lotu dezakegu. Kategoria hori ere oso masiboa da, eremu lehorrei eta Nafarroako ibaiek oraindik ere gehieneko emaria eskuratu ez duten eremuei lotua; leku hauetan mugatuagoa da ureztatzeko aukera. Hala ere, zerealen kategoriak jarraitu zuen garrantzi kuantitatibo handiena izaten; ekonomiari dagokionez, nazioarteko egoeraren mende dago. Hemen, 2021eko datuak argitzen dituen beste ezaugarri bat aipatu behar da. Izan ere, prezioek gorakada nahiko ezohikoa izan zuten, oraindik ere 2022an hasitako krisi geopolitiko eta ekonomiko berriaren inpaktua jaso aurretik.

2020ko emaitza garbian ez zen ikusten pandemiak azpisektore horren gainean egindako ageriko kalterik, eta 2021ean egonkortasuna gailendu zen. Kasu askotan, aurreko urteetako joeren jarraikortasun oso zuzena erakusten dute adierazleek. Beste kasu askotan, urte arteko gorabeherak konpentsatu egiten dira tarte nahiko egonkor baten barruan; azken hamarkadako zifrekin bat dator tarte hori. Esan bezala, egonkortasunaren barruan, sektorea indartsu dagoela erakusten duten ikurrak gailentzen dira. Jaitsierak daudenean, egoeraren baitakoak dira –eta gero suspertu egiten dira– edo denboraldi bakoitzeko erabaki taktikoei erantzuten dietela susma daiteke, eskariaren, prezioen eta errentagarritasunaren arabera zer komeni den aintzat hartuta.

Aipatu ditugun adibideen gisakoek bakarrik erakusten dituzte egiturazko joera sakonak. Beste kasu batzuetan, produktu batzuek kategoria bereko beste produktu batzuk ordezkatzeko dituzte –ondorioz, lursail berean laboreak txandakatzen dituzte, horrekin lotuta– eta horiek ere epe ertaineko gorabeherak izan ditzakete elikagaien industriaren merkatu-estrategietan.

Azken 4 ekitaldietako joera honakoa izan zen, orokorrean: denboraldi batean balantze negatiboa eta, hurrengoan, susperraldia. Aitzitik, 2021a 2020aren antzekoa izan zen, eta ez zen konpentsatzailea izan. Egoera egonkortzera itzuli zen, eta igoera txikiak gailendu ziren. Nekazaritzako ekoizpena oinarritzakoa da eta, Nafarroan, kontsumitzailearengandik gertu dago. Horrek eragin positiboa izan zuen pandemiaren zero urtean eta bigarren urtean, 2021ean. Beste sektore batzuek, aldiz, egonkortasunera itzuli behar izan zuten 2021ean, oraindik ere Covid-19aren murrizketen inpaktuei aurre egiten ari ziren artean. Horrek agerian uzten du, berriz ere, nekazaritza zutabe indartsua eta segurua izan dela Foru Erkidegoan.

2.1. EKOIZPENAK ETA AZALERAK

Foru Erkidegoko 10.391 kilometro koadrotik 2.899 laborez estalita daude, hau da, % 27,9. Aldiz, lurraldearen erdiak, gutxi gorabehera, arboladi naturala du. Landatutako lursailaren % 64,3 lehorrekoa da (zerealak, bazka eta olibadiaren zati handiena), eta % 35,7 ureztatua (barazkiak...). Labore belarkarek (zerealak, barazkiak, bazka...) espazioaren % 89,6 hartzen dute eta, labore zurkarek, gainerakoa, % 10,4 (mahastiak, olibadiak eta fruta-arbolak). Ehuneko horiek oso egonkorrak izan dira azken hamarkadan, eta ureztatutako laboreek pare bat puntuko hazkundea baino ez dute izan. Nafarroan oso definituta eta egonkortuta daude nekazaritza eremuak. Horiek ongi kudeatzeak aukera ematen du urtetik urtera etekinak mantentzeko eta hobetzeko, azalera berriak luberritu beharrik gabe.

123. koadroa Lur landuen erabilera

(m Ha)

Kontzeptua	2020			2021			% Δ 21/20		
	Lehorrekoa	Ureztatua	Guztira	Lehorrekoa	Ureztatua	Guztira	Lehorrekoa	Ureztatua	Guztira
Labore belarkarak	170,4	85,2	255,6	174,0	85,7	259,7	2,1	0,6	1,6
Labore zurkarak	12,7	18,1	30,8	12,3	17,9	30,2	-3,1	-1,1	-1,9
Laboreak guztira	183,1	103,3	286,4	186,3	103,6	289,9	1,7	0,3	1,2

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua. Kategoria bakoitzeko guztizkoetan ez daude sartuta laborantza txikiak.


Baratzea, tradizioz, garrantzitsua eta anitza da Nafarroan. Hori dela eta, zehaztasun handiz monitorizatu izan dituzte laboreen bilakaerak, eta produktuen panela oso egonkorra da. Ez da oso sakona, baina ekoizpen handi guztiak hartzen ditu barne, hortaz, kategorien arabera multzoak oso esanguratsuak dira. Gainera, erabilitako hektareen eta lortutako tonajearen etengabeko neurketak aukera ematen du etekinen hobekuntza neurtzeko.

Laboreen kategoriaren arabera, lursailaren banaketak (ehunekoetan) oso egonkorra izaten jarraitu zuen, salbuespen nabarmen batekin: landareek igoera handia izan zuten; 2013az geroztik, guztikoaren % 6 ingurutik % 8a gainditzera pasatu dira landareak. Katetoria bakoitzeko produktu nagusien multzoa kontuan hartuta, zerealek hartu zuten lursail osoaren % 65,6. Oso urrun kokatu ziren bazka (% 9,9), barazkiak (% 8,4), mahastia (% 5,8), industria-laboreak (% 4,1), olibadia (% 2,6), fruta-arbolak (% 2), lekaledunak (% 1,5) eta tuberkuluak (% 0,1).

Aipatzekoa da 2021ean eten egin zela bazka-laboreen hektarea kopuruaren goranzko joera, -% 4,4 egin baitzuen behera. Aurkakoa gertatu zen lekaledunen kasuan, % 13,7 egin baitzuten gora; 2016az geroztiko lehen gorakada izan zen. Landare lekaledun batzuk bazka gisa erabiltzen dira, eta azken katetoria horretan kokatzen dira. Baina, 2021ean, bazka-erabileratik giza-kontsumora pasatu zen ehuneko bat, eta baliteke horrek azaltzea zergatik izan ziren bi ezohiko joera-aldaketa horiek aldi berean.

Zerealen kasuan ere, hainbat urtetako beheranzko joera eten zen, hektarea kopuruari dagokionez, baina nahiko tarte egonkorraren barruan; gauza bera gertatu zen gainerako katetoriekin. Barazkien gainazala etengabe ari da hazten. Horrez gain, industria-laboreen kasuan ere gora egiten ari da gainazala, baina hazkundera irregularragoa da, eta ekitaldi batzuetan jaitsierak izan ditu. Olibadian ere ikus daiteke hazkundera; kasu honetan, igoera jarraitua da, baina erritmo apalagokoa. Izan ere, olibondoak zurkarak dira eta, hortaz, hazkunde motelagoa dute.

27. grafikoa Ehunekoaren arabera banaketa nekazaritzako ekoizpen nagusietan, 2021



Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletin. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Katetoria bakoitzeko guztizkoetan ez daude sartuta laborantza txikiak.

Zerealek guztizko azaleraren bi heren inguru hartu ohi dituzte, baina, tona kopuruari dagokionez, bazkaren mailan egon ohi dira; Nafarroan ekoiztutako guztizko pisuaren heren bat baino apur bat gehiago dagokio bi multzoetako bakoitzari. Sarri, kanpaina berean, lursaila kategoriatan baterako erabili beharrean beste baterako erabili izanaren zantzuak izaten dira, elkar ordezkaturik; baina 2021ean bien tona kopuruak egin zuen behera, oso ehuneko antzekoan (-% 5,5 eta -% 5,6, hurrenez hurren). Ez ziren bakarrak izan. Izan ere, jaitsiera handiak izan ziren honako hauen kasuan: mahastia (-% 13,2), olibadia (-% 27,7) eta industria-laboreak (-% 14,7). Honakoek, berriz, gora egin zuten: barazkiak (% 1,5), tuberkuluak (% 20,6), lekaledunak (% 14,4) eta fruta-arbolak (% 8,2).

Ekoizpen osoari dagokionez, tona kopurua -% 4,7 murriztu zen 2021ean, nahiz eta azalera % 1,1 handitu. Tona kopuruari dagokionez, hektarea kopuruari dagokionez zuten garrantzi bikoitza eskuratu zuten barazkiek, eta % 19,7ra iritsi ziren; hori logikoa da barazkien ezaugarriak aintzat hartuta.

Tona kopuruarekin lotuta, hamarkada osoko ikuspegiak erakusten duenez, kategoriatan horretako jauzia izan zen esanguratsua; izan ere, ondorengo ondoko 5 urtez hazi zen eta 2013an (urte horretan beheraldia izan zuen) baino % 44,7 gorago kokatu zen. Bestalde, zerealak 2016an (aurreko gehieneko esanguratsua) baino % 10 beherago kokatu ziren, eta bazka-laboreek antzeko egoera zuten. Lekaledunak apur bat suspertu ziren, baina 2016an eskuratutako gehienekoa baino % 56 beherago kokatu ziren. Azalera gora egin arren, industria-laboreen etekinak behera egin zuen kategoriatan gisa. Izan ere, 2012az geroztiko tona kopuru baxuena eskuratu zuten, 2017ko gehieneko kopuruaren erdia baino apur bat gehiago. Fruta-arbolak suspertu egin ziren, baina hamarkadako urte positiboena (2014) baino % 43 beherago jarraitu zuten. Olibadiaren eta mahastiaren atzerakadak handiak izan ziren, baina kategoriatan horien gorabeheren tarte normalaren barruan kokatu ziren. Zurkaren barruan, badirudi epe luzean mahastia egonkorragoa dela, nahiz eta gorabehera horiek izan. Olibadiaren kasuan, epe luzean goranzko joera ikusten da eta, fruta-arbolaren kasuan, beheranzkoa. Tuberkuluen kanpaina, bestalde, 2017az geroztiko onena izan zen tona kopuruari erreparatuta.

Hamarkadan zehar, bazka-laboreen hektarea bakoitzeko etekinak modu argian joan ziren erortzen. 2021ean, lehen aldiz, tuberkuluak gaineratik kokatu ziren, lursail-unitate bakoitzeko masa handieneko kategoriatan gisa, ratio horretan ia etengabeko hazkundera baitute. Gainerako bilakaerak askoz ere egonkorragoak izan ziren edo nahiko tarte egonkor baten barruan mugitu ziren, baina hoberanzko bilakaera igarri zen zerealen kasuan, eta pixkanakako okertzea fruta-arbolatan.

124. koadroa Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak

(Tm)

Kontzeptua	2020	2021	% Δ 21/20
Zerealak	1.009.161	953.164	-5,5
Lekaleak	7.094	8.117	14,4
Tuberkuluak (patatak)	10.723	12.932	20,6
Industria-laboreak	39.496	33.688	-14,7
Bazka-laboreak	1.022.126	964.752	-5,6
Barazkiak	518.481	526.337	1,5
Labore zurkarak	190.053	167.896	-11,7
– Fruta-arbolak	35.620	38.542	8,2
– Mahastiak	121.766	105.721	-13,2
– Olibadia, olioak	32.667	23.633	-27,7
Guztira	2.797.134	2.666.886	-4,7

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua *Kategoria bakoitzeko guztizkoetan ez daude sartuta laborantza txikiak.*

Kategoria bakoitzaren barruko produktuen azterketari dagokionez, zerealen kasuan nabarmendu beharrekoa da gariak garagarra gainditu eta ordezkatu zuela argi eta garbi, proportzio handian, hamarkadan lehen aldiz. Hala, bi urtez ia emaitza berdinak eskuratu ondoren, lekua kendu zion gariak. Bi produktuen artean, zerealen azalera osoaren % 82,5 batu zuten, eta tona kopuruaren % 71,9. Gariaren tona kopuruak, 3 urtez gorakada txikiak izan ondoren, apur bat behera egin zuen. Garagarraren tona kopuruak, berriz, gutxieneko zifra eskuratu zuen, hamarkada osoko joera orokorretik oso behera, -% 19,8 murriztu baitzen. Oso ezberdina da gariaren eta artoaren bilakaera, horiek 4 urte baitaramatzate goranzko joera progresibo eta linealarekin. Tonaje txikiagoko zerealak egonkorrago mantendu ziren.

125. koadroa Zereal-aleen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2020		2021		% Δ 21/20	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Garia	77.454	418.233	87.572	416.868	13,1	-0,3
Garagarra	77.718	334.378	69.193	268.105	-11,0	-19,8
Oloa	10.977	49.569	11.853	51.781	8,0	4,5
Arroza	1.924	12.994	1.860	12.563	-3,3	-3,3
Artoa	16.106	183.380	16.655	198.103	3,4	8,0
Zekalea	33	99	60	118	81,8	19,2
Tritikalea	3.244	10.508	2.909	5.626	-10,3	-46,5

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Lekaledunen artean, 2021eko berritasun nagusia zera izan zen, handitu egin zela baba lehorraren azalera. Ilar lehorraren beheranzko erritmoa, berriz, apaldu egin zen. Tona kopuruari dagokionez, ilar lehorrak gora egin zuen; 2016az geroztiko lehen gorakada izan zen. Tona kopuru aintzat hartuta, biek egin zuten apur bat gora ekitaldi horretan, baita hirugarren garrantzitsuenak ere, hau da, zalkeak.

Lagineko bi lekale nagusiak maila normalean kokatu ziren, hamarkadaren erdialdean ezohiko igoerak izan ondoren; gero, azkar egonkortu ziren.

126. koadroa Lekaleen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2020		2021		% Δ 21/20	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Babarrun lehorra	94	200	99	196	5,3	-2,0
Baba lehorra	1.499	4.098	2.135	4.406	42,4	7,5
llar lehorra	1.757	2.347	1.467	2.849	-16,5	21,4
Zalkea	434	449	601	666	38,5	48,3

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Tuberkuluen kasuan, sasoi erdiko barietate nagusia nabarmendu zen, berantiarrekin alderatuta. Hain zuzen ere, 2021eko tona kopuruaren gorakada nabarmena lehenengoan erregistratu zen oso osorik, patata berantiarrek behera egin baitzuen.

127. koadroa Tuberkuluen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2020		2021		% Δ 21/20	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Sasoi erdiko patata	174	7.087	208	9.582	19,5	35,2
Patata berantiarra eta hazitarakoa	166	3.636	160	3.350	-3,6	-7,9
Patata (guztira)	340	10.723	368	12.932	8,2	20,6

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Industria-laboreen artean, kategorien arabera banaketa honek erakusten du zergatik izan ziren ezberdinak azalaren eta tonajearen aldakuntzak. Katetoria honek barne hartzen ditu, batetik, hektareako masa handia duen labore bat, hau da, azukre-erremolatxa; eta, bestetik, olio egiteko erabiltzen diren bi labore, ekilorea eta koltza. Erremolatxaren azalera 2012az geroztiko baxuena izan zen, -% 60,8 egin baitzuen behera 2021ean. Koltzaren azalera gehieneko zifrara iritsi zen berriro ere, urte arteko % 18,5eko igoera izan ondoren; hala, aurreko gehienekoa gainditu zuen, 2015ekoa, eta hamarkada bat atzerago hartzen zituen hektareak laukoiztu zituen. Tona kopuruari dagokionez, ia berdindu egin zuen 2014ko gehienekoa. Erremolatxak, berriz, tonajearen adierazlean ere, 2012az geroztiko ekoizpenik txarrena izan zuen; 2017ko gehienekoaren % 15,7 baino ez zuen eskuratu. Ekilorearen azalera egonkorragoa da epearen barruan, baina 2016az geroztiko daturik okerrera eskuratu zuen masari dagokionez.

128. koadroa Industria-laboreen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2020		2021		% Δ 21/20	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Azukre-erremolatxa	199	14.213	78	6.922	-60,8	-51,3
Ekilorea	4.381	7.245	4.416	7.036	0,8	-8,9
Koltza	6.242	17.560	7.396	19.730	18,5	12,4

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Bazka-laboreen kasuan datuek jarraikortasuna erakutsi zuten, baina alpapak beherakada nabarmena izan zuen; hori izan zen salbuespen bakarra. Azalaren jaitsiera orain bizkortu da, baina tona kopuruaren murrizketa nabaria zen aurreko urteetan ere. Urteko beste datu berri bat zera izan zen, bazka-zalkearen gorakada gelditu egin zela, hektarea zein tona kopuruari dagokienez.

129. koadroa Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2020		2021		% Δ 21/20	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Bazka-artoa	4.599	179.694	4.520	193.940	-1,7	7,9
Ray-Grass	5.177	185.265	5.136	180.617	-0,8	-2,5
Alpapa	5.883	247.165	4.922	192.591	-16,3	-22,1
Bazka-zalkea	6.882	122.165	6.567	116.630	-4,6	-4,5
Bazka-ilarra	746	12.030	894	15.202	19,8	26,4
Aldi baterako belardia	6.832	275.807	6.759	265.772	-1,1	-3,6

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Ospe eta hazkunde handieneko kategoriaren kasuan, hau da, barazkien kategoriaren kasuan, esan bezala, gehieneko historikoak erregistratu ziren hedaturari eta ekoitzitako masari dagokienez, nahiz eta produktu nagusietako bik pisua galdu zuten 2021ean, hau da, brokoliak eta azaloreak; horiek izan ziren tona gehien galdu zituztenak. Arto gozoak, tona kopuruari dagokionez hirugarren barazkiak, gainditu egin zuen azalorea. Eta hazkunde gordin handienak arto gozoarenak eta piperrarenak izan ziren; azken horrek bat-bateko gorakada izan zuen.

Ehunekotan, dena den, baratzearen heren bat baino gehiago tomateari zegokion (% 34,2). Oso urrun kokatu zen brokolia, hark behera egin baitzuen bosgarren urtez jarraian (% 11,3ko pisua). Arto gozoak (% 7,6), esan bezala, azalorea gainditu zuen eta bat-batean eten egin zuen azken horren gorakada (% 6,7ko kuota kategorian). Gertu sailkatu ziren piperra (% 6); tipula (% 5,9) goranzko joera argia indartu egin baitzuen; eta ilar berdea (% 5,5), gehieneko historiko berri batera iritsi baitzen, artoa eta tipula bezala. Urrunago kokatu bazen ere, badirudi berriz ere gora egin zuela espinakak; barazkien guztizko tona kopuruaren % 3,6 zegokion. Gainerako produktuei dagokienez, kuiaren igoera aipatu behar da; alberjiniaren kasuan, berriz, areagotu egin zen garrantziaren gutxitzea.

Azalerari erreparatuta, izan ziren beste berritasun deigarri batzuk ere. Esaterako, brokoliak hedadura handiagoa lortu zuen, nahiz eta hori ez zen tona kopuruan igarri. Zainzuriak azalera galdu zuen, 2014az geroztik lehen aldiz, baina horrek ez zuen tona kopuruaren jaitsiera nabarmenik eragin. Eta, gora egin zutela aipatu ditugun barazkien artean, nabarmentzekoa da asko hazi zirela arto gozoa eta ilar berdea landatzeko erabilitako hedadurak.

Azalerei dagokienez, hortaz, brokoliak jarraitu zuen nabarmentzen, gutzitakoaren % 21,9arekin. Ilar berdea izan zen hurrengoa, eta % 14,5era iritsi zen. Tomatea hirugarren geratu zen adierazle honetan, % 9,5arekin, tomate-landarea gorantz hazten delako. Eta hauek izan ziren hurrengoak: arto gozoa (% 7,9), azalorea (% 7,3), zainzuria (% 7,6), baba berdea (% 6,9), leka (% 4,6), orburua (% 3,9), piperra (% 3,6) eta espinaka (% 3,6).

Tona kopuruaren urte arteko aldakuntzak (ehunekotan) laburtuz, deigarriak dira beste labore txikiago batzuen jaitsiera handiak. Hauek izan ziren handienak: kalonjeak (-% 72,8), azak (-% 60,3), alberjina (-% 45,8), kuiatxoa (-% 29,6), aipatutako azalorearen jaitsiera (-% 29,1), borraja (-% 25), orburua (-% 17,2), brokolia (-% 17), leka (-% 16,7) eta errukula (-% 16); 2021ean ez zen bi digituko jaitsiera gehiago izan. Igoerei dagokienez, aldiz, hauek izan ziren deigarrienak: piperra (% 48,5), ilar berdea (% 34,5), arto gozoa (% 33,9), kuia (% 24,3), tipula (% 23,9) eta espinaka (% 21,8); letxugak (% 21,3) eta endibia (% 10,7) ere bi digituko igoyerak izan zituzten.

130. koadroa Barazkien azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2020		2021		% Δ 21/20	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Azak	179	4.438	113	1.760	-36,9	-60,3
Zainzuria	2.020	7.995	1.839	7.289	-9,0	-8,8
Letxuga	409	9.829	505	11.922	23,5	21,3
Eskarola	127	3.857	112	3.551	-11,8	-7,9
Espinaka	809	15.342	878	18.686	8,5	21,8
Zerba	185	5.668	131	4.733	-29,2	-16,5
Kalonjeak	194	1.050	69	286	-64,4	-72,8
Errukula	136	1.196	133	1.005	-2,2	-16,0
Kardua	236	9.723	224	9.688	-5,1	-0,4
Borraja	36	1.950	32	1.462	-11,1	-25,0
Endibia	52	1.414	58	1.566	11,5	10,7
Kuia	195	8.199	256	10.189	31,3	24,3
Kuiatxoa	145	10.250	116	7.214	-20,0	-29,6
Alberjina	83	4.202	52	2.279	-37,3	-45,8
Tomatea	2.117	171.134	2.291	180.253	8,2	5,3
Piperra	823	21.109	869	31.355	5,6	48,5
Orburua	1.279	15.216	938	12.597	-26,7	-17,2
Azalorea	2.071	49.752	1.756	35.296	-15,2	-29,1
Brokolia	4.878	71.794	5.268	59.581	8,0	-17,0
Tipula	364	25.062	380	31.046	4,4	23,9
Leka	1.012	13.790	1.108	11.481	9,5	-16,7
Ilar berdea	2.791	21.619	3.507	29.073	25,7	34,5
Baba berdea	1.740	14.038	1.676	14.062	-3,7	0,2
Arto gozoa	1.357	29.854	1.903	39.963	40,2	33,9

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Azkenik, labore zurkaren, fruta-arbolen, mahastien eta olibadien kategorian, aurreko urteko aldakuntzak konpentsatu ziren. Zifrak bat etorri ziren aurreko hamarkadako dinamikarekin, nahiz eta olibadien eta fruta-arbolen kasuan dinamika horren konpentsazio erlatiboak izan. Olibadien kasuan, 2021eko erorketa handia ez zen oztopoa izan, olibadiaren tona kopurua progresiboki hazten ari zen testuinguru batean; izan ere, ohiko moduan, aurreko urteko igoera handia konpentsatu zuen. Gauza bera gertatu zen mahastien kasuan, nahiz eta kasu honetan ez zegoen epe luzeko joera argirik, gorabehera handien ondorioz. Bestalde, fruta-arbolen kasuan, 2017az geroztiko lehen hazkunde txikia gertatu zen.

Fruten arloan, sagarrak eta udareak 2019ko mailaren antzekoa eskuratu zuten, 2020an behea jo ondoren. Sagarren kasuan, lehen aldiz egin zuten gora 2016az geroztik; eta, udareen kasuan, 2017az geroztik. Dena den, aipatzekoa da 7 urtetan sagarra 17.600 tona ingurutik 11.200 tonara pasatu dela. Madaria 15.000 tona pasatxoan kokatu zen; 8 urte lehenago, berriz, 25.000 tonara gerturatu zen. Eta mertxikaren jaitsiera izan da bortitzena: duela hamarkada bat jasotzen zen urteko tona kopuruaren herena baino gutxiago jasotzen da orain. Udarearen eta sagarraren hazkundera urteko ekoizpen handiaren ondorioa izan zen; izan ere, labore horietarako erabilitako azalera gutxitzen joan da pixkanaka. Deigarria da ekoizpen txikiak hobeto eutsi ziotela bildutako pisuari dagokionez, ziur asko, penintsulako beste eremu batzuetako ekoizpen masiboen konpetentzia handiak gutxiago eragin zuelako. Dena den, azalerari dagokionez, elorri beltza eta intxaurrondoa izan ziren behera egin ez zuten bakarrak.

Mahastien kasuan, Nafarroa jatorri-izendapeneko mahastien azaleraren gutxitzea indartu egin zen –baina apur bat–. Gainera, 2021ean, Errioxako jatorri-izendapenak ere behera egin zuen pixka bat, Nafarroakoak ez bezala goranzko joera luzea izan ondoren. Tona kopuruari dagokionez, Nafarroako jatorri-izendapenak gorabehera gehiago izan ditu eta beheranzko joera handiagoa izan du. Aldiz, Errioxako jatorri-izendapena egonkorragoa da, baina 2021ean jaitsi egin zen ekoitzitako hektolitro kopurua.

Bestetik, olioak gorabehera apalak izan ditu. Izan ere, epe luzean, olibadien hedaduraren hektarea kopurua hazten eta hazten joan da. 2011ko eta 2021eko zifrak alderatuta, hamarkada batean % 35,8ko hazkundera izan dute olibadiak.

131. koadroa Labore zirkaren azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2020		2021		% Δ 21/20	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Sagarrondoa	428	8.743	397	11.233	-7,2	28,5
Udareondoa	919	12.866	783	15.181	-14,8	18,0
Gereziondoa	278	1.132	257	1.039	-7,6	-8,2
Mertxikondoa / nekt.	403	7.844	334	6.193	-17,1	-21,0
Aranondoa	70	761	55	450	-21,4	-40,9
Elorri beltza	83	240	96	528	15,7	120,0
Almendrondoa	3.716	3.664	3.564	3.536	-4,1	-3,5
Intxaurrondoa	262	370	272	382	3,8	3,2
Errioxa jatorri-izendapeneko mahastia	7.135	46.781	7.058	45.568	-1,1	-2,6
Nafarroa jatorri-izendapeneko mahastia	10.097	74.567	9.671	59.735	-4,2	-19,9
Olio-olibadia	7.282	32.667	7.505	23.633	3,1	-27,7

Oharra: Ez dira sartu zuhaitz sakabanatuak.

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

2.2. NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA

Noizean behin hainbat produkturen hedadura- eta ekoizpen-datuak ematen dituen nekazaritzako egoeraren gaineko estatistika berak, Nafarroako nekazaritzako ekoizleek kilogramo edo hektolitro bakoitzeko jasotzen dituzten prezioen estimazioak ere ematen ditu. Horiek, landatutako masaren datuekin elkartuta, azpisektoreak jasotako bolumen ekonomikoak kalkulatzeko aukera ematen dute.

Berritasun garrantzitsuena zera izan zen, lagineko 3 zerealek gora egin zutelara. Gorakada hori oso ezohikoa izan zen, hamarkada osoan oso nabarmena izan baita prezioen egonkortasuna. Urte amaierako prezioak alderatuta, garia % 27,5 garestitu zen, garagarra % 37,9 -bolumenak behera egin zuen- eta artoa % 31. Ondorioz, ekoiztako gariaren balio estimatua % 26,5 handitu zen, garagarrarena % 9,5 -aipatu moduan tona kopuruak behera egin zuelako- eta artoaren kasuan % 36,6 igo ziren diru-sarrerak. Dena den, epe luzeko bilakaerak oso ezberdinak izan dira. Garagarraren kasuan, 2021eko balioa oso egonkor mantendu zen hamarkadan zehar. Artoaren balioa, berriz, suspertu egin da, bereziki, 2021eko igoeraren ondorioz, hamarkadaren erdialdean beheranzko joera izan ondoren. Eta, gariaren kasuan, goranzko joera izan du hamarkadan, gorabeherekin, eta 2021ean asko igo zen.

Patataren kasuan, garestitze progresiboa zen joera eta lerro beretik jarraitu zuen, baina balioaren igoera askoz ere apalagoa izan zen. Laginak barne hartzen dituen barazkien artean, letxugak eta orburuak bakarrik izan zituzten bi digituko portzentajezko igoerak. Eta jaitsierak izan zituzten produktu bakarrak, nahiz eta jaitsiera apalak izan, garrantzi ekonomiko handiko bi produktu izan ziren: tomatea (gehien ekoizten den barazkia) eta piperra (balio handia du pisuari dagokionez).

Hala, kasu honetan ilar berdea bakarrik nabarmendu zen, balioaren igoera handiarekin (% 35,2), eta letxugen igoera eta orburuen jaitsiera bakarrik iritsi ziren bi digitutara.

Salbuespenak dira tomatearen eta ilar berdearen prezioak, oso egonkortuta daudelako. Barazkien laginako gainerako prezio gehienek, epe luzean, goranzko joera dute, baina urte arteko gorabehera handiekin. Gauza bera gertatzen da ardo beltzarekin eta gorriarekin ere; 2021ean % 46,8 eta % 12,9 garestitu ziren, hurrenez hurren.

Fruta-arbolen kasuan, apur bat merkatu ziren mahaiko sagarra eta udarea -2021ean ekoizpena berreskuratu zuten, hainbat urtez behera egin ondoren, hortaz, eskaintza hazi zen-. Horrekin lotuta, berriro igo zen mertxikaren prezioa (% 25,6ko hazkundea), tona kopuruak atzera egiten jarraitu zuen bitartean. Hortaz, 3 produktu horien balioak % 11,6, % 23,1 eta % 9,5 hazi ziren. Epe luzean, sektoreak diru-sarrerei eusten diela ikus daiteke eta, gero eta bolumen txikiagoekin, salmenta-fluxu egonkorra mantentzea lortzen du. Hala, badirudi merkatuak gero eta balio handiagoa ematen diela fruta horiei, edo gero eta prezio altuagoak ordaintzeko prest dagoela horien truke.

132. koadroa Nekazaritzako produktu nagusien prezio eta balio guztizkoak

Produktua	Nekazariak jasotako prezioak (euro/100 kg)			Ekoizpenaren balio estimatua (m euro)		
	2020	2021	% Δ 21/20	2020	2021	% Δ 21/20
Garia	18,90	24,09	27,5	79.046,04	00.032,52	26,5
Garagarra	16,69	23,01	37,9	55.807,69	61.095,69	9,5
Artoa	19,21	25,17	31,0	35.227,30	48.111,20	36,6
Sasoi erdiko patata	35,40	34,58	-2,3	2.508,80	3.007,77	19,9
Patata berantiarra	27,38	31,15	13,8	995,54	1.060,03	6,5
Zainzuria	224,95	231,91	3,1	17.984,75	16.903,92	-6,0
Letxuga	60,46	69,16	14,4	5.942,61	6.797,74	14,4
Espinaka	58,91	63,33	7,5	9.037,97	9.819,32	8,6
Tomatea	12,73	12,26	-3,7	21.785,36	22.571,40	3,6
Piperra	80,57	76,34	-5,3	17.007,52	16.666,55	-2,0
Orburua	67,40	80,20	19,0	10.255,58	9.065,81	-11,6
Ilar berdea	25,49	25,65	0,6	5.510,68	7.450,81	35,2
Sagarra	56,71	52,86	-6,8	4.958,16	5.531,27	11,6
Udarea	66,42	66,26	-0,2	8.545,60	10.518,11	23,1
Mertxika	67,00	84,12	25,6	5.255,48	5.753,81	9,5
Ardo beltz berria (€/HI)	51,64	75,83	46,8	--	--	--
Ardo gorri berria (€/HI)	77,61	87,60	12,9	--	--	--

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

2.3. NEKAZARITZA-MAKINETAKO INBERTSIOA

Azkenik, Nafarroako buletinak sektorean egiten ari diren inbertsioen gaineko adierazleak ere eskaintzen ditu, 4 aktibo motari dagokienez: traktoreak, prozesadore autopropulstsatuak, atoiak eta arrasteko makinak edo uzta-makinak. Lehenengoa da kategoriarik handiena eta haren hazkundera nabarmena da urtetik urtera. Hamarkada bat atzerago zuen balioaren ia bikoitza eskuratu du dagoeneko. Horretan eragina du haren garestitzeak, baina, ziur asko, gero eta sarriago berritzeak ere bai. Dena den, hori ez da hainbeste igartzen tarteko kategorietan, hau da, makina autopropulstsatuen eta arrasteko makinaren kasuan. 2021eko balioak ez dira hamarkadaren hasierako balioen oso ezberdinak. Traktoreek eta arrasteko makinek igoyerak izan zituzten 2017an eta 2020an, eta gero geldialdiak (bi kategorien baturaren urte arteko beherakada, 2012az geroztiko handiena izan zen). Autopropulstsatuen kasuan, hazkundera izan zen 2017an, baina gero egonkortasuna gailendu zen. 2021ean 2020an baino erosketa handiagoak izan zituen tipologia bakarra da.

133. koadroa Nafarroan erregistratutako nekazaritzako makineriaren balorazioa

(m euro)

Kontzeptua	2020	2021	% Δ 21/20
Traktoreak	25.059	22.364	-10,8
Motokultoreak eta autopropulstsatuak	7.859	8.141	3,6
Atoiak	1.309	1.131	-13,6
Arrastatutako nekazaritzako makinak	9.113	7.061	-22,5
Makinak, guztira	43.340	38.697	-10,7

Oharra: Makineriaren balioan BEZa sartu gabe dago.

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

3. ABELTZAINZA-AZPISEKTOREA

Nafarroako abeltzaintza-sektorean, 2021ean, nabarmendu beharreko bi berritasun izan ziren. Batetik, behi-haragiarekin lotutako hilketa berri asko gehitu ziren estatistikara. Bestetik, txerri-abelburuen zenbatekoa bat-batean hazi zen. Etxalde berriak ireki edo atxiki ziren lurraldean, eta baliteke igoera horiek honekin lotura izatea. Lehenengo kasuan, hazkundera ez zen bat-batekoa izan; aurreko urtean hautemandako igoera baten jarraipen naturala izan zen. Dena den, 2021eko hazkundera askoz ere nabarmenagoa izan zen.

Gainerakoan, mantendu egin ziren joerak, eta elikagaien industrian irteera argiagoa duten produktu batzuk indartu egin ziren. Beste produktu minoritario batzuek behera egin zuten edo zailtasunak izan zituzten. 2021eko adierazleetan oraindik ez dira asko nabarmentzen beste neurketa eta lurralde batzuetan erregistratu diren hainbat eragin, esaterako, esnearen prezioaren ezohiko igoera; ziur asko, aurrerago ikusi ahal izango da hori. Zerealen prezioaren igoera ere ez da hautematen oraindik; horietatik eratorzen da abereentzako elikagai asko. Azken horren ondorioz, duela zenbait urtetatik arrisku larrian dago haragi-negoziaren jarraitutasuna behi- eta ardi-ustiapenetan. Pandemiaren ondorioek baino eragin handiagoa izan du sektorean energiaren garestitzeak, 2021eko zati handi batean gertatu denak, 2022ko espero gabeko krisialdi berria lehertu aurretik.

Testuinguruan kokatzeko, Estatuko abeltzaintzaren egoeraren gaineko datuak nabarmendu behar dira: zenbatekoei dagokienez, animalia-ekoizpena % 1,6 hazi zen; haragiaren eta abereen multzoak % 2,4 egin zuen gora, eta gainerako produktuak -% 1 jaitsi ziren. Behi-haragiaren tona kopurua % 5,3 hazi zen, txerrikoa % 3,4 eta ardikia eta ahuntz-haragia % 4,6. Aldiz, honakoek behera egin zuten: hegaztiak -% 4,2, zaldi-haragia -% 11,9 eta beste haragi batzuk, untxia barne, -% 7,8. Esnearen kasuan, ohikoa den moduan, kopurua oso gutxi aldatu zen (+% 0,6), eta oilo-arrautzek -% 6,4 egin zuten behera. Erabilitako pentsu-kantitatea % 1,6 hazi zen.

Urte arteko aldakuntzak honako hauek ziren: % 3,7 (animalia-ekoizpena), % 3,8 (haragia eta abereak), -% 3,5 (gainerako produktuak), % 10,6 (behi-haragia), -% 1,1 (txerrikoa), % 16,3 (ardikia eta ahuntz-haragia), % 0,7 (hegaztiak), -% 10,3 (zaldi-haragia), -% 3,5 (beste haragi batzuk), % 5 (esnea), -% 3,2 (arrautzak) eta % 5,6 (haragia ez diren beste batzuk). Albaitaritzaz-gastuak % 2,7 igo ziren eta, pentsuak, % 14,3 -aurrez aipatutako eragina islatzen du horrek-.

Epe luzean, Estatuan, txerrikoa da balioa azkarren irabazten ari den produktua. Behi-haragiak eta hegazti-haragiak goranzko joera dute, baina ekonomiaren garestitze orokorraren atzetik doa horien garestitzea. Badirudi ardia eta ahuntz-haragia suspertzen ari direla pixkanaka.

Bestetik, esneak gora egin du ondoz ondoko hainbat ekitalditan. 2021ean Nafarroarentzat eskuragarri dagoen beste adierazle bat animalia-ekoizpenaren kanpo-merkataritzarena da; esportazioak % 23,6 hazi ziren eta inportazioak % 17,9.


3.1. ABELTZAINZA-ERROLDA

Abeltzaintza-erroldari dagokionez, aurrez aipatu dugun moduan, 2021ean % 20,9 hazi zen 4azienda nagusien artean ugariena, hau da, txerri-azienda. Hamarkadaren erdialdetik goranzko joera zuen, baina gorabeherekin. Orain bi gehieneko historiko kateatu dira, eta datuak eskuragarri dauden aldiko igoyerarik handiena gertatu da. Aldi hori barne hartzen duen grafikoak bisualki erakusten du, aurten inoiz baino gehiago, aipatutako kontrastea. Ardi-azienten ehunekoan ere aldaketa handia izan zen: antzina askoz gehiago gailentzen ziren, eta aztertutako tarte osoan zehar etengabe jaitsi ziren. Ardi-azientaren murrizketa askoz ere motelagoa eta linealagoa izan da txerri-azientaren goranzko joera aldakorra baino. Biazienda horien kasuan ez bezala, behi-azientaren zenbatekoa ia guztiz egonkor mantendu zen. Ahuntz-azientaren magnitudea, berriz, askoz ere txikiagoa da, baina 2021ean espezie horrek izan zuen hazkunderik nabarmenena: % 11,9.

4 espezie horiek antzeko bilakaera izan zuten Estatuan. Dena den, Estatuko lagina handiagoa denez eta erkidegoek barne hartzen dituzten habitatak eta egoerak oso anitzak direnez, gorabeherak askoz ere txikiagoak izan ziren, eta joera linealagoa izan zen, baita txerri-azientaren gorakadan ere. Nolanahi ere, Nafarroak Estuaren gainean duen kuota ardi-azientaren kasuan jarraitzen du nabarmenena izaten.

Lehen aipatu dugun moduan, baliteke txerri-azienda handitu izanaren arrazoia tamaina handiko hainbat etxalde gehitu izana izatea. Izan ere, urte bakar batean ia 144.000 buru gehiago zenbatu ziren. Hori ez dator bat txerri-azientaren hilketen datuekin. Izan ere, azken bosturtekoan oso baxuak izan dira datu horiek, jardueraren zati handi bat Nafarroatik irten zenetik. Jarduera handieneko urteetan eskuratutako gehieneko zifren hogeiren bat ingurukoa da gaur egungo tona kopurua.

28. grafikoa Nafarroako abere-azienden ehunekoen bilakaera



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

134. koadroa Abeltzaintza-errola (urte bakoitzeko azaroan)

(unitateak)

Eremua	Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
Nafarroa	2017	122.293	498.116	13.010	650.250
	2018	122.566	480.251	12.947	610.897
	2019	120.170	475.306	13.012	650.029
	2020	123.450	467.020	12.755	685.605
	2021	123.384	460.620	14.270	828.608
Espainia	2017	6.465.747	15.963.106	3.059.731	29.971.357
	2018	6.510.592	15.852.525	2.764.790	30.804.102
	2019	6.600.333	15.478.615	2.659.112	31.246.043
	2020	6.636.428	15.439.218	2.651.041	32.676.652
	2021	6.922.951	15.081.347	2.589.761	34.454.090
% Nafarroa/Espainia	2021	% 1,8	% 3,1	% 0,6	% 2,4

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

3.2. ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

2021ean gehieneko berriak eskuratu zituzten Nafarroan behi-esnearen eta ardi-esnearen litro kopuruari dagokionez: 247,8 milioi litro eta 15,9 milioi litro, hurrenez hurren. Horiek antzeko bilakaera izan dute hamarkadan zehar, eta pixkanaka hazten joan dira, eritmo konstantean, hamarkadaren erdialdean izan ezik; orduan, hazkunde-eritmoak jauzi bat edo azelerazio puntual bat izan zuen. Azken bosturtekoan hazkundea motela izan da eta, ardi-esnearen kasuan, ia laua izan da 2021era arte; urte horretan % 9,2ko igoera erregistratu zen. Aitzitik, behi-esnea % 0,6 hazi zen. Ondoz ondoko laugarren urtez egin zuen gora, baina oso gutxi, kuoten bidez zorrotz kontrolatuta dagoen produktu bati dagokion moduan. Ahuntz-esnearen datua askoz ere eskasagoa izan zen (368.000 litro) eta ez zen izan eskuragarri dugun datu-segidako baliorik altuena. Dena den, 2015az geroztiko baliorik altuena izan zuen, eta % 83,7ko hazkundea.

135. koadroa Esne-ekoizpena

Urtea	Esne-ekoizpena			
	Behia	Ardia	Ahuntza	Guztira
2012	191.507	10.365	399	202.271
2013	194.382	11.281	361	206.024
2014	208.408	11.570	343	220.321
2015	233.074	12.460	348	245.882
2016	239.499	15.432	255	255.185
2017	238.643	15.043	297	253.984
2018	241.712	15.752	274	257.738
2019	242.154	14.661	270	257.085
2020	246.329	14.564	200	261.093
2021	247.830	15.905	368	264.103

(m litro)

Iturria: Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

INTIA Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutuko Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa Sailak esnea ekoizten duten ustiategien batez besteko emaitzen jarraipena egiten du, behi-esnari zein ardi-esnari dagokienez. Kontsultatutako ustiategi kopuruaren datuak berak agerian uzten du azpisektorea murrizten ari dela edo ustiategiak bat egiten ari direla. Aldi berean, ustiategi bakoitzeko jardueraren adierazleak hazten ari dira. Duela hamarkada bat 68 behi-ustiategi zeuden eta 2021ean 40 baino ez. Dena den, ustiategi bakoitzeko hektarea kopurua 36tik 56ra pasatu zen tarte horretan. Ustiategi bakoitzeko batez besteko behi kopurua, berriz, 93tik 139ra igo zen. Denbora-tarte horretan, behi bakoitzarekin eskuratutako balioa 2.930 eurotik 3.595 eurora igo zen; hamarkadaren bigarren erdian oso lineala izan zen adierazle horren hazkundea. Guztizko behi kopurua murrizten joan zen, baina behi bakoitzeko litro kopurua pixkanaka hazten joan zenaldi horretan.

Ustiategi bakoitzeko diru-sarrerak asko hazi dira azken urteetan, aipatutako aurrerapenekin bat etorritik. Baina gastuak ere asko igo dira eta, GLU edo Gizakiaren Lan Unitate bakoitzeko marjina garbia kontuan hartzen badugu, 2016 eta 2017 artean hobekuntza handia izan zela ikus daiteke, % 70etik gorako hazkundea izan baitzen. Gero, ordea, ondoz ondoko 4 ekitalditan behera egin zuen ratio horrek eta urte artan eskuratutako zifra gorena baino % 24,4 beherago dago orain. Elikadura-kostuen hazkundea oso nabarmena izan zen 2021ean eta, gainera, kostu finkoak ere asko hazi ziren, azken bosturtekoan gertatzen ari den moduan.

136. koadroa Esetarako behien eta ardien ustiategiaren batezbesteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	Esetarako behiak		Esetarako ardiak ^(*)	
	2020	2021	2020	2021
DATU TEKNIKO-EKONOMIKOAK				
Ustiategiaren laginak	41	40	24	26
Eskulana (GLU)	3,5	3,4	2,1	1,9
Behi/ardi kopurua ustiategiko	134	139	375	361
Azalera Ha.	58,7	56,5	29,6	25,5
Behi/ardi-esnearen ekoizpena	10.158	10.138	156	163
Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	342,17	354,65	1.495,25	1.498,15
EKOIZPENA ETA EMAITZAK (euro)				
Produktu gordina	511.071,74	555.161,36	102.543,28	103.500,48
+ Diru-laguntzak	14.696,66	15.297,64	6.178,58	6.546,47
- Elikadura-gastuak	206.511,77	243.519,07	28.706,79	30.796,30
- Gastu aldakorrek	89.855,56	87.348,45	11.527,16	10.741,82
= Marjina gordina	229.401,07	239.591,48	68.487,91	68.508,83
- Gastu finkoak, eskulana	162.991,51	173.741,10	41.404,27	40.480,94
= Marjina garbia	66.409,55	68.850,39	27.083,64	28.027,89
EMAITZA UNITARIOAK (euro)				
Marjina garbia behia/ardia	497,19	474,32	72,22	77,59
Marjina garbia GLU	34.210,22	33.856,24	13.211,53	14.522,22

(*): Latxa ardiaren ustiategiak: 12 esnearenak, 8 eraldatutako gaztarenak eta 5 bienak.

Iturria: INTIA-ITG, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTG Departamendua (Berrikuntza, Teknologia eta Gestioa).

Aitzitik, ardi-esnearen azpisektoreko negozioaren batez besteko zifrek ez zituzten gorabehera horiek izan, nahiz eta negozioa askoz ere mugatuagoa izan eta, hortaz, lagina txikiagoa –elkadura-gastuak eta gastu finkoak ere ez ziren nabarmen hazi-. Hala, sektorea egonkorra dela esan daiteke, eta hamarkadan zehar geldi egon dela, magnitudeak apenas aldatu gabe. Dena den, kasu honetan GLU bakoitzeko marjina garbiak gora egin du apur bat bi urtetan. Gastuekiko erlazioari dagokionez, marjina garbia handiagoa da ardi-esnearen kasuan, behi-esnearen kasuan baino; baina gastu finkoen pisua ere handiagoa da gastu aldakorrena baino. Jarduera honetan, normala den moduan, dimentsioak eta magnitudeak askoz ere txikiagoak dira, eta hazkundeak, oro har, apalagoak. Hala ere, 2021ean ardi bakoitzeko 163 litro eskuratu ziren, eta hori 2014ko zifra baino nabarmen handiagoa da, esaterako, orduan 129 litro eskuratu baitziren animalia bakoitzeko.

Haragi-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Esnetarako ardiak salbuespena dira. Izan ere, haragitarako ardien kasuan –batzuetan ustiategi berberak arduratzen dira– bai, hautematen da elikadura-gastuak nabarmen hazi direla azken bi urteetan, behien kasuan bezala. Haragitarako ardiei eta 2021eko ekitaldiari dagokienez, nabarmentzekoa da arkumearen prezioa asko hazi zela, aurreko bi ekitaldietan marjina garbi negatiboa izan ondoren: hamarkada osoan zehar kiloko 3,60 eta 4 euro artean mugitu zen prezioa, eta 2021ean 4,43ra igo zen. Merkatuak onartutako igoera horrek aukera eman dio azpisektoreari batez besteko emaitzaren joera aldatzeko.

Haragitarako ardien ustiategi kopurua eta esnetarako ardien ustiategi kopurua ia berdina da. Behien kasuan ez da hori gertatzen; izan ere, haragitarako behien ustiategiak esnetarakoen heren bat baino ez dira, eta duela hamarkada bat zeudenen erdiak baino ez daude gaur egun. Horrek erakusten digu azpisektore hori dela azken urteetan gehien sufritu duena; ustiategi batzuk itxi eta beste batzuk elkartu behar izan dituzte.

Behi-haragiaren jarduera egituraz defizitariotzat hartzeko fasean dago. Zifrek erakusten dutenez, dirulaguntzak aplikatu aurretiko marjinak negatiboak izan dira eskuragarri dugun datuen segida osoan, hau da, hamarkada batean baino gehiagoan. Dirulaguntzek arindu egin zuten egoera, eta hainbat ekitalditan kontuak koadratu ahal izan ziren. Dena den, laginak galerak izan zituen 2014an, 2016an eta 2018tik aurrerako urte guztietan. Hala ere, 2021ean, dirulaguntzak gehitu aurretiko eta ondorengo emaitza ez zen aurreko hiru urteetan bezain txarra izan.

Arkumearekin ez bezala, behi-haragiaren kasuan ez dute lortu kostuen igoera guztiak prezioetara igarotzea. Kiloko batez besteko prezioa gelditu dago 2012az geroztik, 3,90 eta 4,05 arteko tarte estuan. 2020an 3,83 eurora erori zen, ziur asko, pandemiaren hasieran balio-katean izandako zirkunstantzien ondorioz. 2021ean beherakada hori gainditzea lortu zuten, eta kiloko 3,98 eurora igo zen prezioa.

Normala den moduan, ustiategiek zailtasun handiak dituzte egoera honi aurre egiteko eta behi-aziendaren esnearekin bakarrik konpentsa dezakete galera, edo, kasu batzuetan, beste jarduera osagarri batzuekin. Dena den, nabarmendu beharrekoa da hamarkadan zehar guztizko gastuek ez dutela goranzko joera izan eta nahiko tarte egonkorrean mantendu direla. Baina diru-sarrerak ezohiko maila baxura jaitsi ziren 2017 eta 2020 artean. 2021ean diru-sarrerek gora egin zuten eta aldi horren aurreko mailan kokatu ziren, baina gastuak ia neurri berean igo ziren, eta aipatutako tartetik irten ziren.

137. koadroa Haragitarako behien eta ardien ustiategien batezbesteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	Haragitarako behiak		Haragitarako ardiak	
	2020	2021	2020	2021
EZAUGARRIAK				
Ustiategien laginak	26	19	27	27
Eskulana (GLU)	1,0	1,0	1,2	1,2
Behi/Ardi kopurua ustiategiko	60	66	713	739
Azalera Ha.	37,2	36,6	42,6	42,5
Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko ^(*)	230,6	231,8	21,5	19,4
Txahal/arkume salneurria kiloko	3,83	3,98	3,61	4,43
EKOIZPENA ETA EMAITZAK (euro)				
Produktu gordina	61.984	79.670	57.620	68.746
+ Diru-laguntzak	10.007	10.547	12.668	12.974
- Elikadura-gastuak	35.855	43.491	35.855	40.659
- Gastu aldakorak	13.093	14.281	9.818	10.226
= Marjina gordina	24.615	32.445	24.615	30.834
- Gastu finkoak	29.569	35.291	24.852	26.162
= Marjina garbia	-4.618	-2.845	-237	4.672
EMAITZA UNITARIOAK (euro)				
Marjina garbia behia/ardia	-76,53	-42,81	-0,33	6,32
Marjina garbia GLU	-4.636	-2.787	-231	4.473

(*): Haragi-kiloak: behi aziendaren kasuan, kanaleko kiloak. Ardi-aziendaren kasuan, kiloak bizirik.

Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTG Departamendua (Berrikuntza, Teknologia eta Gestioa).

Azkenik, Nafarroako txerri-ustiategiak ere monitorizatzen ditu INTIA-ITGk, zehazki, ziklo osoa egiten duten 14 ustiategi eta txerrikumeak hazten dituzten 7. Bi laginak murrizten joan dira, baina lehenengoak jauzi handia eman zuen 2020an. Hori ez zen bat etorri laginak barne hartzen dituen ustiategi kopuruaren murrizketarekin, ziur asko, horietako hainbatek bat egitearen ondorioz. Hala, 2020an, % 62,2 hazi zen ustiategi bakoitzeko animalia kopurua, eta diru-sarrerak eta batez besteko gastuak ere igo egin ziren. 2021ean mantendu egin ziren maila horiek. Deigarria bada ere, 2021ean % 20 baino gehiago areagotu zen erkidegoko txerri-azienda kopurua; aurreko urtean % 5,5 baino ez zen hazi.

Dena den, 2020an ez bezala, horrek ez zuen balio izan marjina gordinen gehieneko berri bat eskuratzeko. Emaitza horren goranzko joera eten egin zen eta etekinaren zatirik handiena galdu egin zen; hala ia ezerezean geratu zen. Txerrikumeen ekoizpenean ere gauza bera gertatu zen; kasu horretan ez zen hauteman aipatutako ekoizpenaren hazkundea. Elikadura-gastuak ez dira banakatzen, baina, ziur asko, pentsuen garestitzea izan zen giltzarria. Gainera, behi-azieden kasuan ez bezala, ez zuten lortu igoeraren zati txiki bakar bat ere salmenta-preziora igarotzea. Aitzitik, batez besteko prezioa 9 eta 10 zentimo artean jaitsi zen, modalitate batean eta bestean, hurrenez hurren. Jaitsiera txikia izan zen eta aurreko urteko igoeraren zatirik handiena finkatu egin zen, baina igoera horrek ez zituen kostuak xurgatzen.

Hala, azken urteetako agertokia aldatu egin zen. Izan ere, azken urteetan txerri-azienden negozioak askoz indar handiagoa zuen beste espezie batzuen haragi-jarduerak baino. 2021ean, ordea, txerri-aziendak izan ziren kalte handiena jasan zutenak, hain justu inbertsioak areagotu zituztenean, ustiategi bakoitzeko animalia kopurua handitu baitzuten.

Txerrikumeen ekoizpenaren kasuan, deigarria da produktu gordinaren jaitziera eta guztizko gastuen igoera okertzen ari direla, aurreko urteko ildo beretik. Hala, 2021ean murriztu egin zen marjina eta zerora hurbildu zen. Hau da, atzean dauden arrazoiak ez dira ekitaldi bakar bateko arrazoi koiunturalak, eta ikusi egin beharko da bilakaera horrek jarraitzen duen ala egonkortu egiten den.

138. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak

Kontzeptua	Txerrikumeen ekoizpena ⁽¹⁾		Ziklo itxia ⁽²⁾	
	2020	2021	2020	2021
EZAUGARRI TEKNIKO-EKONOMIKOAK				
Aztertutako ustiategi kopurua	7	7	14	14
Urdanga kopurua ustiategiko	189	187	517	516
Urdanga bakoitzeko saldutako txerrikumeak	24	25	1	1
Urdanga bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,4	0,3	20	21
Urdanga bakoitzeko saldutako txerriak, guztira	24	25	21	22
Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg)	23,6	23,3	14,9	12,5
Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg)	114,3	116,7	111,3	112,6
Saldutako txerrikume + txerri gizendu kopurua	4.551	4.689,0	10.907	11.495
Txerrikumearen batezbesteko salneurria (euro)	50,17	48,95	37,02	32,92
Txerri-kiloaren batezbesteko salneurria (euro)	1,27	1,20	1,29	1,20
GLU guztira	1,3	1,24	3,6	3,7
EMAITZA EKONOMIKOAK (euro)				
Produktu gordina	256.920	245.542	1.585.985	1.578.217
- Gastu aldakorak	166.486	173.365	1.036.733	1.239.551
Marjina gordina	90.434	72.176	549.252	338.666
- Gastu finkoak	61.830	63.261	299.545	311.789
Marjina garbia	28.604	8.915	249.706	26.877

(1): 3 ustiategik 25,24 kg-ko batezbesteko pisua duten txerrikumeak ekoizten dituzte, eta 4 ustiategik titia kendutako 7,84 kg-ko txerrikumeak saltzen dituzte.

(2): Ustiategi horiek saltzen duten % 80 baino gehiago txerri gizendua da.

Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTG Departamendua (Berrikuntza, Teknologia eta Gestioa).

Ustiategien laginketan ikusten zen txerri-azienden kopurua nabarmen hazten hasia zela, abeltzaintza-errolda orokorrean baino gehiago eta lehenago. Abereen hilketen adierazlea, ordea, ez zen apenas handitu 2021ean. Kapituluaren hasieran aipatu dugun moduan, 2017az geroztik txerri-azienden hilketa-zifrak asko murriztu dira, lerro hori kendu delako edo jarduera hori Nafarroatik kanpora atera delako. 2020an are gehiago jaitzi zen zifra, baina 2021ean apur bat igo zen.

2006az geroztik, hegaztien hilketari tona kopuru handiagoa dagokio, txerri-azienden hilketari baino. Gaur egun ere, Nafarroan, gainerako espezieetan baino askoz altuagoa jarraitzen du izaten hegaztien kasuan: 2006 eta 2018 artean % 150 hazi zen; aldi horretan asko hedatu zen. Hala ere, azken ekitaldietan behera egiten hasi da –2021ean barne–. Behi-azienden kanaleko pisuaren zifrak, berriz, gora egiten jarraitzen du 2019az geroztik, hamabost urtetan zehar beherazko joera jarraitua izan ondoren. Horrek erakusten du hiltegiatako jardueraren adierazlea, neurri handi batean, ez dela aztertu behar Foru Erkidegoko animalien benetako hazkuntzarekin korrelazioan; egiaz, hazkuntza da abeltzaintzako ekoizpen-jardueraren oinarria.

Nolanahi ere, nabarmendu beharrekoa da 2007az geroztik zaldi-azienden hilketak goranzko joera izan zuela hamarkada batez, eta gero egonkortu egin zela. Aitzitik, untxien eta ardi-azienden hilketen zifrak oso egonkorak izan ziren hamarkada batean zehar, baina azken bi urteetan untxiek gora egin dute eta ardi-aziendek behera, nahiz eta 2021ean arkumearen prezioa nahiko mardula izan.

Estatistika honetan deigarria izan daitekeen beste alderdi bat zera da, Nafarroak Estatuan duen pisua askoz ere handiagoa dela azienzia tradizional edo nagusi horiez gaindiko espezieen hilketaren kasuan, hau da, hegaztien, zaldi-azienden edota untxiaren kasuan. Zaldi-produktuei dagokienez, Estatuko guztizkoaren % 40koa da ia kuota. Beste muturrean, hiltegiatan lehen aipatu dugun aldaketa izan zenetik, txerri-aziendak Estatuko guztizkoaren gainean duen kuota baxua da, ezohiko moduan.

139. koadroa Nafarroan hildako aziendaren kanaleko pisua


(Tm)

Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda	Zaldi-azienda	Hegaztiak	Untxiak	Guztira
2017	5.551,1	3.265,7	48,7	2.062,3	3.723,7	94.619,4	2.644,4	111.915,3
2018	5.472,6	3.349,6	48,4	2.112,6	3.200,3	97.939,5	2.763,7	114.886,7
2019	7.295,5	3.102,6	41,0	2.016,7	3.669,9	94.055,2	2.526,1	112.707,0
2020	9.522,2	2.780,3	33,3	1.961,7	3.789,7	86.930,5	2.957,0	107.974,7
2021	13.403,0	2.369,5	38,2	2.051,0	3.336,9	85.273,8	3.126,2	109.598,6
% Nafarroa/Espainia	1,87	1,97	0,38	0,04	39,27	5,23	6,58	1,42

Iturria: Nafarroako Gobernuak. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

29. grafikoa Nafarroako abere-ekoizpena (kanaleko pisua)

(Indizea 1990=100)



Iturria: Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

3.3. ABERE-PRODUKTUEN PREZIOAK

Sarrerako atalean aipatu ditugu Estatuko datuak eta orain beste aldagai giltzarri bat ere aipatu behar dugu eremu geografiko horretarako: prezioa. Aldagai hori funtsezko elementua da, ezinbestean, esne-ustiategien eta haragi-ustiategien laginen emaitzak erreparatzeko orduan. Nafarroako datuek agerian uzten dute abere-produktuen prezioak geldi daudela eta, hortaz, kostuen igoerak ez direla prezioetara igarotzen ari; esaterako, pentsuen prezioaren igoera –azaro larria bilakatu da azkenaldian–. Are gehiago, eguneroko erosketa-orgaren garestitze-orokorraren erritmoarekin ere ez datoz bat abere-produktuen prezioak.

Estatuan, animalia-ekoizpenaren prezioen urte arteko aldakuntza orokorra % 2koa izan zen, honela banatuta: % 1,4 haragia eta abereak, eta % 4,2 gainerako ekoizpenak. Kasu honetan bai, badirudi horietako batzuetan eragina izaten ari dela kostuen igoera azkar eta orokortua. Behi-haragiaren prezioa % 5 hazi zen eta txerrikiarena -% 2,2 jaitsi. Gainerako produktuak garestitu egin ziren. Gora egin zuten zaldi-haragiak (% 1,8), ardikiak eta ahuntz-haragiak (% 11,2), hegaztiak (% 5,1), beste haragi batzuek –untxia barne– (% 4,6), esneak (% 4,3), arrautzek (% 3,4) eta haragia ez diren beste produktu batzuek (% 5,6).

Estatistika berean ikus daitekeenez, energiaren eta lubrikatzaileen prezioa % 34,7 hazi zen –horiek ez dira abeltzaintza-azpisektoretik bakarrik eratortzen–, eta pentsuena % 12,6.

Nafarroan, merkatua mugatuagoa da eta, hortaz, gehiago eragiten die tokiko eta uneko faktoreek. Ondorioz, 2021ean, aldakuntza handiak eta kontraste deigarriak izan ziren. Ustiategiaren laginketan ikusi dugun moduan, behi-haragia apur bat garestitu zen. Nafarroan, urteko behi-aziendaren kasuan ikusi zen hori, % 3 garestitu baitzen. Behi-azienda zaharra, ordea, -% 6,1 merkatu zen; aurreko urteko jaitsierari batu zitzaion hori, orduan -% 16,1 merkatu baitzen. Txerri-aziendaren kasuan, bilakaera bat dator ustiategiaren datuarekin eta Estatuko datuarekin: -% 5,8ko jaitsiera izan zen. Kontraste handiarekin, baina ustiategiaren datuekin eta Estatuko datuekin bat etorritz, asko igo zen arkumearen (% 21,5) eta antxumearen (% 17,4) prezioa. Dena den, zehaztu egin behar dira aldaketa horiek. Lehenengo kasuan, hamarkadan zehar oso egonkor mantendu zen prezioen tartea, eta igoera horrekin goranzko jauzi handia eman zuen. Aldiz, bigarren kasuan, antxumearen prezioaren igoerari esker, 2020ko jaitsieraren aurretik zuen tartera itzuli zen.

Hegaztien kasuan, baserriko oilaskoaren prezioa % 14,9 igo zen eta, hala, egonkortutako mailara itzuli zen. Untxiaren prezioa, berriz, % 1,9 igo zen; kasu honetan, azken bost urteetako goranzko joerara itzuli zen. Behi-haragiaren, oilaskoaren eta txerrikiaren bilakaerak oso lauak izan dira, hasieran aipatu dugun moduan. Behi-haragiaren kasuan are argiago ikusten da azken bi urteetako atzerakada berezia dela, ustiategiaren azterketan ikusi bezala; izan ere, prezioa oso egonkortuta zegoen urtetan zehar.

Haragiaz gain, behi-esnearen, ardi-esnearen eta oilo-arrautzen prezioek ere geldi jarraitzen dute. Azken produktu horren kasuan, prezio berria dozenako 1,20 euro ingurura itzuli da; prezio horren bueltan dabil azken 8 urteetan.

140. koadroa Animalia-produktuen prezioak Urteko batezbestekoak

(euro)

Produktua	2019	2020	2021	% Δ 21/20
Hornidurarako azienda (100 kg/Bizirik)				
– Txahala	225,23	217,43	223,99	3,0
– Behia	118,80	99,73	93,68	-6,1
– Arkumea	405,60	373,65	454,08	21,5
– Antxumea	540,44	445,57	523,32	17,4
– Txerri gizendua	134,88	132,73	125,08	-5,8
– Baserriko oilaskoak	90,67	91,17	104,75	14,9
– Untxiak	198,50	189,17	192,67	1,9
Abere-produktuak				
– Behi-esnea (100 litro)	31,18	33,03	33,48	1,4
– Ardi-esnea (100 litro)	104,58	103,33	105,11	1,7
– Oilo-arrautzak (100 dozena)	107,09	113,27	118,34	4,5

Iturria: Nafarroako Gobernuak. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua



5. ZERBITZUAK



1. IKUSPEGI OROKORRA

2021ean % 5,1 hazi zen Estatuko BPGa. Testuinguru horretan, Nafarroako hazkundera % 5,9koa izan zen.

Zerbitzuen sektorea bere osotasunean aintzat hartuta, 2021ean % 6,1 hazi zen Foru Erkidegoan eta % 6 Estatuan (aurreko ekitaldian, -% 7,9 eta -% 11,5eko jaitsierak, hurrenez hurren).

Horretara iritsita, txosten honen aurreko edizioetan bezala, komeni da gogora ekartzea sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektore osoa batera aztertzea. Hala ere, enplegua da adierazle egonkorrenetako bat. Horrekin lotuta, aipatzekoa da 2021ean hirugarren sektoreko okupazio-tasa % 0,1 igo zela Nafarroan eta % 3,3 Estatuan.

2. HEZKUNTZA

2.1. UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA

Unibertsitatekoak ez diren ikasleak aztertuz hasiko dugu hezkuntzari buruzko kapitulua. 2021/2022 ikasturtean apur bat igo ziren matrikulak (+% 0,4) eta guztira 114.204 ikasle zenbatu ziren. Dena den, informazioa hezkuntza mailaren arabera banakatuz gero, ikur ezberdinetako bilakaerak izan zirela ikus daiteke. Hala, matrikula kopuruak behera egin zuen Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Batxilergoan (-% 0,2, -% 0,8 eta -% 1,2, hurrenez hurren). Aldiz, gora egin zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (+% 2,1) eta Heziketa Zikloetan (+% 3,4).

Unibertsitateko ikasketen bilakaerari dagokionez, 2021/2022 ikasturtean matrikulazioak gora egiten jarraitu zuen (+% 3,5) eta 17.062 unibertsitateko ikasle erregistratu ziren. Izan ere, Nafarroako unibertsitate mailako hezkuntza-eskaintza osatzen duten bi unibertsitateetan hazi zen ikasle kopurua. Zehatzago esanda, Nafarroako Unibertsitateak (pribatua) 9.249 ikaslerekin amaitu zuen ikasturtea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (UPNA) 7.813 ikaslerekin (+% 3,6 eta +% 3,3, hurrenez hurren).

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Haur Hezkuntza aztertuz hasiko gara. 2021/2022 ikasturtean 22.909 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 46 ikasle gutxiago. Ikasleen murrizketa hori (-% 0,2) ikastetxe pribatuetako ikasleen galerak eragin zuen (-% 1,4). Izan ere, ikastetxe publikoetan apur bat igo zen matrikulatutako ikasleen kopurua (+% 0,4). Hala, sare publikoak jarraitu zuen ikasle gehien jasotzen, % 67,9ko partaidetzarekin. Sare pribatuak, berriz, % 32,1eko partaidetza izan zuen.

141. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH

Kontzeptua	19/20 ikasturtea	20/21 ikasturtea	21/22 ikasturtea	% Δ aurreko ikasturtean
Haur Hezkuntza	24.616	22.955	22.909	-0,2
– Publikoa	16.765	15.502	15.564	0,4
– Pribatua	7.851	7.453	7.345	-1,4
Lehen Hezkuntza	43.188	42.816	42.493	-0,8
– Publikoa	28.352	28.271	28.040	-0,8
– Pribatua	14.836	14.545	14.453	-0,6
DBH	28.031	28.351	28.935	2,1
– Publikoa	16.947	17.294	17.847	3,2
– Pribatua	11.084	11.057	11.088	0,3

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Lehen Hezkuntzako matrikulazioaren bilakaerari dagokionez, 2021/2022 ikasturtean 42.493 ikasle matrikulatu ziren guztira, aurreko ikasturtean baino 323 gutxiago, hau da, % 0,8 gutxiago. Sare publikoan zein pribatuan egin zuen behera matrikulazioak (-% 0,8 eta -% 0,6, hurrenez hurren). Irakaskuntza publikoaren pisu espezifiko askoz ere altuagoa izan zen (% 66, eta sare pribatuarena % 34).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokionez, 28.935 ikasle matrikulatu ziren guztira. Beheragoko hezkuntza mailetan ez bezala, ikasle kopuruak gora egin zuen 2021/2022 ikasturtean (+% 2,1). Bi sareetan hazi zen ikasleen errola. Dena den, ikastetxe publikoetan hazkundea handiagoa izan zen (+% 3,2, eta pribatuetan +% 0,3). Ondorioz, sare publikoaren presentzia indartu egin zen irakaskuntza maila honetan. Sare publikoari zegozkion DBHko 10 matrikulatik 6.

142. koadroa Euskalduntze maila Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH

Kontzeptua	A	B	D	X	Guztira (%)
Haur Hezkuntza					
– 21/22 ikasturtea	15,6	1,3	27,0	56,1	100
Lehen Hezkuntza					
– 21/22 ikasturtea	19,0	0,2	26,3	54,4	100
DBH					
– 21/22 ikasturtea	7,8	0,0	24,6	67,5	100

A: Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da.

B: Irakaskuntza elebiduna.

D: Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da.

X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Hizkuntza-ereduen araberako ikasleen banaketari dagokionez, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn oso alde txikiak ikusten dira aurreko ikasturteekin alderatuta. Hala, X eredia (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) gailendu zen hizkuntza-mapan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen erdiek baino gehiagok (% 56,1 eta % 54,4, hurrenez hurren) hautatu zuten eredu hori, eta DBHko 10 ikasletik ia 7k (% 67,5). Bigarren lekuan D eredia (hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da) kokatu zen, antzeko pisu erlatiboekin. Haur Hezkuntzako ikasleen % 27k hautatu zuten eredu hori, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 26,3k eta DBHkoen % 24,6k. A ereduak (gaztelaniazko irakaskuntza, eta euskara ikasgai gisa) nolabaiteko presentzia izan zuen Lehen Hezkuntzan (% 19) eta Haur Hezkuntzan (% 15,6), baina partaidetza baxuagoa izan zuen DBHn (% 7,8). Azkenik, B ereduak (irakaskuntza elebiduna) osatu zuen hizkuntza-mapan. Honek oso-oso presentzia txikia izan zuen Haur Hezkuntzan (% 1,3) eta Lehen Hezkuntzan (% 0,2).

Hala, Nafarroako Foru Erkidegoko euskalduntze maila (D eredia gehi B eredia) % 28,3koa izan zen Haur Hezkuntzan, % 26,5koa Lehen Hezkuntzan eta % 24,6koa DBHn.

Erdi-mailako irakaskuntza

Azterketarekin jarraitzeko, erdi-mailako irakaskuntza aztertuko dugu orain. 2021/2022 ikasturtean 19.868 ikasle matrikulatu ziren guztira, aurreko ikasturtean baino % 1,3 gehiago. Hala, Heziketa Zikloetan (Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa) gora egin zuen matrikulazioak (+% 3,4) eta 11.044 ikaslera iritsi ziren. Batxilergoko matrikulazioak, aldiz, behera egin zuen (-% 1,2), eta 8.824 ikasle zenbatu ziren.

143. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.
Heziketa-zikloak eta Batxilergoa

Kontzeptua	19/20 ikasturtea	20/21 ikasturtea	21/22 ikasturtea	% Δ aurreko ikasturtean
Heziketa Zikloak	9.981	10.681	11.044	3,4
– Publikoa	7.303	7.972	8.302	4,1
– Pribatua	2.678	2.709	2.742	1,2
Batxilergoa	8.802	8.932	8.824	-1,2
– Publikoa	5.341	5.369	5.287	-1,5
– Pribatua	3.461	3.563	3.537	-0,7

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Heziketa Zikloetako matrikulazioaren bilakaera sakonago aztertuta, bi sareetan matrikulazioak gora egin zuela ikus daiteke. Dena den, bilakaera hobea izan zuten ikastetxe publikoek (+% 4,1 publikoek eta +% 1,2 pribatuek). Ondorioz, sare publikoak jarraitu zuen ikasle gehien jasotzen, % 75,1eko pisu erlatiboarekin.

Azterketa hori Batxilergo eramanda, agertokia oso ezberdina izan zen. Izan ere, 2021/2022 ikasturtean 8.824 ikasle matrikulatu ziren, hau da, balioak % 1,2 jaitsi ziren. Ikastetxe publikoetan (-% 1,5) zein pribatuetan (-% 0,7) egin zuen behera matrikulazioak. Sare publikoak ikasle gehiago jaso zituen (% 59,9).

144. koadroa Euskalduntze maila Heziketa-zikloak eta Batxilergoa

Kontzeptua	A	B	D	X	Guztira (%)
Heziketa Zikloak					
– 21/22 ikasturtea	0,0	0,0	7,3	92,7	100
Batxilergoa					
– 21/22 ikasturtea	3,8	0,0	25,6	70,6	100


Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Hizkuntza-ereduen arabeko ikasleen banaketari dagokionez, ez zen aldaketa handirik hauteman aurreko ikasturtearekin alderatuta.

X eredia kokatu zen buruan. Lanbide Heziketan gehieneko balioetara gerturatu zen (ikasleen % 92,7), eta partaidetza nabarmena izan zuen Batxilergoan (% 70,6). Gainerako ereduei dagokienez, D ereduko ikasketak egin zituzten Batxilergoko ikasleen % 25,6k eta Heziketa Zikloetako ikasleen % 7,3k. A ereduaren presentzia, berriz, oso txikia izan zen; Batxilergoko ikasleen % 3,8k baino ez zuten aukeratu.

Hortaz, euskalduntze-tasa % 7,3koa izan zen Heziketa Zikloetan, eta % 25,6koa Batxilergoan.

30. grafikoa Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Nafarroan



Iturria: Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Hala, atxikitako grafikoan ikus daitekeen moduan, irakaskuntzako lehen hiru mailetan, hirurak batera kontuan hartuta, azken ikasturteetan behera egin zuen pixkanaka matrikula kopuruak. Goiko mailetan, berriz, hazkundea moteldu egin zen.

2.2. UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Unibertsitateko hezkuntza aztertzeko, lehen esan dugun moduan, aintzat hartu behar da Nafarroako hezkuntza-eskaintza bi unibertsitatek osatzen dutela: Nafarroako Unibertsitatea (pribatua) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA). Bi unibertsitateetan gora egin zuen ikasle kopuruak 2021/2022 ikasturtean, antzeko proportzioan.

Zehatzago esanda, Nafarroako Unibertsitatean 9.249 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 3,6 gehiago. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, berriz, 7.813 matrikulatu ziren, hau da, % 3,3ko hazkundera izan zuen.

Irakasleei dagokienez, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 63 irakasle gehiago zenbatu ziren; guztira, 1.064 irakasle. Nafarroako Unibertsitatean 8 irakasle gehiago erregistratu ziren, denak Nafarroako campusean; hala, 920 irakasle izatera iritsi ziren. Zifra horri Gipuzkoako campusari atxikitako 145 irakasleak gehitu behar zaizkio. Hortaz, 1.065 irakaslek osatu zuten errolda.

Jarraian, erreferentziarako bi unibertsitateetan ikasleek izandako bilakaeraren xehetasunak aurkezten dira.

145. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	20/21 ikasturtea	21/22 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Nafarroa	7.905	8.239	100,0	4,2
Zuzenbidea	781	819	9,9	4,9
Medikuntza	1.216	1.191	14,5	-2,1
Filosofia eta Letrak	439	503	6,1	14,6
Komunikazioa	902	948	11,5	5,1
Hezkuntza eta Psikologia	647	641	7,8	-0,9
Zientziak	649	691	8,4	6,5
Farmazia eta Nutrizioa	697	731	8,9	4,9
Arkitektura	502	558	6,8	11,2
Teologia	145	128	1,6	-11,7
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	1.207	1.301	15,8	7,8
Idazkaritza eta Administrazioa	195	195	2,4	0,0
Erizaintza	525	533	6,5	1,5
Gipuzkoa	1.019	1.010	100,0	-0,9
Industria Ingeniaritza	1.019	1.010	100,0	-0,9
Guztira⁽²⁾	8.924	9.249	100,0	3,6

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, doktoregoko 1.060 ikasle eta masterreko 732 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.

Nafarroako Unibertsitatearekin hasiko gara eta, zehatzago esanda, Nafarroako campusarekin. Hark jasotzen du jardueraren zatirik handiena (ikasleen % 89,1), eta 334 ikasle gehiago matrikulatu ziren (urte arteko +% 4,2ko aldakuntza). Ia fakultate guztietan ugaritu ziren ikasleak. Medikuntza Fakultatean (-% 2,1), Hezkuntza eta Psikologia Fakultatean (-% 0,9) eta Teologiakoan (-% 11,7) bakarrik egin zuen behera ikasle kopuruak; horien partaidetzak honako hauek dira, hurrenez hurren: % 14,5, % 7,8 eta % 1,6.

Goranzko bilakaera izan zuten fakultateen artean, hauek nabarmendu ziren, haien pisu espezifikorengatik: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, % 15,8ko partaidetzarekin eta % 7,8ko matrikulazio-igoerarekin; Komunikazio Fakultatea, % 11,5eko kuotarekin eta % 5,1ko hazkundearekin; eta Zuzenbide Fakultatea, guztizkoaren gaineko % 9,9ko ekarpenarekin eta % 4,9ko hazkundearekin. Dena den, hazkunde handiena izan zuten fakultateak Filosofia eta Letrena eta Arkitekturakoa izan ziren (% 14,6 eta % 11,2ko hazkundeak, hurrenez hurren), nahiz eta pisu erlatibo txikiagoa izan (% 6,1 eta % 6,8, hurrenez hurren). Farmazia eta Nutrizioko (ikasleen % 8,9), Zientzietako (% 8,4) eta Erizaintzako (% 6,5) fakultateetan ere hazi egin zen ikasle kopurua, baina neurri ezberdinetan (+% 4,9, +% 6,5 eta +% 1,5, hurrenez hurren). Aldiz, Idazkaritza Fakultatean (ikasleen % 2,4) ez zen aldaketarik izan ikasle kopuruan.

Gipuzkoan kokatuta dagoen Ingeniaritza Eskolak osatzen du Nafarroako Unibertsitatearen eskaintza. Bertan, aurreko urteko ikasleen bolumen bera izan zuten ia; hau da, guztira 1.010 ikasle izan zituzten, aurreko ikasturtean baino 9 gutxiago.

146. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	Ikasturtea 20/21	ikasturtea 21/22 ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako GET	637	730	9,3	14,6
Industria Ingeniaritza, Informatika eta Telekomunikazioen GET	2.050	2.119	27,1	3,4
Osasun Zientzien Fakultatea	912	1.017	13,0	11,5
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.157	1.122	14,4	-3,0
Giza eta Gizarte Zientzien eta Hezkuntzaren Fakultatea	1.926	1.948	25,0	1,1
Zientzia Juridikoen Fakultatea	638	621	7,9	-2,7
Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultatea ⁽²⁾	229	230	2,9	0,4
Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako GET/ Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea ⁽³⁾	18	26	0,3	44,4
Guztira⁽⁴⁾	7.567	7.813	100,0	3,3

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren eta Zuzenbidearen Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Datuen Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren Gradu Bikoitzeko ikasleak jasotzen ditu.

(4): Horiez gain, masterreko 851 ikasle eta doktoregoko 423 ikasle daude Nafarroan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (UPNA) kasuan azterketa bera eginda, 2021/2022 ikasturtean % 3,3 hazi ziren matrikulak; hala, 7.813 ikasle matrikulatu ziren (aurreko ikasturtean baino 246 gehiago). Eskaintza osatzen duten 8 fakultateetatik 6tan egin zuen gora ikasle kopuruak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Nekazaritza Ingeniaritza GETek (+% 14,6) eta Osasun Zientzien Fakultateak (+% 11,5) izandako igoerak nabarmendu ziren; horiek, hurrenez hurren, % 9,3 eta % 13,0ko pisu erlatiboak dituzte. Honakoetan matrikulak nahiko egonkor mantendu ziren: Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET (+% 3,4), Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (+% 1,1) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien eta Zientzia Juridikoen Fakultatea (+% 0,4). Gainera, lehenengo biek jaso zituzten ikasle gehien (guztizkoaren % 27,1, % 24,9 eta % 2,9, hurrenez hurren). Talde horri Nekazaritza Ingeniaritza/Ekonomia eta Enpresa zientzien GET batu zitzaizkien; % 0,3ko partaidetzarekin eta 8 ikasle gehiagorekin itxi zuen ikasturtea.

Aitzitik, honakoetan behera egin zuen matrikulazioak: Ekonomia eta Enpresa Zientziak (-% 3,0; ikasleen % 14,4) eta Zientzia Juridikoen Fakultatea (-% 2,7; pisu espezifiko txikiagoa, % 7,9koa).

3. GARRAIOA

3.1. ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepide bidezko garraioarekin hasiko dugu Nafarroako garraioari buruzko kapitulua, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) emandako informazioa izango dugu kontuan. 2021ean 481.835 unitatek osatzen zuten Foru Erkidegoko ibilgailuen parkea, aurreko ekitaldian baino % 1,1 gehiagok (5.363 ibilgailu gehiago). Ondoz ondoko zortzigarren urtez, urte arteko aldakuntza positiboa izan zuen adierazle honek. Dena den, azken urteetan moteldu egin da hazkunde erritmoa (2018an % 1,7, 2019an % 1,5 eta 2020an % 1,3).

147. koadroa Nafarroako ibilgailuen parkea

(unitate)

Urtea	Kamioiak eta furgonetak	Autobusak	Turismoak	Motozikletak	Traktore Industrialak	Beste batzuk	Guztira	% Δ
2012	80.765	903	301.600	30.121	4.178	18.165	435.732	-0,1
2013	79.249	842	299.058	30.406	4.198	18.151	431.904	-0,9
2014	77.899	817	299.536	31.224	4.043	18.661	432.180	0,1
2015	77.178	812	303.975	32.166	4.267	17.795	436.193	0,9
2016	76.886	825	310.846	33.299	4.389	18.364	444.609	1,9
2017	74.845	848	322.140	34.327	4.432	18.875	455.467	2,4
2018	76.789	849	326.703	35.390	4.613	19.353	463.297	1,7
2019	76.530	822	331.837	36.620	4.592	19.981	470.382	1,5
2020	76.249	813	336.139	38.106	4.656	20.509	476.472	1,3
2021*	76.171	833	339.474	39.662	4.592	21.103	481.835	1,1

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia

Datuetan sakonduta eta ibilgailu bakoitzaren pisu espezifikokoari dagokionez, parkearen osaerak ez zuen aldaketa handirik izan aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Turismoek osatu zuten parkearen % 70,5; 2021ean 339.474 unitatera iritsi ziren, % leku hazkunde apala erregistratu ondoren (2020an baino 3.335 turismo gehiago). Partaidetza handieneko bigarren ibilgailu motak, kamioiek eta furgonetek (guztizkoaren % 15,8), 76.171 unitaterekin itxi zuten ekitaldia, beheranzko aldakuntza oso txiki bat izan ondoren (-% 0,1; 78 unitate gutxiago). Bilakaera bera izan zuten traktore industrialek (-% 1,4); horien presentzia askoz ere txikiagoa izan zen (% 1) eta 4.592 unitate zenbatu ziren (-64). Bestetik, motozikletek eta autobusek gora egin zuten, % 4,1 eta % 2,5. Hala, parkearen % 8,2 eta % 0,2 ordezkatu zuten, hurrenez hurren. Nabarmenezkoa da motozikletek izandako bilakaera, goranzko joera jarraitua mantentzen baitute; hala, 39.000 unitateren langa gainditu zuten 2021ean.

148. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia (*)*(unitate)*

Urtea	Kamioiak eta traktore industrialak		Autobusak		Guztira	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2012	-1.092	-85.065	-29	-1.231	-1.121	-86.296
2013	-1.496	-101.512	-61	-1.235	-1.557	-102.747
2014	-1.505	-44.630	-25	-93	-1.530	-44.723
2015	-497	21.631	-5	453	-502	22.084
2016	-170	41.433	13	1.589	-157	43.022
2017	-1.998	-68.523	23	1.749	-1.975	-66.774
2018	2.125	187.069	1	1.325	2.126	188.394
2019	-280	43.805	-27	558	-307	44.363
2020	-217	17.974	-9	-2.059	-226	15.915
2021	-142	22.229	20	1.037	-122	23.266

()*: Parkearen urte arteko aldakuntza.

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Azterketarekin aurrera eginda eta kamioien, traktore industrialen eta autobusen matrikulazioari dagokionez, datuei begiratuta argi ikusten da alde nabarmenak daudela Nafarroako datuen eta Estatu osoko datuen artean. Zehazki, kamioien eta traktore industrialen matrikulazio garbiak behera egin zuen Foru Erkidegoan (-142 unitate). Autobusen kasuan, berriz, gora egin zuen (+20 unitate). Hortaz, balantze bateratua aintzat hartuz gero, matrikulazio garbien kopurua 122 unitate murriztu zen. Aitzitik, Estatuan nabarmen hazi zen kamioien eta traktore industrialen matrikulazio garbia (+22.229 unitate), eta autobusen matrikulazioak ere gora egin zuen (+1.037). Hala, ekitaldiaren balantzea positiboa izan zen eta matrikulazio garbia 23.266 ibilgailukoa izan zen.

149. koadroa Motorizazio-indizeak

Urtea	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanleak/Turismoak	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2012	676	660	2,1	2,1
2013	670	656	2,1	2,1
2014	674	662	2,1	2,1
2015	681	673	2,1	2,1
2016	694	690	2,1	2,0
2017	708	707	2,0	2,0
2018	715	722	2,0	1,9
2019	719	732	2,0	1,9
2020	721	733	2,0	1,9
2021	728	742	1,9	1,9

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta guk geuk egina.

Azterketarekin aurrera jarraituz eta motorizazio-indizeari eta 1.000 biztanleko ibilgailuen tasari dagokienez, 2021ean gora egin zuten berriz ere bi adierazleek. Hala, 2013an Nafarroan eta Estatuan hasitako segidari jarraipena eman zitzaion. Zehazki, Foru Erkidegoko tasa 1.000 biztanleko 728 ibilgailukoa izan zen. Estatukoa, berriz, apur bat altuagoa, 1.000 biztanleko 742 ibilgailukoa.

Turismo bakoitzeko biztanle kopuruaren ratioa, berriz, aldaketarik gabe mantendu zen Estatuan, eta Nafarroan behera egin zuen. Ondorioz, bi lurraldeek zifra bera eskuratu zuten: turismo bakoitzeko 1,9 biztanle.

150. koadroa Autobideko ibilgailuen trafikoa Nafarroan*

Urtea	Ibilgailu arinak	% Δ	Ibilgailu astunak	% Δ	Ibilgailuak guztira	% Δ
2012	14.388	-8,0	3.326	-9,8	17.714	-8,3
2013	13.850	-3,7	3.330	0,1	17.180	-3,0
2014	13.963	0,8	3.428	2,9	17.391	1,2
2015	14.523	4,0	3.645	6,3	18.168	4,5
2016	15.195	4,6	3.722	2,1	18.917	4,1
2017	15.709	3,4	3.834	3,0	19.543	3,3
2018	16.094	2,5	4.242	10,6	20.335	4,1
2019	16.843	4,7	4.309	1,6	21.152	4,0
2020	12.406	-26,3	3.902	-9,4	16.308	-22,9
2021	15.653	26,2	4.223	8,2	19.876	21,9

(*): Eguneko ibilgailuen batezbestekoa.
Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua.

Errepide bidezko ibilgailuen trafikoari buruzko datuak aztertuz gero, eta Nafarroako autopistetako bilakaerari dagokionez, 2021ean asko hazi ziren eguneko batez besteko balioak (+% 21,9). Hala, pandemiaren aurreko maila berreskuratu zen partzialki. Zehazki, 2021ean eguneko batez beste 19.876 ibilgailu pasatu ziren Nafarroako autobideetatik, 2019ko gehieneko balioetatik urrun (eguneko 21.152 ibilgailu, batez beste). Urte arteko bilakaera positibo horretan bi segmentuek izan zuten eragina. Dena den, ibilgailu arinen hazkundea nabarmenagoa izan zen (+% 26,2) ibilgailu astunena (+% 8,2) baino; ibilgailu arinei zegokien trafikoaren % 78,8.

151. koadroa Garraiatutako merkantziak. Jatorri eta/edo helmugako eskualde barruko garraioa eta eskualde kanpoko garraioa*

(m Tm)

Eremua	Nafarroa			Espainia		
	2020	2021	% Δ	2020	2021	% Δ
Eskualde barruko garraioa	14.217	13.454	-5,4	800.956	869.430	8,5
Eskualde arteko garraioa	28.338	28.593	0,9	350.527	394.853	12,6
Guztira	42.555	42.047	-1,2	1.151.483	1.264.283	9,8

(*): Zifrak urte bakoitzaren osotasunari dagozkio.
Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Estadistika Buletina.

Errepide bidezko garraioarekin amaitzeko, jatorria eta/edo helmuga Nafarroan eta Estatuan duten eskualde barruko garraioaren eta eskualde arteko trafikoaren bilakaera aztertuko dugu. Merkantzien Errepide Bidezko Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorrean oinarrituta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak emandako informazioaren arabera, 2021ean ikur ezberdinetako emaitzak eskuratu ziren eremu geografikoaren arabera. Hala, Nafarroan behera egin zuen garraiatutako merkantzien bolumenak (-% 1,2; 42.047 mila tona) eta, Estatuan, gora (+% 9,8; 1.264.283 mila tona).

Informazioa garraio motaren arabera banakatuta eta Nafarroarekin hasita, 2021ean apur bat hazi zen eskualde artean garraiatutako bolumena (+% 0,9), 28.593 mila tona garraiatuta. Eskualde barruko garraioari dagokionez, berriz, urteko balantzea negatiboa izan zen (-% 5,4), 13.454 mila tona garraiatuta. Horren guztiaren ondorioz, eskualde barruko garraioaren bikoitza baino gehiago izan zen eskualde arteko garraioa 2021ean.

Azterketa hori Estatura eramanda, jarduerak bilakaera hobea izan zuen han eta, gainera, bi segmentuetan. Hala, eskualde barruko garraioaren balioak % 8,5 hazi ziren, 869.430 mila tona garraiatuta. Eta eskualde arteko garraioak joera bera izan zuen: 394.853 mila tona garraiatu ziren eta hazkundea % 12,6koa izan zen. Dena den, eskualde barruko garraioak (guztizkoaren % 68,8) alde handiarekin gainditu zuen eskualde arteko garraioa (% 31,2).

3.2. AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Aire bidezko garraioaren analisiari dagokionez, datuek adierazten dute Noingo aireportuko jardura suspertu egin dela, baina partzialki. Hala, pandemiaren aurreko balioak 2023-2024an itzuliko direla uste da, beste ezustekorik gertatu ezean.

Bidaiari kopuruarekin hasita, 2021ean 112,5 mila bidaiari zenbatu ziren, aurreko ekitaldian baino heren bat gehiago (+% 33,8) eta 2019an erregistratutako mugimenduaren erdia baino zerbait gutxiago. Hala, urtea trafiko urriarekin hasi zen –pandemiaren murrizketek baldintzatuta–, baina uda garaian zabaldu egin zen hegaldien eskaintza hainbat norakotara, esaterako, Balearretara eta Kanarietara (Binter konpainiaren bidez). Horrek nabarmen bultzatu zuen aireportuko jardura. Hala ere, Nafarroako aireportuaren hazkundea Estatuko aireportuena baino txikiagoa izan zen; azken horiek urte arteko % 57,7ko hazkundea izan zuten bidaiari kopuruari dagokionez.

Aurrekoarekin lotuta, Nafarroako aireportuan erregistratutako operazio kopurua hazi egin zen (+% 48,1), eta guztira 5.241 hegaldi zenbatu ziren. Garraiatutako merkantzien bolumena 2,3 mila tonakoa izan zen. Hala, jardura esponentzialki hazi zen 2020arekiko, orduan ez baitzen apenas jarduerarik izan, baina oso urrun dago oraindik ere 2019ko balioetatik (22,2 mila tona).

152. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko trafikoa

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Merkantziak (m)		
	Guztira	% Δ	Espainiako %	Guztira	% Δ	Espainiako %	Guztira	% Δ	Espainiako %
2015	5.702	4,5	0,30	144,0	7,2	0,07	4,3	-48,2	0,001
2016	5.372	-5,8	0,26	153,5	6,6	0,07	2,0	-53,3	0,0003
2017	5.683	5,8	0,26	165,6	7,9	0,07	7,3	263,6	0,001
2018	6.427	13,1	0,28	205,5	24,1	0,08	29,3	301,8	0,003
2019	6.136	-4,5	0,26	243,5	18,5	0,09	22,2	-24,3	0,002
2020	3.538	-42,3	0,32	84,1	-65,5	0,11	0,0	-99,8	0,000
2021	5.241	48,1	0,35	112,5	33,8	0,09	2,3	5043,2	0,000

Iturria: AENA.

Aireko trafikoaren jatorriari dagokionez, hegaldi nazionalak (+% 51,1) zein nazioartekoak (+% 13,4) egin zuten gora, baina partzialki, batez ere, bigarrenek. Hortaz, trafiko nazionalan oinarritu zen jardura (% 94, eta nazioartekoa % 6).

Era berean, bidaiarien jatorriari dagokionez, Estatuko bidaiariak izan ziren jardura ia osoaren erantzuleak (guztizkoaren % 97,9). Atzerriko trafikoarentzat oso zaila izan zen agertokia eta 53,2 mila bidaiari galdu ditu azken biurtekoan. Merkantzien trafikoari dagokionez, nazioarteko kargamentuak izandako bilakaera hobea nabarmendu zen, gutxieneko bolumenak izan arren (2019arekiko -% 89,8).

153. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko trafikoa jatorriaren arabera

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Merkantziak (Tm)		
	Guztira	Barnekoa	Nazioartekoa	Guztira	Barnekoa	Nazioartekoa	Guztira	Barnekoa	Nazioartekoa
2015	5.702	5.124	578	144,0	138,5	5,5	4,3	1,0	3,3
2016	5.372	4.830	542	153,5	147,9	5,5	2,0	0,8	1,3
2017	5.683	5.134	549	165,6	154,4	11,2	7,3	0,001	7,3
2018	6.427	5.396	1.031	205,5	159,9	45,6	29,3	0,005	29,3
2019	6.136	5.006	1.130	243,5	187,9	55,6	22,2	2,288	19,9
2020	3.538	3.262	276	84,1	78,5	5,6	0,0	0,044	0,0
2021	5.241	4.928	313	112,5	110,1	2,4	2,3	0,465	1,8

Iturria: AENA.

Hala, 2021ean gailendutako ziurgabetasun handiak izugarri baldintzatu zituen Noingo aireportuaren emaitzak. Kanariak, Balearrak, Sizilia, Marrakex, Krakovia edo Pragaren gisako helmugen bultzada ez zen nahikoa izan aireportuaren jardura birbideratzeko. Lufthansak uko egin zion Frankfurtetikiko loturak berrezartzeari, eta aireportuak kolpe handia hartu zuen horrekin. Egoera horrek eta pandemiaren iraunkortasunak nahi baino gehiago atzeratu zuten aireportuko jardura erabat suspertzea.

4. TURISMOA

2020an jaitsiera historikoa izan zuen nazioarteko turismo-jarduerak, martxoan pandemia lehertu ondoren. 2021ean suspertu egin ziren sektoreko adierazleak, baina partzialki. Herritarren immunizazio gradualari esker, ostalaritzako neurri murriztaileak lasaitu ahal izan zituzten eta txertatutako herritarrek mugitzeko aukera zuten (COVID pasaporteak), baina ondoz ondoko olatuek eta gailendu zen ziurgabetasun handiak sektoreko jarduera oztopatzen jarraitu zuten.

Hala, urteko lehenengo zatian bidaiarien fluxuak oso hazkunde txikia izan zuen. Uda garaian, berriz, nabarmen hazi zen mundu mailako turismoa, baina aurreikusitakoa baino eritmo motelagoan, eta modu ezberdinean eremu geografikoaren arabera. Hortaz, urteko hirugarren hiruhilekoan, pandemia-egoera nahiko kontrolatuta zegoenean, pilatutako eskaria esnatu egin zen, oporretan normaltasunera itzultzeko nahiarekin. Dena den, urtearen amaieran andui berri bat agertu zen eta horrek lausotu egin zuen egoera; izan ere, kutsatzeek eta ospitaleetako presioak hazkunde handia izan zuten eta, ondorioz, murrizketa berriak ezarri behar izan zituzten.

Hala ere, eta guztizko suspertzea 2022rako espero bazen ere, mehatxu berriak agertu zitzaizkion sektoreari. 2022an Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gatazka hasi zen. Krisialdi humanitario izugarriaz gain, tentsio geopolitiko larriak eta ondorio ekonomiko garrantzitsuak ekarri zituen hark.

Turismoari dagokionez, honakoak izan ziren berehalako ondorioak: aireko espazioa ixtea, erregaien prezioen igoera edota Ekialdeko Europako turismoguneetako eskaria murriztea. Bestetik, horrek mesede egin diezaieke turismogune "seguruagoi", hala nola Espainiari, Greziari edo Portugalari.

Hala, zirkunstantzia berri horiek tentsio handiagoa gehitu zioten jarduera turistikoari. Batetik, espiral inflazionistak eragina du garraioaren eta ostatuaren kostuan. Bestetik, eskariak mesfidantza handia du berriz ere. Horrek guztiak, berriro gaiztotu du sektorearen etorkizuna.

4.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Jarduera turistikoaren bilakaerari buruzko datuei dagokienez, eta Munduko Turismoaren Barometroan (TME) argitaratutako informazioaren arabera, 2021ean apur bat berreskuratu zen nazioarteko bidaiarien fluxua, 2020an jaitsiera historikoa izan ondoren. Hala, ekitaldian zehar 421 milioi iritsiera izan ziren, eta urte arteko hazkunde apal bat (+% 4,5), oraindik ere 2019ko mailatik oso urrun (-% 72; 1.047 milioi bidaiari gutxiago).

Bilakaera horrekin bat, nazioarteko turismotik etorritako diru-sarrerek ere gora egin zuten 2021ean (+% 9,7, 2020arekiko), 700.000 miloi dolarrera iritsi arte. Diru-sarrera horiek, hala ere, pandemiaren aurretik erregistratutako balioetatik oso urrun daude (-% 58,9).

Egoera ezohikoa izan arren, nazioarteko turisten eskualde hartzaile nagusia izaten jarraitu zuen Europak 2021ean, 281 milioiko bolumenarekin (guztizkoaren % 66,8). Hauek izan ziren hurrengoak, distantzia handira: Amerika (82 milioi; % 19,6), Asia eta Pazifikoa (21 milioi; % 5,0), Afrika (19 milioi; % 4,4) eta Ekialde Ertaina (18 milioi; % 4,3).

Halaber, urte arteko bilakaera ezberdina izan zen eremu geografikoaren arabera. Europan, Amerikan eta Afrikan % 18 inguru igo zen nazioarteko bidaiarien bolumena. Behera egin zuen, ordea, Ekialde Ertainean (-% 10) eta, neurri handiagoan, Asian eta Pazifikoan (-% 64,4). Dena den, pandemiaren ondorioek guztietan utzi zuen aztarna. Izan ere, eskaria % 62,3 (Europan) eta % 94,2 (Asia eta Pazifikoan) artean jaitsi zen, erregistratutako balioak 2019koekin alderatuz gero.

154. koadroa Nazioarteko turistak

Turistak, milioitan

Eremua	2019	2020	2021	2021eko merkatu-kuota (%)	% Δ 21/19
Guztira	1.468	403	421	100,0	-71,3
-Europa	747	237	281	66,8	-62,3
-Amerika	219	70	82	19,6	-62,4
-Asia eta Pazifikoa	360	59	21	5,0	-94,2
-Afrika	68	16	19	4,4	-72,9
-Ekialde Ertaina	73	20	18	4,3	-75,1
Europa*					
-Ipar Europa	84	22	16	3,8	-80,7
-Mendebaldeko Europa	204	80	72	17,0	-64,8
-Erdialdeko/Ekialdeko Europa	155	48	55	13,1	-64,4
-Hego Europa/Mediterraneo	304	88	138	32,8	-54,5
-Horietatik EB-27koak	540	180	204	48,3	-62,3

(*): 2021eko behin-behineko datuak.

Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea

Datuak eskualdeka aztertuta eta Europari dagokionez, aztertutako merkatu guztiek ez zuten portaera-eredu bera izan. Zehazki, Hego Europa/Mediterraneoak (turismogune nagusia) % 56,8ko urte arteko hazkundea izan zuen nazioarteko bidaiari kopuruari dagokionez; guztira 138 miloi turista zenbatu ziren. Hala ere, urrun dago oraindik 2019an erregistratutako 304 milioi turistatik. Erdialdeko/Ekialdeko Europak 55 milioi bidaiari jaso zituen eta kasu honetan ere igo egin zen bidaiarien fluxua (2020an baino % 14,6 gehiago), nahiz eta 2019an baino 100 milioi bidaiari gutxiago izan. Mendebaldeko Europak (72 milioi) eta Ipar Europak (16 milioi) bidaiariak galdu zituzten azken ekitaldian (-% 10 eta -% 27,3). Hala, areagotu egin zen 2019ko datuekiko aldea (84 milioi eta 204 milioi, hurrenez hurren).

4.2. TURISMOA ESPAINIAN

Estatu mailan, turismo-sektorea da ekonomiaren motor nagusietako bat, bai aberastasuna sortzeari dagokionez, bai enplegua sortzeari dagokionez. 2020an¹ turismo-jarduera 61.406 milioi eurora iritsi zen (2019an 154.738 milioi euro); hala, BPGaren % 5,5 ordezkatu zuen, 2019an baino ia zazpi puntu gutxiago. Sektoroko enpleguak, berriz, 2,23 milioi lanposturekin, Estatuko enpleguaren % 11,8 ordezkatu zuen. Sektoroko enplegua mantendu egin zen neurri handi batean, Aldi Baterako Enplegua Erregulatzeko Espedienteei (ABEEE) esker.

2021ean, Exceltur-ek² egindako kalkuluen arabera, badirudi sektoreak berreskuratu egin zuela 2020an galdutakoaren zati bat. Hala, sektoreko jarduerak 88.546 milioi euro sortu zituen, eta % 7 inguruko ekarpena egin zion BPGari.

Dena den, 2021ean oso aldakorra izan zen turismo-jarduera, pandemiaren ondorengo ondoko olatuek gogor baldintzatua. Herritarren txertaketaren aurrerapenak eta neurri murriztaileen lasaitzeak ere eragin zioten. Hala, urte hasiera apala izan zen, maiatzera arte bidaiak geldi egon baitziren. Udan hazi egin zen bidaiarien mugimendua, bereziki, Estatukoena. Eta merkatu igorle nagusietako bidaiarien fluxuek nolabaiteko igoera izan zuten (Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua). 2021aren amaieran, ordea, birusaren aldaera berri bat agertu zen eta murrizketak itzuli ziren. Hala, atzeratu egin zen hainbeste esperotako suspertzea.

Eskari turistikoa

2020an pandemia iritsi zenean, jarduera bat-batean gelditu zen. Baina, horrez gain, eskari turistikoaren portaera aldatu egin zen, eta badirudi aldaketa hori finkatu egin zela

¹ EIN Turismoaren Kontu Satelitea.

² Irabazi-asmorik gabeko elkarte, 35 enpresa garrantzitsuk osatua. Enpresa horiek turismoaren balio-kate osokoak dira, eta azpisektore hauetakoak: aireko, tren bidezko, itsasoko eta lehorreko garraioa; ostatuak; bidaiaria agentziak eta tour operadoreak; ordaintzeko bitartekoak; autoen alokairua; ospitale turistikoak; eta erreserba-zentralak/GDS.

2021ean, ziurgabetasun handiko agertokiaren aurrean. Honakoek baldintzatu zuten sektoreko jardueraren emaitzen bilakaera: gertuko turismoaren bultzada, merkatuz kanpoko turismoaren bultzada (bigarren etxebizitzak edo familiakoen/lagunen etxebizitzak), establezimendu turistiko batzuk nahiago izatea (landa-ostatuak, etxebizitza turistikoak...) eta azken orduan erosteko joera, egoera epidemiologikoaren arabera.

Atzerriko segmentuari buruzko informazioarekin hasita, 2021ean atzerriko 31.177.741 bidaiari jaso zituen guztira Espainiak (-% 62,7 2019arekiko). Hiru merkatu igorle nagusiek jarraitu zuten iritsieren ia erdiaren erantzuleak izaten. Frantzia kokatu zen buruan, % 18,7ko partaidetzarekin (5,8 milioi turista; -% 47,8); hurrengoak Alemania (5,2 milioi bidaiari; -% 53,3) eta Erresuma Batua (4,3 milioi bisitari; -% 76,1) izan ziren. Gainerako herrialde igorleei dagokienez, jaitsierak izan zituzten guztiek, baina neurri ezberdinetakoak. Errusia (-% 90,0), Estatu Batuak (-% 76,0) eta Irlanda (-% 71,0) nabarmendu ziren, horietatik etorritako bidaiari kopuruak izan zuen jaitsiera handiagatik. Errusiako turismoak behera egingo duela aurreikus daiteke, azkenaldiko gertakari geopolitikoaren ondorioz. Baina nabarmendu beharrekoa da jaitsiera hori ez dela oso erabakigarria izango Espainiarentzat, atzerriko segmentuaren gainean duen ekarpena oso txikia delako (2019an % 1,6). 2020 eta 2021 artean bidaiarien bolumena murriztu zuen herrialde bakarra izan zen, taulan kontuan hartu direnen artean.

155. koadroa Espainiara datozen bidaiariak¹, jatorriaren arabera

Eremua	2019	2020	2021*	% Δ 21/19
Frantzia	11.147.397	3.887.750	5.822.671	-47,8
Alemania	11.158.022	2.391.437	5.208.894	-53,3
Erresuma Batua	18.012.482	3.150.204	4.302.634	-76,1
Herbehereak	3.684.260	918.361	2.048.854	-44,4
Herrialde eskandinaviarrak	5.530.112	1.175.329	1.839.654	-66,7
Italia	4.534.513	947.405	1.703.422	-62,4
Belgika	2.525.887	743.411	1.464.092	-42,0
Portugal	2.428.789	755.229	1.193.649	-50,9
Suitza	1.811.867	397.073	945.709	-47,8
AEB	3.324.870	403.438	797.842	-76,0
Irlanda	2.177.592	328.629	631.314	-71,0
Errusia	1.314.079	146.647	131.182	-90,0
Europako gainerakoak	6.441.422	1.692.074	2.991.449	-53,6
Amerikako gainerakoak	3.767.276	900.445	1.069.422	-71,6
Munduko gainerakoak	5.650.584	1.061.493	1.026.953	-81,8
Guztira	83.509.152	18.898.925	31.177.741	-62,7

(*): 2021eko apirileko datuak eta ondorengoak behin-behinekoak dira.


Iturria: EIN Herrialdeen arteko bidaiarien mugimenduaren estatistika (Frontur).

¹ Frontur-ek (Atzerritarren mugimendu turistikoaren estatistika), garraibideen eta bidaiatzeko motibazioaren arabera, Espainian bizi ez diren eta ostatu mota guztiak erabiltzen dituzten bidaiarien fluxua jasotzen du, honako hauek barne: bigarren etxebizitzak, etxebizitza partikularrak, eta horiez gain, hotel-sareak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak edota kanpinak. Horiek dira kapitulu honetako aztergai nagusia.

Eskari turistikoaren azterketarekin jarraituz, eta Hoteletako Okupazioaren Galdetegiari¹ (EIN) dagokionez –hoteletan, apartamentu turistikoetan, landa-ostatuetan, kanpinetan eta aterpetxeetan jasotako bidaiariak eta horien gaualdiak hartzen ditu kontuan– 2021eko emaitzek agerian uzten dute, batetik, apur bat hobetu zela urte arteko bilakaera; eta, bestetik, sektoreko jardueraren okertzeak iraun egiten duela, 2019ko balioekin alderatuz gero. Hala, 2021ean 80,4 milioi bidaiari zenbatu ziren guztira (2019arekin alderatuta, -% 40,4), eta 258,9 milioi gaualdi (2019arekiko, -% 44,9).

Azterketarekin jarraituz, eta bidaiarien jatorriari dagokionez, aurreko ekitaldian bezala, bilakaera okerragoa izan zuen atzerriko segmentuak (2019arekiko -% 63,6) –bidaiei ezarritako mugen ondorioz–. Estatuko osagaiak (-% 23,8), berriz, bilakaera hobea izan zuen, nahiz eta oraindik ohiko zifretatik urrun egon. Bidaiarien bilakaerarekin bat etorritik, gaualdiek % 63,4ko eta % 24,3ko murrizketak izan zituzten covidaren aurreko mailarekiko, atzerriko eta Estatuko segmentuetan, hurrenez hurren. Gauzak hala, Estatuko osagaiak protagonismo handiagoa eskuratu zuen jardura turistikoan. Izan ere, Estatukoak izan ziren 2021eko bidaiarien % 66,4 eta gaualdien % 52,6.

31. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2019-2021) Hotel-establezimenduak



Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

¹ Ez ditu plataformen bitartez (Airbnb, adibidez) eskainitako plazek eragindako mugimendua eta okupazioa kontuan hartzen, eskaintza hori legezko ostatu-sarean ez badago behintzat.

Halaber, jarduera turistikoaren hileko azterketak aukera ematen du ikusteko, egoera ezohikoa izan arren, eskariaren portaerak urtaroen arabera izaten jarraitu zuela. Hala, udako hilabeteetan pilatu ziren bidaiari eta gaualdi gehienak; osasun-egoerak ere bultzatu zuen hori. Aurrez aipatu dugun moduan eta grafikoan ikus daitekeenez, 2020ko maiatzaz geroztik aldatu egin da eskariaren osaera: aldi guztietan, gehiago izan dira Estatuko bidaiariak, atzerrikoak baino.

156. koadroa Eskari turistikoaren bilakaera Espainian

Eremua	2019	2020	2021	% Δ 21/19
Bidaiariak (mila)	135.007	45.613	80.404	-40,4
-Hotelak	108.716	34.589	60.532	-44,3
-Landa-turismoa	4.421	2.083	3.352	-24,2
-Apartamentu turistikoak	12.479	4.218	7.430	-40,5
-Kanpinak	8.304	4.489	7.612	-8,3
-Aterpetxeak	1.087	234	1.478	35,9
Gaualdiak (mila)	469.814	144.677	258.930	-44,9
-Hotelak	342.996	92.223	172.346	-49,8
-Landa-turismoa	11.726	6.315	9.693	-17,3
-Apartamentu turistikoak	71.383	23.819	38.959	-45,4
-Kanpinak	40.721	21.565	34.982	-14,1
-Aterpetxeak	2.988	755	2.950	-1,3
Batez besteko egonaldia				
-Hotelak	3,2	2,7	2,8	-0,3pp
-Landa-turismoa	2,7	3,0	2,9	0,2pp
-Apartamentu turistikoak	5,7	5,6	5,2	-0,5pp
-Kanpinak	4,9	4,8	4,6	-0,3pp
-Aterpetxeak	2,7	3,2	2,0	-0,8pp

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

Azterketarekin jarraituz eta informazioa establezimendu motaren arabera banakatuta, aipatzekoa da hotelen sareak hartu zuela eskariaren zatirik handiena, nahiz eta azken bi urteetan presentzia galdu. Hala, 60,5 milioi bidaiari jaso zituzten hotelek (guztizkoaren % 75,3; 2019arekiko -% 44,3) eta 172,3 gaualdi (% 66,6; -% 49,8). Hortaz, batez besteko egonaldia 3 egun baino apur bat baxuagoa izan zen (2,8).

Gainerako establezimenduei dagokienez, turismo-apartamentuetan 7,4 milioi bidaiari erregistratu ziren 2021ean (2019arekiko -% 40,5) eta ia 39 milioi gaualdi (-% 45,4). Hala, batez besteko egonaldia 5 egunetik gorakoa izan zen. Landa-turismoaren sareari dagokionez, 3,3 milioi bidaiari (-% 24,2) eta 9,7 milioi gaualdi zenbatu ziren (-% 17,3); batez besteko egonaldia ia 3 egunekoa izan zen. Kanpinetan, 2021ean 7,6 milioi bidaiari jaso zituzten (-% 8,3) eta ia 35 milioi gaualdi (-% 14,1) erregistratu zituzten; hala, batez besteko egonaldia 4,6 egunekoa izan zen. Aterpetxeek osatu zuten eskaintza. Ia milioi eta erdi bidaiari hartu zituzten (+% 36), eta ia 3 milioi gaualdi (-% 1,3). Hortaz, batez besteko egonaldia 2 egunekoa izan zen.

Eskaintza turistikoa

Eskaintza turistikoaren osaera aztertuko dugu orain. Hotel-establezimenduekin hasita, 2021ean 11.354 hotel zeuden irekita (urteko batezbestekoa), 2019an baino 3.543 establezimendu gutxiago.

Agertoki hori gainerako kategorietara ere heda daiteke: landa-turismoko 15.047 ostatu egon ziren zabalik (2019an baino 2.170 gutxiago), eta 717 kanpin (57 gutxiago). Apartamentu turistikoen kasuan, 104.283 establezimendu egon ziren irekita, 2019an baino 28.256 gutxiago. Bestetik, aterpetxeetan bestelakoa izan zen joera eta eskaintza hazi egin zen covidaren aurreko aldiarekiko, 788 establezimendura arte (+545). Neurri handi batean, naturarekin lotutako bidaiekiko, Donejakue bidearekiko... interesa hazi izanak lagundu zuen horretan.

Horren guztiaren ondorioz, eskainitako guztizko plaza kopurua nabarmen jaitsi zen aztertutako kategoria guztietan, aterpetxeetan izan ezik. Jaitsierak neurri ezberdinetakoak izan ziren, % 7,9tik hasi (kanpinetan) eta % 29,9ra artekoak (hotel-establezimenduetan).

Langileei dagokionez, argi islatuta geratu zen pandemiaren aztarna. Hala, guztira, 2021ean 178.197 pertsonak lan egiten zuten sektorean, 2019an baino % 36,9 gutxiago (104.362 pertsona gutxiago). Establezimendu mota bakoitzak enpleguari egindako ekarpenari dagokionez, eta aurreko ekitaldietan bezala, hotel-sarearena izan zen sektoreko enpleguaren zatirik handiena: 10 langiletik 7. Hala, 2021ean 127.704 lanpostura iritsi ziren (2019an baino 91.771 pertsona gutxiago). Landa-ostatuak (21.558 langile) eta apartamentu turistikoak (19.684) sektoreko enpleguaren laurdena pilatu zuten; 2019arekin alderatuta, 3.954 eta 8.815 lanpostu galdu zituzten horiek 2021ean. Kanpinek, bestalde, 6.518 enplegu sortu zituzten, 2019an baino 715 gutxiago. Aterpetxeetan bakarrik igo zen langile kopurua; 2.733 lanpostu izan zituzten, 2019an baino 893 gehiago.

157. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)

Eremua	2019	2020	2021	% Δ 21/19
Establezimendu kopurua				
-Hotelak	14.897	8.975	11.354	-23,8
-Landa-turismoa	17.217	12.800	15.047	-12,6
-Apartamentu turistikoak	132.539	77.342	104.283	-21,3
-Kanpinak	774	527	717	-7,4
-Aterpetxeak	243	127	788	224,4
Eskaintako plaza kopurua				
-Hotelak	1.517.583	740.881	1.063.881	-29,9
-Landa-turismoa	165.949	120.699	142.406	-14,2
-Apartamentu turistikoak	507.816	306.271	404.299	-20,4
-Kanpinak (partzelaka)	502.002	340.483	462.374	-7,9
-Aterpetxeak	25.537	13.807	46.778	83,2
Langileak				
-Hotelak	219.475	86.971	127.704	-41,8
-Landa-turismoa	25.512	19.208	21.558	-15,5
-Apartamentu turistikoak	28.499	14.402	19.684	-30,9
-Kanpinak	7.233	4.601	6.518	-9,9
-Aterpetxeak	1.840	1.024	2.733	48,5

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

Azterketarekin jarraituz, eskaintza turistikoari lotutako bi aldagaietatik abiatuta kalkulaturako ratioak aztertuko ditugu: eskaintako plaza kopurua eta lanpostuak dira aldagai horiek. Bi aldagaien kasuan, aintzat hartzen da establezimenduaren tamaina. Hala, kanpinak kokatu ziren buruan, horiek eskaini baitzuten plaza kopururik handiena, establezimendu bakoitzeko (644,9). Distantzia handira kokatu ziren hotelak (93,7), aterpetxeak (59,3), landa-ostatuak (9,5) eta apartamentu turistikoak (3,9).

158. koadroa Eskaintza turistikoaren bilakaera Espainian

Eremua	2019	2020	2021	% Δ 21/19
Plazak establezimendu bakoitzean				
-Hotelak	101,9	82,5	93,7	-8,0
-Landa-turismoa	9,6	9,4	9,5	-1,8
-Apartamentu turistikoak	3,8	4,0	3,9	1,2
-Kanpinak	648,6	646,1	644,9	-0,6
-Aterpetxeak	105,1	108,7	59,3	-43,5
Enplegua establezimendu bakoitzean				
-Hotelak	14,7	9,7	11,2	-23,7
-Landa-turismoa	1,5	1,5	1,4	-3,3
-Apartamentu turistikoak	0,2	0,2	0,2	-12,2
-Kanpinak	9,3	8,7	9,1	-2,7
-Aterpetxeak	7,6	8,1	3,5	-54,2

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

Establezimendu bakoitzeko enplegu-ratioari dagokionez (enpresaren tamaina neur daiteke ratio horri esker), hotel-sarea kokatu zen buruan (11,2); dena den, beheranzko bilakaera argia izan zuen (-% 23,7). Jarraian honakoak kokatu ziren: kanpinak (9,1), aterpetxeak (3,5), landa-turismoko ostatuak (1,4) eta apartamentu turistikoak (0,2); horiek guztiek behera egin zuten aipatutako adierazlean, baina neurri ezberdinean.

Okupazio maila eta prezioen bilakaera

Sektoreko zifra handien azterketarekin jarraituz eta okupazio mailari dagokionez, kanpinak eta hotelak jarri ziren buruan, batez besteko % 37 inguruko okupazioarekin. Kanpinek beherakada txiki bat izan zuten (ehuneko -2,1 puntu, 2019arekiko) eta, hotelek, beherakada nabarmena (ehuneko -21,3 puntu, 2019arekiko). Hala, pandemiak hotel-sarea gogorrago kolpatu zuela egiazta daiteke. Apartamentu turistikoetan (% 23,0), landa-turismoko ostatuetan (% 16,8) eta aterpetxeetan (% 14,2) ere behera egin zuen okupazio mailak, neurri handiagoan edo txikiagoan (ehuneko -14,1 puntu, ehuneko -1,9 puntu eta ehuneko -16,8 puntu, hurrenez hurren).

Prezio-indizeari dagokionez (2008=100), uda garaian izandako turismoaren hazkundearekin batera, prezioak igo egin ziren eskaintzaren zati batean. Hala, kanpinek (153,9) eta landa-ostatuak (145,3) pandemiaren aurreko prezioak baino altuagoak izan zituzten. Apartamentu turistikoak (140,5) eta hotelek (109,6), berriz, baxuagoak.

159. koadroa Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa)

Eremua	2019	2020	2021	Δ 21/19
Okupazio maila plaza kopuruko				
-Hotelak	58,4	26,5	37,1	-21,3pp
-Landa-turismoa	18,7	13,4	16,8	-1,9pp
-Apartamentu turistikoak	37,1	16,9	23,0	-14,1pp
-Kanpinak (partzelaka)	39,7	32,0	37,6	-2,1pp
-Aterpetxeak	31,0	14,6	14,2	-16,8pp
Prezio-indizea				
-Hotelak	112,2	103,1	109,6	-2,6pp
-Landa-turismoa	142,1	141,1	145,3	3,2pp
-Apartamentu turistikoak	142,1	133,1	140,5	-1,6pp
-Kanpinak	150,4	140,2	153,9	3,5pp
-Aterpetxeak	Daturik ez	Daturik ez	Daturik ez	--

pp: ehuneko puntuak

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

Funtsean, badirudi txertaketaren aurrerapenak, pilatutako eskaria esnatzeak eta nazioarteko turismoaren suspertze progresiboak lagun lezaketela 2022an sektorearen suspertzea azkartzen. Dena den, ikusteko dago azken gertakari geopolitikoek eta inflazioak zer inpaktu izango duten turismoan. Faktore horiek berriro ere baldintza lezakete sektoreko jardueraren hazkundera.

4.3. TURISMOA NAFARROAN


2021eko balantzeak erakusten duenez, Nafarroako turismo-industriaren jarduerak suspertze partziala izan zuen. Hala, hotelen sareak bilakaera okerragoa izan zuen, eta emaitza hobekien eskuratu zituzten hotelak ez ziren establezimenduek; azken horiek 2019ko balioak berreskuratu edo gainditu ahal izan zituzten.

Nafarroako Foru Erkidegoa haren turismo-eskaintza aberats eta anitzak bereizten du. Batetik, kanpoko baliabide garrantzitsuak ditu, hala nola Bertizeko Parke Naturala, Iratiko basoa edota Zugarramurdiko kobazuloak. Eta, bestetik, ondare historiko eta kultural zabala du: Erriberriko Errege Jauregia, Leireko monasterioa edota Xabierko gaztelua nabarmentzen dira. Baliabide horiei turismo arloko erakargarri nagusia gehitu behar zaie: sanferminak. 2021ean ezin izan ziren ospatu, eta horrek inpaktua izan zuen sektoreko jardueran. Egoera horrek guztiz aldatu zituen sektorearen emaitzak, bigarren urtez jarraian. Izan ere, aintzat hartu behar da 9 jaiegun horien inpaktu ekonomikoa 100 eta 150 milioi euro artekoa izaten dela.

Eskari turistikoa

Hori esanda, sektoreko adierazle nagusiak aztertuko ditugu orain. Herrialdeen arteko bidaiaren mugimenduaren estatistikaren (Frontur) arabera, 2021ean atzerriko 123.614 bidaiari eta txangozale zenbatu ziren guztira. 2019ko datuekin alderatuta, agerian geratzen da jarduera asko jaitsi zela. Izan ere, 2019an baino ia 300.000 bisitari gutxiago zenbatu ziren (urte horretan sanferminak ospatu ziren). Bestetik, atzerriko segmentuaren gaualdiak 672.144ra jaitsi ziren, covidaren aurreko balioetatik (1.959.827) oso urrun oraindik ere. Ondorioz, kolektibo horrekin lotutako turismo-gastua 66,6 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino % 31,9 baxuagoa, eta 2019an baino % 74,5 baxuagoa. Hortaz, bistakoa da jarduera asko okertu zela.

32. grafikoa Bidaiarien eta gaualdien bilakaera, 2019-2021



2021eko behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Hoteletako okupazioaren galdetegia

Datuetan sakonduta, eta Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratutako informazioa¹ erreferentziatzen hartuta, 2021ean Nafarroako bidaiarien bolumena 1.148.545ekoa izan zen, 2019an erregistratutakoa baino % 22,4 baxuagoa. Gaualdiek bilakaera bera izan zuten (-% 16,6), eta 2021ean 2.733.353 izatera iritsi ziren. Bi adierazleek izandako jaitsiera handia ez zen islatu batez besteko egonaldian; bi egunetik gora kokatu zen hura (2,4), 2019ko erregistroak gaindituta (2,2).

¹ Behin-behineko datuak.

Informazioa establezimendu motaren arabera banakatuta, hotelen sareak jarraitu zuen jardueraren zatirik handiena bereganatzen: 702.157 bidaiari (gutzizkoaren % 61,1) eta 1.315.654 gaualdi (% 48,1). Dena den, bi adierazle horiek 2019ko erregistroak baino heren bat baxuagoak izan ziren. Bidaiarien bolumen handiena jaso zuen bigarren establezimendu mota kanpinak izan ziren; 164.514 turistarekin itxi zuten ekitaldia (2019arekin alderatuta, -% 2,3), eta 627.234 gaualdirekin; zifra horrek alde handiz gainditu zuen pandemiaren aurreko maila (+% 16,1). Aterpetxeetan, bestalde, hazkunde esponentziala izan zuten bidaiari kopuruak (124.315; +% 349,0) zein gaualdiek (165.264; +% 125,0). Eta kontrakoa gertatu zen landa-ostatuetan, behera egin baitzuten bidaiariek (109.277; -% 20,4) eta gaualdiek (436.214; -% 3,0). Azkenik, apartamentu turistikoetan ere murriztu egin ziren bidaiari kopurua (48.282; -% 37,5) eta gaualdiak (188.987; -% 11,6).

Batez besteko egonaldiari dagokionez, landa-ostatuetan (4,0 egun), apartamentu turistikoetan (3,9) eta kanpinetan (3,8) erregistratu ziren egonaldi luzeenak. Hoteletan (1,9) eta aterpetxeetan (1,3), berriz, ez zituzten bi egunak gainditu.

160. koadroa Eskari turistikoaren bilakaera Nafarroan

Kontzeptua	Bidaiariak			Gaualdiak			Batez besteko egonaldia		
	2020	2021	% Δ 21/19	2020	2021	% Δ 21/19	2020	2021	Δ 21/19
Hotelak	400.771	702.157	-34,3	737.173	1.315.654	-34,2	1,8	1,9	0,0pp
Landa-turismoa	63.168	109.277	-20,4	257.788	436.214	-3,0	4,1	4,0	0,7pp
Apartamentu turistikoak	36.308	48.282	-37,5	129.278	188.987	-11,6	3,6	3,9	1,1pp
Aterpetxeak	4.847	124.315	349,0	16.412	165.264	125,0	3,4	1,3	-1,3pp
Kanpinak	105.425	164.514	-2,3	395.855	627.234	16,1	3,8	3,8	0,6pp
Guztira	610.519	1.148.545	-22,4	1.536.506	2.733.353	-16,6	2,5	2,4	0,2pp

2021eko behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Testuinguru horretan, aipatu beharrekoa da Nafarroa turismo jasangarriko turismogune gisa bultzatzeko apustua egin zuela Nafarroako Gobernuak. Horrek, batez ere, kanpinei, aterpetxeei eta landa-ostatuei egin zien mesede. Baliabide turistiko nagusietan ere gora egin zuen bisitari kopuruak. 2021ean Erriberriko Jauregia (173.357 bisitari), Zugarramurdiko kobazuloak (132.700 bisitari) eta Urederraren iturburua (88.399 bisitari) kokatu ziren buruan.

Azterketarekin aurrera jarraituz, eta hotel-establezimenduen inguruko informazioa sakonago aztertuz, datuek adierazten dute establezimendu mota hauetako eskaria, berriro ere, Estatuko segmentuan oinarritu zela -10 bidaiaritik 8 Estatukoak ziren-. 2021ean laurden batera jaitsi zen Estatuko bidaiarien kopurua; atzerriko bidaiarien kopurua, berriz, erdira jaitsi zen.

161. koadroa Hotel-establezimenduak. Jasotako bidaiariak, gualdiak eta batez besteko egonaldia (Nafarroa 2021). Jatorriaren arabera

Eremua	Bidaiariak			Gualdiak			Batez besteko egonaldia	
	Kopurua	%	% Δ 21/19	Kopurua	%	% Δ 21/19	2021	% Δ 21/19
GUZTIRA	702.490	100,0	-34,3	1.316.547	100,0	-34,2	1,9	-0,1pp
Estatukoak guztira	577.406	82,2	-26,6	1.094.282	83,1	-29,2	1,9	-0,1pp
-Madril	96.955	16,8	-37,3	196.355	17,9	-38,1	2,0	0,0pp
-Katalunia	94.901	16,4	-24,1	172.198	15,7	-30,6	1,8	0,2pp
-EAE	80.049	13,9	-29,2	142.783	13,0	-27,3	1,8	0,0pp
-Nafarroa	100.127	17,3	16,4	165.642	15,1	10,8	1,7	-0,1pp
-Beste autonomia-erkidego batzuk	205.374	35,6	-33,4	417.304	38,1	-34,3	2,0	0,0pp
Atzerrikoak guztira	125.084	17,8	-55,7	222.265	16,9	-51,0	1,8	0,2pp
-EB (Espainia izan ezik)	97.441	77,9	-50,7	165.237	74,3	-45,9	1,7	0,2pp
-Europako gainerakoak	4.768	3,8	-60,3	9.053	4,1	-52,8	1,9	0,3pp
-Munduko gainerakoak	22.875	18,3	-68,5	47.975	21,6	-63,0	2,1	0,3pp

2021eko behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Gauzak hala, eta Estatuko segmentuarekin hasita, 2021ean hotel-establezimenduek 577.406 bidaiari jaso zituzten guztira (-% 26,6), eta horiek 1.094.282 gualdi egin zituzten (-% 29,2). Estatuko bidaiarien rankingaren buruan nafarrak eurak kokatu ziren (guztizkoaren % 17,3), Madrilgo (% 16,8), Kataluniako (% 16,4) eta EAeko (% 13,9) turisten aurretik. Dena den, aintzat hartutako Autonomia Erkidego guztietan jaitsi zen bidaiarien eta gualdien kopurua. Kasu guztietan, jaitsierak % 20tik gorakoak izan ziren, Nafarroako turisten kasuan izan ezik. Nafarroako bidaiariek bi digituko igoerak izan zituzten (+% 16,4 eta +% 10,8). Argi eta garbi, sektoreko jarduera turismo nazionalean oinarritu zen 2021ean. Hala, azken bi urte hauetan aldatu egin da ohiko dinamika, lehen hazkunde handiagoa izaten baitzuen atzerriko segmentuak.


Hortaz, aurrekoaren ildotik, atzerriko segmentuak hazkunde apala izan zuen, 2021eko ekitaldiaren zati batean indarrean egon zirelako bidaiatzeko mugak. Logikoa den moduan, horrek oztopatu egin zuen nazioarteko jarduerak gora egitea (etorrerak eta gualdiak, -% 55,7 eta -% 51,0). EBko bidaiariek osatu zuten nazioarteko jardueraren zatirik handiena (etorreren % 77,9 eta gualdien % 74,3).

Hala ere, EBko bidaiariak jaitsiera handiak izan zituzten bi adierazleetan (-% 50,7 eta -% 45,9, hurrenez hurren). Europako eta munduko gainerako lekuetako bidaiariak ere joera bera izan zuten; horiek ekarpen bateratua % 25 ingurukoa izan zen. Horren guztiaren ondorioz, Foru Erkidegoko hotelen sareko batez besteko egonaldiak bi egunetik beherakoa izaten jarraitu zuen (1,9 egun). Eta atzerriko segmentuaren kasuan (1,8 egun) apur bat baxuagoa izan zen, Estatuko segmentuan baino (1,9).

Gainera, eta aurrez esan dugun moduan, 2021ean sendotu egin ziren kontsumitzaileen portaeran izandako aldaketak (gertuko turismoguneak lehenestea, merkatutik kanpoko turismoa, landa-turismoa, etab.). Ondorioz, turismo-enpresek eta turismoguneek berriro ere egokitu behar izan zuten haien negozio-eredura, ohitura ezberdinak zituen eskariari arreta emateko. Batez ere, osasun-krisiaren bilakaerak baldintzatu zuen ohitura horiek aldatu izana (azken orduko erreserbak eta ezeztapenak).

Eskari turistikoaren azterketan sakonduz, eta hileko bilakaerari dagokionez, 2021a ezohikoa izan zen oraindik ere. Hala, sasoiaren arabera profila berreskuratu zuen Nafarroak, aurreko ekitaldian bezala, eta uztaila-abuztuan eskuratu zituen balio altuenak; baxuenak, aldiz, urtarrila-otsailean.

33. grafikoa Bidaiari kopuruaren eta gaualdien bilakaera, hilabeteka (Nafarroa, 2019-2021)



2021eko behin-behineko datuak.
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Hala, uda garaian (uztaila-iraila) 553.986 bidaiari zenbatu ziren guztira, eta 1.393.659 gaualdi, 2019an baino % 1,2 eta % 4,7 gehiago. Dena den, ekitaldiko gainerako emaitzek ez zuten joera hori izan. Izan ere, pandemiari eusteko hartutako neurri murriztaileek lausotu egin zituzten urtearen hasiera eta amaiera.

Eskaintza turistikoa

Azterketa Nafarroako eskaintza turistikoaren adierazle nagusien bilakaeran zentratuta, eskariak izandako gorabeherak eskaintzan ere islatu ziren, aurreikus zitekeen moduan. Hala, hauek osatu zuten eskaintza 2021ean: 85 hotel-establezimendu (2019an, 100), 148 ostatu eta pentsio (2019an, 173), landa-turismoko 749 ostatu (2019an, 804), 52 aterpetxe (2019an, 10), 18 kanpin (2019an, 19) eta 510 apartamentu turistiko (2019an, 454).

162. koadroa Eskaintza turistikoa Establezimendu kopurua, plazak, okupazio maila eta langile kopurua. 2019-2021

Kontzeptua	2019	2020	2021	% Δ 21/19
Hotelak				
Irekitako establezimendu kopurua	100	68	85	-15,0
Plaza kopurua	8.198	5.626	7.123	-13,1
Okupazio maila (plazen %)	52	23	37	-28,8
Langileak	1.237	685	900	-27,2
Ostatuak eta pentsioak				
Irekitako establezimendu kopurua	173	114	148	-14,2
Plaza kopurua	3.684	2.404	3.231	-12,3
Okupazio maila (plazen %)	28	15	23	-17,9
Langileak	236	149	179	-24,1
Landa-turismoa				
Irekitako establezimendu kopurua	804	568	749	-6,9
Plaza kopurua	6.157	4.415	5.866	-4,7
Okupazio maila (plazen %)	19	13	19	0,0
Langileak	979	745	933	-4,7
Aterpetxeak				
Irekitako establezimendu kopurua	10	6	52	420,0
Plaza kopurua	769	377	2.564	233,6
Okupazio maila (plazen %)	25	11	17	-32,0
Langileak	68	40	90	32,4
Kanpinak				
Irekitako establezimendu kopurua	19	14	18	-5,3
Plaza kopurua	11.140	8.670	10.269	-7,8
Okupazio maila (plazen %)	12	10	13	10,0
Langileak	137	111	127	8,3
Apartamentu turistikoak				
Irekitako establezimendu kopurua	454	395	510	12,4
Plaza kopurua	2.114	1.571	1.857	-12,1
Okupazio maila (plazen %)	27	20	27	0,5
Langileak	426	294	375	-12,0

Oharra: Urteko batez besteko datuak.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua. Hoteletako okupazioaren galdetegia (EIN) 2021eko behin-behineko datuak.

Datuetan sakonduta, eta hotel-sarearekin hasita, ekitaldian 85 establezimendu zeuden irekita (2019an baino 15 gutxiago); horiek 7.123 plaza eskaintzen zituzten egunean (-% 13,1) eta 900 langile zituzten (-% 27,2).

Ordezkaritza handieneko bigarren kategoria landa-ostatuena izan zen, 749 establezimendurekin (-55), eguneko 5.866 plazako eskaintzarekin (-% 4,7) eta 933 langilarekin (-% 4,7). Ostatuak eta pentsioak (148, -25) eta aterpetxeak (52, +42) 3.231 (-% 12,3) eta 2.564 (% 233,6) plaza eskaini zituzten, eta 179 (-% 24,1) eta 90 (+% 32,4) lanpostu sortu zituzten. Apartamentu turistikoak osatu zuten eskaintza turistikoa, 510 establezimendurekin (+56), eguneko 1.857 plazarekin (-% 12,1) eta 375 langilarekin (-% 12,0).

Hortaz, pandemiaren eragina argi eta garbi islatu zen aipatutako adierazleetan. Adierazle horiez gain, okupazio maila ere kontuan hartu behar da: hotel-establezimenduen kasuan % 37koa izan zen, apartamentu turistikoetan % 27koa eta ostatu eta pentsioetan % 23koa. Kontuan hartutako gainerako establezimenduetan, berriz, are baxuagoa izan zen: % 13koa kanpinetan eta % 19koa landa-turismoko sarean.

Azkenik, establezimendu kopuruaren, plazen, lanpostuen eta okupazio mailaren inguruko informazioa osatzeko, hotelen sektorearen errentagarritasunarekin lotutako beste bi adierazle aztertuko ditugu: eguneko batez besteko tarifa, eta logela bakoitzeko diru-sarrerak.

2021ean Nafarroako ostatu turistikoetan eskuragarri zegoen logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa 52,68 euro (urtarrilean) eta 73,08 euro (abuztuan) artekoa izan zen. Urteko lehen erdiko jarduera oso baxua izan zen eta horrek nabarmen eragin zien prezioei, beheranzko joera argia hartu baitzuten. Joera hori udako garaia iristean eten zen, eta 2019ko balioak gainditu ziren. Eskuragarri zegoen logela bakoitzeko diru-sarrerei dagokienez, dinamika antzekoa izan zen. Lehenengo seihilekoan behera egin zuen fakturazioak, eta martxoan (-% 52,7) eta apirilean (-% 56,9) eskuratu ziren emaitza okerrenak. Emaitza onenak, aldiz, abuztuan eta urrian izan ziren; hilabete horietan bakarrik eskuratu ziren 2019an baino balio altuagoak (+% 10,9 eta +% 8,0).

163. koadroa Eguneko batez besteko tarifa (ADR) eta Logelako diru-sarrerak (RevPAR). Hotelen sektorea Euroak

Kontzeptua	Eguneko batez besteko tarifa (ADR)			Logelako diru-sarrerak (RevPAR)		
	2020	2021	% Δ 21/19	2020	2021	% Δ 21/19
Urtarrila	60,63	52,68	-10,6	22,01	11,87	-42,2
Otsaila	60,07	52,88	-12,6	25,61	14,80	-37,6
Martxoa	59,60	56,33	-9,5	16,07	14,74	-52,7
Apirila	0,00	57,06	-14,5	0,00	15,30	-56,9
Maiatza	--	58,90	-10,9	--	20,46	-46,3
Ekaina	--	59,30	-8,0	--	23,54	-37,8
Uztaila	64,09	66,95	-26,5	33,07	33,07	-36,8
Abuztua	69,00	73,08	5,8	30,48	53,15	10,9
Iraila	62,96	66,66	2,2	20,21	39,26	-4,9
Urria	56,75	68,94	3,5	15,11	40,89	8,0
Azaroa	53,41	63,26	-1,7	12,18	28,23	-12,2
Abendua	58,82	62,01	-5,1	11,81	20,59	-17,9

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Hoteletako okupazioaren galdetegia (EIN) 2021eko behin-behineko datuak.

Azkenik, Nafarroan lehen aldiz "Turismoguneen jasangarritasun turistikorako lurralde plana" jarri zuten martxan. 21.970.000 euro bideratuko dira plan horretara, 2024aren amaierara arte exekutatzeko. Foru Erkidegoak 61 milioi euro bideratuko ditu turismoa bultzatzera, Europako Next Generation funtsen bidez, eta aipatutako inbertsioa horren baitan kokatzen da.